

Rudyard Kipling

Kim

euskaratzailea: Koro Navarro

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Koro Navarro.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1990

Jatorrizkoaren data: 1901

Rudyard Kipling euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=88>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1676>

RUDYARD KIPLING

Rudyard Joseph Kipling Bombay hirian jaio zen, 1865ean. Aita, John Lockwood Kipling, Lahoreko Museoaren azkeneko arduradun britainiarra izan zuen. Bost urte bete arte bizi izan zen Indian; adin horretan Londresera bidali zuten, ikasketak egitera, 17 urte bete arte. Urte horietan bakarrik eta triste bizi izan zen bere guraso ordekoekin. Garai horretako esperientziak jasotzen ditu *Stalky and Co.* nobelan (1899). 1882tik 1889ra bitartean kazetari lanean aritu zen Indian. Urte batzuk Estatu Batuetan igaro eta azkenik Sussex-en hartu zuen bizilekua 1902an.

Kiplingen ospea bere narrazio laburretatik eta bertsoetatik datorkio batez ere. Indiako britainiarren bizitza dute gai nagusia, eta horrekin batera oihaneko bizitza, militarrena, itsasoa. Mila xehetasun jasotzen ditu eguneroko bizitzatik, goibeltasunezko jarrera estoikoa du existentziaren aurrean; bere idatzietako hizkuntzari dagokionez, ekonomia ongi neurtua du ezaugarria.

A Departmental Ditties and Other Verses (Departamenduko kantinelak eta beste bertso batzuk, 1886) ondoren bere narrazio bikainenetako batzuk argitaratuko zituen: *Plain Tales from the Hills* (Muinoetako ipuinak, 1888). Kontakari labor sail baten ondoren, 1890ean *The Light That Failed* (Argiak huts egin) nobela argitaratu zuen. 1901ean *Kim* nobela hau argitaratu zuen.

Bere poema liburuen artean aipatzekoak dira *Barrack-Room Ballads* (Koarteleko baladak, 1892), *The Seven Seas* (Zazpi itsasoak, 1896) eta *Recessional* (1897). Narraziogintzan, aipatuez gainera *Just so Stories* (Horrelaxe alegia, 1902), *Puck of Pock's Hill* (Pock mendiko iratxoa, 1906), *Rewards and Fairies* (Hadak eta sariak, 1910), *Land and Sea Tales for Scouts and Guides* (Lur eta itsasoko ipuinak scout eta gidarientzat, 1923), *Debits and Credits* (Kargak eta kredituak, 1926), *Limits and Renewals* (Mugak eta berrikuntzak, 1932) aipatu beharko lirake. Bera hil ondoren, hala ere, *Something of Myself for My Friends* (Nire zerbait nire lagunentzat, 1937) argitaratu zen.

1907an Literaturako Nobel Saria irabazi zuen. Kipling-en narrazioek arrakasta eta ospe handia izan zuten irakurleen artean. Gaur egun, ordea, bere narrazio laburrengatik eta olerkien-gatik baino ezagunagoa da haur literaturaren artean argitaratzen diren bere obra handiengatik: *The Jungle Book* (Oihaneko Liburua), marrazki bizidunetan zinera eramana, eta *Kim*.

KIM

1. ATALA

*Zuek, Bide Estutik zoazten horiek,
Infernuko suaren ondotik
Azken Epaiaren eguna arte,
izan ulerkor sinesgabeek otoi egiten diotenean
Budari Kamamuran!*

Buda Kamamuran.

Udal aginduei jaramonik egin gabe, zangalatraba eseririk zegoen mutila Zam-Zammah kanoian, adreiluzko plataforma gainean Ajaib-Gher zaharraren parean, Etxe Miragarria alegia, horrela deitzen baitiote bertakoek Lahoreko museoari. Zam-Zammah, sua darion herensugearen nagusi dena, Punjaben nagusi da; izan ere, brontze orlegizko irudi handia izan ohi da lehena konkistatzailearen harrapakinetan.

Bazuen Kimek arrazoirik —ostikoka bidali berria zuen hankondoetatik Lala Dinanathen mutila—, ingelesak baitziren Punjabeko nagusi, eta ingelesa zen Kim. Nahiz eta bertakoak bezain belztua egon, nahiz eta bertako hizkera nahiago izan, eta bere ama-hizkuntzaz totalka

eta erdi kantari egin; nahiz eta bazarreko muti-koak bezalakoxea izan, zuria zen Kim: behartsuenen arteko behartsu zuria. Zaintzen zuen odol nahasiko emakumeak (opioa erretzen zuen eta bigarren eskuko haltzari denda baten arduraduna omen zen, taxi merkeak zain egon ohi diren plazan) Kimen amaren ahizpa zela esan zien misiolariei; baina Kimen ama haur-zaina izana zen koronel baten familian eta Kimball O'Hararekin ezkondu zen, Maverick irlandar errejimenduko sarjentu gaztea. Soldaduak lana topatu zuen gero Sind, Punjab eta Delhiko burdinbidean, eta hura gabe itzuli zen errejimendua Ingalaterrara. Emaztea koleraz hil zen Ferozeporen; edateari ekin zion O'Harak, eta hiru urtetako haur begiratu zorrotzarekin batera eta bestera alferkerian ibiltzen hasi zen. Erruki-talde eta kaperauak saiatu ziren, larrituta, umea eskurtzen, baina O'Harak ihes egiten zien, opioa hartzen zuen emakumearekin topo egin zuen arte; opioaren gustua ikasi zion hari eta zuriak Indian hiltzen diren bezala hil zen O'Hara. Hiru paperek osatzen zuten haren ondarea: bati «ne varietur» deitzen zion, hitz horiexek baitzeuden idatzita

bere sinaduraren azpian, eta besteari bere «askatasun agiria». Hirugarrena Kimen jaiotze-ziurtagiria zen. Gauza haiek, esan ohi zuen opioa hartutako zorioneko orduetan, gizon bihurtuko zuten Kimball txikia. Inola ere ezingo zituen Kimek paper haiek galdu, magia handiari baitzegozkion, han urruti, museoaren atzealdean egiten zuten magia hari, Jadu-Gher zuri-urdin handian, Etxe Magikoan, horrelaxe deitzen diogu eta logia masonikoari. Egunen batean ondo irtengo zuen denak, hala zioen O'Harak, eta edertasun eta indarrezko zutabe artean miretsiko zuten Kim, zutabe ikaragarrietan. Koronelak berak, zaldi baten gainean, eta munduko errejimendurik onenaren buruan, zerbitzatuko lioke Kimi, Kim txikiari, aitak baino egoera hobea izango baitzuen semeak. Lehen mailako bederatziehun deabruk, zeinen Jainkoa zezen gorri bat zelai berde batean baitzen, zerbitzatuko zioten Kimi, O'Hara ahaztu ez bazuten, O'Hara gizarajoa, Ferozeporeko guda-tokian pelotoi gidaria izan zena. Eta negar egiten zuen, minduta, atariko zumezko aulki apurtuan. Hala bada, koronela hil zenean pergaminaoa, papera eta jaiotze-ziurtagi-

ria larruzko kutun-poltsabatean josi zituen emakumeak, eta lepotik eskegi zio Kimi.

— Eta egunen batean —esan zion, O’Hararen iragarpenak nola-hala gogoratzuz—, zezen gorri handi bat, zelai berde batean, etorriko zaizu bila, eta koronela bere zaldi handiaren gainean, bai, eta —ingelesera joaz—, bederatziehun deabru.

— Bai —esan zion Kimek—, gogoan izango dut. Zezen gorri bat eta koronel bat zaldi gainean etorriko dira, baina lehenbizi, aitak hala esan zuen, bi gizon azalduko dira guzti horretarako bidea prestatzera. Hala esaten zuen aitak egiten zutela beti; eta hala da beti magia egiten denean.

Emakumeak paper haiekin bidali izan balu Kim bertako Jardu-Gherrerara, herrialdeko logiak hartuko zukeen haurra eta masoien mendiko umezurztegira bidali; baina magia entzundakoa susmo txarra harrarazi zion emakumeari. Kimek berak ere bere iritziak zeuzkan. Urteak bete ahala, nor zen eta zer egiten zuen galdeztzen zioten misiolari eta itxura serioko gizon zuriei ihes egiten ikasi zuen. Izan ere, Kimek ez zuen ezer egiten, eta sekulako arrakastaz gaine-

ra. Egia da Lahoreko hiri harresidun zoragarria Delhiko Atetik kanpoko Gazteluaren Erreteneraino ezagutzen zuela, Harun al Raschidek inoiz amestutako baino bizimodu bitxiagoa egiten zutenen lagun mina zela, eta Arabiar Gauetakoa bezain bizimodu askea bizitzen zuela; baina misiolari eta erruki-taldeetako idazkariak ez zuten guzti horren edertasuna ikusten. Auzoetan «Mundu osoaren Adiskide Txikia» zuen ezizena; eta sarritan, hain arina eta ezgauza izanik, mandatuak egiten zituen gauetz etxeetako terraza jendez beteetan modako gazte dotore eta ile distiradunentzat. Harreman debekatuak ziren haiek, jakina —ondo asko zekien hori Kimek, hitz egiteko gauza zenetik ezagutzen baitzuen gaiztakeria oro—, baina berak jolasa bera maite zuen, pasabide eta bidexka ilunetan barrena usman ibili, ur-hodi batetik igo, emakumeen munduko hasperen eta hotsak azoteetan, eta teilaturik teilatu ihes egin ilun beroaren babesean. Santoiak zeuden gero, errautsez estaliriko fakirrak beren adreiluzko aldareen ondoan, ibai ertzeko zuhaitzen azpian; haiek nahikoa ondo ezagutzen zituen Kimek: agurtu egiten zituen

eskean ibiltzetik itzultzen zirenean, eta, inor ageri ez zenean inguruan, plater beretik jaten zuten. Zaintzen zuen emakumeak begiak malkoetan zituela erregutzen zion Kimi jantzi zezala europar arropa: prakak, alkandora eta sonbreiru zaharren bat. Kim ordea errazago sartzen zen jantzi hindu edo mahomatarretan zenbait bete-beharretarako. Gizon dotore haietako batek — lurrikararen gauean putzu batean hilda aurkitu zuten harexek— jantzi hindu oso bat eman zion behin, behe kastako kaleko mutil baten arropa, eta Kimek ezkutuko leku batean gorde zuen Nila Ramen zerrategiko habeen azpian, Punjabeko Epaitegi Gorenaren atzean, izainen enbor usaintsuak Ravi ibaian behera joan ondoren lehortzen zirauten lekuan. Eginbeharren bat zuenean, edo dibertitzeko aukera, bere jabego hura erabiltzen zuen Kimek, eta goiza argitzen ari zenean itzultzen zen atarira, eztei-segizio baten atzetik garrasika ibili ondoren edo festa hindu batean oihuka aritzeaz neka-neka eginda. Batzuetan bazen jatekorik etxean, baina gehienetan ez zegoen ezer, eta orduan Kim kalera joaten zen berriro bere indiar adiskideekin zer bait jatera.

Zam-Zammahen oin-hotsak ateratzen zituen artean, gazteluko errege izatera jolasten ari zela Chota Lal txikia eta Abdullah gozo saltzailearen semearekin, jolasari uzten zion noizean behin Kimek eta lotsagabekeriaren bat esaten zion museoko atean oinetako ilaren ondoan zaindari zegoen polizia indiarrari. Punjabiar handiak, eraman oneko, irribarre egiten zuen: aspalditik zuen Kim ezagun. Halaxe egiten zuen ur eramaileak ere, aker larruzko zagitik kale lehorrera ura botatzen zuela. Halaxe egiten zuen Jawahir Singhek, museoko arotzak, enbalai kaxa berrien gainean makurturik. Halaxe egiten zuten hango guztiek, menditik zetozen nekazariak izan ezik, presaka joaten baitziren haiek Etxe Miragarrira, beren lurraldean eta beste edonon egiten zituzten gauzak ikustera. Museoa indiar arte eta eskulanena zen, eta jakituriaren bila zihoan edonork bertako gordetzaileari eska ziezaiokeen azalpenik.

— Alde! Alde! Utzi igotzen! —egin zuen oihu Abdullahek, Zam-Zammahen gurpilera igoaz.

— Aita gozogilea huen, amak gurina lapurtu! —abestu zuen Kimek— Aspaldi erori hituen mahomatar guztiak Zam-Zammahetik!

— Utzi igotzen! —egin zuen oihu Chota Lal txikiak, urrez brodaturiko txanoarekin. Haren aitak izango zituen milioi erdi libra edo, baina India da munduko lurralde demokratiko bakarra.

— Indiarrek ere erori hituen Zam-Zammahetik. Mahomatarrek bultzatu zituzten. Aita gozogi-lea huen...

Isildu egin zen; izan ere, Motiko bazar zala-partatsutik zetorrela, kale izkinako bueltan, Kimek, nahiz eta kasta guztiak ezagutu, sekula ikusi ez zuen gizon klasea agertu zen. Sei oin luze bazituen ia, eta zaldi-estalkitarako erabili ohi den oihal artean bilduta zetorren, tolesduraz beteta, eta tolesdura haietako bat bera ere ezin zuen Kimek berak ezagutzen zuen lanbideekin lotu. Burdinazko luma-kaxa luze bat zeraman gerritik zintzilik, eta egurrezko arrosarioa, santoiak eraman ohi dituztenak bezalakoa. Buruan eskoziar txanoaren antzeko bat zeraman, ikaragarria. Aurpegia horia zuen eta zimurra, Fuk Shing bazarreko zapatari txinatarrarena bezalakoa. Begiak jasoak zituen ertzetan, onix xafla fin-finak ziruditela.

— Nor da hori? —galdetu zien Kimek lagunei.

— Gizona izan liteke —esan zuen Abdullahek, behatza ahoan, begira-begira.

— Dudarik gabe —erantzun zuen Kimek—; baina ez da hori *nik* inoiz ikusitako Indiako gizonik.

— Apaiza, beharbada —esan zuen Chota Lalek, arrosarioari erreparatuz—. Hara! Etxe Miragarria doa!

— Ez, ez —esan zuen poliziak, buruari eraginez—. Ez dut zure hizkera ulertzen —punjabiarrez mintzatzen zen zaindaria—. Aizu, Mundu osoaren Adiskide, zer esaten du honek?

— Hona bidali —esan zuen Kimek, Zam-Zam-mahetik jaitsiz, oin hutsak ondo agerian jarriz—. Atzerritarra duk hori, eta hi berriz bufaloa haiz.

Ezezagunak atzera egin zuen etsita eta umeengana hurbildu zen. Zaharra zen; artilezko estalkiari mendiko pasabideetako belarmin usaintsuaren kiratsa zerion oraindik.

— Umeok, zer da etxe handi hori? —galdetu zien, nahikoa urduera txukunean mintzatuz.

— Ajaib-Gher da hori, Etxe Miragarria! — Kimek ez zion Lala edo Mian bezalako titulurik eman. Ezin zuen gizon haren erlijioa asmatu.

— A! Etxe Miragarria: Libre al da sarrera?

— Ate ganean daukazu idatzita: denak sar litezke.

— Ordaindu gabe?

— Sartu eta atera ibiltzen naiz ni. Eta ez naiz bankaria —barre egin zuen Kimek.

— Horra bada! Zaharra naiz. Ez nekien.

Srrosarioari helduz, museo aldera abiatzen hasi zen.

— Zein kastatakoa zara? Non duzu etxea? Urrutitik etorri al zara? —galdetu zion Kimek.

— Kulutik nator, Kaila mendiak baina atzera-gotik. Baina... zer dakizue zuek? Haizea eta ura mehe eta hotz diren mendietatik —hasperen egi-nez bukatu zuen.

— A! *Khitaia* da (txinatarra) —esan zuen harro Abdullahek. Fuk Shingek bere dendatik bidali zuen behin oinetakoen gaineko idoloari txistua botatzeagatik.

— *Paharia* da (menditarra) —esan zuen Chota Lal txikiak.

— Arrazoi duzu, ume... Inoiz ikusiko ez dituzun mendietatik etorritako menditarra nauzue. Izan al duzue inoiz Bhotiyaren (Tibeten) berri? Ez

naiz *khitaia*, *bhotiya* baizik (tibetarra); jakin beharra duzueenez gero, lama naiz, edo, zuen hizkuntzan, guria.

— Tibeteko guria —esan zuen Kimek—. Ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Ba al da bada hindurik Tibetanen?

— Erdiko Bidearen jarraitzaile gara, eta bakean bizi gara gure monasterioetan. Lau Leku Sakratuak ikustera noa hil baino lehen. Eta orain zuek, ume zareten horiek, zaharra den honek bezainbeste dakizue —bihotz onez egin zien haurrei irribarre.

— Jan al duzu?

Kolkoan bila hasi eta egurrezko eske-ontzi bat atera zuen, oso zahartua. Haurrek buruari eragin zioten. Ezagutzen zituzten apaiz guztiak eskean ibili ohi ziren.

— Oraindik ez dut jan nahi —burua jiratu zuen eguzkitan dagoen dortoka zahar batek bezala—. Egia al da irudi asko dagoela Lahoreko Etxe Miragarrian? —azken hitzak birritan esan zituen, helbide bat ziurtatu nahi duen batek bezala.

— Egia da, bai —esan zuen Abdullahek—. *Bût* sinesgabeek josita dago. Zeu ere idolo-gurtzailea zara.

— *Horri* ez jaramonik egin —esan zuen Kimek—. Gobernuaren etxea da eta ez dago idolo-gurtzailerik hor; bizar zuriko sahib bat besterik ez dago. Zatoz nirekin eta erakutsiko dizut.

— Apaiz ezezagunek haurrak jaten dituzte — xuxurlatu zuen Chota Lalek.

— Eta hori ezezaguna eta *bût parast*-a (idolo-gurtzailea) da —esan zuen Abdullah mahomatarrak.

Kim barrez hasi zen.

— Etorri berria da. Ospa amaren magalera, han ez duk eta arriskurik izango! Tira!

Kimek tornu-atea jirarazi zuen; agurea atzetik joan zitzaion baina seko gelditu zen, guztiz txundituta. Barneko atarian greziar-budista eskultura handiak ageri ziren, misterioski heldutako greziar ukitua, eta ez trebetasunik gabe, eskuetan sentitzen zuten ahazturiko langileek eginak; noiz, adituek jakin bide dute. Ehunka pieza zeuden han: frisu erliebedunak, estatua pusketak eta Iparraldeko *stupa* eta *vihara* budis-

ten adreiluzko hormak hornitu zituzten harlosa irudiz josiak, eta orain, jaso eta sailkatuta, museoaren harrotasun zirenak. Zoramenez, aho zabalik, hara eta hona zebilen lama, eta azke-nean miresmenak hartuta Budaren apoteosia edo koronazioa irudikatzen zuen goierliebe baten aurrean gelditu zen. Lotus baten gainean eserita ageri zen Maisua; lotusaren hostoak hain zeuden sakon irudikatuak, non harritik aske zeudela baitzirudien. Inguruan, jauresten, errege, gizon zahar eta antzinako budak zeuzkan Maisuak. Azpian lotusez estaliriko ura zegoen, arrain eta uretako hegaztiekin. Bi dewa-ek, tximeleten hegoekin eta Budaren gainean, lorezko koroa bati eusten zioten; gorago beste bik eguzkitako bati heltzen zioten, gainean Bodishaten buruko hornidura bitxiz betea zegoelarik.

— Jainkoa! Jainkoa! Sakya Muni bera da — zioen lamak, negarrez ia; eta ahots apalez otoi budista zoragarria errezitatzen hasi zen:

*«Bidea, Legea, aparta den Harentzat
Mayak bere bularrean estutu zuenaren-
tzat,*

Eta hemen da! Eta hemen da halaber Goreneko Legea. Ondo hasi da erromesaldia. Eta nolako lana! Nolako lana!

— Hortxe duzu sahiba —esan zion Kimek, eta alde egin zuen zeharka esku eta artelan sailean barrena.

Bizar zuriko gizon ingeles bat zegoen lamari begira; jiratu eta kortesiaz agurtu zuen lamak. Bila ibili ondoren, libreta eta paper pusкета bat atera zituen arropa artetik.

— Horixe dut izena, bai —esan zuen hauridazkera traketsari irribarrez begiratzuz.

— Leku Sakratuetara erromes joan zen gutako batek (Lung-Cho monasterioko abade da orain) eman zidan —esan zion lamak hitz totelka—. Honetaz mintzatu zitzaidan —esku hezurtsuaz ingurua seinalatu zuen.

— Ongi etorria, Tibeteko lama hori. Hementxe dituzu irudiak, eta hementxe nauzu ni ere —aurpegira begiratu zion lamari—, jakituria bildu asmoz. Zatoz nire bulegora.

Agurea larriduraz dardarka zegoen.

Bulegoa gela txiki bat besterik ez zen, eskultura lerroen galeriaren ondoan. Kim lurrean etzan zen, beroak pitzaturiko izai zurezko atearren zulo batean jarrita belarria, eta, bere senari jarraiki, ahalik eta erosoan ezarri zen barrukoa entzun eta ikusteko.

Hizketagai gehienak ordea Kimen gainetikoak ziren. Lama, totelka hasieran, bere monasterioaz mintzatu zitzaion gordetzaileari; Such-Zen zuen izena eta Arroka Margotuen parean omen zegoen, lau hilabeteetako bidea egin ondoren. Gordetzaileak argazki liburu handi bat ekarri eta leku huraxe erakutsi zion, amildegia-
ren gailurrean, kolore anitzetako estratuekiko bailara izugarri baten gain-gainean.

— Bai, bada! —lamak Txinan egindako betaurrekoak jarri zituen, adarrezko egiturakoak—, hementxe dago negua baino lehen janaria sartzeko erabiltzen dugun atetxoa. Eta zuek, ingelesek, ba al duzue gauza hauen berri? Orain Lung-Choko abade denak hala esan zidan, baina ez nion sinetsi. Eta Jainkoa... Goienekoa... onesten al dute hemen ere? Ezagutzen al dute bere bizi-tza?

— Harrietan ezarrita dago dena. Zatoz eta ikusiko duzu, nahikoa atsedean izan baduzu.

Herrenka atera zen lama; atari nagusira abiatu, eta, gordetzailea aldamenean zuela, elizkoia-
ren erreberentziaz eta artisauaren sen ulerko-
rraz aztertu zuen sail guztia.

Gertakariz gertakari errekonozitu zuen istorio ederra harri zaharkituetan, ezohiko zitzaion ukitu grekoarekin harriturik batzuetan, baina haur bat bezain pozik aurkikuntza berriak egite-
rakoan. Istorioaren segida puskatzen zenean, Iragarpenean esate baterako, gordetzaileak bes-
teen artetik aukeraturiko frantziar eta alemaniar liburuak eskaintzen zizkion, argazki eta errepro-
dukzioekin.

Hantxe ageri zen Asita elizkoia, kristau isto-
rioan Simeonen parekoa, Haur Saindua belaune-
tan zuela aita-amak entzuten zioten artean; eta hantxe ziren Devadatta lehengusuaren leienda-
ko gertakariak. Hantxe ageri zen Maisua haragi-
keriaz salatu zuen emakume gaiztoa, madarika-
tua izan bedi; Oreinen Parkeko irakasbideak; su-
gurtzaileak txunditu zituen miraria; hantxe zen printze gisa hornituriko Bodhisat; jaiotza mires-

garria; heriotza, Kusinagan, non jarraile ahulak kordea galdu baitzuen; ia zenbaezinak ziren Bodhi zuhaizpean egindako meditazioaren erre-pikapenak; eske-sarien ontziaren jaurespena nonahi ageri zen. Segituan konturatu zen gordetzailea bere gonbidatua ez zela eskale arrosario-dun hutsa, gizon aditua baizik. Eta berriz ikusi zuten dena, rapea hartuz lama, betaurrekoak garbitzen, eta urduera eta tibetar nahasmendu harrigarrian bizkor-bizkor hizketan. Bazuen txinatar erromesen bidaien berri, Fu-Hioun eta Hwen-Tsiang, eta haien kontakizunaren itzulpenik ba ote zegoen jakiteko irrikitzen zegoen. Arnasari eutsi zion Beal eta Stanilas Juliennen orriak etsimenez pasatzen zituen artean.

— Hemen dago dena. Giltzapeturiko altxorra.

Lasaituta, urduerara presaka itzultako zatiak entzutera jarri zen begirunez. Lehenengo aldiz entzun zuen europar adituen lanen berri, dokumentu haiekin eta beste ehunen laguntzaz budismoaren ehun Leku Sakratuak aurkitu zituztenak. Eta mapa bat erakutsi zion gordetzaileak, oso handia, puntu eta marra horiz beteta. Behatz marroiak gordetzailearen arkatza jarraitu zuen

puntuz puntu. Hantxe ageri zen Kapilavastu, hantxe Erdiko Erreinua, eta han Mahabodhi, budismoaren meka; han zegoen Kusinagara, Jakintsuaren heriotzaren leku tristea. Burua orrien gainean makurtuta egon zen agurea puska batean, eta gordetzaileak beste pipa bat piztu zuen. Loak hartu zuen Kim. Esnatu zenean, hizketa, hitz zaparrada oraindik ere, ulerkorragoa egiten zitzaion.

— Eta hala bada, Jakituria Iturri zaren hori, Haren oinak zapaldu zituzten Leku Sakratuetara joatea erabaki nuen; haren Jaiolekura, baita Kapilara ere; gero Mahabdhira, budismoaren mekara alegia, Monastegira, eta Oreinen parke-
ra, Haren Heriotza-lekura.

Lamak ahotsa jaitsi zuen.

— Eta hona bakarrik etorri naiz. Bost, zazpi, hemezortzi, berrogei urtez izan dut buruan Lege Zaharra ez zela behar bezala betetzen; ilundu egiten zutela, ondo dakizun bezala, deabrukeriak, aztikeriak, eta idolatriak. Oraintxe bertan kaleko ume batek berak ere halaxe esan du. Bai, umeak esan duen bezala, *but parasti*-ekin.

— Halaxe gertatzen da erlijio guztietan.

— Hala uste duzu? Monasterioko liburuak irakurri ditut, eta agortuta zeudela iruditu zait; eta guk, Lege Berritukoek, gainean hartu dugun azken erritualak... horrek ere ez du baliorik agure honen begietan. Aparta den Haren jarraitzaile direnak ere borrokan dabilta beren artean. Lilura da dena. Bai, *maya*, lilura. Baina beste desio bat daukat —aurpegi zimurtu horia gordetzailearenari hurbildu zitzaion, eta behatz erakuslearen azkazal luzeak mahaia jo zuen—. Zuen adituek, liburu guzti horiekin, bere joan-etorri guztietan jarraitu zieten Oin Bedeinkatuei; baina badira aurkitu ez dituzten gauzak. Ez dakit ezer, ezer ez dakit, baina nik neure burua askatu behar dut Gauzen Gurpiletik, mugarik gabeko bide zabal baten bitartez —irribarre egin zuen, arrakasta sotila adieraziz—. Leku Sakratuetara noan erromes naizenez gero, merituak irabazten ari naiz. Baina bada besterik. Entzun ezazu egiazko gauza bat. Gure Jaun ona, artean gaztea zelarik, lagun bila hasi zenean, gizonek esan zuten, Haren aitaren Gortean, samurregia zela ezkontzeko. Ba al zenekien hori?

Baietz egin zuen gordetzaileak buruaz, hurrena zer ote zettorren asmatu ezinik.

— Hala bada, zetozen guztien artean indar froga hirukoitza egin zuten. Eta Arkuaren frogan, gure Jaunak, eman ziotena hautsi ondoren, inork armatu ezingo zuen bat eskatu zuen. Ba al zenekien?

— Idatzirik dago. Irakurri egin dut.

— Eta, beste zuri guztiak gaindituz, ikusi ezin zen lekura heldu zen gezia. Erori zen azkenean; eta lurra ukitu zuenean, ur laster bat sortu zen, gero Ibai bihurtu zena; eta, gure Jaunaren borondateagatik eta bere burua askatu zuenean irabazi zituen merituengatik, Ibai horretan garbitzen denari bekatuaren arrasto eta aztarren guztiak garbitzen zaizkio.

— Halaxe dago idatzita —esan zuen gordetzaileak tristuraz.

Hasperen luzea egin zuen lamak.

— Non dago Ibai hori? Jakituria Iturri, non erori zen gezia?

— Hori, anaia maitea, ez dakit —esan zuen gordetzaileak.

— Ai, kontatu ez didazun gauza bakarra ahaztu nahi baduzu... Jakingo duzu noski. Ni zaharra naiz! Burua oinetaraino makurtuta galdetzen dizut, Jakituriaren Iturri zaren horri. Arkua estutu zuela badakigu! Badakigu gezia erori egin zela! Erreka sortu zela badakigu! Orduan, non dago Ibaia? Ametsak Ibaia bilatzeko agindu zidan. Eta etorri egin naiz. Hemen nago. Baina non dago?

— Hori baneki, ez nukeela oihuka esango uste al duzu?

— Horrekin Gauzen Gurpiletik libratzea lortzen da —jarraitu zuen lamak, entzungor—. Geziaren Ibaia! Ondo pentsatu! Baliteke erreka txikiren bat izatea, beroak lehortutakoa edo... Aparta den Hark ez luke inoiz gizon zahar bat horrela engainatuko.

— Ez dakit. Ez dakit.

Berriz ere lamak bere mila zimurretako aurpegia ingelesarenaren ondo-ondoan jarri zuen.

— Ikusten dut ez dakizula. Legekoa ez zarenez gero, ezkutuan dago zuretzat.

— Ezkutuan, bai, ezkutuan.

— Lotuta gaude biok, zu eta ni, anaia. Baina nik —zutitu egin zen, bere jantzi bigun lodia astinduz—, neure burua askatu beharra daukat. Zatoz zu ere!

— Lotuta nago —esan zuen gordetzaileak—. Baina nora zoaz zu?

— Lehenbizi Kashira (Benares); nora bestela? Han benetako sinesmenaren beste jarraitzaile bat topatuko dut hiri horretako eliza *jain* batean. Hura ere, isil-gordean, bila dabil, eta agian harengandik jakin ahal izango dut nahi dudana. Baliteke nirekin etortzea Buddh Gayara. Gero Ipar eta Mendebalderantz Kapilavastu aldera, eta han Ibaiaren bila hasiko naiz. Bai, joaten naizen nonahi bilatuko dut, ez baitakigu zein lekutan erori zen gezia.

— Eta nola joango zara? Hori Delhitik oso urruti dago, eta are urrutiago Benaresetik.

— Oinez eta trenetan. Pathânkotetik, Mendiak utzita, *te-ren-ez* etorri nintzen hona. Hasieran txundituta nengoen makil luze handi horiek ikusita, hariak bota eta jaso, bota eta jaso —telegrafoen harien mugimendua adierazi zuen, gora eta behera, trenaren ondotik tximista bezala iga-

rotzean—. Baina gero zurrunduta geratunintzen, eta oinez ibiltzeko irrikatan, halaxe bainago ohi-tuta.

— Eta ziur al zaude bideaz? —galdetu zion gordetzaileak.

— A, horretarako nahikoa da galdetu eta dirua ematea, eta horretaz arduratzen denak esandako lekura bidaltzen ditu denak. Hori dena nire monasterioan jakin nuen, konfiantzazko iturrietatik —esan zuen harro lamak.

— Eta noiz abiatuko zara? —gordetzaileak irribarre egiten zion gaur egun Indiaren ezaugarri den eliz zaletasun zaharra eta aurrerapen modernoaren nahasketari.

— Ahal bezain azkar. Haren bizitzaren lekuak bisitatuko ditut, Geziaren Ibaira heldu arte. Bada gainera hegorantz doazen trenen orduen paper idatzi bat.

— Eta jatekoa? dirua aski eraman ohi dute lamek gainean, baina gordetzaileak ziurtatu egin nahi zuen.

— Bidean Maisuaren eske-ontzia erabiltzen dut. Bera joaten zen lekuetara joaten naiz ni, nire monasterioko erosotasuna alde batera utziz.

Mendiak utzi nituenean *chela* bat (ikaslea) zeterren nirekin, eta dirua eskatzen zuen niretzat Arauak dioen bezala, baina Kulun geldituta geundela sukarrak eman zion eta hil egin zen. Orain ez daukat *chela*-rik, baina neronek hartuko dut erruki-ontzia eta horrela borondatetsuek merituak irabazi ahal izango dituzte —erabakior eragin zion buruari. Monastegietako doktore jakintsuek ez dira eskean ibiltzen, baina lamak su eta gar ziharduen bere bilakuntzan.

— Hala izan bedi —esan zuen gordetzaileak irribarrez—. Utzidazu orain niri merituak irabazten. Artisau izango gara biok, zu eta ni. Hona hemen koaderno berri bat, ingeles paper zuria-ekin; hona hemen biko eta hiruko arkatz zorrotzak, lodiak eta finak, denak onak idazkariarentzat. Orain utzizkidazu zure betaurrekoak.

Gordetzaileak betaurrekoekin begiratu zuen. Harramazkez beteta zeuden, baina bere betaurrekoen graduazio bertsua zuten eta haiexek eman zizkion laman, esanez:

— Proba itzazu hauek.

— Luma! Benetako luma aurpegian! —agu-reak pozaren pozez jiratu zuen aurpegia eta

sudurra zimurtu zuen—. Nabaritu ere ez ditut ia egiten! Zeinen ederki ikusten dudan!

— *Bilaur* dira (kristala), eta ez dute inoiz harramazkarik izango. Lagunduko ahal dizute Ibairaino, zureak baitira.

— Hartuko ditut, eta baita arkatzak eta koa-derno zuria ere —esan zuen lamak—, bi apaizen arteko adiskidetasunaren ikur gisa. Eta orain... —bila hasi zen gerrikoan, burdin landuzko luma-kaxa hartu eta gordetzailearen mahai gainean utzi zuen—. Hau nire oroigarria izango duzu... nire arkatz-kaxa. Zaharra... ni bezalakoa ia.

Estilo zaharreko pieza zen, txinatarra, gaur urtzen ez den burdinez egina; gordetzaileak bularrean zeukan bihotz bildumazalea hasiera-hasieratik zegoen hartara jarrita. Ezin izan zuen inola ere lama konbentzitu opari hura egin ez ziezaion.

— Itzultzen naizenean, Ibaia aurkitu ondoren, Padma Smathoraren irudi idatzi bat ekarriko dizut, monasterioan zetaz egin ohi nituenak bezalakoa. Bai, eta Bizitzaren Gurpilarena —barre egin zuen ahopetik—, biok baikara artisau, zu eta ni.

Geldiaraziko zukeen gordetzaileak: gutxi dira munduan pintzelez egindako marrazki budisten sekretua oraindik badakitenak, nolabait esateko, erdi idatziak eta erdi marraztuak baitira. Baina lamak aurrera egin zuen, tente-tente burua, eta Bodhisat meditatzailearen estatua handi baten aurrean une batez gelditu ondoren, kanpora irten zuen tornu-atetik.

Itzala bezala joan zitzaion Kim atzetik. Entzun zuenak sekulako zirrara egin zion. Berri-berria gertatzen zitzaion gizon hura, eta ikerketa osoa-
goa egiteko asmoa zuen, Lahore hirian eraikuntza berri bat edo festa bitxi bat ikertuko zukeen bezalaxe. Berea zuen lamaren aurkikuntza, eta haren jabegoa hartzeko asmoa zuen. Ama ere irlandarra zuen Kimek.

Zam-Zammahen ondoan gelditu zen agurea, ingurura so Kim begiztatu zuen arte. Erromesaldiaren suak utzi egin zuen puska batean, eta zaharra sentitzen zen, malenkoniatsu eta huts-hutsa.

— Ez eseri kanoi horren azpian —esan zion poliziak arrandiaz.

— Hara bestea berriz! —erantzun zion Kimek lamaren lekuan—. Eseri zaitez kanoi horren azpian nahi baduzu. Noiz lapurtu dituzu esne-saltzailearen zapatilak, Dunnu?

Salakuntza hura batere oinarririk gabekoa zen, une hartako berotasunean egina, baina isilarazi egin zuen Dunnu, bai baitzekien Kimen txilio zorrotzek bazarreko umeak arrapaladan ekar zitzaketela behar izanez gero.

— Nor gurtu duzu hor barruan? —galdetu zion Kimek atsegin, Jamaren ondoan itzaletan kuzkurtuz.

— Ez dut inor gurtu, ume. Burua makurtu dut Lege Apartaren aurrean.

Emoziorik gabe onartu zuen Kimek jainko berri hura. Dozenaka batzuk ezagunak zituen ordurako.

— Eta zertan zabilta?

— Eskean nabil. Oraintxe gogoratu zait denbora luzea dela ezer edan edo jan dudanez geroztik. Nolakoak dira erruki ohiturak hiri hone-tan? Isilik, Tibeten egin ohi dugun bezala, ala ozen hitz eginez?

— Isilik dabiltzanak eskean isilik dira goseak hiltzen —esan zuen Kimek, bertako esaera bat errepikatuz. Lama zutitzen saiatu zen, baina berriro eseri zen, bere dizipuluarengatik suspiriatuz, urrutiko Kulun hila. Kim begira zeukan, alde batera makurtuta burua, pentsatzen, interesaturik.

— Emadazu ontzia. Ezagutzen dut hiri honetako jendea, borondatetsuak diren guztiak. Eman, eta beteta itzuliko dizut.

Ume baten xalotasunaz luzatu zion agureak ontzia.

— Zu egon. *Nik* ezagutzen dut jendea.

Behe kastako barazki saltzaile zen *Kunjri* baten denda zabaldura joan zen saltoka, Moti bazarreko tranbiaren parean. Aspalditik ezagutzen zuen Kim.

— Zer, yogi bihurtu zara erruki-ontzi horrekin ala? —esan zion oihuka.

— Ez —esan zuen Kimek harro—. Apaiz berri bat da hirian; inoiz ikusitakoak ez bezalakoa.

— Apaiz zaharra, tigre gaztea —esan zuen emakumeak haserre—. Nekatuta nago apaiz zaharrekin! Euliak bezala jartzen dira gure sal-

gaien gainean. Nire semearen aita eskean dabilen edonori emateko erruki putzua al da?

— Ez —esan zuen Kimek—. Zure gizona yogi izan ezik *yagi*-a da (haserrekorra). Baina apaiz hau berria da. Etxe Miragarriko sahiba anaia bati bezala mintzatu zaio. Ama, beteidazu ontzi hau. Zain dago.

— Ontzi hori gainera! Behi baten sabelaren tamainako ontzia! Sivaren zezen sakratuak adinako finezia daukazu zuk. Hartu du dagoeneko tipula saski batetik onena, gaur goizean; eta orain berriz, ontzi hau bete behar dut. Hementxe dator berriz ere.

Auzuneko brahaman zezentzar arrea bidea egiten ari zen jendetza ugariaren artean, lapurtutako banana bat ahotik zintzilik zuela. Zuzen-zuzen joan zen dendarantz, ondo asko baitzekizkien, abere sakratua zenez, bere eskubideak; burua makurtu, eta saski ilararen gainean haizea bota zuen indarrez ezer aukeratu aurretik. Kimen zapatatxo gogorra hegan atera zen eta mutur urdin hezean jo zuen bete-betean zezena. Orro egin zuen amorratuta, eta alde egin zuen

tranbia bidetik, haserrearen haserrez dardarka konkorra.

— Begira! Ontziaren balioa hiru bider baino gehiago salbatu dizut. Orain, ama, arroz pixka bat eta arrain lehorra gainean, eta barazkiak kurryarekin.

Purrustada bat heldu zen dendaren atzealdetik; gizon bat zegoen han etzanda.

— Zezena bidali egin du —esan zion ahopetik emakumeak—. Gauza ona da behartsuei ematea.

Ontzia hartu eta arroz beroz beteta itzuli zion Kimi.

— Baina nire yogia ez da behia —esan zuen serio Kimek, zulo bat eginez behatzarekin arrozaren goiko aldean—. Kurry pixka bat ona da, eta txigor bat eta mermelada apur bat ere gustatuko litzaioke, nik uste.

— Zure burua adinakoa da zulo hori —esan zuen ernegatuta emakumeak. Baina hala ere barazki kurry gozo eta beroz bete zuen zuloa; txigor bat jarri zuen gainean, gurin pixka bat pastelean, eta tamarindo mermelada mikatzez

osatu zuen ontzia. Kimek atsegin ez begiratu zion zama hari.

— Ondo da. Ni bazarrean nagoela ez da zezena etxe honetara etorriko. Oso eskale lotsaga-bea da.

— Eta zu zer? —esan zuen emakumeak barrez—. Zezenez ondo hitz egin ordea. Ez al didazu zerorrek esan egunen batean Zezen Gorri bat zelai batean etorriko zaizula laguntzera? Zoaz orain tente ibiliz eta eskatu gizon santuari niretzako bedeinkazioa. Baliteke gainera sendabideren bat jakitea horrek nire alabaren begi gaitxoentzat. Hori ere eskaiozu, Mundu osoaren Adiskide Txiki.

Baina azken esaldi hura esan baino lehen desagertua zen Kim, zakur pariak eta ezezagun gosetiak baztertuz.

— Horrelaxe aritzen gara eskean nola eskatu badakigunok —esan zion harro lamari; zabal-zabalik jarri zituen hark begiak ontziko ikus-tean—. Orain jan, eta nik... nik ere zurekin jango dut. E, *bhisti!* deitu zion ur eramaileari, akain-belarrak ureztatzen ari baitzen museoaren ondolan—. Eman ura! Egarrিতuta gaude gizonok.

— Gizonok! —esan zuen *bhisti*-ak barrez—. Nahikoa ote da zahagi bat halako bikote baten-
tzat? Edan ezazue bada, Errukiorraren izenean.

Ur hari bat utzi zuen erortzen Kimen eskue-
tan, eta Kimek bertakoen erara edan zuen; baina
lamak edalontzi bat atera behar izan zuen bere
amaierarik gabeko oihalen artetik eta zeremo-
niatsuki edan.

— *Pardesi* (atzerritarra) —azaldu zuen Kimek,
agureak hizkuntza ezezagunez bedeinkazioa
zela nabari zena esaten zuen artean.

Pozaren pozez jan zuten biek elkarrekin,
erruki-ontzia hustuz. Bukatutakoan lamak rapea
hartu zuen kalabaza hustu bitxi batetik, arrosa-
rioaren aleak pasatzen aritu zen puska batean,
eta loak hartu zuen bere adinekoek duten erraz-
tasunez, Zam-Zammahen itzala luzatzen zen
artean.

Denbora pasa, hurrengo tabako saltzailea-
renganaino joan zen Kim, emakume gazte maho-
matar bat, bizi-bizia, eta zigarro gogaikarri bat
eskatu zion, Punjabeko unibertsitatean ingeles
ohiturak kopiatzen dituzten ikasleei saltzen diz-
kieten erakoa. Gero zigarroa erretzen eta buru-

tazioetan jardun zuen, kokotsean belaunak, kanoiaren sabel azpian, eta pentsamendu haien emaitza Nila Ramen zerrategi alderako irteera bat-bateko eta bizkorra izan zen.

Hiriaren arratseko bizitza hasia zen arte ez zen esnatu lama, farolak piztearekin batera eta zuriz jantzitako bulegari eta Gobernuko bulegoetako langileek etxeratzen ari zirenean. Alde guztietara begiratu zuen harrimenez, baina inork ez zion erreparatu, mutiko hindu xirtxil batek izan ezik, durbante zikin batez eta lasto koloreko arropoz jantzita. Halako batean lamak belaunetan jarri zuen burua eta intziri egin zuen.

— Zer duzu? —esan zion mutikoak, lamaren parean zutik—. Lapurtu egin al dizute?

— *Chela* berria dut; alde egin dit eta ez dakit non dagoen.

— Eta nolakoa zen zure dizipulua?

— Hil zen baten lekuan etorri den mutil bat da, hor barrean —Museoa seinalatu zuen—, Legearen aurrean makurtzeagatik irabazi ditudan merituei esker. Niregana etorri da, galduta neukan bidea erakustera. Etxe Miragarrira eraman nau; haren hitzek Irudien Zaindariarekin

hitz egitera bultzatu naute, eta hala, kontsolatu eta indartu egin naiz. Eta goseak akabatzen nengoenean niretzat aritu da eskean, *chela* batek bere maisuarengatik egingo lukeen eran. Bat-batean joan egin da. Bat-batean, desagertu. Benareserako bidean mutikoari Legea erakusteko asmoa nuen.

Kim txunditurik zegoen hura entzunda, Museoko elkarrizketa entzun baitzuen, eta bazezien agurea egia ari zela esaten; horrelakorik ez dute maiz egiten indiarrek kaleko ezezagun batekin.

— Baina orain konturatzen naiz helburu jakin batez bidali didatela mutila, ez bestela. Horregatik dakit aurkituko dudala bila nabilen Ibaia.

— Geziaren Ibaia? —galdetu zuen Kimek, gai-netikako irribarrea eginez.

— Baina zu ere Bidalia zara ala? —egin zuen oihu lamak—. Ez diot nik inori nire bilakuntzaz hitz egin, Irudien Apaizari izan ezik. Nor zara zu?

— Zure *chela* —esan zuen Kimek besterik gabe, zangalatraba jarriz—. Ez dut sekula zu bezalakorik ikusi. Zurekin joango naiz Benaresera. Eta gainera, zu bezain zaharra den gizon

batek, iluntzean topaturiko edozeini egia esaten diona, dizipulu baten behar handia du, nik uste.

— Baina Ibaia, Geziaren Ibaia?

— A, hori ingelesarekin hizketan ari zinela entzun dut. Atearen kontra jarrita nengoen.

Lamak hasperen egin zuen.

— Uste nuen niregana bidalitakoa zinela. Gertatu ohi dira batzuetan horrelakoak... baina nik ez ditut merezi. Ez duzu orduan Ibaia ezagutzen?

— Ez —barre egin zuen Kimek, deseroso—. Ni, zeraren bila noa... zezen baten bila. Zezen Gorri bat, zelai berde batean, lagundu egingo didana.

Umeen modura, ezagunen batek ideiaren bat baldin bazeukan, Kim prest egoten zen berea ateratzeko; eta, umeen modura, aitaren iragarpen hartaz hogeita minutu segidan ez zituen inoiz pentsatzen eman.

— Zeren bila, ume? —esan zuen lamak.

— Jainkoak daki, baina halaxe esan zidan aitak. Mendietako leku berri bitxi guzti horietaz hizketan entzun zintudan Etxe Miragarrian, eta horren zaharra den bat, eta horren... zera, egia

esatera horren ohituta dagoena bideetara ateratzen baldin bada ibaiarena bezalako txikikeria batengatik, iruditu zitzaidan nik ere bidaiatzen hasi beharra neukala. Gauza horiek topatzea bada gure patua, topatu egingo ditugu; zuk, zure Ibaia; eta nik, nire Zezena, eta Zutabe Handiak eta ahaztu zaizkidan beste gauza batzuk.

— Ez zutabeetatik, Gurpil batetik libratuko naiz —esan zuen lamak.

— Gauza bera da dena. Agian errege egingo naute —esan zuen Kimek, lasai-lasai denetarako pronto.

— Bestelako desioak, eta hobeak, erakutsiko dizkizut bidean —esan zuen lamak, aginpidearen ahotsaz—. Goazen Benaresa.

— Gaez ez. Lapurrak dabilta. Itxoin eguna argitu arte.

— Baina hau ez da lotarako lekua.

Agurea bere monasterioko bizimodu ordenatuarekin zegoen ohituta, eta lurrean lo egiten bazuen ere, Arauak agintzen duen bezala, begirunea zien halako gauzei.

— Gustoko ostatua izango dugu Kashmir *Serai*-an —esan zuen Kimek, bestearen harridu-

rari barre eginez—. Lagun bat daukat han. Goazen!

Bazarra, beroa eta jendez josia, argiz distiratsu ageri zen Ipar-Indiako arraza guztien artean bidea egiten ari zirela; lama ametsetan bezala mugitzen zen. Lehenengo aldiz zegoen merkatal hiri handi batean, eta tranbia jendez beteak, freno kirrinka etengabearekin, beldurtu egiten zuen. Erdi bultzaka, erdi arrastaka eramanda, heldu zen Kashmir *Serai*-ko atari handira: plaza ikaragarri hori, irekia, geltokiaren ondoan, arkupeez inguratua, non gelditzen baitiren gamelu eta zaldien karabanak Erdi-Asiatik itzultzen direnean. Hantxe ageri ziren iparreko jende mota guztiak, zaldi lotu eta belaunikaturiko gameluen artean; zama eta fardelak kargatzen eta deskargatzen; putzu kirrinkarrietatik afaritarako ura ateratzen; belarra pilatzen ero-begiko hazitarako zaldi zaratatsuen aurrean; karabanetako zakur amorratuak joka; karabana gidariei ordaintzen, eta morroi berriak hartzen; biraoka, oihuka, errietan, eta enparantza bete-betean txantxetan. Arkupeak —harlanezko hiruzpalau maila gorago zeuden— estalpe ongietorria ziren itsaso

nahasi hartan. Arkupe gehienak merkatarietarako alokatzen zizkieten, guk zubi-bide baten begiak alokatzen ditugun bezala; zutabe arteko lekua adreiluz edo oholez zegoen itxita, gelak banatuz, zurezko ate astun eta bertako krisketa handiez babestuta. Giltzapeturiko ateeak jabea kanpoan zela ematen zuten aditzera, eta marra zakar batzuek, oso zakarrak batzuetan, igeltsuz edo pinturaz eginak, esaten zuten non zebilen. Hone-lak: «Lutuf Ullah Kurdistanera joan da». Azpian, bertso kaskarretan: «O Ala, zorrietarako Kabuleko biztanle baten berokian bizitzen utzi zenien horrek, zergatik utzi diozu Lutuf zorritsu horri horren luze bizitzen?»

Kimek, asaldaturiko gizon eta asaldaturiko animalien artean lama babestuz, aurrera egin zuen isilean arkupetan barrena bukaera arte, geltokitik hurbil; hantxe bizi zen Mahbub Ali, zaldi merkataria, Iparreko pasabideak baino harantzagoko lurralde misterioetsuetatik itzultzen zenean.

Kim bere bizitza laburrean tratu ugari izana zen Mahbubekin, batez ere hamar eta hamahiru urte bitartean, eta bizarra karez tindaturiko

afganiar handi sendoak (zaharra baitzen, eta ez zuen nahi ile urdinduek zuen adina erakustea), ederki asko zekien zenbat balio zuen mutikoak esamesen berri jakiteko. Batzuetan esaten zion Kimi bijila zezala zaldiekin zerikusirik ez zuen gizonen bat: egun oso batez jarraitzeko, eta esateko zehatz-mehatz norekin hitz egin zuen. Kimek iluntzean ematen zion informazioa, eta Mahbubek hitzik edo keinurik egin gabe entzuten zion dena. Azpijokoren bat zegoen han, ondo asko zekien Kimek; baina bere balioa, izan ere, inori ezer ez esatean zetzan, Mahbubi izan ezik, eta Mahbubek jateko ederrak ematen zizkion, bero-beroak, enparantza hasieran zegoen tabernatik ekarriak, eta behin zortzi anaia ere eman zizkion.

— Hemen da —esan zuen Kimek, zartako bat emanez muturrean umore txarreko gamelu bati—. Aizu, Mahbub Ali! —arkupe ilun batean gelditu eta lama beldurtuaren aurretik igaro zen.

Zaldi tratularia, Bujarako gerriko zabal eta brodatua askatuta, zeta lodizko bi zakutan zegoen etzanda, zilarrezko nargile ikaragarri bati alferkeriaz tiraka. Burua apur bat jiratu zuen

oihua entzutean; eta agurearen irudi luze isila baino ez zuelarik ikusi, barre egin zuen berekiko.

— Alaren izenean! Lama! Lama Gorria! Bide luzea dago Lahoretik Pasabideetara. Zertan ari zara zu hemen?

Lamak erruki-ontzia luzatu zion oharkabean.

— Jainkoak madarika ditzala sinesgabe guztiak! —esan zuen Mahbubek—. Nik ez diot ezer emango tibetar zorritsu bati; baina eskaiezu nire baltiarrei, hortxe daude gameluen atzean. Horiek aprezia ditzakete zure bedeinkapenak. Hara, mutilak, hemen daukazue zuen herriko bat. Begira ezazue ea goseak dagoen.

Zankalatraba zegoen baltiar burusoil bat, zaldiekin etorria eta izenez bigarren mailako budista edo zena, laudorioak esaten hasi zitzaion apaizari, eta soinu gutural itxiekin erregutu zion eser zedila morroiekin sutondoan.

— Segi —esan zion Kimek, pixka bat bultzatuz, eta lama hara abiatu zen, Kim atariaren ertzean utzirik.

— Segi! —esan zuen Mahbub Alik, pipa berriro hartuz—. Indiar txiki hori, alde hemendik. Jain-

koak madarika ditzala sinesgabe guztiak! Eskatu zure fedekoak diren nire zerbitzariet.

— *Maharaj* —esan zuen Kimek intzirika, tra-
taera indiarra erabiliz, eta egoera harekin galan-
ki disfrutatuz—; aita hil egin zait; ama hil egin
zait; huts-hutsik daukat sabela.

— Zaldien artean dauden nire gizonet eska-
tzeko esan dizut. Izango da hindurik nire zerbi-
tzarien artean.

— O, Mahbub Ali, hindua al naiz bada ni? —
esan zion Kimek ingelesez.

Merkatariak ez zuen harridura keinurik egin,
aldiz, kopeta zimurtuta begiratu zion.

— Mundu osoaren Adiskide hori —esan
zuen— zer da hau?

— Ezer ez. Gizon santu horren dizipulu naiz
orain; eta erromes goaz elkarrekin, Benaresera,
dio berak. Erotu samarra dago, eta ni nekatuta
nago Lahorez. Ur eta haize freskoak behar ditut.

— Baina norentzat egiten duzu zuk lan? Zer-
gatik etorri zara nigana? —susmo txarra adieraz-
ten zuen ahotsak.

— Nora joko dut bestela? Ez daukat dirurik.
Ezin da bidaian dirurik gabe ibili. Zuk zaldi asko

salduko dizkiozu ofizialei. Oso zaldi ederrak dira, berri horiek: ikusi egin behar ditut. Emadazu rupia bat, Mahbub Ah, eta aberasten naizenean itzuliko dizut.

— Um —esan zuen Mahbub Alik, presaka pentsatuz—. Orain arte ez didazu sekula gezurrik esan. Deitu lamari... eta zu egon hor atzean, ilunpetan.

— A, berdinak izango dira gure istorioak.

— Benaresera goaz —esan zuen lamak, zaldi tratulariak egiten zizkion galderen zentzua uler-tu bezain azkar—. Mutikoa eta biok, eta ni Ibai jakin baten bila noa.

— Hori baliteke. Baina mutila?

— Dizipulua dut. Bidali egin didate, uste dut, Ibai horretara gida nadin. Kainoi baten azpian nengoen eserita bera bat-batean agertu denean. Gertatu izan zaizkie halako gauzak gidaritza eskaini zaien zoriontsuei. Baina orain gogoratzen dut, mundu honetakoa zela esan du, hindua.

— Eta izena?

— Hori ez diot galdetu. Ez al da bada nire dizipulua?

— Lurralde, arraza, herria? Mahomatarra, sija, hindua, jama, beheko kastakoa ala goikoa?

— Zergatik galdetu behar nion halakorik? Ez da ez goikorik ez behekorik Erdiko Bidean. Nire *chela* bada, eta halaxe da, kenduko ote dit bada inork? Izan ere, begira, bera gabe ez naiz nire Ibaia aurkitzeko gauza izango —buruari eragin zion handikiro.

— Ez dizu inork kenduko. Segi, eseri nire baltiarrekin —eta lama aldendu egin zen, agindu hark lasaituta.

— Ez al dago erotuta? —esan zuen Kimek, berriro argitara etorri—. Zergatik esan behar nizun nik gezurrik, haji?

Nargileari tiraka aritu zen Mahbub isilik. Gero hizketan hasi zen, xuxurlatzen ia:

— Benareserako bidean dago Umballa, egia baldin bada hara zoaztela biok.

— Hara! Esan dizut ez dakiela gezurrik esaten... gu biok dakigun bezala.

— Eta zuk Umballaraino mezu bat eramaten badidazu, emango dizut dirua. Zaldi batekin du zerikusia; Pasabideetatik itzuli nintzen azken aldian ofizial bati saldu nion hazitarako zaldi zuri

bat. Baina... hurbildu zaitez eta jaso eskuak, eskean ari bazina bezala. Baina hazitarako zaldi zuriaren pedigria ez zen behar bezala osatu, eta ofizialak hori garbi uzteko eskatu zidan. Umballan dago orain. (Mahbubek zaldia eta ofizialaren itxura deskribatu zituen). Beraz, hauxe izango da ofizial horrentzako mezua: «Osatuta dago hazitarako zaldi zuriaren pedigria.» Horrela jakingo du nire partetik zoazela. Berak esango dizu orduan: «Nolako frogak dauzkazu?» eta zuk erantzungo diozu: «Mahbub Alik eman dit frogak».

— Eta hori dena hazitarako zaldi zuri baten-gatik —esan zuen Kimek barre txiki bat eginez, begiak distiratsu.

— Predigria orain emango dizut, neure erara, eta baita aholku batzuk ere —itzal bat igaro zen Kimen atzetik, eta jatera zihoan gamelu bat. Mahbub Alik ahotsa jaso zuen.

— Alaren izenean! Zu al zara hiriko eskale bakarra? Ama hilda daukazu. Aita hilda daukazu. Halaxe gertatzen zaie denei. Tira, tira... — lurrean bila hasteko bezala jiratu zen eta opil bigun, koipetsu bat bota zion mutilari—. Segi,

eta gaurkoz egin lo nire morroiekin. Zuk eta lamak. Bihar agian emango dizut lanik.

Alde egin zuen Kimek, hortzen artean zera-mala ogia; espero zuen bezala, ogi barruan zetazko paper pusкета bat aurkitu zuen tolestuta eta ulean bilduta, hiru zilarrezko rupiekin... sekulako eskuzabaltasuna. Irribarre eginez, larruzko kutun-kutxan sartu zituen dirua eta papera. Lama, Mahbuben baltiarrek emandakoa-rekin bapo janda, lo zegoen ordurako kortako bazter batean. Kim aldamenean etzan zitzaion, barrez. Bazekien mesede bat egin ziola Mahbub Aliri, eta une batez ere ez zuen sinetsi zaldiaren pedigriaren istorioa.

Baina Kimek ez zuen susmatu ere egiten Mahbub Ali, Punjabeko zaldi merkatari oneneta-kotzat jotzen zutena, tratulari aberats eta ekimen handikoa, zeinen karabanak iparreko mugak baino askoz harantzago sartzten baitziren, Indiar Segurtasun Ministerioan zegoela C25 IB kodearekin erregistratuta. Urtean bi edo hiru bider C25-k istorio txiki bat bidaltzen zuen, gaizki adierazia baina guztiz interesgarria, eta orokorrean —R17 eta M4-ren istorioekin alderatzen

zuten—, egiazkoa. Istorioek mendiko era guztietako printzerriekin zuten zerikusia, ingelesak ez ziren esploratzaileekin, eta arma salerosketarekin; laburrean, Indiar Gobernuak bere jardunaren oinarrirako daukan «jasotako informazio» ugariaren zati txiki bat osatzen zuten. Baina, ez aspaldi, elkaturiko bost erregek, zertan elkartu ez zutenak, Iparreko botere atsegin baten bitartez informazio interesgarria jaso zuten, informazioa atera egiten zela beren lurraldeetatik alegia. Hala bada, errege horien lehen ministroak haserretu egin ziren, eta neurriak hartu zituzten, ekialdekoen eran. Susmo txarra hartzen zioten, beste askoren artean, bizar gorriko zaldi merkataria handiari, zeinen karabanek aurrera egiten baitzuten lurralde bakartietan, zaldiak elurretan sabeleraino sartuta. Bi bider gutxienez izan zituen enboskadak eta bitan disparatu zioten itzulerako bidean urte hartan, Mahbuben gizonak hiru gaizkilez arduratu ziren arte, lan hartarako alokatuak izan zitezkeelakoan. Hartaz, nahiago izan zuen Mahbubek Peshawar hiri ziki-nean gelditu gabe Lahoreraino segidan joan,

han, bere herrikideak ezagutuz, gertaera bitxiak espero baitzituen.

Eta bazen gauza bat Mahbub Alik behar baino denbora luzeagoz gainean eduki nahi ez zuena, zetazko paper puska bat, arduraz tolestua, ulean bildua; txosten inpertsonal bat, zuzenbiderik gabea, bost zulo ia ikusiezin zituela ertz batean, eta argi ta garbi salatzen zituenak bost errege elkartuak, Iparreko botere atsegina, Peshawurreko bankari hindu bat, Belgikako arma enpresa bat, eta hegoaldeko agintari mahomatar garrantzitsu eta erdi-independente bat. Azken hori R17ren lana zen, baina Mahbubek Dora pasabidea baino harantzago jaso zuen eta R17-ren ordezkari, hark, egoera zela eta, ezin baitzion bere begiralekuari utzi. Dinamita gauza samurra eta kaltegabea zen C25-aren txostenaren aldean; eta Ekialdeko batek ere, denboraren balioaz Ekialdeko irizpideak izanda, ikus zezakeen zenbat eta azkarrago esku egokietan egon hura, askoz hobeto izango zela denentzat. Mahbubek ez zuen bortxaz hiltzeko aparteko desiorik, oraindik ere bukatu gabeak baitzeuzkan muga baino harantzagoko bizpahiru sendi men-

deku, eta hura amaitutakoan asentatzeko asmoa baitzeukan, hiritar bertutetsu samar bezala. Bi egun lehenago heldu zenetik ez zuen bazarreko ataria gurutzatu; baina Bombayra telegramak bidaltzen nabarmendu zen, hango bankuetan gordetzen baitzuen bere diruaren zati bat; Delhira, non bere taldeko lankide batek zaldia saltzeri baitzizkion Rajputanako ordezkari bati; eta Umballara, non ingeles batek zaldi zuri baten pedigria eskaka jardun baitzuen. Idazkari publikoak, ingelesa zekielarik, telegrama zoragarriak osatzen zituen, esate baterako: «*Creighton, Laurel Bankua, Umballa. Zaldia arabiarra esan bezala. Sentitzen dut pedigri atzeratua, itzultzen ari naiz.*» Eta geroago zuzenbide berera: «*Asko sentitzen atzerapena. Bidaliko pedigri.*» Delhiko lankideari telegrama hau bidali zion: «*Lutuf Ullah. Bidaliak bi mila rupia zure kontura, Luchman Narain bankua.*» Horiek denak merkataritza kontuak ziren bete-betean; baina telegrama horietako bakoitza behin eta berriro eztabaidatzen zuten interesaturik zeudela uste zuten batzuek, telegramak baltiar txoro baten eskuetan posta bulegora heldu baino lehen, baltiarrak era guz-

tietako jendeari uzten baitzizkion bidean irakurtzen.

Mahbuben beraren hizkera bitxian esateagatik, galdekizunen putzuak arduraren makilarekin zikindu zituenean, Kim heldu zitzaion, zerutik etorria; eta, eskrupulu gabea bezain erabakigarria izanik, Mahbub Alik, ohituta baitzegoen era guztietako arriskueta ibiltzen, berehala hartu zuen mutila bere zerbitzuan.

Lama ibiltari batek behe kastako mutiko zerbitzari batekin une bateko interesa sorraraz zezakeen Indian barrena, erromesen lurraldean, ibiltzerakoan; baina inork ez zien susmo txarrik hartuko, edota, garrantzitsuagoa zena, ezer lapurtuko.

Ikatz berria eskatu zuen Alik nargilearentzat, eta hartan pentsatzen jardun zuen. Okerrena gertatuta ere, eta mutikoari kalteren bat gertatu, paperak ez luke inork salatuko. Eta bera lasai joango zen Umballara eta, nahiz eta susmoak sorrarazteko arriskuren bat izan, zegokion jendeari ahoz berresango zion bere istorioa.

Baina R17-ren txostenean zegoen arazoaren giltzarria, eta hura bere lekura ez heltzea kalte-

garria litzateke dudarik gabe. Nolanahi ere, handia da Jainkoa, eta Mahhub Aliri iruditu zitzaion eginda zuela ordura arte egin zezakeen guztia. Kim zen mundu honetan sekulan gezurrik esan ez zion lagun bakarra. Hori barkaezina litzateke Kimentzat Mahbubek jakingo ez balu besteei, bai bere helburuetarako, bai Mahbuben gauzetarako, ekialdetar batek bezalakoxe gezurrak esan zitzaizkiekeela Kimek.

Orduan Mahhub Alik Arpien Atariraino gurutatu zuen *Serai*-a, non emakumeek begiak margotu eta ezezagunak harrapatzen baitituzten, eta, ederki kostata, Kashmirreko *pundit* bizargabe baten adiskide berezia zen neska bati —bai baitzuen hori pentsatzeko arrazoirik—, egin zion bisita; *pundit* hark bere baltiar inozoa gelditu zuen telegramak zirela eta. Gauza guztiz burugabea izan zen hura; izan ere, brandy usaintsua edateari eman zioten biek Igarlearen Legearen aurka: Mahhub Alik mozkor galanta harrapatu zuen, ahoaren ertzak zabaldu zitzaizkion, eta Gozamenaren Lorearen atzetik ibili zen mozkorraldiaren oinekin kojín artean seko erori zen arte; eta han Gozamenaren Loreak, Kashmirreko

pundit azal leun baten laguntzaz, xeheki miatu zuen burutik oinetaraino.

Ordu beretsuan Kimek oin-urrats bigunak entzun zituen Mahbuben gela hutsean. Zaldi merkatariak, gauza harrigarria, atea giltzapetu gabe utzi zuen, eta morroiak berriz lanpetuta zeuden Indiarako itzulera ospatzen, Mahbuben eskuzabaltasunaren lekukotza ematen zuen arkume batekin. Delhiko gizon gazte dotore batek, Loreak konorterik gabekoaren gerrikotik hartutako giltza sorta batez hornituta, Mahbuben jabetza ziren kaxa, fardel, poltsa eta zaku guztiak arakatu zituen banan bana, Loreak berak eta *pundit*-ak guzti haien jabe zena baino hobeto miatuz dena.

— Eta nire ustez —zioen ordubete berandua—go Loreak mesprezuz, ukondo biribila oraindik zurrungaka zegoen Aliren gainean zuela—, hau afganiar zaldi-merkatari zerri bat da huts-hutsik, emakume eta zaldietan baizik pentsatzen ez duena. Gainera, bidali ahal izan du dagoeneko... inoiz horrelakorik izan bada.

— Ez... Bost Erregeekin zerikusirik duen kontu batean, bihotz beltz horren ondoan eduki-

ko luke —esan zuen *pundit*-ak—. Ez al zegoen ezer?

Delhiko gizonak barre egin zuen eta durban-tea jarri zuen itzultzerakoan.

— Zapatilen zoruak miatu ditut, Loreak arropak miatu dizkion bezala. Hau ez da, besteren bat da. Ez dut ezer utzi erreparatu gabe.

— Ez zuten ziur esan hau zenik gizona —esan zuen *pundit*-ak pentsakor—. Zera esan zuten, «Begira ezazu ea hori den gizona, gure aholkulariak kezkatuta daude eta».

— Iparreko lurralde hau zaldi merkatariz jositako dago, beroki zabar bat zorritz bezala. Horra hor Sikandar Khan, Nut Ali Beg, eta Farrukh Shah, denak *kafila* (karabana) gidari, lurralde horietan lanean —esan zuen Loreak.

— Oraindik ez dira etorri —esan zuen *pundit*-ak—. Geroago harrapatu beharko dituzu.

— Hara! —esan zuen Loreak nazkaz, Mahuben burua magaletik kenduz—. Ederki irabazten dut nik dirua. Farrukh Shah hartza da, Ali Beg gaizkilea, eta Sikandar Khan zaharra... Ederra hori! Ospa hemendik! Lo egin behar dut orain.

Zerri honek egunsentira arte ez du txintik aterako.

Mahbub esnatu zenean, oso serio mintzatu zitzaion Lorea mozkorkeriaren bekatuaren gainean. Asiarrek ez dute keinurik egiten etsaiari irabazi diotenean, baina Mahbub Alik eztarria garbitu, gerrikoa estutu eta balantzaka abiatu zenean goizaldeko izarren azpian, hartatik oso hurbil ibili zen.

— A zer trikimailu kaskarra! —zioen berekiko—, Penschawurreko neska guztiek horixe bera erabiliko ez balute bezala! Baina hau oso poliki egin dut. Jainkoak daki zenbat gehiago ez ote diren izango Bidean ni miatzeko aginduekin, labanaz beharbada. Beraz, mutilak Umballara joan beharra dauka, eta trenez, idazkia larria da eta. Ni hemen egongo naiz, Lorearen atzetik ibiliz eta ardoa edaten, afganiar tratulari petrarek egin behar duten bezala.

Berearen hurrengo gelan gelditu zen. Hantxe zeuden bere gizonak, lo seko. Ez zen ageri ez Kim ez lamaren arrastorik.

— Gora! —lo zegoen bat mugitu zuen—. Nora joan dira bart hemen zeudenak, lama eta mutila? Zerbait falta al da?

— Ez —murmurikatu zuen gizonak—, agure ero hori bigarren kukurrukukuarekin jaiki da Benaresera zihoala esanez, eta gazteak kanpora eramandu.

— Alak madarika ditzala sinesgabe guztiak! —esan zuen Mahbubek bihotz-bihotzez, eta bere gelara igo zen, ahopetik murmurikatuz.

Baina Kimek esnatu zuen ordea lama; Kimek ikusi zuen, begi bat oholen zuloan jarrita, Delhi-ko gizona kutxak arakutzen. Ez zen hura lapur arrunta, gutunak, fakturak eta zaldi-zelak miazten, ezta laban txiki bat Mahbub-ren zapatilen zoruetan sartzen, edo horrelako trebezia zakuen josturak irekitzen. Hasieran alarma ematea bururatu zitzaion Kimi, oihu luzea, *cho-or-choor!* (lapurra! lapurra!), *Serai*-gauetz argitzen duena; baina ardura handiagoz begiratu zuen, eta, eskua kutun-poltsan jarrita, bere ondorioak atera zituen.

— Zaldiaz asmatu duten gezur hori da noski —esan zuen—, Umballara daramadan gauza.

Hobe dugu orain joatea. Poltsak labanaz arakatzan dituztenak sabelak labanaz arakatzeko gauza izan litezke gero. Emakumeren bat izango da segur aski guzti honen atzean. Aizu! Aizu! — xuxurlatu zion lo arineko agureari—. Goazen. Garaia da, Benaresera joateko garaia.

Lama zintzo-zintzo altxatu zen, eta itzalak bezala irten zuten Seraitik.

2. ATALA

*Eta nahi duen orok, harrokeriaz libre,
federik, apaizgorik baztertu gabe,
Ekialde osoaren Arima senti lezake
bere inguruan Kamamuran
Buda Kamamuran.*

Gaztelu baten antza zuen geltokian sartu ziren, bel-beltza gauaren amaieran; argiak txinpartaka ari ziren Iparreko ale salerosketaz arduratzen diren merkantzien kaian.

— Deabruen gauza da hau! —esan zuen lamak, atzera eginez ilunpe huts oihartzun betea, harlanezko kaltetako burdinbideen distira eta sabaiko habe nahastea ikusita. Zutik zegoen harrizko atari ikaragarri batean, itxuraz, beztituriko hilotzez estalia: gauean txartelak hartu eta itxaron-geletan lotan zeuden hirugarren klaseko pasaiariak ziren. Eguneko hogeita lau orduak berdinak dira Ekialdekoentzat, eta bidaiarien joan-etorria horren arabera antolatzen da.

— Honaxe etortzen dira su-gurdiak. Gizon bat egoten da zulo horren atzean —txartel bulegoa

seinalatu zuen Kimek—, eta berak emango dizu Umballara eramango zaituen papera.

— Baina Benaresera goaz ordea —erantzun zuen lamak ernegatuta.

— Berdin dio. Benares bada. Azkar, badator trena!

— Hartu zuk poltsa.

Lama, ez baitzegoen esan bezain ohituta trenekin, ikaratu egin zen Hegora zihoan hirurak eta hogeita bostetako trena orroka heldu zenean. Loakartuta zeudenak bat-batean zutitu ziren, eta geltokia zarata eta oihuz bete zen, ur eta gozo saltzaileen garrasiekin, bertako polizien oihuekin, eta beren saskiak, familiak, eta senarrak biltzen ari ziren emakumeen txilio zorrotze-kin.

— Trena da, *te-rena* besterik ez. Hona ez da etorriko. Itxoin! Txundituta lamaren sinplekeriarekin (rupiez beteriko poltsa bat luzatu zion Kimi), Umballarako txartel bat eskatu eta ordaindu zuen Kimek. Erdi lotan zegoen enplegatu batek txartel bat bota zion marmarka hurrengo geltokirako, handik hamar bat kilometrotara zegoena.

— Ez —esan zion Kimek, ahoa okertuta txartela aztertuz—. Nekazariei sartuko diezu hau, baina ni Lahoren bizi naiz. Primeran egin duzu, *babu*. Orain emadazu Umballarako txartela.

Babuak kopeta zimurtu eta txartel egokia eman zion.

— Orain beste bat Amritzarrera —esan zion Kimek, ez baitzuen Mahbub Aliren dirua Umballarako bidaia ordaintzen bezain gauza arruntean xahutzeko asmorik—. Horrenbeste balio du. Bueltako dirua horrenbeste da. Badakit nolakoa izaten den *te-rena*-ren funtzionamendua... Sekula ez du yogi batek zuk bezalako *chela* baten beharra izan... —jarraitu zuen Kimek lama beldurtuari hitz egiten— Mian Mirren botako zintuzten trenetik nigatik izan ez balitz. Hemendik! Zatoz! —dirua itzuli zion, Umballako txartelaren prezioaren rupia bakoitzeko anna bat bakarrik hartuz, komisio gisa: Asiako betidaniko komisioa.

Lama, ikaraz, hirugarren klaseko bagoi baten ate zabalduaren aurrean gelditu zen.

— Ez al da hobeto oinez joatea? —galdetu zuen ahots mehez.

Artisau *sij* sendo batek aurpegi bizartsua atera zuen.

— Beldurtuta al dago? Ez beldurrik izan. Gogoan dut *te-ren*-ak ikaratzen ninduen garaia. Sartu barrura! Gauza hau Gobernuaren lana da.

— Ez dut beldurrik —esan zuen lamak—. Ba al duzue hor barruan birentzako lekurik?

— Euli batentzako ere ez da hemen lekurik —esan zuen garrasika nekazari aberats baten ematzeak, Jullundur distritu joriko *jat* hindua. Gure gaueko trenak ez dituzte egunekoak bezain ederki zaintzen; horietan ondo asko banatzen dira sexuak bagoi desberdinetan.

— O, nire semearen ama zaren hori, egin dezakegu lekurik —esan zuen durbante urdineki-ko senarrak—. Hartu umea besoetan. Gizon santua da, ez al duzu ikusten?

— Eta nire magala hirurogeita hamar bider zazpi trastez beteta! Zergatik ez duzu nire belaunetan esertzera gonbidatzen, lotsagabe horrek? Baina horrelakoxeak dira ordea beti gizonak! —ingurura begiratu zuen, onespen zain. Buruko estalkiaren bestaldetik Amritzarre-

ko limur dama batek, leiho ondoan eserita, mesprezu hots bat egin zuen.

— Sartu, sartu! —egin zuen oihu diru-mailegari hindu lodi batek, beso azpian zuela kontu liburua, tolestuta eta oihal batean bilduta. Irribarre likitsu batez—: Ona da behartsuekin zintzoa izatea.

— Bai, hileko ehuneko zazpiarekin eta garrantiatzat jaio gabeko txahala emanda —esan zuen soldadu *dogra* gazte batek, opor baimenarekin hegorantz zihoana; eta barre egin zuten denek.

— Benaresera joango al da trena? —galdetu zuen lamak.

— Jakina bada. Zergatik gatoz bada bestela? Sartu, edo hemen geratuko gara gaur —esan zuen Kimek oihuka.

— Ikusi! —esan zuen garrasi zorrotz bat eginenez Amritzarreko neskak—. Ez da inoiz trenean sartu. Begira, begira!

— Isilik egon eta lagundu —esan zuen nekazariak, esku luze belztu bat atera eta barrurantz sartuz lama—. Horrelaxe, aita.

— Baina, baina... ni lurrean esertzen naiz. Arauaren kontrakoa da bankutan esertzea —

esan zuen lamak—. Gainera, karranpak ematen dizkit.

— Bai bada —esan zuen diru-mailegariak, ezpainak estutuz—, ez dago *te-ren-ak* zuzen bizi-tzeko arau bat bera ere hauts erazten ez digunik. Elkarren ondoan esertzen gara, esate bate-rako, era guztietako kasta eta jende klaseak.

— Bai, eta baita lotsagabe amorratuak ere —esan zuen emazteak, Amritzarreko neskari begi-ra, keinuka ari baitzitzaion hura soldadu gaztea-ri.

— Bada nire ustez joan gintezkeen errepide-tik, gurdia hartuta —esan zuen senarrak—, eta diru pixka bat aurreratu horrela.

— Bai... eta aurreratutakoaren doblea gasta-tu bidean janaritan. Horretaz hamaika bider gaude hitz eginda.

— Bai, eta hamaika mingainekin —bota zuen gizonak.

— Jainkoak lagun gaitzala, emakume gaixo-ok, hitz egin ere ezin badugu. Hara! Emakumeei begiratu edo erantzun ezin diotenetakoa da hori eta —izan ere lamak, bere Arauaren debekuz, ez

zion batere jaramonik egiten—. Eta dizipulua ere bera bezalako al du?

— Ez, ama —esan zuen segituan Kimek—. Ez emakumea ederra denean, eta batez ere gose-tuekin errukiorra.

— Hori bai, eskale baten erantzuna —esan zuen *sij*-ak, barrez—. Ederra egin duzu gero! — Kimek elkartuta zeuzkan eskuak, erreguka.

— Eta zu nora zoaz? —esan nion andreak, poltsa koipetsu batetik aterata gozoki bat luzatzen zion artean.

— Benaresera goaz.

— Esku-jokalariak al zarete? —galdetu zuen soldadu gazteak—. Ez al daukazue trikimailuren bat denbora pasa joateko? Zergatik ez du gizon horrek erantzuten?

— Bada —esan zuen erabakior Kimek—, santua delako, eta zuri ezkututzen zaizkizun gauzez pentsatzen ari delako.

— Baliteke halaxe izatea. Guk, Ludhianako *sij*-ok —esan zuen hitzak azpimarratuz—, ez dugu geure burua dotrinarekin kezkatzen. Guk borroka egiten dugu.

— Nire arrebaren anaiaren semea *naik*-a da (kabo) errejimendu horretan —esan zuen artisau *sij*-ak poliki hitz eginez—. Konpainia *dogra* batzuk ere badauzkate han.

Soldadua begira-begira geratu zitzaion, kasta desberdinak baitira *dogra* eta *sij*, eta bankariak barre egin zuen ahopetik.

— Berdinak dira denak niretzako —esan zuen Amritzarreko neskak.

— Hori bai, hori sinesten dugu —esan zuen petralkeriaz nekazariaren emazteak.

— Ez, baina armak eskuetan dituztela Gobernuari zerbitzatzen dioten guztiek, anaiak dira nolabait esateagatik. Kastako anaia izatea bada go, baina horretaz gain ere —ingurura begiratu zuen neskak, lotsati—, *Pulton*, errejimenduaren lotura alegia, badago.

— Nik errejimendu *jat* batean daukat anaia —esan zuen nekazariak—. Jatorra da *dogra* jendea.

— Zure *sij*-ek behintzat iritzi hori zeukaten —esan zuen soldaduak, bazterreko gizon lasaiaren aldera mesprezuzko begiratu bat eginez—. Zure *sij*-ek halaxe pentsatzen zuten gure bi konpainiek laguntzera joan zitzaizkienean Pirzai Kotale-

ra, zortzi bandera *afridi*-en aurrean, oraindik hiru hilabete ere ez direla.

Mugako borrokaldi baten istorioa kontatu zuen; Ludhianako *sij*-ez osaturiko konpainiek primeran jokatu omen zuten. Amritzarreko neskak irribarre egin zuen, bai baitzekien istorio hura bere onspena lortzeko kontatzen zuela.

— Hara bada! —esan zuen nekazariaren emaztean bukatutakoan—. Beraz, herriak erre egin zizkieten eta haur txikiak etxerik gabe utzi?

— Gure hildakoak txiki-txiki eginda utzi zituzten beraiek. Prezio ederra ordaindu zuten guk erakutsitakoaren truke. Horixe gertatu zen. Hau al da Amritzar?

— Bai, eta hementxe eskatuko dizkigute txartelak —esan zuen bankariak, gerrikoan bila hasiz.

Kriseilua, egunsentiarekin, argitasuna galtzen ari ziren odol nahasiko zaindaria heldu zenean. Txartelak jasotzea lan mantsoa da Ekialdean, era guztietako leku bitxietan ezkutatzen baititu jendeak. Kimek berea atera zuen, eta trenetik jaisteko agindu zion gizonak.

— Baina Umballara noa ordea —protesta egin zuen—. Gizon santu honekin noa.

— Infernura ere joan zintezke nigatik. Txartel hau Amritzarreraino besterik ez da. Alde!

Kim negar eta negar hasi zen, lama aita eta ama zuela esanez, bera zela lamaren zahartza-roaren makila, eta lama hil egingo zela berak zaintzen ez bazuen. Bagoi osoak erregutu zion zaindariari izan zedila errukiorra —bankaria batez ere izan zen etorri handikoa—, baina zaindariak hala ere kaira bidali zuen Kim. Lamak begiak keinatu zituen, ezin baitzuen egoera ulertu, eta Kim, ahotsa goratuz, negarrez hasi zen bagoiaren leiho ondoan.

— Oso pobrea naiz. Ama hil egin zitzaidan... aita hil egin zitzaidan. O, errukior zareten horiek, ni hemen uzten banaute, nork lagunduko dio agure honi?

— Zer... Zer gertatzen da? —galdetu zuen berriz lamak—. Benaresera joan behar du. Nirekin etorri behar du. Mutila nire *chela* da. Dirurik eman behar bada...

— O, ixo —xuxurlatu zuen Kimek—; raja al gara bada zilarra xahutzen ibiltzeko, mundua horren errukiorra denean?

Amritzarreko neska jaitsi zen trenetik bere gauzeekin, eta harexengan finkatu zituen Kimek bere begi erneak. Bazekien bera bezalako damak eskuzabalak izan ohi direla.

— Txartel bat, *tikkut* txiki bat Umballarako... Zu, bihotzak urratzen dituzun horrek —neskak barre egin zuen—, ez al duzu karitaterik?

— Iparretik al dator gizon santua?

— Iparretik, urruti-urrutitik dator —esan zuen Kimek negarrez—. Mendi artetik dator.

— Elurra da pinuen artean Iparrean; elurra da mendietan. Ama Kulukoa nuen. Har ezazu martel bat. Eskaiozu bedeinkapena.

— Hamar mila bedeinkapen —egin zuen oihu Kimek—. O, santu hori, emakume batek karitatea egin digu zurekin joan nadin... urrezko bihotza duen emakume batek. *Tikkut*-aren bila joango naiz.

Neskak lamari begiratu zion, agurea oharkabean Kimen atzetik joan baitzen. Burua makurtu zuen neska ez ikustearren, eta zerbait murmuri-

katu zuen tibeteraz neska jendetzarekin nahastetzen zen artean.

— Arin etorri eta arin joan —esan zuen maltzurkeriaz nekazariaren emazteak.

— Merituak lortu ditu —erantzun zion lamak—. Dударik gabe, moja zen hori.

— Amritzarren bakarrik izango dira bai horrelako hamar mila moja. Sartu berriro, gizona, bestela *te-ren-a* zu gabe joango da eta.

— Txartel batentzako adina bazen, eta baita jateko pixka bat erosteko ere —esan zuen Kimek, jauzi batez bere lekura itzuliz—. Jan ezazu orain, santu horrek. Begira, badator eguna!

Goizaldeko lainoak, urrea, arrosa eta azafraia, desagertzen ari ziren zelai berdeen gainean. Punjab osoa bere aberastasunean ageritzen eguzki ederraren distirapean. Lama kuzkurtu egin zen telegrafoen makilak tren ondotik igerotzen ikusita.

— Handia da *te-rena-ren* abiadura —esan zuen bankariak, goitikako irribarrez—. Urrutiago joan gara trenez Lahoretik zu bi egunetan oinez baino; iluntzean, Umballan sartuko gara.

— Eta Benaresetik urruti dago hori oraindik ere —esan zuen ahots mehez lamak, otoiz eginenez marmarka Kimek eskaintzen zizkion gozoen gainean. Beren fardelak askatu zituzten denek eta goizeko jatorduari ekin zioten. Gero bankariak, nekazariak eta soldaduak pipak piztu zituzten, eta ke itogarri eta mingotsean bildu zuten bagoia, listua botaka, eztulka, eta gustura. *Sij*-ak eta nekazariaren emazteak *pan*-a mastekatzen zuten; lamak rapea hartu eta arrosario aleak pasatzen zituen, eta Kimek, zangoak gurutzatuta, irribarre egiten zuen sabel betearen erosotasunaz.

— Zein ibai daukazue Benaresen? —galdetu zien bat-batean lamak bagoiko guztiei.

— Ganges ibaia daukagu —erantzun zuen bankariak, barre txikiak bukatu zirenean.

— Eta zein beste?

— Ganges ibaiaz beste?

— Egia esan, sendatzeko gaitasuna duen ibai batez ari nintzen.

— Ganges duzu hori. Han bainatzen dena garbitu egiten da, eta Jainkoengana joaten. Hiru

bider egin dut nik erromesaldia Ganges ibaira —
ingurura begiratu zuen harro-harro.

— Bazen beharrik —esan zuen soldadu gazteak lehor, eta orduan bidaiariak bankariaren lepotik egin zuten barre.

— Garbitu, bai —murmurikatu zuen lamak—, Jainkoengana berriz itzultzeko. Eta aurrera egiteko bizitzen jarraipenean, oraindik ere Gurplean lotuta —buruari eragin zion, ernegatuta—. Baina baliteke okerren bat izatea. Nork egin zuen orduan Ganges ibaia hasieran?

— Jainkoek. Zein erlijiotakoa zara zu? —galdetu zuen bankariak, harrituta.

— Legearen jarraitzaile naiz. Lege Apartarena. Beraz, Jainkoek egin zuten Ganges ibaia. Zein eratako Jainkoak ziren?

Harriturik begiratu zion bagoiak. Sinestezina zitzaien norbaitek Gangesen berri ez izatea.

— Zein... zein da zure Jainkoa? —esan zuen azkenean diru-mailegariak.

— Entzun! —esan zuen lamak, arrosarioa eskuz aldatuz—. Entzun! Berataz ari naiz eta orain hizketan! O, Indiako herri horrek, entzun ezazu!

Urdueraz hasi zen Buda jaunaren istorioa kontatzen, baina, gogoetek bultzatuta, tibeterara jo zuen eta baita Budaren bizitzari buruzko liburu txinatar bateko zenbait testutara ere. Jende atsegin, eramankor hark erreberentziaz begiratzen zion. Gizon santuez dago beteta India osoa, hizkuntza ezezagunetan beren berri onak hitz totelka esaka, beren suaren garretan ezeztuta eta ikaraz dardarka; ameslariak, berritsuak eta aztibegiak: halaxe izan da hasiera-hasieratik eta halaxe izango bukaera arte.

— Um! —esan zuen Ludhianako *sij*-etako soldaduak—. Pirzai Kotalen errejimendu mahomatar bat zegoen gure aldamenean eta haien apai-zak, *naik*-a zen gogoan dudanez, iragarpenak egiten zituen eroaldiak ematen zionean. Baina Jainkoaren eskuetan daude ero guztiak. Gizon hari ofizialek gauza askotan egiten zioten ez ikusia.

Lama urdueraz hasi zen berriz hizketan, atzerrian zegoela gogoratuta.

— Entzun ezazue gure Jaunak arkutik askatu zuen Geziaren istorioa —esan zuen.

Hura askoz gustukoagoa zuten, eta adi-adi egon ziren kontaktzen zuen artean.

— Eta orain, Indiako jende hori, Ibai horren bila noa. Ezagutzen al duzue lagungarri gerta lekidakeen ezer? Izan ere, gaiztoa baita gizon-emakume guztiona den mundu hau.

— Ganges da, Ganges bakar-bakarrik, bekatua garbitzen duena —murmurikatu zuten denek bagoian.

— Baina Jullundur aldean ere baditugu Jainko onak —esan zuen nekazariaren emazteak—. Begira nola bedeinkatu duten uzta.

— Punjabeko ibai guztiak bilatzea ez da bada nolana hiko lana —esan zuen senarrak—. Nik nahikoa dut lokatz ona uzten duen erreka, eta eskerrak ematen dizkiot Bhumiari, etxeko jainkoari —besaburu korapilatsu, zaildu bat altxatu zuen.

— Gure Jauna Ipar aldera horren urrutira heldu zela uste al duzu? —esan zuen lamak, Kimengana jiratur.

— Baliteke —erantzun zion Kimek lasaitu nahian, *pan*-aren zuku gorria lurrera boteaz.

— Handien arteko azkena —esan zuen *sij*-ak aginpidez—, Sikander Julkarn izan zen (Alexander Handia). Jullundurreko kaleak harriztatu zituen, eta urtegi handi bat eraiki Umballatik gertu. Kale haiek irauten dute oraindik; eta urtegia ere hantxe dago. Ez dut sekula zure Jainkoaren berri izan.

— Ilea utzi luze eta punjabieraz mintza —esan zion soldadu gazteak txantxetan Kimi, Iparrereko esaera zahar bat errepikatuz—, ez da besterik behar *sij* bihurtzeko —baina hori ez zuen oso ozen esan.

Lamak hasperen egin zuen eta bere baitan kuzkurtu zen, kolorerik gabeko masa tankeragabea. Hizketaldiaren isiluneetan lamaren otoitzak entzuten ziren, behe-behetik esanak, «*Om mane pudme hum! Om mane pudme hum!*», eta egurrezko arrosario aleen soinu gotorra.

— Ernegatu egiten nau —esan zuen azkenean—. Abiadurak eta zarata honek ernegatu egiten naute. Gainera, *chela*, agian pasa egin dugu Ibai hori.

— Lasai, lasai —esan zion Kimek—. Ez al zegoen bada Ibaia Benaresetik hurbil? Oraindik urruti gaude handik.

— Baina... Gure Jauna Iparrera etorri bazen, gurutzatu ditugun erreka txiki horietako bat izan zitekeen.

— Ez dakit.

— Baina zu nigana bidali zaituzte, ez al da hala? Harantzago, SuchZenen lortu nituen merituengatik. Kanoiaren ondoan agertu zinen, bi aurpegi eta bi jazkerekin.

— Lasai. Ez gara hemen mintzatu behar gauza horietaz —xuxurlatu zion Kimek—. Ni besterik ez zen han. Pentsatu ondo eta gogoratuko zara. Mutil bat, mutil hindu bat, kanoi handi berdearen ondoan.

— Baina gizon ingeles bat ere ez al zen bada han, bizar zuriarekin, santua irudien artean, Geziaren Ibaiaren istorioa ziurtatu egin zidana?

— Hau... hau... Lahoreko Ajaib-Gherrera joan zen bertako Jainkoen aurrean otoitz egitera —azaldu zuen Kimek adi-adi zegoen entzulegoari—. Eta Etxe Miragarriko sahibak berarekin hizketan jardun zuen, bai, egia da hori, anaia balu

bezala. Oso gizon santua da, Mendien atzetik baino urrutiagotik etorria. Egon lasai. Helduko gara behar denean Umballara.

— Baina nire Ibaia? Garbituko nauen Ibaia?

— Hara heldutakoan, oinez joango gara Ibai horren bila. Horrela ez dugu ezertxo ere galduko, ezta zelai baten ertzeko erreka ere.

— Baina zuk ere baduzu zeure Bilakuntza, ezta? —lama, oso pozik horren ondo gogoratu zuelako, tente-tente jarri zen.

— Bai —esan zuen Kimek, bestea alaitzearen. Pozez gainezka zegoen mutila, *pan*-a mastekutzen eta mundu handi eta borondatetsu hartan jende berria ikusten.

— Zezen bat zen... Etorri eta lagunduko dizun Zezen Gorri bat, eta eramane... nora? Ahaztuta daukat. Zezen Gorri bat zelai berde batean, ez al da hala?

— Ez, ez nau inora eramango —esan zuen Kimek—. Kontatu nizun istorio bat besterik ez zen hura.

— Zer da hori? —nekazariaren emaztea aurrerantz makurtu zen, pultserak tintilika besoan—. Biok izaten al dituzue ametsak? Zezen

Gorri bat Zelai Berde batean, zerura eramango zaituena? Ikuspena al zen? Norbaitek iragarri al zizun? *Guk* Zezen Gorri bat daukagu Jullundurren ondoko herri batean, eta gogoak ematen diogon egoten da larrean gure zelai berdeenetan.

— Emaiozu emakume bati atso baten istorioa, eta ehule-txori bati hostoa eta haria, eta gauza zoragarriak ehunduko dituzte biek —esan zuen *sij*-ak—. Santu guztiek izaten dituzte ametsak, eta beren dizipuluek ahalmen horixe lortzen dute haien irakaspenei jarraituz.

— Zezen Gorri bat zelai berde batean, hori al zen? —esan zuen berriz lamak—. Merituak egingo zenituen beharbada aurreko bizitzaren batean, eta orain Zezena sana ematera etorriko zaizu.

— Ez, ez. Norbaitek kontatu didan istorioa besterik ez da... ziria sartzeko beharbada. Baina Zezenaren bila ibiliko naiz Umballa inguruan, eta bitartean zuk zeure Ibaia bila dezakezu eta trenaren zarataz atsedean hartu.

— Baliteke Zezenak jakitea... Gu bioi laguntzera bidalia izatea —esan zuen lamak, haur bat bezain itxaropentsu. Orduan esan zien besteei,

Kim seinalatuz—: Atzo bertan bidali zidaten. Nire ustez, ez da mundu honetakoa.

— Eskaleak ugari topatu izan ditut, eta gizon santuak nahi adina, baina sekula ez horrelako yogirik, ezta horrelako dizipulurik ere —esan zuen emakumeak.

Senarrak behatz batez ukitu zuen kopeta irribarrez. Baina lamak hurrena jatean, ahaleginduko ziren zeukaten onena ematen.

Eta azkenean, nekatuta, erdi lotan eta hautsez estalita, heldu ziren Umballako geltokira.

— Gu hemen geratzen gara, lege auzi bat daukagu eta —esan zion nekazariaren emazteak Kimi—. Senarraren lehengusuaren anaia gazteenaren etxean egongo gara. Yogiarentzat eta zuretzat ere bada lekurik patioan. Zera... emango al dit bere bedeinkapena?

— Entzun, maisu! Urrezko bihotza duen emakume batek lekua emango digu gauerako. Atsegina da bai, hegoaldeko lurraldea. Begira egun-sentiaz geroztik nola lagundu diguten hegoaldekoek!

Lamak burua makurtu zuen, bedeinkapena emanaz.

— Nire lehengusuaren anaia gazteenaren etxea arlotez betetzea ere... —hasi zen senarra, banbuzko makila astuna lepoan hartzearekin batera.

— Zure lehengusuaren anaia gazteenak oraindik ere zor dio zerbait nire aitaren lehengusuari bere alabaren eztei-festarengatik —moztu zion emakumeak ernegatuta—. Jar dezala hauen janaria kontu horretan. Baina yogia eskean arituko da noski.

— Bai, ni aritzen natzaio eskean —esan zuen Kimek, lama gauerako aterpean edukitzeko irrikitzen baitzegoen, horrela Mahbub Aliren gizon ingelesaren bila joango baitzen bera, eta zaldia-
ren pedigriaz libratu.

— Orain —esan zuen, lama leku seguruan zegoenean, itxurazko etxe hindu baten barneko patioan, kuartelen atzealdean—, kanpora joango naiz pixka batean, zera... jateko zerbati erostera azokan. Ez mugitu ni itzuli arte.

— Itzuliko al zara? Benetan itzuliko zara? — agureak eskumuturretik heldu zuen Kim—. Eta itxura berean itzuliko al zara? Beranduegi al da Ibaiaren bila gaur gauean bertan hasteko?

— Beranduegi da eta ilunegi dago. Lasai egon. Pentsa ezazu zeinen urruti heldu zaren, dagoeneko Lahoretik ehun eta berrogeita hamar kilometro.

— Bai... Eta are urrutiago nire monasteriotik. Hara! Mundu handia eta ikaragarria da hau.

Kim desagertu egin zen; ez du inoiz bere patua eta beste ehunka batzuen lepotik zintzilik eraman horren gutxi nabarmentzen den batek. Mahbub Aliren azalpenek ez zioten zantzaz handirik utzi gizon ingelesa bizi zen etxeaz; eta morroi batek, bi gurpiletako gurdi batekin zetorrela Ciubetik, ziurtatu zion helbidea. Bere gizona zein ote zen asmatzea baino ez zitzaion geratzen, eta Kim lorategiko eskaitik sartu eta azeri buztan batzuen atzean ezkutatu zen, ataritik berta-bertan. Etxea distiratsua zegoen argiekin, eta zerbitzariak lore, kristal eta zilarrez hornituriko mahaien inguruan zebiltzan. Halako batean gizon ingeles bat agertu zen, zuri-beltzez jantzita, ahopetik kantari. Ilunegi zegoen gizonaren aurpegia ikusi ahal izateko, eta hala, Kimek, eskaleen antzera, trikimailu zahar batera jo zuen.

— Behartsuen Babesle!

Gizona ahotsaren aldera jiratu zen.

— Mahbub Alik dio...

— Hara! Zer dio Mahbub Alik? —gizona ez zen hizlariari begiratzen saiatu, eta horrek adierazi zion Kimi bazekiela zertara zetorren bera.

— Hazitarako zaldi zuriaren pedigria erabat osatuta dago.

— Zer froga daukazu? —ingelesa bide ondoko arrosen aldera abiatu zen.

— Mahbub Alik froga hau eman dit.

Kimek paper pusketa tolestua haizetan erortzen utzi zuen, eta gizonaren ondoko bidexkan erori zen papera; oinaz eutsi zion, lorezain bat baitzetorren etxearen bestaldetik. Zerbitzaria igaro zenean hartu egin zuen gizonak, rupia bat erortzen utzi —soinua entzun zuen Kimek-eta etxera sartu zen, atzera jiratu gabe. Kimek dirua jaso zuen bizkor; baina, halakoetan esperientzia handia izanda ere, irlandarra zen jatorriz, eta azkena iruditzen zitzaion dirua edozein jokotan. Berak maite zuena ekintzaren ondorio praktikoa zen; beraz, handik desagertu ordez, belarretan etzan eta arrastaka joan zen etxe ondoraino.

Ikusi zuen —zabal-zabalik egon ohi dira indiar *bungalow*-ak—, gela txiki batera itzultzen zela ingelesa, atariaren bazter batean, bulegoa edo zena, paperez eta mezuak bidaltzeko karterez josita, eta eseri egiten zela Mahbub Aliren mezua aztertzer. Aurpegia, kerosenozko kriseilu baten argi betean, itxuraldatu eta ilundu egin zitzaion, eta Kimek, eskale orok behar duen bezala aurpegierei erreparatzen ohituta, ederki asko hartu zuen hura kontutan.

— Will! Will, maitea! —deitu zuen emakumezko ahots batek—.

Egongelan beharko zenuke izan. Segituan izango dira hemen.

Gizona oraindik ere irakurri eta irakurri ari zen.

— Will! —esan zuen ahotsak, bost minutu geroago—. Etorri da. Soldaduen zaldia entzuten ditut bidean.

Gizona habailetan atera zen, landau handi bat, zalditeriako lau soldadu indiarrek inguratu-ta, atariaren ondoan gelditzen zen unean bertan; gizon handi bat atera zen bertatik, ile beltzeki-

koa, gezi bat bezain tente, barrez ari zen soldadu gazte bat zuela aurrean.

Kim etzanda zegoen, lurrera itsatsita, gurpil handiak ukitzeko zorian. Bere gizonak eta ile beltzekiko ezezagunak bi esaldi trukatu zituzten.

— Jakina jauna —esan zuen prestu ofizial gazteak—. Gauza guztiek itxaron lezakete tartean zaldia denean.

— Hogei minutu baino gehiago ez gara egongo —esan zuen Kimen gizonak—. Egin zuk oho-reak... Entrenitu itzazu.

— Esan soldaduetako bati itxoin dezala —esan zuen gizon handiak, eta elkarrekin sartu ziren biak bulegora landauak alde egiten zuen artean. Kimek Mahbub Aliren mezuaren gainean makurtzen ikusi zituen bi buruak; bien ahotsak entzuten zituen, bata isila eta apala, zorrotza eta erabakiorra bestea.

— Ez da aste kontua. Egun kontua da, orduak ia —esan zuen zaharrenak—. Denbora luzea neraman honen zain, baina honek —Mahbub Aliren papera jo zuen—, ziurtatu egiten du. Hemen afaltzekoa da gaur Grogan, ezta?

— Bai jauna, eta baita Macklin ere.

— Oso ondo. Neronek hitz egingo dut beraiekin. Batzordera eramango dugu arazoa, jakina, baina kasu honetan behintzat justifikaturik dago berehala ekitea. Abisua eman Rawalpindi eta Peshawurreko brigadei. Udako baimen guztiak hondatuko ditu honek, baina ezin da besterik egin. Lehenengo aldian erabat zanpatu ez genituelako gertatu zaigu. Zortzi mila nahikoak behar lukete izan.

— Eta artilleria, jauna?

— Macklini galdetu behar diot.

— Orduan, gerra esan nahi du honek?

— Ez. Zigorra. Gizon bat aurrekoaren ekin-tzak lotuta daukanean...

— Baina baliteke C25-ek gezurra esan izana.

— Bestearen informazio baieztatzen du. Egia esatera, duela sei hilabete erakutsi zuten zer zeukaten esku artean. Devenishek ordea bake-rako aukerarik bazela erabaki zuen. Hori, jakina, indarrak inguratzeko erabili zuten. Bidali telegrama horiek berehala, kode berria, ez zaharra, nirea eta Whartonena. Ez dut uste damak luzarogago itxaroten eduki beharra daukagunik. Gai-nontzekoa zigarroak erretzerakoan antola gene-

zake. Iruditzen zitzaidan, bai, horrelakoren bat gertatuko zela. Zigorra da... ez gerra.

Soldaduak zaldia hartuta galapan alde egin zuenean, etxearen atzealdera joan zen Kim arrastaka; han, Lahoreko esperientziak kontutan izanik, jatekoa izango zela pentsatzen zuen... eta informazioa. Sukaldea bete-bete eginda zegoen morroi urduriz, eta batek ostiko bat eman zion Kimi.

— Ai! —egin zuen oihu Kimek, negar itxurak eginez—. Platerak garbitzera besterik ez naiz etorri, sabel betearen truke.

— Unballa osoak ideia berbera izan du. Alde hemendik. Orain zopa ari dira hartzen. Zer uste duzu, Creightonen zerbitzari garenok kanpoko morroiak behar ditugula afari handi batean laguntzeko?

— Oso afari handia da —esan zuen Kimek, plateri begira.

— Horixe bai asmatzea! Ohorezko gonbidatua Jang-i-Lat sahiba da (gudalburua).

— A! —esan zuen Kimek, harridurazko ñabar-dura egokia erantsiz. Bazekien jakin nahi zuena, eta joana zen morroia jiratu zenean.

— Horrelako iskanbila —esan zuen berekiko, ohi bezala hindustanieraz pentsatuz—, zaldi baten pedigriarengatik! Niregana behar zuen Mahbub Alik etorri gezurrak hobexeago esaten ikastera. Orain arte eraman ditudan mezu guztiak emakumeekin zuten zerikusia. Oraingoan gizonak dira. Hobeto. Gizon handiak esan du armada handi bat bidali behar dutela norabait norbait zigortzera; albistea Rawalpindi eta Peshawurrera doa. Kanoiak ere badira tartean. Lastima, gehiago hurbildu ez izana. Albiste handiak dira!

Itzuli eta eztabaidan topatu zuen nekazariaren lehengusuaren anaia gazteena familiako auziaz eta auziaren ondorio guztiez, nekazaria, emaztea eta lagun batzuekin, lama erdi lotan zegoen artean. Afariaren ondoren nargile bat pasa zion norbaitek; eta Kim benetako gizona sentitu zen kokozko azal labainetik hartu zue-nean kea, zangoak zabal-zabal jarrita ilargiaren argitan, eta oharren bat eginez tarteka-tarteka. Ostalariak konplituak ziren oso; izan ere, esana zuen nekazariaren emazteak Zezen Gorriaren istorioa, eta beste munduren batetik etorria

izango zela Kim segur aski. Gainera, lama bitxikeria handia eta errespetagarria zen. Familiako apaiza, *sarsut* brahman zahar ulerkorra azaldu zen geroago, eta eztabaida teologiko bati ekin zion, lagunak txundituta uztearren noski. Erlijioan, jakina, beren apaizaren aldekoak ziren denak, baina lama zen gonbidatua eta nobedadea. Haren konplimendu atsegin eta aipamen txinatar harrigarriek, aztikeria ziruditela, pozez zorutzen zeuzkaten; eta bere era sotil eta atseginean, Budaren lotoa bezalaxe loratu zen lama, Such-zeneko mendi handietan egiten zuen bizi-moduaz hizketan, berak zioen bezala, «Argitasunaren bila abiatzeko altxatu» baino lehen.

Gero jakin zen bere garai mundutarrean maisua izana zela horoskopoak asmatzen eta jaioberriez iragarpenak egiten; eta familiako apaizak horretarako metodoak azal erazi zizkion, besteek ulertu ezin zituzten planeten izenak aipatuz biak, eta gorantz seinalatuz izar handiek iluna gurutzatzen zuten artean. Etxeko umeek arrosarioari tiraka jardun zuten, errietarik hartu gabe; eta lamari ahaztu egin zitzaion emakumeei begiratzea debekatzen duen Araua, pairatu beharre-

ko elurteez hitz egiten zuen artean, lur-jauzi eta etendako pasabideez, zafiroak eta turkesak aurkitzen diren urruneko mendiez, eta azkenean Txina Handira daraman mendi gaineko bide zoragarriaz.

— Zer deritzozu zuk gizon honi? —galdetu zion nekazariak apaizari, bazterrera eramanda.

— Gizon santua da... gizon santua benetan. Bere Jainkoak ez dira Jainko noski, baina Bidean dauzka oinak —izan zen erantzuna—. Eta horoskopoetarako dituen metodoak, zuk ulertu ezin badituzu ere, egokiak eta ziurrak dira.

— Esadazu —esan zion Kimek nagikeriaz—, aurkituko ote dudan nik Zezen Gorria, agindu didaten bezala.

— Ba al dakizu zer ordutan jaio zinen? —galdetu zion apaizak, harro-harro bere garrantziaz.

— Maiatzeko lehenengo gauaren bi lehenengo kukurrukuen artean.

— Zein urtetan?

— Ez dakit; baina nik lehenengoz negar egin nuen ordu berean izan omen zen Kashmirreko Srinagarreko lurrikara handia.

Zaintzen zuen emakumeak esanda zekien hura, eta emakumeak berriz Kimball O'Harak esanda. Lurrikara Indian sentitu zuten, eta denbora luzez erreferentzia eguna izan zen Punjaben.

— Hara! —esan zuen emakume batek urduri. Gertaera hark Kimen natura-gaineko jatorria are ziurragoa egiten zuela zirudien—. Ez al zen bada jaio halako baten alaba orduan...?

— Eta haren amak lau seme segidan eman zizkion lau urtetan senarrari, denak mutilak —egin zuen oihu nekazariaren emazteak, argitatiek kanpo eserita, itzaletan.

— Ezagueran hezitako inork —esan zuen familiako apaizak—, ez du ahazten nola zeuden planetak beren Etxeetan delako gau hartan —patioko hautsean marrazten hasi zen—. Zuk behintzat Zezenaren Etxearen erdia eskatzeko eskubidea badaukazu. Zer dio iragarpenak?

— Egun batean —esan zuen Kimek, pozez zorutzen sortzen zuen jakin-minarekin—, handia egingo naiz zelai berde batean datorren Zezen Gorri baten bitartez, baina lehenbizi bi gizon agertuko dira dena prestatzera.

— Bai: halakoxea izaten da beti ikuspen baten hasiera. Iluntasun handia, pixkanaka-pixkanaka argitzen dena; gero erratz batekin sartzten da bat lekua prestatzera. Eta orduan ikuspena hasten da. Bi gizon... hori esan al duzu? Bai, bai. Eguzkia, Zezenaren Etxea utzita, Bizkiernean sartzten da. Hortik datoz iragarpeneko bi gizonak. Egin ditzagun orain gogoeta batzuk. Emadazu adar bat, umetxo.

Brahamanak bekainak zimurtu zituen, zerbait marraztu zuen hautsetan, ezabatu, eta berriz marraztu zituen zeinu misteriotsoak, lamaz beste guztiak txundituta utzirik, hark, sen handiz, ez baitzuen ezertan sartu nahi izan.

Ordu erdi geroago, harrika bota zuen adarra, marmarka.

— Um. Halaxe diote izarrek. Hiru egun barru etorriko dira bi gizonak gauza guztiak prestatzera. Horien atzetik Zezena dator; baina kontrajarrita daukan zeinua Gerra eta gizon armatuena da.

— Soldadu bat zegoen, bai, Ludhiana *sij*-etako Lahoreko bagoian —esan zuen itxaropentsu nekazariaren emazteak.

— Ez, ez. Gizon armatuak, ehunka. Zer zeri-
kusi duzu zuk gerrarekin? —galdetu zion apaizak
Kimi—. Laster sortuko den Gerra baten zeinu
gorri sutsua da zurea.

— Ez, ez —esan zuen lamak bizi-bizi—. Bakea
eta gure Ibaia baino ez dugu bilatu nahi.

Kimek irribarre egin zuen, bulegoan entzun-
dako gogoratuz. Dudarik gabe, izarren kuttuna
zen bera.

Apaizak oinaz borratu zuen horoskopo zatar
hura.

— Hori baino gehiagorik ezin dut ikusi. Hiru
egun hartu etorriko zaizu Zezena, mutil.

— Eta nire Ibaia, nire Ibaia —esan zuen lamak
erreguka—. Zezenak Ibaira eramango gintuela
biok espero nuen nik.

— Lastima, zure Ibai zoragarri hori, anaia —
erantzun zion apaizak—. Horrelako gauzak ez
dira maiz gertatzen.

Biharamunean, egoteko erregutu zieten,
baina joan beharra zutela insistitu zuen lamak.
Jateko gozoz betetako fardel bat eman zioten
Kimi, ia hiru ana kobrezko dirutan bideko beha-
rretarako, eta bedeinkapen ugarirekin nola abia-

tzen ziren hegorantz goizaldean begira egon ziren.

— Lastima, horiek eta beraiek bezalakoak Gauzen Gurrupiletik libratu ezina —esan zuen lamak.

— Ez bada, orduan jende gaiztoa besterik ez litzateke geratuko eta lurrean, eta nork emango liguke jatena eta aterpea? —erantzun zion Kimek, alai-alai bere zamaren azpian.

— Ikusi, errekatxo bat dago han. Goazen begiratzera —esan zuen lamak, eta zelaiak gurutzatzen zituen bide zuritik eraman zuen; eta zakur paria artean sartu ziren bete-betean.

3. ATALA

*Bai, Bizitzari lotzen zitzaizkion
Arima ororen ahotsak,
Mailaz maila ahalegintzen ziren Arimak,
Devadattaren araua gaztea zenean
Haize epelak Kamakura dakar
Buda Kamakuran.*

Beraien atzean nekazari haserre batek ban-buzko makal handi bati eragiten zion. Baserritarra zen, *arain* kastakoa, eta Umballa hirirako barazki eta loregintzan ari zen; Kimek ederki asko ezagutzen zituen gizon haren klasekoak.

— Horra hor —esan zuen lamak, zakurrei jaramonik egin gabe—, ezezagunekin kortesiarik ez duena, hizketan zabarra eta karitaterik gabekoa. Balioko ahal dizu oharkizun gisa horren jarrerak, dizipulu.

— E, eskale lotsagabe horiek! —egin zuen oihu nekazariak—. Ospa! Alde hemendik!

— Bagoaz —esan zuen lamak, lasai eta duintasunez—. Bagoaz bedeinkatu gabeko baratz hauetatik.

— Ah —esan zuen Kimek, haizea zurrupatuz—. Hurrengo uzta hondatzen bazaizu, zure mingainari baino ezingo diozu errua leporatu.

Gizona oinak mugitzen hasi zen, deseroso.

— Lurralde hau eskalez josita dago —hasi zen, barkamena eskatu nahian edo.

— Eta nola zenekien ezer eskatu behar genizunik, o *mali*? —esan zion Kimek zakar, baserri-tar bati gutxien gustatzen zaion hitza erabiliz—. Zelaiaren bestaldeko ibaia ikusi besterik ez genuen nahi.

— Hori ibaia! Astakeria galanta! —esan zuen gizonak mesprezuz—. Zein hiritatik zatozte erreten bat ez ezagutzeko? Gezi bat bezain zuzen doa, eta urrea baino garestiago ordaintzen dut ura. Harantzago topatuko duzue ibai baten adarra. Baina ura behar baduzue, emango dizuet nik, eta baita esnea ere.

— Ez, ibaira joango gara —esan zuen lamak, ibiltzen hasiz.

— Esnea eta jatekoa —esan zuen hitz totalka nekazariak, irudi handi bitxi hari begira—. Nik... ez dut madarikaziorik nahi, ez niretzat, ez nire

uztarentzat. Baina horrenbeste eskale izaten da eta gaur egun...

— Kontura zaitez —lama Kimengana jiratu zen—. Amorruaren Laino Gorriak zakarkeriaz mintzatzera bultzatu du. Baina lainoa begietatik desagertu zaionean, gizon konplitua bihurtu da, eta bihotz oneko. Jainkoak bedeinka diezazkiola baratzak! Kontuz ibili, nekazari, gizonak bizko-rrégi epaitu gabe.

— Ikusi izan ditut etxea sutondotik atariraino madarikatuko lizuketen gizon santuak —esan zion Kimek lotsatuta zegoen gizonari—. Ez al da honako hau gizon jakintsu eta santua? Ni bere dizipulua naiz.

Buruzut jarri zen hantustez, eta duintasun handiz baratzen ertzak gurutzatu zituen.

— Ez da harrokeriarik —esan zion lamak ete-naldi baten ondoren—, ez da harrokeriarik Erdi-ko Bideari jarraitzen diotenen artean.

— Baina behe-kastakoa eta kortesiarik gabea zela esan duzu zuk.

— Behe kastakoa zenik ez dut esan, zeren eta, nola izan liteke bada izanik ez duen zerbait? Eta gero bere zabarkeria zuzendu du, eta ahaztu

egin dut iraina. Gainera hori ere gu bezalaxe dago, Gauzen Gurpilari lotuta; baina ez du askatasunaren bidea hartu —zelaien arteko errekas-to baten ondoan gelditu, eta ur ertzera begira jarri zen; ganaduaren arrastoz josita zegoen.

— Eta nola jakingo duzu zein den zure Ibaia? —galdetu zion Kimek, banbu-kanabera luze batzuen itzalpean eseriz.

— Aurkitzen dudanean, argitasunen bat eman bide didate. Hau, ederki sumatzen dut, ez da lekua. O, uren artean txikiena zaren hori, esango al didazu non dagoen nire Ibaia! Baina izan zaitez bedeinkatua, eta zelaiak egin itzazu emankor!

— Begira! Begira! —Kimek jauzi egin zuen lamaren aldera, agurea atzerantz bultzatuz. Kanabera more marmartietatik ur ertzeraino ondulazio hori eta arre bat irristatu zen, lepoa uretara luzatu zuen, edan, eta geldi-geldik geratu zen: kobra handi bat zen, begiak zirkinik egin gabe eta betazalik gabea.

— Ez daukat makilarik... ez daukat makilarik —esan zuen Kimek—. Makila hartuko dut eta bizkarrezurra txiki-txiki egingo diot.

— Zergatik? Hori ere Gurpilean dago, gu bezalaxe; gora edo behera doan bizitza, askatasunik oso urruti. Bekatu handiak egin behar izan ditu arima horrek itxura horretan egoteko.

— Suge guztiei diet gorroto —esan zuen Kimek. Indian asko bizitu arren, ez da desagertzten gizon zuriak Sugeari dion ikara.

— Utzizu bere bizitza bizitzen —izaki biribilduak txistu egin zuen eta kapusaia erdizka zabaldu—. Iritsiko ahal zaizu laster askatasuna, anaia! —jarraitu zuen lasai lamak—. Ez duzu bada *zuk* ezer jakingo nire Ibaiaz?

— Ez dut sekula horrelako gizonik ikusi —xuxurlatu zuen Kimek, lotsatuta—. Ulertzen al dute sugeek *zuk* diozuna?

— Nork daki? —lama kobraren buru tentearen ondo-ondotik igaro zen. Hautsez betetako biribiletan murgildu zen sugea—. Zatoz! —egin zion oihu Kimi sorbalda gaineretik.

— Ez —esan zuen Kimek—. Zeharbidetik joango naiz.

— Zatoz. Ez du kalterik egiten.

Kimek zalantza egin zuen une batez. Lamak agindua indartu egin zuen Kimi sorginkeria irudi-

tu zitzaion bertso txinatar batzuk esanez. Obedituz, erreka toa gurutzatu zuen, eta sugeak, hain zuzen ere, ez zuen zirkinik egin.

— Ez dut sekula horrelako gizonik ikusi — Kimek kopetako izerdia garbitu zuen—. Eta orain, nota goaz?

— Hori zuk esan behar duzu. Ni zaharra naiz, eta atzerritarra. Urruti nago nire lurraldeetatik. Baina burdinbidetik doan gurdi horrek burua deabruen danborren zaratarekin beteko ez balit, *te-ren-ez* joango nintzateke Benaresera... Baina horrela joanez Ibaia gal genezake. Goazen beste ibai baten bila.

Gogor landutako lurrek urtean hiru eta baita lau uzta ere ematen dituen lekuetatik ibili ziren egun osoz, azukrea, tabakoa, lutexarbi zuri-luzeak eta arbiak hazten diren baratzetatik, ur pixka bat begiztatu orduko bidetik aldenduz, herri txikieta-ko zakurrak eta bazkalondoan lo zeudenak asal-datzuz; eta egiten zitzaizkion galderei sotiltasun hautsiezinez erantzuten zien lamak. Ibai baten bila zebiltzan, sendakuntza miresgarriak egiten zituen Ibai baten bila. Ba al zekien norbaitek ezer horrelako urlaster batez? Batzuetan gizo-

nek barre egiten zuten, baina gehienetan bukaera arte entzuten zuten istorioa eta lekua eskaintzen zieten bieitzaletan, esnea edateko, eta jatekoa. Emakumezkoak atseginak izaten ziren beti, eta ume txikiak, mundu osoko umeak bezala, ausartak batzuetan eta lotsatiak besteetan. Lasto eta buztinezko hormak eta teilatuak zeuzkaten etxez osaturiko herri bateko zuhaitz nagusiaren azpian topatu zituen arratsak atsedean hartzen, herriko nagusiarekin hizketan ganadua zelaietatik zetorrela, eta emakumezkoek eguneko azken jatordua prestatzen zuten artean. Atzean utzita zeuzkaten Umballa gosetia inguratzen dituzten baratzak, eta ale nagusiak hazten diren zelai berde zabaletan zeuden.

Herriko agintaria bizar zuriko agure atsegin bat zen, ezezagunekin jarduten ohitua. Sokaz egindako ohe bat atera zion lamari, jateko beroa jarri zion aurrean, pipa prestatu, eta arratseko ospakizunak bukatu zirenean herriko elizan, bertako apaizaren bila joateko agindua eman zuen.

Kim Lahoreren tamaina eta edertasunaz mintzatu zitzaien herriko haur zaharrenei, burdinbideko bidaiez, eta hiriko beste gauzez, gizonek

hizketan jarduten zuten artean, hango behiak hausnarrean egon ohi ziren patxada berberaz.

— Ez dakit zer esan —esan zion azkenean agintariak apaizari—. Zer deritzozu zuk horren esanari?

Lama, bere istorioa bukatuta, isilik zegoen arrosario aleak pasatzen.

— Bila dabilen gizona da —erantzun zuen apaizak—. Horrelako jendez beteta daude lurralde hauek. Gogoratzen al zara joan den hilabetean etorri zen hartaz, dortokarekin zetorren fakirra?

— Bai, baina gizon hark bazuen arrazoirik, Krisna bera agertu baitzitzaion, eta Paradisua agindu zion heriotza-sutzarrik gabe Prayagera joaten bazen erromes. Gizon hau ez dabil nik ezagutzen ditudan Jainkoen bila.

— Lasai egon, zaharra da eta: oso urrutitik dator, eta erotuta dago —erantzun zuen bizarrik gabeko apaizak—. Entzun —lamarengana jiratu zen—. Mendebalde aldera, hiru *koss*-etara (hamar kilometro), Calcuttarako errepide handia dago.

— Baina nik Benaresera joan nahi dut, Benaresera.

— Benareserakoa ere bada. Indiako alderdi honetako erreka guztiak gurutzatzen ditu. Hala ere, atsedean bar dezazula hemen bihar arte da nire aholkua, maisu. Gero bidea hartu (errepide nazional nagusiaz ari zen) eta azter ezazu gurutzatzen duen ibai oro; izan ere, ulertu dudanez, zure Ibaiaren ahalmena ez dago putzu edo leku jakin batean, duen luzera osoan baizik. Orduan, zure Jainkoek hala nahi badute, ziur izan bila zabilzan askatasun horretara helduko zarela.

— Ondo esana dago hori —hunkitu egin zen lama ideia harekin—. Bihar hasiko gara, eta bedeinkatua izan zaitezela agure baten oin zaharrei halako bide hurbila erakusteagatik —ahots sakonez, kantari bezala esandako txinatar bertso batzuek itxi zuten esaldia. Apaiza bera ere hunkituta geratu zen, eta agintariari berriz sorginkeria gaiztoen bat ez ote zen hura bururatu zitzaion: baina inork ezin zion begiratu lamaren aurpegi apal, serioari eta zalantza handirik izan.

— Ikusten al duzu nire *chela*? —esan zuen lamak, burua rapearen kalabazan sartu eta

rapea indarrez hartuz. Kortesia kortesiaz ordaindu beharra zeukan.

— Ikusten dut, eta entzun ere bai —agintariak beste aldera begiratu zuen, Kim urdinez jantzitako neska batekin berriketan zegoen lekurantz, neskak egur puskak sutara botatzen zituen artean.

— Horrek ere badu bere Bilakuntza. Ez Ibaia, Zezena baizik. Bai, Zezen Gorri batek Zelai Berde batean ohore handia emango dio egunen batean. Mutila, nik uste, ez da guztiz mundu honetakoa. Bat-batean bidali zidaten bilakuntza honetan laguntzera, eta Mundu osoaren Adiskide du izena.

Apaizak barre egin zuen.

— Aizu, Mundu osoaren Adiskide —egin zuen oihu usain garratzeko kearen gainetik—, zer zara zu?

— Gizon santu horren dizipulua —esan zuen Kimek.

— *Bût*-a zarela dio. (Izpiritua)

— Jan al lezake *bût* batek? —esan zuen Kimek, begia keinatuz—. Ni gose naiz eta.

— Ez da txantxetako gauza —egin zuen oihu lamak—. Izena ahaztu zaidan hiri bateko astrologoak...

— Umballa besterik ez zen, hantxe egin bai-kenuen bart lo —xuxurlatu zion Kimek apaizari.

— Hara, Umballa al zen? Horoskopoa egin zion, eta esan zuen nire *chela*-k bi egun hartu beteko duela bere desioa. Baina zer esan zuen izarren esanahiaz, Mundu osoaren Adiskide?

Kimek eztarria garbitu eta herriko gizon bizar urdinduei begiratu zien.

— Nire Izarraren esanahia Gerra da —erantzun zuen harro-harro.

Norbaitek barre egin zion irudi zarpail kaskar hari, zuhaitz handiaren azpian harlanezko zolan bere burua erakusten ari zena. Indiar bat etzan egingo zen lekuan, zutik egotera bultzatzen zuen Kim bere odol zuriak.

— Bai, gerra —erantzun zuen.

— Iragarpen hori benetakoa da —tartekatu zen ahots sakon bat—. Izan ere, nik dakidanez, beti dago gerra mugan.

Agure bat zen, oso zahartua, Mutinaren garaian Gobernuaren zerbitzari izana, indiar ofi-

zial gisa sortu berria zen zalditeri errejimendu batean. Gobernuak lur onak eman zizkion herrian, eta semeen eskakizunek, ordurako bizar urdinekiko ofizialak, pobretu egin bazuten ere, bazuen oraindik garrantzirik inguru haietan. Ofizial ingelesek, baita komisarioek ere, errepide nagusitik atera eta bisita egitera joaten zitzaizkion; halakoetan garai bateko uniformeak jantzi, eta hezur bat bezain tente egoten zen.

— Baina hau gerra handia izango da... zortzi mila soldaduen gerra —Kimek bere ahots zorrotza jaso zuen bizkor biltzen ari zen jendetzaren gainean, bera ere harritu egin zelarik.

— Jaka gorriak ala gure errejimendukoak? — eten zuen agureak, bere mailako barekin jardungo balu bezala. Haren ahoskerak Kim errespeta-razi zien gainontzekoei.

— Jaka gorriak —esan zuen Kimek zerbait esateagatik—. Jaka gorriak eta kanoiak.

— Baina... astrologoak ez zuen ordea horrelakorik aitatu —egin zuen oihu lamak, urduritasu-narekin sekulako rape mordoa hartuz.

— Baina *nik* badakit. Albistea heldu zait, eta ni gizon santu honen dizipulua naiz. Gerra sortu-

ko da, zortzi mula soldadu jaka gorrien gerra. Hori gauza ziurra da.

— Mutil honek bazarretako esamesak entzun ditu —esan zuen apaizak.

— Baina aldamenean eduki dut eta beti —esan zuen lamak—. Nola jakin lezake? Nik ez nekien.

— Primerako ilusionista izango da agurea hiltzen denean —murmurikatu zion apaizak agintariari—. Zer nolako trikimailu berri da hau?

— Zeinu bat. Emadazu zeinu bat —esan zuen bat-batean orroka soldadu zaharrak—. Gerrarik balego, esango zidaten semeek.

— Dena prest dagoenean, dudarik gabe, esango diete zure semeei. Baina luzea da gauza hauek esku artean dituen gizonarengandik zure semeenganainoko bidea.

Berotzen ari zen Kim jolas harekin, gutunak eramatean izandako esperientziak gogorarazten baitzizkion, diru pixka bat irabazteagatik beneran zekiena baino gehiago jakitearen itxurak egiten zituenean. Baina orain gauza handiagoak zeuden jokoan: emozioa bera eta boterearen

sentipena. Arnasa hartu eta hizketan jarraitu zuen.

— Gizona, emadazu zuk niri zeinu bat. Menpeko soldaduek agintzen al dute bada zortzi mula jaka gorri beren kanoiekin mugimenduan jartzea?

— Ez —berriz ere soldadu zaharrak Kim bera bezalakoa balitz bezalaxe erantzun zuen.

— Ba al dakizu nor den orduan agindua ematen duena?

— Ikusi egin dut.

— Berriz ere galdetzen dizut, ezagutzen al duzu?

— *Topkhana*-n (artileria) teniente zenez geroztik ezagutzen dut.

— Gizon handia, ile beltzekiko gizon handia, horrela ibiltzen dena? —Kimek urrats batzuk egin zituen, zangoa zurrundua edo egurrezkoa balu bezala.

— Bai. Baina hori edonork ikus zezakeen —jendetza seko isilik zegoen Kim eta soldadu zaharra hizketan ari ziren artean.

— Egia da —esan zuen Kimek—. Baina gehiago ere esango dizut. Begira. Lehenbizi, gizon

handia horrela ibiltzen da. Gero horrela egoten da pentsatzen. (Behatz erakuslea kopetara eraman zuen eta beherantz gero, barailezuraren angeluan utzi arte). Gero horrela okertzen ditu behatzak. Gero txanoa ezkerreko beso azpian jartzen du —mugimendu hura imitatuz, zikoina bezain geldirik geratu zen.

Agureak zerbait murmurikatu zuen, zeharo txundituta; eta jendetzak dardara egin zuen.

— Horrela, eta horrela, eta horrela. Baina zer egiten du agindu bat eman behar duenean?

— Lepoaren atzealdeko larruazala igurzten du, horrela. Gero behatz bat mahai gainean jarri eta soinu txiki bat egiten du sudurrarekin. Orduan hizketan hasten da, esanez: «Bidali halako eta halako errejimendua. Halako kanoiak prestatu.»

Agurea altxatu egin zen presaka, eta militarren agurra egin zuen.

—«Izan ere» —Kimek bertako hizkuntzara itzuli zituen Umballako bulegoan entzundako esaldi erabakiorrak—, «izan ere, halaxe dio, aspaldian egin behar izan genuen hau. Ez da gerra... zigorra da. Snif!»

— Nahikoa da. Sinesten dut. Horrelaxe ikusi izan dut batailan ke artean. Ikusi eta entzun. Bera da!

— Nik ez nuen kerik ikusi —Kimen ahotsa aldatu egin zen, bideetako etorkizun iragarleen doinu kantaria hartuz—. Nik ilunpetan izan nuen ikuspena. Lehenbizi gizon bat etorri zen gauzak argitzera. Ondoren soldaduak zaldi gainean. Gero bera agertu zen, argi biribil baten erdian zutik. Gainontzekoa esan dizuedana bezalakoa izan zen. Agure, egia esan al dut?

— Bera da. Inongo zalantzarik gabe, bera da. Hasperen luzea, dardaratia egin zuen jendetzak, oraindik ere tente-tente zegoen agureari begiratzuz lehenbizi, eta argi morearen kontra jarrita zegoen Kim zarpailari gero.

— Ez al dut esan bada, ez al dut esan beste mundukoa zela? —egin zuen oihu harro-harro lamak—. Mundu osoaren Adiskidea da. Izarren Adiskidea da!

— Nola edo hala, ez du gurekin zerikusirik —esan zuen gizon batek—. Aizu, iragarle gazte hori, dohain hori sasoi guztietan badaukazu, badaukat nik arrasto gorriak dituen behi bat. Nik

dakidanez, baliteke zure Zezenaren arreba izatea...

— Edo niri axola zaidanez —esan zuen Kimek—. Nire izarrek ez dute zure abereekin zerikusirik.

— Ez, baina oso gaixo dago —sartu zen emakume bat elkarrizketan—. Astoa dut senarra, bestela hobeto aukeratuko zituzkeen hitzak. Esadazu, sendatuko al da?

Kim mutil arrunta izan balitz, aurrera egingo zukeen joko harekin; baina ez du batek Lahore hamahiru urtez alferrik ezagutzen, edo, gutxienez, Taksaliko Ateko fakirrak, horrekin batera giza izaera ere ezagutu gabe.

Apaizak zeharka begiratu zion, ez garraztasunik gabe, irribarre lehor eta etsi batekin.

— Ez al da orduan apaizik herrian? Oraintxe bertan bat ikusi nuela uste nuen, eta zuhur askoa gainera —egin zuen oihu Kimek.

— Bai, baina... —hasi zen emakumea.

— Baina zuk eta zure senarrak esker oneko hitz batzuen truke behia sendatzea espero zenuen —tiroak bete-betean jo zuen: herriko bikote xuhurrena zen hura—. Ez da gauza egokia eliza-

ri iruzur egitea. Emaiozu txekor bat zure apaizari, eta, zure Jainkoak ikaragarri haserre ez baldin badaude, hilabete hartu emango dizu behiak esnea.

— Eskaleen maisu zara zu —murmurikatu zuen apaizak onespenez—. Berrogei urteetako jakituriak ere ez luke hobeagorik asmatuko. Aberastuko zenuen bada dagoeneko agurea, ezta?

— Irin pixka bat, gurina eta txanpar lore eskukada bat —erantzun zuen Kimek, aurpegia atseginak gorrituta, baina erne oraindik ere—. Aberasten al da horrekin bat? Eta, zerorrek ikusiko duzunez, erotuta dago. Baina baliagarria gertatzen zait, gutxienez bideak ikasten ditudan artan.

Bazekien Kimek nolakoak ziren Taksali Ateko fakirrak beren artean hitz egiten zutenean, eta haien dizipulu lotsagabeen ahots-aldaketa guztiak imitatzen zituen.

— Zer da orduan horren Bilakuntza, egia ala beste helburuetarako babesa? Altxorren bat izan liteke.

— Erotuta dago. Guztiz erotuta. Ez dago besterik.

Une hartan soldadu zaharra herrenka hurbil-
du zitzaion Kimi eta bere etxean hartuko ote
zuen ostatu galdetu zion. Hala egitea gomenda-
tu zion apaizak, baina lama edukitzeko ohorea
berriz elizari zegokiola insistitu zuen, eta lamak
irribarre apalez erantzun zion. Kimek bati eta
besteari aurpegira begiratu zien, eta bere ondo-
rioak atera zituen.

— Non da dirua? —xuxurlatu zuen, lama ilun-
petara bultzatuz.

— Kolkoan daukat. Non bada?

— Emadazu niri. Azkar eta isilik, eman niri.

— Baina zergatik? Hemen ez dago txartelik
erosi beharrik.

— Zure *chela* naiz, bai ala ez? Ez al ditud zure
oin zaharrak bideetan barrena zaintzen? Emada-
zu dirua eta egunsentiarekin batera itzuliko dizut
—eskua lamaren gerrikoan sartu eta poltsa hartu
zuen.

— Hala izan bedi... hala izan bedi —agureak
buruari eragin zion—.

Mundu handia eta ikaragarria da hau. Ez
nekien horrenbeste gizon zegoenik bizirik mun-
duan.

Biharamunean apaiza oso umore txarrez zegoen, eta lama berriz pozez gainezka; eta Kimek oso arrats interesgarria eman zuen soldadu zaharrarekin, bere zalditeriako ezpata atera baitzuen eta, belaun lehorren gainean kulunkatuz, Mutinaren istorioak eta hogeita hamar urte hilobiratuta zeramatzaten kapitainenak kontatu zizkion, Kim lotara joan zen arte.

— Dudarik ez da lurralde hauetako haizea ona dela —esan zuen lamak—. Loa arina daukat, zahar guztiek bezala; baina bart esnatu gabe egin dut lo, egun argira arte. Oraindik ere logaleak nago.

— Edan ezazu esne beroa —esan zion Kimek, ez baitzizkien gutxietan horrelako erremedioak eraman ezagutzen zituen opio-erretzaileei—. Berriz ere Bidean jartzeko garaia da.

— Indiako ibai guztiak zeharkatzen duen bide luzea —esan zuen alai lamak—. Goazen. Baina nola uste duzu zuk, *chela*, eman diezaiokegula saririk jende honi, eta apaizari bereziki, izan duten adikortasunagatik? Ezbairik gabe, *but-parast*-ak dira, baina beste bizitzaren batean, agian, jasoko dute argitasunik. Rupia bat elizara-

ko? Barruan dagoena harria eta margo gorria baino ez da, baina gizon baten bihotz ona bere garaian eta bere lekuan eskertu behar da.

— Maisu, ibili al zara inoiz bakarrik Bidean? — Kimek bat-batean begiratu zion, Indiako beleek, lanpetuta, zelaietara begiratzen duten bezala.

— Jakina bada, ume: Kulutik Pathânkotera. Kulutik, nire *chela* hil zen lekutik. Jendea gurekin adeitsua zenean guk eskaintzak egiten genizkien, eta gizon guztiak izan ziren borondatetsuak Mendian izan ginen artean.

— Gauzak ez dira horrelakoak Indian —esan zuen lehor Kimek—. Indian Jainkoek beso asko dauzkate eta gaiztoak dira. Bakean uzi behar dituzu.

— Bidean lagunduko dizut puska batean, Mundu osoaren Adiskide, zuri eta zure gizon horiari —soldadu zaharrak herriko kalea gurutzatu zuen, oraindik egunsentiko itzaletan, gurai-zeak bezain hanka meheak zituen zaldi baten gainean—. Atzoko gauak oroitzapenen iturria zabaldu zuen nire bihotz lehorrean, eta hori bedeinkapena izan da niretzat. Dudarik gabe,

gerra dago haizean. Usaina hartzen diot. Ikusi!
Ezpata ekarri dut.

Abere txikiaren gainean geldik eserita geratu zen, lurreraino ia zangoak, alde batean ezpata handia zuela, eskua kirtenean jarrita, ipar aldeko zelai lauetara sutsu begira—. Esadazu berriz nola agertu zitzaizun Hura zure ikuspen horretan. Zatoz, eta eseri nire ondoan. Eramango ditut bi animaliak.

— Gizon santu honen dizipulua naiz —esan zuen Kimek, herriko sarrera gurutzatzen ari zirela. Herritarrak ia-ia penatuta zeudela zirudien beraiek gabe geratzen zirelako, baina apaizaren agurra hotza eta urrunekoa izan zen. Alferrik gastatu zuen opioa dirurik ez zuen gizon bati emanda.

— Ondo esanda dago hori. Ni ez nago gizon santuekin oso ohituta, baina errespetua beti da gauza ona. Ez da errespeturik egun hauetan, ezta sahib komisario bat ikustera etortzen zaidanear ere.

Baina zergatik joan behar du gerraren Izarra duenak gizon santu baten atzetik?

— Baina hori santua *bada* —esan zuen serio-serio Kimek—. Benetan, hitzez eta egitez, santua da. Ez da besteak bezalakoa. Ez dut sekula horrelakorik ikusi. Ez gara etorkizun-iragarle, ez azti, ez eskale.

— *Zu* ez zara. Hori ikusten dut. Baina ez dut bestea ezagutzen. Ibili ederki dabil ordea.

Egunaren lehenengo freskotasunak lama urrats luze eta errazez ibilarazten zuen, gamelu baten moduan. Bere meditazioetan murgilduta zihoan, arrosarioren aleak oharkabean paseaz.

Lautada gurutzatzen zuen zeharbide hondatu eta pitzatu bati jarraitu zioten, berde iluneko mango plantazioen artean, Himalayaren marra arina, bere gailur elurdunekin, sumatzen zelarik ekialderantz. India osoa lanean ari zen zelaietan, ur-gurpilen kirrinka, gizonen oihuak abereen atzean eta jendetzaren zarataren artean. Zaldiak ere sumatu zuen eragin baikor hura eta ia-ia arrapaladan hasi zen Kimek eskua hedeetan jarri zuenean.

— Kezkatu egiten nau santutegirako rupiarik eman ez izanak —esan zuen lamak laurogeita bat aleetako azkena pasatzerakoan.

Soldadu zaharrak marmar egin zuen ahope-
tik, eta orduantxe ohartu zen lama aurreneko
aldiz hura ere hantxe zela.

— Zu ere Ibaiaren bila al zabilta? —galdetu
zion, jiratuta.

— Hasi berria da eguna —izan zen erantzua—. Zertarako behar da Ibaia, ez bada abereak
arratsa baino lehen bertara eramateko? Errepide
Handirako bide labur bat erakustera etorri naiz
zuekin.

— Hori gogoan izateko kortesia da, boronda-
te oneko zaren hori. Baina zergatik daramazu
ezpata?

Handia izatera jolasten harrapatu duten
umea bezain lotsatuta zirudien soldadu zaha-
rrak.

— Ezpata —esan zuen, burdina ukituz—. Hori
burutapen bat baino ez da izan, agure baten
burutapena. Egia da polizien aginduen arabera
ez duela inork ezpatarik erabili behar Indian,
baina —pixka bat suspertu eta kirtena ukitu
zuen—, ederki ezagutzen naute hemengo guar-
dia guztiek.

— Hori ez da burutapen ona —esan zuen lamak—. Zer ateratzen duzu gizonak hilez?

— Gauza handirik ez, nik dakidanez; baina noizean behin ez balitzaie gizon gaiztoei lepoa moztuko, ez litzateke hau mundu ona izango armarik gabeko ameslarientzat. Ez naiz zertaz ari naizen jakin gabe hizketan ari, ikusi baitut Delhitik hasita Hegoalde osoa odoletan blai.

— Zein erokeria zen hori bada?

— Jainkoek bakarrik dakite hori, izurritea balitz bezala bidali zuten hura eta. Armada oso-ari gaineratu zitzaion erokeria, eta beren ofizia-
len kontra jarri ziren. Hori izan zen lehenengo gaitza, baina ez erremediorik gabea hartan gel-
ditu balira. Sahiben emazteak eta haurrak hil-
tzea erabaki zuten ordea. Orduan itsasoaz bes-
taldeko sahibak etorri ziren eta egindakoaren
kontu eskatu zieten.

— Halako zurrumurru bat, uste dut, heldu zitzaidan behin, aspaldi. Urte Beltza deitzen zio-
ten, gogoan dudanez.

— Nolako bizimodua izan duzu zuk, Urtearen berri ez jakiteko? Zurrumurrua! Lur osoak izan zuen haren berri, eta dardara ikara egin zuen!

— Gure lurrak behin bakarrik egin du dardara ikara: Aparta den Hark Argitasuna hartu zuen egunean.

— Um! Nik Delhi behintzat ikusi nuen dardara egiten; eta Delhi da munduaren zilborra.

— Beraz, emakume eta umeen kontra hasi ziren? Hori oso gauza gaiztoa da, eta horren zigorra saihestezina da.

— Asko eta asko saiatu ziren horretan, baina lortu gabe ordea. Ni orduan zalditeri errejimendu batean nengoen. Desegin egin zen. Seiehun eta laurogei ezpatetatik, zenbatek uste duzu eutsi ziotela emandako hitzari? Hiruk. Eta haietatik neroni izan nintzen bat.

— Handiagoa meritua.

— Meritua? Ez zitzaigun egun haietan meritua iruditzen. Nire jendeak, adiskideak, anaiak, bakarrik utzi ninduen. Halaxe zioten: «Bete da ingelesen garaia. Orain topa dezala norberak bere jabegoa». Baina ni hitz eginda nengoen Sobraoneko gizonekin, Chilianwallah, Mudke eta Ferozshahekoekin. Eta esan nien: «Itxoin pixka bat eta aldatuko du haizea. Ez da bedeinkaziorik lan honetan.» Egun haietan ehun kilometro egin

nituen zaldiz ingeles *memsahib* bat eta bere umea nire zelan hartuta. (Hura bai, gizonarentzako zaldi egokia!). Leku seguruan utzi eta nire ofizialarengana itzuli nintzen; gure bost ofiziale-tatik hil ez zuten bakarrarengana. «Emadazu lana, esan nion, atzerritar bainaiz nire jendearen artean, eta lehengusuaren odolaz zikinduta baitaukat oraindik ezpata.» «Pozik egon, esan zidan, lan handia dugu aurrean. Eromen hau bukatzen denean, saria izango da.

— A, saririk izaten al da bada eromena bukatutakoan? —esan zuen lamak marmarka, berekiko ia.

— Ez zizkieten dominak zintzilikatzen egun haietan, ez, ustekabean kanoi bat tiratzen entzuten zuten guztiei. Ez, ez! Nik hirurogei bataila handitan hartu nuen parte; hirurogeita lau borroketan zaldi gainean; eta zenbaezinezko txikitan. Bederatzi zauri dauzkat; domina bat eta lau galoi, eta Orden baten domina, nire kapitainek, orain jeneral direnak, gogoan izan ninduten eta Indiako erreginak erregetzaren berrogeita hamar urteak bete zituenean, eta India osoa pozik zegoenean. Esan zuten: «Eman diezaiotela

Britainiar Indiaren Ordenaren domina». Eta lepotik zintzilik daramat orain. Estatuaren eskuetatik *jaghir* bat (jabegoa) ere hartu nuen; oparia niretzat eta nire sendiarentzat. Garai hartako gizonak —komisarioak dira orain— zaldiz etortzen dira nigana zelaietan barrena, burua zut herri osoak ikus ditzan, eta borroka zaharrak gogoratzen ditugu, hildako baten izenak bestearena oroitarazten digularik.

— Eta gero? —esan zuen lamak.

— A, gero joan egiten dira, baina ez nire herriak dena ikusi baino lehen.

— Eta azkenean zer egingo duzu?

— Azkenean hil egingo naiz.

— Eta gero?

— Jainkoek esan dezatela. Ez ditut sekula errezoekin molestatu. Ez dut uste ni molestatuko nautenik. Begira, nire bizitza luzean konturatu naiz Goikoak etengabe molestatzen dituztenei, kexuka, istorio, oihu eta negarrekin, berehala deitzen dietela, gure koronelak gehiegi hitz egiten zuten soldadu zabar mingain luzeei berehala deitzen zien bezala. Ez, nik ez ditut sekula Jainkoak nekarazi. Hori gogoan izango dute, eta

leku lasai bat emango didate itzaletan, lantza erabili, eta nire semeen zain egon ahal izango naizen lekua: hiru dauzkat, ez gutxiago, eta hirurak zalditeriako komandante.

— Eta horiek ere zure antzera, Gurplean lotuta, bizitzaz bizitza aurrera; etsipenez etsipen —esan zuen lamak ahots isilez—, urduri, deseroso, lehiatsu.

— Bai —esan zuen erdi barrez soldadu zaharrak—. Hiru komandante hiru errejimenduetan. Jokalari xamarrek, baina halakoxea naiz ni ere. Abere onak behar dituzte gainera; eta orain ezin dira zaldiak hartu garai batean emakumeak hartzen ziren bezala. Baina nire jabegoak ordain lezake hori dena. Zer uste duzu? Ondo ureztatutako lur saila da, baina nire gizonek engainatu egiten naute. Ez dakit nola eskatu, lantza hartuta ez bada. Hau lana! haserretu egiten naiz eta madarikatu egiten ditut, eta beraiek damu itxurak egiten dituzte, baina gero atzetik agure zikin hortzik gabea deitzen didate.

— Ez al duzu inoiz bestelako gauzarik desiratu?

— Bai, bai, hamaika bider! Bizkar tentea, eta zaldia gogotik estutuko duen belauna; eskumutur bizkorra eta begi biziak; gizona gizon egiten duen adorea. A, egun haiek! Indartsua nintzeneko egunak!

— Indar hori ahulezia da.

— Hala gertatu da; baina duela berrogeita hamar urte besterik erakutsiko nukeen —erantzun zuen soldadu zaharrak, oin-burdinez zaldia-
ren saihets argala joaz.

— Baina nik dena sendatzen duen Ibai bat ezagutzen dut.

— Gangesetik urmintzeko zorian jarri arte edan dut nik tira. Lortu nuen gauza bakarra beherakoa izan zen, eta indarrik batere ez.

— Ez da Ganges. Nik dakidan Ibaiak bekatua-
ren arrasto oro garbitzen du. Ibai horren urruneko ertzer a igotzen denak ziurtatuta dauka Askatasuna. Ez dut zure bizitza ezagutzen, baina aurpegia gizon ohoretsu eta konplituarena daukazu. Zuk zure Bideari heldu diozu, leiala izan zinen leial izaten zaila zenean, orain beste istorioak gogorarazi dizkidan Urte Beltz hartan. Sar zaitetz orain Erdiko Bidean, Askatasunerako Bidea da

eta. Adi egon Aparta den Legearen hitzari, eta ez zaitez ametsen atzetik joan.

— Hitz egin ezazu, bada, agure —irribarre egin zuen soldaduak, ia agur militarra eginez—. Adinarekin denok egiten gara berritsu.

Lama mango zuhaitz baten itzalpean eseri zen, eta itzalak xake-taula moduko bat marraztu zion aurpegian; soldadua tente zegoen zaldi gainean eserita; eta Kim, sugerik ez zela ziurtatu ondoren, zuhaitzaren zain bihurrien gainean eseri zen.

Eguzkiak gogotik jotzen zuen; bizitza txikien durundi geldoa entzuten zen, usoen urrupa, eta ur-gurpilen kirrinka patxadatsua zelaietan. Poliki-poliki eta dotore hasi zen hizketan lama. Hamar minutu pasatakoan soldadu zaharra bere zalditik jaitsi zen lamaren hitzak hobeto entzutearren, eta eseri egin zen hedeak eskumuturrean jarrita. Lamak totalka hitz egiten zuen batzuetan... Etenaldiak luzatzen ari ziren. Kim lanpetuta zebilen katagorri arre bati begira. Abere txiki iletsu eta errietalaria desagertu zenean, adarrari estu-estu helduta, lo seko zeuden hizlaria eta entzulea, soldadu zaharrak buru

zaildua besoan egokituta, lama atzerantz zuhaitz enborrean etzanda, marfil horizko eskultura iduri. Ume txiki bat agertu zen balantzaka, begiratu, eta, bat-bateko begirunezko bulkada batez edo, lamaren aurrean obedientziaz makurtu zen dotore-dotore; baina mutikoa hain zen txikia eta lodia, non alde batera erori baitzen, eta Kim barrez hasi zen zango potolo zabaldu haiek ikustean. Umea, ikaraz eta haserre, oihuka hasi zen negarrez.

— Bai! bai! —egin zuen oihu soldaduak, zutik jarrita—. Zer da? Zer agindu?... Baina... ume bat da eta! Alarma zela egin dut amets. Txiki, txiki-txo, ez negarrik egin. Loak hartu al nau? Ez da hori oso konplutua izan, ez!

— Ikaratuta nago! Ikaratuta nago! —egiten zuen haurrak garrasi.

— Zerk ikaratzen zaitu? Bi agure eta mutil batek? Nola izango zara zu inoiz soldadu, printze txiki hori?

Lama ere esna zegoen, baina, umearekin ondo konturatu gabe, arrosarioari heldu zion.

— Zer da hori? —esan zuen umeak, negarra seko etenda—. Ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Eman.

— A —esan zuen lamak, irribarrez, eta arrosario erdia belarrean arrastaka ibiliz—:

*Txanpar lore eskukada da hau,
ghi pusketa bat:
artoa da, eta piperrak eta arroza,
Biontzako afaria!*

Umeak garrasi egin zuen pozaren pozez, eta ale ilun, distiratsuak harrapatzen saiatu zen.

— Hara! —esan zuen soldadu zaharrak—. Non ikasi duzu zuk abesti hori, mundua mesprezatzen duzun horrek?

— Pathânkoten ikasi nuen, atari batean eserita —esan zuen lotsaz lamak—. Ona da umeekin atsegina izatea.

— Gogoan dudanez, loak hartu baino lehen esan didazu ezkontzak eta haurrak izateak benetakoa argia iluntzen dutela, oztopo direla Bidean. Umeak zerutik erortzen al dira zure herrian? Bidea alda umei kantak abestea?

— Ez da perfektua den gizonik —esan zuen serio lamak, arrosarioa jasoz—. Zoaz orain amarengana, txikitxo hori.

— Aditu honi! —esan nion soldaduak Kimi—. Lotsatuta dago ume bat poztu duelako. Oso etxejoaun ona zegoen zugar, eta galdu egin da. Tori, ume! —txanpon bat bota zion umeari—. Gozokiak gozoki dira beti —eta umearen irudia eguzkitan jauzika aldentzen zen artean—: Hazi eta gizon bihurtzen dira. Santu zaren hori, sentitzen dut zure hizketaldiaren erdian loak hartu izana. Barkaidazu.

— Bi agure gara —esan zuen lamak—. Nik izan dut errua. Mundua eta munduaren eromenaz esaten zenuena entzun dut, eta akats batek bestera darama.

— Aditu honi! Zer kalte egiten die bada Jainkoei ume batekin jolasean ibiltzeak? Eta kanta hori oso ondo kantatuta zegoen. Goazen orain eta Nikal Seynen Delhiren aurreko kantua abestuko dut, kantu zaharra.

Eta mango basoaren itzala utzi zuten, agurrearen ahots altu, zorrotza zelaian barrena, Nikal Seynen istorioa (Nicholson) intzirika kantatzen

zuen artean, oraindik ere Punjabeko gizonak kantatzen duten kantua. Kim pozez zorutzen zegoen, eta lamak interes handiz entzuten zuen.

— «*Ai! Hil da Nikal Seyn, Delhiren aurrean hil da! Iparreko lantzak, mendekatu ezazue Nikal Seyn*» —dardara egin zuen bukaeran, ezpataren mingainarekin zaldiaren saihetsa joaz txorrotxioa areagotuz.

— Eta orain Errepide Handira heldu gara —esan zuen, Kimen konplituak jaso ondoren; lama isil-isilik zegoen—. Ez naiz aspalditik bide honetatik ibili, baina mutikoaren hitzek gogora ekarri didate. Ikusi, Santu zaren hori, India osoaren bizkarrezurra den errepidea. Itzaletan dago ia oso-rik, hemen bezala, lau zuhaitz ilarekin; erdiko bideak, gogorra baitu zorua, trafiko bizkorra hartzen du. Burdinbideak izan aurretik, ehunka ibiltzen ziren sahibak hemen gora eta behera. Orain baserritarren gurdiak eta antzekoak ikusten dira. Ezker eskuin kamino txarrenak daude orga astunenentzat, aleak, kotoia, egurra, pentsuak, karea eta larruak daramatenentzat. Arriskurik gabe joan liteke bat hemendik, tarteka-tarteka polizia-etxeak daude eta. Poliziak lapurrak eta

koldarrak dira (zalditeriako soldaduak jarriko nituzke nik, soldadu gazteak kapitain gogor batekin), baina gutxienez ez dute konkurrentziarik onartzen. Era guztietako jendeak eta kasta guztiak mugitzen dira hemen. Begira! Brahama-nak eta chumarak, bankari eta perzkinak, bizar mozle eta merkatariak, erromes eta eltzegileak; mundu osoa joan-etorrian. Niretzako ibai baten antzekoa da, eta ni kanpoan nago, uholdeen ondorengo zuhaitz enborra bezala.

4. ATALA

*Zoriona ez da inoiz dama,
Inon den emagaldurik mesprezagarriena baizik,
Marrazo, petral eta egoskorra
Gida eta eramangaitza.
Egiozu diosal... arrotza du agurtuko!
Egizu topo berekin...
alde egiteko zaizu prestatuko!
Laga ezazu bertan, urdanga hutsa baita.
Eta maukatik tiraka etorriko zaizu
lotsagabe hori!
Eskuzabal! Eskuzabal, Fortuna!
Emazu ala uka gogoak nola.
Fortunak ez badit ardura,
Ondotik etorriko baitzait hala ere Fortuna!
Desioen Putzuak.*

Gero, ahotsak jaitsiz, hizketan aritu ziren aita-semeak. Kim zuhaitz baten azpira joan zen atsedean hartzera, baina lamak ukondotik heldu zion, ezinegonez.

— Goazen. Ibaia ez dago hemen.

— *Hai mai!* Ez al gara puska baterako nahikoa ibili? Ibaiak ez digu ihes egingo. Egon pixka batean, limosna emango digute eta.

— Hori —esan zuen bat-batean soldadu zahar-rak—, Izarren Adiskidea da. Atzo ekarri zidan albistea. Gizona Bera ikusi zuen, gerrarako aginduak ematen.

— Um! —esan zuen semeak, bular sendoaren sakonenetik—. Bazarrean zurrumurruren bat entzun du nonbait, eta etekina atera dio.

Aitak barre egin zuen.

— Azken finean ez zait zaldi berri bat eskaka etorri, edo Jainkoak daki zenbat rupien eske. Anaien errejimenduek ere agindu horiek al dauzkate?

— Ez dakit. Baimena eskatu dut eta zugana etorri naiz segituan, ez zitezene...

— Ez zitezene besteak zu baino lehenago etorri eskean. Jokalariak eta diru-xahutzaileak denak! Baina zuk ez duzu sekula borroka zaldi onik izan. Horretarako zaldi ona behar da, ona, bai. Laguntzaile ona eta baita zaldi ona ere marxtetarako. Ea, ikus dezagun, ikus dezagun —ezpataren kirtena jo zuen.

—Hau ez da kontuak egiteko lekua, aita.
Goazen zure etxera.

— Gutxienez ordaindu umeari, orduan: nik ez daramat txanponik gainean, eta berri onak ekarri dizkigu. Hara, Mundu osoaren

Adiskide, gerraren bat dator zuk esan bezala.

— Ez, nik dakidanez, gerraren bat ez, *gerra* —
erantzun zuen Kimek lasai-lasai.

— E? —galdetu zuen lamak, arrosario aleak paseaz, berriz ere bidean jartzeko irrikatan.

— Nire maisuak ez ditu Izarrak diruagatik molestatzen. Guk albistea ekarri genuen, horren lekuko zara, eta orain bagoaz —Kimek eskua erdizka bildu zuen saihetsean.

Semeak zilarrezko txanpon bat bota zuen eguzkitara, eskale eta aztiez zerbait murmurikatuz. Lau annetako txanpona zen, eta jatekoa egunetarako izango zuten harekin. Lamak, metalaren distira ikusita, bedeinkapen bat esan zuen marmarka.

— Zoaz zure bidetik, Mundu osoaren Adiskide —egin zuen oihu soldadu zaharrak, bere zaldi kaskarra jiraraziz—. Bizitza osoan behingoz

benetako iragarlea topatu dut... armadan ez zegoena.

Aita-semeak batera egin zuten buelta: gaztea bezain tente zaldian eserita agurea.

Punjabiar polizia batek, lihozko praka horiekin, desgogora gurutzatu zuen errepidea. Dirua pasatzen ikusi zuen.

— Egon! —egin zuen oihu ingeles ia perfektuz—. Ez al dakizue laguneko bi annatako *takkus* bat ordaindu behar dela, eta lau anna dira beraz, zeharbide horretatik Errepidean sartzen direnentzat? Sirkarraren agindua da, eta zuhaitzak landatu eta bideak edertzeko erabiltzen da dirua.

— Eta poliziaren sabelak —esan zuen Kimek, poliziaren besotik urruti jarriz—. Pentsa ezazu une batez, lastorik ez baduzu buruan. Hurbileneko putzutik etorri garela uste al duzu, zure aita-ginarreba igela bezala? Entzun al duzu sekula zure anaiaren izena?

— Eta nor zen hori? Utzi mutila bakean —egin zuen oihu polizia zaharrago batek, pozez zortzen, atarian pipa erretzera esertzen zen artean.

— *Belaiti pani* (sifoia) botila bati etiketa kendu zion hura; zubi batean itsatsi ondoren,

zergak kobratu zizkien hilabete batez igarotzen ziren guztiei, Sirkarren agindua zela esanez. Orduan ingeles bat etorri eta burua puskatu zion. Ai, anaia, kaleko belea naiz ni, ez mendikoa!

Poliziak atzera egin zuen lotsatuta, eta Kim irainka aritu zitzaion bidea gurutzatzen zuen artean.

— Izan al da inoiz ni bezalako dizipulurik? — galdetu zion alai lamari—. Lahoretik irten orduko azkeneko xentimoa ere kenduko zizuten zu zaintzeko hemen izan ez banintz.

— Pentsatzen jarduten dut nirekiko izpiritu lagungarria ote zaren, batzuetan, ala besteetan deabru txikiren bat —esan zuen lamak, irribarre patxadatsuz.

— Zure *chela* naiz —Kim lamaren aldamean jarri zen, ibilera berdinarekin, asko ibiltzen diren arloteen deskribaezinezko ibilerarekin.

— Ibil gaitezen orain —murmurikatu zuen lamak, eta arrosarioaren soinuarekin egin zituzten isilik kilometroak eta kilometroak. Lama, ohi bezala, meditazio sakonetan ari zen, baina Kimek zabal-zabalik zeuzkan bere begi biziak.

Bibitzaren ibai zabal, irribarretsu hura, pentsatzen zuen, aurrerapen handia zen Lahoreko jendez jositako kale hondatuen ondoan. Jende eta ikuskizun berriak zeuden urrats bat eman bakoitzeko, ezagutzen zituen kastak eta inoiz ikusi gabeak zituenak.

Sansi talde bat ikusi zuten, luzea ilea eta sarkorra usaina, muskerrak eta bestelako jateko lizunak zeramatzatela bizkarrean, zakur argalak hanka tartean usman. Jende hark bere lekua mantentzen zuen bidean, urrats bizkor eta ezkutez aurrera eginez, eta leku zabala uzten zieten beste kasta guztiek; larria baita *sansi*-en kutsadura. Haien atzetik, itzal handien azpian zurrun eta hankazabal ibiliz, zango-burdinen oroitzapena berekin zuela oraindik, kartzelatik atera berri bat zihoan; haren urdail beteak eta larruazal distiratsuak ondo frogatzen zuen hobeto elikatzen zituela Gobernuak bere presoak gizon zintzo gehienek beren burua baino. Ederki asko ezagutzen zuen Kimek ibilera hura, eta imintzioak egiten aritu zen ondotik pasatzen zen artean. Gero *akali* bat igaro zitzaien ondotik, begi sutsu eta ile nahasikoa, *sij* erlijio zalea, bere fedearen arropa-

rekin, karratu urdinduna, eta altzairuzko aro distiratsuak zituela durbante luzearen konoan, estatu *sij* aske batetik bueltan, non Khalsa delakoen loria zaharrak abesten aritu baitzitaien bota handi eta panazko praka zuriak jantzitako printze eskolatu etorkizunekoei. Kontuz ibili zen Kim gizon hura ernegarazi gabe; ez baitira oso umoretsuak *akali*-ak, eta besoa berriz bizkorra dute. Han eta hemen topatu eta aurretan zituzten alaikiro jantzitako talde zabalak, herri osoak, festaren batetik bueltan; emakumezkoak, haurtxoak gerrian jarrita, gizonen atzetik; ume kozkorak saltoka zihoazen azukre kanaberen gainean, jostailuzko lokomotora zaharrak arrastaka, penike erdian saltzen dituztenak bezalakoak, edo ispilu merkeen distira eguzkiarekin zaharren begietan jarritz. Begiratu batez ikus zitekeen bakoitzak erositakoa; eta dudarik balitz, nahikoa zen emazteei begiratu eta, beso belztua beso belztuaren ondoan, Ipar-Mendebaldetik datozen beirazko pultsera erosi berriak alderatzea. Parrandero haiek mantso zebiltzan, elkarri deika eta bidean geldituz gozozaltzaileekin urrutaka aritzera, edo otoitz egitera

bide ondoko santutegiren batean, batzuetan indioa, mahomatarra besteetan, bi fedeetako behe kastek inpartzialtasun zoragarriz konpartitzen dutena. Etenik gabeko ilara urdin bat, gora eta behera mugituz presaka doan beldar baten gisa, agertu zen hauts dardaratian eta berehala desagertu galapan, erritmoa seinalatzen zuen oihu bizkorrak eginez. *Changar* talde bat zen, Iparreko burdinbideen lurren prestaketa bere kargu duten emakumeak, oin lau, bular handi, zango indartsu eta gona urdinekiko lur-eramailiak, Iparrerantz presaka lan baten berri jakinda, eta denbora alferrik galdu gabe bidean. Gizonezkoek garrantzirik ez duten kastatakoak dira emakume horiek, eta besoak hazta eginda zihozazen, kadirak kulunkatuz, eta buruak tente-tente, zama astunak daramatzaten emakumeei dagokien bezala. Gerorako eztei segizio bat sartu zen Errepide Handian musika eta oihuekin, hilerri-lili eta jasmin usaina zeriela, hautsaren kiratsa bera baino sarkorragoa. Emaztearen ohatila ikus zitekeen, gorri eta urre koloreko arrastoak, hautsetan balantzaka aurrera, senarraren zaldi apainduak alde batera egiten zuen artean

alez betetako gurdi batetik, ondotik igarotzerakoan, zerbait osteko. Orduan Kim zorionak ematera eta graziarik gabeko txistekak entzutera inguratu zen, ehun seme eta alabarik bat ere ez desiratuz bikoteari, esaerak dioen bezala. Are interesgarriagoa eta garrasi egiteko aproposagoa izan zen malabarista baten agerpena, erdi hezitako tximuekin, edo hartz batekin, indargabe eta arnasestuka, edo oinak ahuntz baten adarretan lotzen zituen emakumea, eta haiekin dantza egin sokaren gainean, zaldiak beldurtuz eta emakumezkoei garrasi egin eraziz, harridurazko txilio zorrotz luzeak.

Lamak ez zituen behin ere begiak jaso. Ez zen konturatu diru-mailegariarekin, bere zaldi makalaren gainean, bere interes krudela ordaintzearren presaka; edo baimena zuten soldadu indiarrez osaturiko talde txikiarekin, ahots sakonez garrasika, oraindik formatuta, zoriontsu uniformeko polaina eta praketatik libratu izanagatik, eta gauzarik eskandalagarrienak esanez agertzen ziren emakume errespetagarrienei. Gangeseko ura sartzen zuena ere ez zuen ikusi; Kimek berriz likido baliotsu hartatik botila bat

behintzat erosiko zuela lamak espero zuen. Lurrera begira-begira zihoan, eta erraz baino errazago mugitzen zen orduetan eta orduetan, arima beste norabait jarrita. Baina Kim pozaren zazpigarren zeruan zegoen. Errepide Handia lubeta baten gainean zegoen han eraikita, inguruko mendietatik zetozen uholdeetatik bidea neguan babestearren, eta hala, lurra baino pixka bat gorago ibiltzen zen bat handik, nolabait esateko, pasabide dotore baten barrena, India osoa ezker-eskuin zabaldua ikusiz. Zoragarria zen uztarri ugariko ale eta kotoi gurdiak zelaietako bidexketan arrastaka ikustea: kilometro t'erdira entzun zitekeen ardatzen soinua intzirika, hurbiltzen, oihu, garrasi eta hitz txarrekin aldapa igo eta bide nagusian sartzen ziren arte, mandazainek elkarri irainka jarduten zuten artean. Zoragarria zen jendea ikustea, gorri eta urdin eta arrosa eta zuri eta azafrai arrastoak, beren herrietara joateko desbideratuz, sakabanatuz eta txikiagotuz binaka eta hirunaka zelai lauan. Kimek bihotzean sentitzen zituen gauza haiek, hitzetan adierazi ezin bazituen ere, eta hala, azukre kanabera azalik gabea erostearekin kon-

formatzen zen, eta nahi adina listu bota gero bidean. Noizean behin lamak rapea hartzen zuen, eta azkenean Kimek ezin izan zuen isiltasun hura eraman.

— Lurralde ona da hau... Hegoaldeko lurraldea! —esan zuen—. Haizea ona da; ura ona da. Ezta?

— Eta Gauzen Gurpilean daude denak harrapatuta —esan zuen lamak—. Bizitzaz bizitza harrapatuta. Horietako inori ez diote Bidea erakutsi —buruari eraginez, mundu honetara itzuli zen.

— Egin dugu puska eder bat —esan zuen Kimek—. Segur aski laster helduko gara *para*o batera (atseden lekua). Hemen geldituko al gara? Begira, eguzkia badoa.

— Nork hartuko gaitu gaur gauean?

— Dena bat da hau. Lurralde hauek jende zintzoz beteta daude. Gainera —ahotsa jaitsi zuen, xuxurlatuz—: Badaukagu dirua.

Jendetza ugaritu egin zen eguneko bidearen bukaera markatzen zuen atsedeen lekura hurbildu ahala. Oso jateko sinpleak eta tabakoa saltzen duten dendatxo ilara bat, sutarako egur

sorta, polizia-etxea, putzua, arraska zaldientzat, zuhaitz batzuk, eta, haien azpian, lur pixka bat zanja-zanja eginda, lehenagoko suen errauts beltzez zipriztinduta, horiexek dira Errepide Handian *para*o bat markatzen duten guztia, eskaleak eta beleak izan ezik, goseak denak.

Eguzkia ordurako urrezko arrasto zabalak ari zen jartzen mango zuhaitzen beheko adarretan; perikitoak eta usoak ehunka ari ziren etxeratzen. Zazpi Ahizpak, berritsu eta bizkar arreko, gora eta behera zebiltzan binaka eta hironaka bidaiarien oinen azpian; eta adar arteko zarata eta muturkadek ederki adierazten zuten saguzarrak prestatzen ari zirela beren gaueko ehizarako. Azkar-azkar, argia bildu egin zen, eta aurpegiak, gurdien gurgilak eta idien adarrak odola bezain gorri margotu zituen une batez. Gero gaua etorri zen, haizearen ukitua aldatuz, laino arin eta mehe bat ekarriz lurraren parera gasazko oihal urdina bailitzan, eta kanporaraziz, sarkorra eta garbia, egur kearen usaina eta abereena, eta irinezko pastelen usain gozoa, errautsetan egosia. Gaueko polizia taldea polizia-etxetik atera zen presaka ez tul handiak eginez eta aginduak erre-

pikatzuz; eta gurdi-gizon baten piparen ontzian gori-gori jarri zen ikatz pusqueta Kimek oharkabean latoizko pintzen gaineko eguzkiaren azken distirari begiratzen zion artan.

Parao-ko bizitza Kashmirreko *serai*-aren antzekoa zen oso, txikiagoan. Kim pozez murgildu zen asiar nahaste alaian, nahaste horrek, denbora hartuz gero, gizon simple batek behar duen guztia ematen baitu.

Eskasak ziren bi bidaiarien beharrak, nahikoa izango baitzuten, kastek lama kezkatzen ez zutenez gero, hurbileneko postuan egositako jatekoekin; baina, erosotasunagatik, simaur-bola eskukada bat erosi zuen Kimek sua pizteko. Edonon, atzera eta aurrera sugar txikien inguruan, garrasi egiten zuten gizonak olio eskaka, edo aleak, edo gozokiak, edo tabakoa, elkarri bultzak beren txandaren zain zeudela putzuaren aurrean; eta gizonen ahotsen azpitik entzuten ziren, gurdi itxi geldietatik, aurpegiak kalean erakutsi ezin zituzten emakumeen oihu zorrotz eta barreak.

Gaur egun, ongi hezitako indiarren iritziz, beren emakumeak bidaiari dabiltzanean —eta

asko mugitzen dira—, hobe da emakumeak trenez bizkor eramatea ongi estaliriko bagoietan, eta ohitura hori hedatzen ari da. Baina beti izaten dira beren aurrekoen ohiturei lotzen zaien eskola zaharrekoak; eta, batez ere, atsoak dira beti gizonezkoak baino kontserbatzaileago; atso horiek, beren egunen bukaera aldera, erromesaldian joan ohi dira. Zaharturik eta desiragarri ez direnez, ez diote, zenbaitetan, ezezkorik esaten beloa kentzeari. Beren itxitura luzearen ondoren, itxiturak iraun duen artean beti egon baitira kanpoko hamaika interes merkatarirekin harremanetan, oso maite dute kale zabaleko bidaien saltsa eta mugimendua, santutegietako bilkurak eta berriketan aritzeko aukera amaigabeak, bereak bezain mingain luzeko alargun aberatsekin. Sarritan, oso komenigarri zaio asko pairatu behar izan duen familia bati andre mingain luze eta borondatetsu bat Indian barrena era horretan mugitzea; izan ere, Jainkoek esker-tu egiten dute erromesaldia. India osoan beraz, bai leku bakartienetan, bai nabarmenenetan ageri dira andre zahar baten ardura duten ile urdinduko zerbitzari talde txikiak, atsoa gutxi

edo asko gortinaz estalita eta ezkutatuta dagoe-
larik idi-gurdi batean. Gizon horiek serioak eta
diskretuak izan ohi dira, eta europar bat edo goi
kastako indiarren bat inguruan denean ardura
handiz inguratzen dute andrea; baina erromesal-
diaren ustekabeko elkartzeetan halako ardurarik
ez da izaten. Andrea, azken finean, gizatiarra da
oso, eta bizitza ikusteko bizi da.

Kimek alaikiro apaindutako *ruth* edo famili-
gurdi bat ikusi zuen, idiek eramana, bi dorreeta-
ko drosel brodatuarekin, bi konkoretako game-
lua bezala, orduantxe *parao*-an sartu berria. Zor-
tzi gizonek osatzen zuten segizioa, eta zortzieta-
rik bi herdoilduriko ezpatez apainduta zeuden,
ohorezko pertsona baten jarraitzaile zirelako sei-
nale ziurra, ez baitu jende arruntak armarik era-
maten. Gortina atzetik, gero eta ozenago, kexu,
agindu, eta txantxa zarata zetorren, eta baita
europar batentzat gordinkeriak lirakekeenak ere.
Ezagun zuen agintzen ohitutako emakumea
zegoela han.

Kimek begiratu kritikoz aztertu zuen segizioa.
Erdia behe-lurraldeetako *ury*-ek osatzen zuten,
hanka mehe eta bizar urdinduekin. Beste erdia

Iparreko menditarrak ziren, felpazko arropa eta feltrozko sonbreiruekin; eta nahaste hura bera adierazgarria zen, nahiz eta ezin entzun Kimek bi taldeen arteko eztabaida etengabeak. Atsoa hegorantz zihoan bisita egitera, ahaide aberats batengana segur aski, suhia ziurrenik; eskolataldea bidali zion hark begirune adierazgarri. Menditarrak emakumearenak berarenak izango ziren, Kulu edo Kangrako jendea. Garbi zegoen ez zeramala alaba ezkontzera, hala izan balitz gortinak ondo itxita baileudeke, eta guardiek ez zioten inon gurdira hurbiltzen utziko. Dama alai eta gartsua, pentsatu zuen Kimek, simaur pusketan esku batean neurtuz, jateko egosia bestean, eta sorbalda baten mugimenduaz gidatuz lama. Aterako zen zerbait topaketa hartatik. Lamak ez zion laguntzarik emango, baina, *chela* ardurasua zenez gero, pozez zorutzen zegoen Kim bientzat eskean aritzeko.

Gurditik ausartu bezain hurbil piztu zuen sua, segizioko norbaitek noiz bidaliko zain. Lama leher eginda lurrean eseri zen, fruta jaten duten sagu-zaharren antzera, eta arrosarioari heldu zion berriz ere.

— Joan harantzago, eskale! —agindua mendiko batek oihukatu zuen, hindustaniera kaskarrean.

— Hara! *Pahari*-a besterik ez da eta! (menditarra) —esan zuen Kimek sorbalda gainetik—. Noiztik izan dira mendiko astoak Hindustan osoaren jabe?

Kimen arbasoen errepasso bizkor eta distiratsua izan zen erantzuna, hiru belaunaldietakoa.

— Ah! —Kimen ahotsa sekula baino gozagoa zen, simaur pusqueta zati egokietan puskatzen zuen artean—. *Nire* herrian, maitasun elkarriketa baten hasiera deitzen diogu horri.

Gortinen atzealdeko barre zakar, txiki batek bigarren ahalegin baterako bidean jarri zuen menditarra.

— Ez dago horren gaizki, ez —esan zuen Kimek patxada-patxadan—. Baina kontuz ibili, anaia, bestela guk, *guk* diot, madarikazioen batekin edo bidaliko zaitugu atzera. Eta gure madarikazioek bete-betean asmatu ohi dute.

Ury-ek barre egin zuten; menditarrak aurrerantz egin zuen jauzi, mehatxuz. Lamak bat-

batean burua jaso zuen, bere txano handia Kimek hasi berria zeukan suaren argitan jarriz.

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen.

Gizona harrizkoa bihurtu balitz bezala gelditu zen.

— Bekatu... bekatu handi batetik libratu naiz —esan zuen hitz-totelka.

— Kanpotarrak aurkitu du azkenean apaiza —xuxurlatu zuen *ury*-etako batek.

— *Hai!* Zergatik ez diozue eskarmentu eder bat ematen mukitzu horri? —egin zuen atsoak oihu.

Menditarrak, gurdira itzulita, zerbait xuxurlatu zuen gortina aldera. Isilune bat izan zen, gero marmarrak.

— Ondo doa hau —pentsatu zuen berekiko Kimek, ez ikusi eta ez entzunarena eginez.

— Jaten... jaten duenean —esan zion apal-apal menditarrak Kimi—, eska... eskatzen zaio Gizon Santuari berarekin hitz egin nahi duen batekin mintzatzera etortzea egin dezala mesede.

— Jandakoan lo egingo du —erantzun zuen harroputz Kimek. Ez zuen ondo ulertzen zer nola-

ko buelta hartu zuen jokoak, baina zena zela erabakita zegoen hartaz baliatzea—. Orain jatena emango diot —azkeneko esaldia, men esanda, neke antzeko suspirio batez bukatu zuen.

— Ni... neroni eta nire lagunak arduratuko gara horretaz, onartzen baduzue.

— Onartzen dugu —esan zuen Kimek, inoiz baino harroputzago—. Santu zaren hori, jende horrek jatena ekarriko digu.

— Lurra ona da. Hegoaldeko guztiak onak dira... Mundu handia eta ikaragarria —murmurikatu zuen lamak erdi lotan.

— Utzizue lo egiten —esan zuen Kimek—, baina ardura zaitetze esnatzen denean guri jateko ona ekartzeaz. Oso gizon santua da.

Berriz ere *ury*-etako batek zerbait esan zuen erdeinuz.

— Ez da fakirra. Ez da lur barruko eskalea —jarraitu zuen Kimek oso serio, izarrei zuzenduz—. Gizon santuen arteko santuena da. Kasta guztien gaineretik dago. Ni bere *chela* nauzue.

— Zatoz —esan zuen gortina atzeko ahots zorrotz lakarrak; eta Kim joan egin zen, berak ezin ikusi zituen begiak begira zeuzkala ondo

asko jakinik. Behatz ilun mehe bat, eraztunez beteta, ageri zen guriaren txoko batetik, eta elkarrizketa honelakoxea izan zen:

— Nor da hori?

— Gizon guztiz santua da. Oso urrutitik dator.

Tibetetik dator.

— Tibetetik nondik?

— Elurren atzealdetik, oso-oso urruti dagoen leku batetik. Ezagutzen ditu izarrak; horoskopopak egiten ditu, eta jaio berrientzako iragarpenak. Baina hori dena ez du diruaren truke egiten. Bihotz zabala eta errukiorra delako egiten du. Ni bere dizipulua naiz. Izarren Adiskide ere deitzen didate.

— Zu ez zara menditarra.

— Horri galdetu. Esango dizu Izarretatik bidali nindutela bere erromesaldiaren amaiera erakustera.

— Um! Konturatu, mukitsu, adineko emakumea naizela eta ez txoro bat. Ezagutzen ditut lamak, eta begirunea diet, baina zu benetako *chela* baldin bazara, gurpil honen ardatza da nire behatza. Kastarik gabeko indiarra zara zu, eska-

le ausart eta lotsagabea, dirua irabazi asmoz lotuta segur aski santu horri.

— Ez al dugu bada denok ere dirua irabazi asmoz egiten lana? —Kimek tonua aldatu zuen bestearen larriduraren parean jartzeko—. Entzun dut... —hura norabiderik gabeko tiroa zen—, entzun dut...

— Zer entzun duzu? —moztu zion atsoak, behatzari eraginez.

— Ondo gogoratzen dudarik ezer ez, baina esamesa batzuk bazarrean, gezurrak noski, zera, baita rajak ere, mendietako raja txikiak...

— Baina hala ere *rajput*-en odol garbikoak.

— Jakina bada, odol garbikoak. Baita horiek ere beren emakume ederrenak saldu egiten omen dituzte diru truke. Hegoaldean saldu egiten dituzte, *zemindar*-ei eta Oudheko beste aberratsei.

Mendiko raja txikiek ukatzen duten zerbait bada, salakuntza horixe da; baina azoketan sinesten den gauza da ordea, Indiako esklabo salerosketa misterioitsuaz hitz egiterakoan. Azaldu zion Kimi andre zaharrak, marmar larri eta haserrean, nolako gezurti gaiztoa zen. Emakume

hura neskato zenean Kimek halakorik aipatu izan balu, hil arte zigortuko zuketan, elefante baten azpian, gau hartan bertan. Horrelaxe gainera, ez bestela.

— *Ahai!* Eskale ikaslea baino ez naiz, Edertasunaren Iturriak esan duen bezala —esan zuen, ikarak akabatzen balego bezala.

— Edertasunaren Iturria! Nor uste duzu naitzela, niri horrelako eskale konplituak esateko? — baina hala ere barre egin zuen aspalditik ahazturiko hitz haiek entzutean—. Duela berrogei urte esan zitekeen horrelakorik, eta gezurrik gabe esan ere. Bai, duela hogeita hamar urte. Baina Indian gora eta behera ibili behar honekin erruz nahasten naiz ni, errege baten alargun naizena, miserableenekin, eta horrexegatik egiten didate eskaleek iseka.

— Erregina Handia —esan zuen segituan Kimek, emakumea amorruez dardarka zegoela konturatu baitzen—, ni Erregina Handiak dioen guztia naiz, baina hala ere egia da nire maisua santua dela. Oraindik ez du entzun Erregina Handiaren agindua, alegia...

— Agindua? Nik, santu bati, Legearen Maisua den bati, emakume batengana etorri eta mintzatzeko agindu? Sekula ez halakorik!

— Erruki zaitez nire zorakeriaz. Uste nuen agindua eman zenidala...

— Ez zen agindua. Eskaera zen. Garbi uzten al ditu horrek gauzak?

Zilarrezko txanpon baten soinua entzun zen gurdiaren ertzean. Hartu eta behe-beheraino makurtu zen Kim. Konturatzen zen emakumea Kim bera ere, lamaren begi eta belarriak zenez gero, oparitu beharra zegoela.

— Ni gizon santuaren ikaslea baino ez naiz. Jan ondoren etorriko da beharbada.

— Lotsagabe zikina! —behatz bitxiz josiak gaitzespenez seinalatu zuen mutikoa; baina aldi berean emakumearen barre txikia ere entzun zitekeen.

— Tira, zer gertatzen da? —galdetu zion Kimek, doinu maitagarri eta isilekoa erabiliz, ondo zekienez, gutxik erresistitu baitzezaketen hura—. Zer bada, zera... semeren baten beharra al daukazue familian? Lasai hitz egin, zeren guk,

apaizok... —azken hura Taksaliko Ateko fakir baten plagio zuzena zen.

— Apaizok! Zuk oraindik ez dituzu eta behar diren urteak... —beste barre batez moztu zuen txistea—. Sinetsi, apaiz horrek, noizean behin, guk, emakumeok, semeez bestelako gauzetan ere pentsatzen dugula. Gainera, nire alabak izan du semea.

— Hobe da bi gezi izatea eskura bakarra baino; eta hiru, are hobeto —esaera zaharra ez tul pentsakor batez osatu zuen Kimek, lurrera begiraturaz diskrezioz.

— Egia da, bai, egia. Etorriko da agian hori ere. Baina lur barneko brahama horiek ez dute ezertarako balio. Opariak, dirua bidali nien, eta opariak berriz ere, eta iragarpenak egin zituzten.

— A! —esan zuen Kimek, hitzak luzaturaz, neurrigabeko mesprezuz—. Iragarpenak! —profesional batek ez zukeen hobeto egingo.

— Eta neure Jainkoak gogoratu nituen arte ez zizkidaten oroitzak entzun. Ordu egokia aukeratu nuen eta... agian zure gizon santuak izango zuen Lung-Choko monasterioko abadearen berri. Harixe azaldu nizkion neure arazoak, eta, bere

garaia heldutakoan, nik nahi bezala irten zuela denak. Nire alabaren semearen aitaren etxeko brahamanak *bere* otoitzengatik izan dela esaten du orduz geroztik; baina hori nahaste txiki bat da, eta gure bidaiaren helmugara iristean esango diot. Eta, hala, gero Buddh Gayara joango naiz, nire umeen aitari *shradda* eskaintzera.

— Haraxe goaz gu ere.

— Bi bider gure alde —esan zuen pozez atsoak—. Bigarren seme bat gutxienez!

— O, Mundu osoaren Adiskidea! —esnatu berria zen lama, eta, ohe ezezagunean beldurturiko umeak bezain ikarati, Kimi deitu zion.

— Banoa! Banoa, maisu! —Kim korrika joan zen su aldera, eta hantxe topatu zuen lama ordurako jatekoz inguratuta, menditarrak nabarmenki agurea jauresten, eta hegoaldekoak berriz erresuminduta begira.

— Atzera! Alde hemendik! —egin zuen Kimek oihu—. Denen aurrean jan behar al dugu bada guk, zakurren gisa? —isilik bukatu zuten janaria, bakoitza bere aldera pixka bat jiratuta, eta Kimek zigarro indiar batez osatu zuen jatordua.

— Ez al dut hamaika bider esan Hegoaldeko-
ak lurralde onak direla? Horra hor mendiko raja
baten alargun zintzo eta ohoretsua, erromesal-
dian, esan duenez, Buddh Gayara. Berak bidali
dizkigu plater hauek; eta zuk atsedean hartzen
duzunean, zurekin hitz egingo du.

— Hori ere zure lana al da? —lama rapearen
kalabazan murgildu zen.

— Nork zaintzen zaitu gure bidaia zoragarria
hasi zenez geroztik? —Kimek begiak dantzan
zituen ke mikatza sudur zuloetatik bota eta hau-
tsez estaliriko lurrean etzaten zen artean—. Huts
egin al dizut bada zuri erosotasuna ematerako-
an, maisu?

— Bedeinkatua izan zaitezela —lamak dotore
makurtu zuen burua—. Gizon asko ezagutu ditut
nire bizitza luze honetan, eta dizipuluak ere ez
gutxi. Baina horietako inorengana, emakumea-
gandik jaioa bazara, ez da nire bihotza zugana
bezala joan, atsegina, zuhurra eta konplitua zara
eta; baina baita pikaro xamarra ere.

— Eta nik ez dut zu bezalako apaizik ezagutu
—Kimek aurpegi hori borondatetsua aztertu
zuen, zimurrez zimur—. Hiru egun ere ez dira

bidean elkarrekin jarri garenez geroztik, eta ehun urte badirela dirudi.

— Agian aurreko bizitzaren batean utziko zidaten zuri zerbitzuren bat egiten. Baliteke — irribarre egin zuen—, nik zu xedera batetik libratu izana; edo, oraindik argirik hartu gabe nengoen garaian, amuan harrapatu eta gero ibaira itzuli izana.

— Baliteke —esan zuen lasai Kimek. Sarritan zituen entzunak antzeko gauzak, ingelesek irudikortzat hartuko ez zuketena jendearen ahotan—. Baina, gurdian dagoen emakume hori dela eta, nire ustez bigarren seme bat behar du bere alabarentzat.

— Hori ez dagokio Bideari —suspiriatu zuen lamak—. Baina emakumea Mendikoa da behintzat. A, mendia, eta mendietako elurra!

Zutitu, eta pauso luzez gurdira joan zen. Kimek edozer gauza emango zukeen bera ere joateagatik, baina lamak ez zuen gonbidatu; eta harrapatu zituen hitz eskasak hizkuntza ezezagun batekoak ziren, mendiko hizkuntza ezezagunen batean mintzatzen baitziren biak. Lamak erantzun aurretik pentsatu egiten zituen galde-

rak egiten zizkiola emakumeak zirudien. Noizean behin txinatar esaera baten doinua entzuten zuen. Irudi harrigarria zen Kimek betazal erdi itxietatik ikusten zuena. Tente-tente jarrita, arropa horiaren tolesdura handiak *parao*-ko suen argitan marra beltzez apainduak, enbor korapilatsu batean jartzen ari den eguzkiak sortzen dituen bezalakoxe itzal zehatzak, *ruth* urrezko eta lakatu batekin ari zen hizketan lama, kolore askotako bitxi bat bezala erretzen argi dardarati beraren pean. Urrez landutako gortinen marrazkiak igo eta jaitsi egiten ziren, urtu eta berregin tolesdurek gaueko haizearekin mugituta dardara egiten zutenean; eta elkarrizketa biziagotu zenean, bitxiz betetako behatzak argi izpi txikiak sortu zituen brodatuen artean. Gurdiaren atzean badaezpadako iluntasun horma bat zegoen, garra txikiz eta erdizka sumaturiko forma, aurpegi eta itzalez zipriztindua. Ilunabarreko ahotsak marmar isila bihurtuta zeuden, behien mastekatzeari zelarik marmar haren nota grabeena, lastoaren gainean, eta zorrotzena Bengaliako dantzarina baten *sitar* akordeak. Gizon gehienak janda zeuden, eta beren pipa zalapartari eta oldartsuei

tiraka jardun zuten, bete-betea ari zirenean igelak marruka ziruditela.

Azkenean itzuli zen lama. Menditar bat zetorkion atzetik, kotoizko oihal guateatu batekin, eta arduraz zabaldu zuen oihala suaren ondoan.

— Hamar mila iloba merezi ditu —pentsatu zuen Kimek—. Baina hori bai, niregatik izan ez balitz, ez ziren opari horiek hona helduko.

— Emakume zintzoa... eta zuhurra —lamak bere burua erortzen utzi zuen, hezurburuz hezurburu, gamelu mantso baten gisa—. Bidearen jarraitzaile direnentzat, karitatez beteta dago mundua —estalkiaren erdia Kimen gainera botatzten hasi zen.

— Eta zer esan du? —Kim bere oihal zatian bildu zen.

— Galdera asko egin dizkit, eta arazo ugari proposatu, ipuin txoroak gehienak, Bideari jarraitzen diotela dioten deabruaren aldeko apaizei entzunak. Batzuei eman diet erantzunik, beste batzuk txorakeriak direla esan diot. Askok daramate jantzia, baina gutxik jarraitzen diote Bideari.

— Egia. Egia da bai hori —Kim konfidentziak aterarazi nahi dituztenen doinu pentsakor, bake-tsuan mintzatzen zen.

— Baina, dituen argiak kontutan hartuta, izpiritu zuzeneko emakumea da. Berarekin Buddh Gayara joan gaitezen irrikitzen dago; dakidanez, emakume horren bideak eta gureak bat egiten dute Hegoranzko egun askotako bidaian.

— Eta?

— Izan pazientzia apur bat. Hori dela eta, nire Bilakuntza beste gauza guztien aurretik dagoela esan diot. Ipuin txoro asko entzun ditu, baina nire Ibaiaren egia handi hori inoiz ez. Halakoxeak dira beheko mendietako apaizak! Lung-Choko abadearen berri bazuen, baina ez nire Ibaiarena... ezta geziaren istorioarena ere.

— Eta?

— Horretaz, Bilakuntzaz mintzatu natzaio, eta Bideaz, eta probetxugarriak diren gauzez; emakumeak ni berarekin joatea besterik ez du nahi, eta otoi egitea bigarren seme baten alde.

— Hara! Emakumeok umeengan izan ezik ez dugu ezertan pentsatzen —esan zuen Kimek logalez.

— Hala bada, gure bideak puska batean bat egiten duenez gero, ez zait iruditzen gu geure bidetik aldentzen garenik berarekin joaten bagara, behintzat, zera... ahaztu egin zait hiriaren izena.

— *Ohé!* —esan zuen Kimek, jiratu eta metro batzuk harantzago zegoen *ury*-etako bati xuxurloka hitz eginez—. Non da zure nagusiaren etxea?

— Saharunpore baino pixka bat harantzaxea-go, fruitu lorategien artean —herriaren izena esan zuen.

— Horixe zen lekua —esan zuen lamak—. Horraino behintzat joan gintezke berarekin.

— Elbiak ustelera joan ohi dira —esan zuen *ury*-ak, ahots lehorrez.

— Behi gaixoarentzat, belea; gizon gaixoarentzat, brahamana. Kimek esaera ahots inper-sonalez esan zuen, zuhaitzen gailur ilunen alde-ra.

Zerbait murmurikatu eta isilik geratu zen *ury*-a.

— Beraz, emakume horrekin al goaz orain, maisu?

— Ba al da horren kontrako arrazoirik? Apur bat desbideratu eta bidea gurutzatzen duten ibai guztiak arakatu ditzaket. Bera irrikitzen dago.

Kimek oihalean ezkutatu zuen barre-algara. Atso agintari hark lamari orain zion begirune naturala desagertutakoan, esateko zituenak entzutea mereziko zutela iruditu zitzaion.

Loak hartzen ari zen, lamak bat-batean esatera zahar bat esan zuenean: «Handia izango dute beste bizitzan saria emakume berritsuen senarrek». Gero Kimek rapea hartzen entzun zuen, hiru bider, eta loak hartu zuen, barrez oraindik.

Egunsentiak, diamantearen distirarekin, gizonak, beleak eta behiak batera esnatu zituen. Eseri eta ahoa zabaldu zuen Kimek, nagiak atara eta dardara egin zuen pozaren pozez. Huraxe bai zela mundua egiatan ikustea; huraxe zen berak nahi zuen bizitza: zalaparta eta iskanbila, hedeak heltzerakoan soinua, idiak akuilatzea eta gurpilen kurrinka, suak pizten eta jatekoa egosten, ikuskizun berriak begiak, oniritziz, beste alde batera eramaterakoan. Goizeko lainoa zilarrezko biribilean desagertu zen, papagaioak urrutiko ibaiekin batera egin zuten ihes talde

berde zaratatsuetan: entzun ahal ziren putzu guztietako gurpilek lanari ekin zioten. Esnatu zen India, eta Indiaren erdi-erdian zegoen Kim, beste edonor baino esnaago eta biziago, adar txiki bat mastekatuz, gero hortzetako zepilo bihurtuko zena; izan ere, ezker-eskuin hartzen zituen berak ezagutu eta maite zuen herriaren ohiturak. Ez zegoen jatekoaz kezkatu beharrik, ez txanpon bat bera ordaindu behar jendez jositako dendatxoetan. Atso egoskor baten segizioari atxikitako gizon santu baten dizipulua zen bera. Gauza guztiak prest edukiko zituzten, eta errespetuz gonbidatzen zituztenean, eseri eta jan egingo zuten. Gainerakoan —barre txiki bat egin zuen hortzak garbitzen ari zela—, gonbidatzaileak areagotu egingo zuen bideko alaitasuna. Emakumearen idiak begi kritikoz aztertu zituen uztarrien azpian puzka eta marruka jartzten ziren artean. Bizkorregi joaten baziren —eta ez zuten halakorik egingo segur aski—, leku atsegina izango zuen gurdi-ardatzaren gainean; lama berriz gidariaren ondoan eseriko zen. Segizioa, jakina, oinez joango zen. Atsoak, jakina hura ere, erruz hitz egingo zuen, eta entzun zue-

nez, haren hitzek ez zuten gatzik faltako. Dago-
eneko aginduak ematen ari zen, oihuka, errietan,
eta, esan beharra dago, zerbitzariak atzera-
penagatik madarikatzen.

— Emaiozue pipa. Jainkoen izenean, emai-
ozue pipa, eta isilarazi bere parte txarreko aho
hori —egin zuen oihu *ury*-a batek, bere oheko
fardel formarik gabeak lotzen zituen artean—.
Hori eta papagaioak berdinak dira. Garrasi egi-
ten dute egunsentian.

— Aurreko idiak! *Hai!* Kontuz aurreko idiekin!
—abereek atzera jo eta bira egiten zuten, ada-
rrak aiez beteriko gurdi baten ardatzean trabatu-
ta—. Hontzaren seme, nora zoaz? —bon irriba-
rrez ari zen mandazain bati.

— *Ai! Yai! Yai!* Horko hori Delhiko erregina
da, seme bat edukitzeko otoitz egitera doa —
egin zuen oihu gizonak bere zama handiaren
gainetik—. Egiozue leku Delhiko erreginari, eta
bere lehen ministroari, bere ezpatatik igotzen
den tximu grisari!

Atzetik zuhaitz azala zeraman bat zetorren,
lur barneko zerrategi baterako bidean, eta haren

gidariak konplitu batzuk erantsi zituen *ruth*-idiek atzera eta atzera egiten zuten artean.

Gortina dardaratien atzetik irain sail bat heldu zen. Ez zuen askorik iraun, baina tankera eta kalitatean, zehaztasun mingots eta gaiztoan, Kimek bere bizitza osoan entzundakoa gainditu zuen. Mandazainaren bular biluzia harriduraz kuzkurtzen ikusi zuen, eta nola makurtzen zen gero errespetuz ahotsaren aldera, nola jaisten zen gurditik, eta segizioari lagundu hitz zaparra da hura errepide nagusira eramaten. Han, ahotsak lotsarik gabe kontatu zion zer nolako emaztearekin ezkondu zen, eta zertan aritzen zen emaztea bera kanpoan zegoen artean.

— *Shabash!* —murmurikatu zuen Kimek, bere buruari eutsi ezinik, gizona lotsatuta desageritzen zen artean.

— Ondo al dago hori? Bai gauza lotsagarri eta eskandalagarria emakume gaixo bat bere Jainkoei otoitz egitera ezin joatea, ez badute bultzatzen eta iraintzen Indiako purtzil guztiek, *gâli* jan behar izatea (gehiegikeria) gizonezkoek *ghi* jaten duten artean. Baina oraindik badaukat mingaina mugitzerik, hitz bat edo bi esan behar

denean. Eta tabakorik gabe nago oraindik! Nor da oraindik tabakoa prestatu ez didan lotsaren seme miserable begibakarra?

Segituan eskaini zion tabakoa menditar batek, eta gortinaren bi ertzetatik irteten zuen ke lodiak eman zuen aditzera berreskuratua zela bakea.

Bezperan oinez harro joan bazen Kim, gizon santu baten dizipulu zelakoan, egun hartan harrotasuna hamar bider handiagoa zuen ia erregeena zen segizio hartan, postu berezia zuela edukazio zoragarria eta amaigabeko baliabideak zituen emakume baten babespean. Segiziokoak, Indiako erara estalita burua, gurdiaren alde banatan jarri ziren, sekulako hautsa altxatuz.

Lama eta Kim apur bat alde batera jarrita zihoazen; azukre makila mastekatuz Kim, eta apaiz estatusa harro beheragokoa zuen inori lekurik egin gabe. Atsoaren mingaina entzun zezaketen arrozari azala kentzen ari den bat bezain erregulariki mugitzen. Segiziokoei aginduzien konta ziezaiotela bidean gertatzen zen guztia; eta *parao*-tik aldendu bezain azkar, gortinak

atzeratu eta kanpora begiratu zuen, beloak aurpegiaren hirurena estaltzen ziola. Zerbitzariak ez zioten zuzenean begiratzen, eta, hala, mantentzen zen gutxi gora behera egokitasuna.

Distrituko poliziaren agintari bat, azal iluneko eta beltzarana, batere akatsik gabe uniformatua, ingelesa nazionalitatez, beraien ondotik igaro zen zaldi nekatu baten gainean, eta, segizioarengatik konturatuta nolako zen atsoa, adar joka hasi zitzaion.

— Ama —egin zuen oihu—, hori egiten al dute *zenana*-etan (harenak)? Eta ingeles bat etorri eta sudurrik ez duzula ikusiko balu?

— Zer? —erantzun zuen damak oihuka—. Zeure amak ez duela sudurrik? Zergatik esaten duzu bada halakorik bide zabalean?

Erantzun egokia izan zen. Ingelesak eskua jaso zuen, esgriman ukitutakoaren keinua eginenez. Damak, barrez, buruari eragin zion.

— Inoren bertutearen galbide al da aurpegi hau? —beloa atzera bota eta begira geratu zitzaion.

Ez zen batere ederra noski, baina gizonak hedeak jasotzen zituen artean, Paradisuko Ilargi

deitu zion, Prestutasunaren Urratzaile, eta beste epiteto harrigarriak, atsoaren barreak areagotuz.

— *Nut-cut* ederra da hau (lotsagabea) —esan zuen—. Polizia guztiak *nut-cut*-ak dira; baina polizia buruak dira okerrenak. *Hai*, seme, hori dena ez duzu bada ikasi *Belai*-tik (Europa) heldu ondoren. Nork eman zizun bularra?

— *Paharin* batek, Dalhousieko emakume menditar batek, ama. Gorde itzaletan zure edertasuna, Atsegin Emaille hori —eta joan egin zen.

— Horrelakoxeak dira —andreak doinu zentzudun egokia hartu zuen, eta ahoa *pan*-ez bete—, horrelakoxeak dira justizia zaindu behar dutenak. Ezagutzen dute lurraldea, eta ezagutzen dituzte ohiturak. Besteak, Europatik etorri berriak, emakume zurien esnea hartuta eta gure hizkuntzak liburuetatik ikasita, izurritea baino okerragoak dira. Erregeei ere kalte egiten diete.

Orduan istorio luze-luze bat kontatu zuen guztien irakaspenerako, polizia gazte ezjakin batez, bederatzigarren mailako lehengusu zuen mendiko raja txikiren bat molestatu zuena lur kontu garrantzi gabeko batean, eta deboziozkoa

ez zen liburu batetik aipamen bat eginez eman zion istorioari amaiera.

Gero umorea aldatu egin zitzaion, eta agindu zion segizioko bati galde ziezaiola lamari ea bere ondoan joango ote zen eta erlijioko gaiez hitz egin. Hala bada, Kimek atzera egin zuen hauts artera eta bere azukre makilara itzuli zen. Ordu-betez edo gehiagoz lamaren txano handia ilargia laino artean bezala agertu zen; eta, entzundako-agatik, atsoak negar egin zuela iruditu zitzaion Kimi. *Ury*-etako batek barkamena edo eskatu zuen bezperako zakarkeriagatik, esanez ez zuela sekula bere nagusia horrelako umore onean ikusi, eta apaiz bitxiaren etorrerari egozten zion aldaketa. Berak, berez, brahamanetan sinesten omen zuen, nahiz eta, indiar guztiak bezala, ondo asko jakin haien maltzurkeria eta zikoizkeriaren berri. Hala ere, brahamanek beren eskaerakin bere nagusiaren emaztearen ama ernegatzen zutenean, eta horren haserre jarri non brahamanek segizio osoa madarikatzen baitzuten (eta horixe zen ezkerreko bigarren idiak hanka zauritu izana, eta gurdiaren ardatza bart hautsi izanaren benetako arrazoia), prest zegoen beste

edozein erlijiotako apaizak onartzeko, India barrutik nahiz kanpotik etorrira. Horri Kimek baiezeko keinu zuhurrez erantzun zion, eta erre-gutu zion *ury*-ari kontura zedila lamak ez zuela dirurik hartzen, eta lama eta Kimen jatekoaren balioa ehun bider ordainduko zitzaiela karabana-k handik aurrera izango zuen zorte onean. Lahoreko istorioak ere kontatu zizkion, eta kantu bat edo bi abestu zituen, taldekoak barrez hasi zirelarik. Hiriko arratoia zenez gero, eta modan zeuden konposatzaileen azken abestiak ondo ezagutzen zituelarik, emakumeenak gehienbat, abantaila nabarmena zuen Kimek Saharunpore-ren atzeko fruitu-zuhaitzak zituen herri txiki batetik zetozen gizonekin, baina abantaila hori besteek deskubritu zezaten utzi zuen.

Eguerdian bazter batera joan ziren jateko asmoz, eta jatekoa ona izan zen, ugaria, eta egoki zerbitzatua hosto garbiko plateretan, begirunez, hautsetatik babestua. Kondarrak eskale batzuei eman zizkieten, agindu guztiak bete-tzearren, eta eseri egin ziren luze eta gutiziaz erretzeko. Atsoa gortinen atzera itzuli zen, baina nahi bezala sartzen zen elkarrizketan, zerbitza-

riek berak esandakoa eztabaidatu eta kontra egiten ziotelarik, Ekialdeko zerbitzariak egin ohi duten bezala. Kangra eta Kuluko mendien freskura eta pinuak Hegoaldeko hautsa eta mangoekin aldendu zituen atsoak; bere lurraldeetako Jainko zahar batzuen istorioa kontatu zuen, senarraren lurren ertzekoak; erretzen ari zen tabakoaz kexatu zen galanki, brahaman guztiak iraindu zituen, eta lasai-lasai mintzatu zen denak mutilak izango ziren iloba ugariren etorreraz.

5. ATALA

*Banator berriz neure jaiolekura
Jan dut, barkatu, eta errekonozitu naute berriz
Haragiak deitu dit berriz
Eta nire odolaren odolak!
Txekor gizendua didate paratu
Baina maiteago ditut nik ale garbikinak...
Uste dut hobe ditudala nire zerriak
Eta banoa zerritegira.
Seme Galdua.*

Bidean jarri zen berriz ere segizio nagi, luze eta mantsoa, eta andreak lo egin zuen hurrengo atsedean lekura heldu ziren arte. Oso ibilaldi laburra izan zen: ordubete falta zen ilunabarrerako, eta, hala, distrakzio bila hasi zen Kim.

— Baina, zergatik ez gara esertzen atsedean hartzera? —esan zuen jarraigoko batek—. Deabruak eta ingelesak baino ez dira ibiltzen besterik gabe batera eta bestera.

— Ez duzu inoiz deabrua, tximua edo mutil baten adiskide egin behar. Inork ez daki zer egingo duten hurrena.

Kimek bizkarra eman zion mesprezuz, ez baitzuen entzun nahi istorio zahar hura, nola deabrua mutilekin jolasean arituta gero damutu egin zen, eta hala, zelaia gurutzatu zuen norabiderik gabe.

Lama atzetik joan zitzaion. Egun osoan zehar, erreka bat gurutzatzen zutenean, desbideratu egiten zen agurea begiratzera, baina ez zuen bere Ibaia topatu izanaz batere argibiderik jaso. Oharkabean gainera, zentzuzko hizkuntza batean jardun izanak, eta etorki oneko dama batek bere gogo-aholkularitzat hartu eta errespetatzeak, Bilakuntzatik aldendu zizkion apur bat pentsakizunak. Bestalde, prest zegoen urteak eta urteak emateko ikerketa hartan; ez baitzeukan hark gizon zuriaren presa, fede handia baizik.

— Nora zoaz? —galdetu zion atzetik Kimi.

— Inora ez. Ibilaldi laburra izan da, eta hau dena —Kimek besoak zabaldu zituen—, berri dut.

— Andrea jakintsua eta zentzuduna da noski. Baina zaila da ordea meditazioan aritzea...

— Horrelakoxeak dira emakume guztiak —
Salomonek hitz egingo lukeen bezalaxe hitz egin
zuen Kimek.

— Monasterioaren aurrean harrizko zabalgu-
ne handi bat zegoen —murmurikatu zuen lamak,
arrosario gastatua jasoz—. Hantxe utzi nituen
nire omen arrastoak, hauek hartuta atzera eta
aurrera ibiliz.

Arrosario aleei eragin zien, eta bere gustuko
«*Om mane pudme hum*» hari ekin zion, freskura
eta patxadagatik eta hauts faltagatik eskerro-
nez.

Banaka-banaka, zelaiko gauzek Kimen begi
distraituak erakarri zituzten. Ez zuen asmo jaki-
nik bere joan-etorrietan, ez baten inguruko txa-
bolen eraikuntzak berria zirudiela, eta huraxe
ikertu nahi zuen.

Larre puska zabal batera atera ziren, more
eta arrea arratsaldeko argitan, mango sail trinko
bat zuela erdian. Harritu egin zuen Kim halako
leku egokian santutegirik ez izateak: apaizak
bezalaxe ibili ohi zen mutila horrelako gauzen
bila. Zelaiaren bestaldean urruti lau gizon zihoa-
zen elkarren ondoan; urruntasunak txikitu egiten

zituen. Kim, esku ahurrez babestuz begiak, begira-begira egon zen, eta latoiaren distira ikusi zuen.

— Soldaduak. Soldadu zuriak! Goazen ikustera.

— Soldaduak agertzen dira beti biok bakarrik gabiltzanean. Baina soldadu zuririk ez dut inoiz ikusi.

— Ez dute kalterik egiten, mozkortuta daudenean izan ezik. Egon zuhaitz honen atzean.

Mango baso txikiaren ilun freskoan ezkutatu ziren, enbor handien atzean. Bi irudi txiki gelditu egin ziren; beste biek aurrera egin zuten segurtasunik gabe. Bidean zegoen errejimendu baten abangoardia ziren, akanpaleku bila bidalitakoak, egin ohi den bezala. Metro t'erdiko makilak zaramatzaten, banderak haizetan, eta elkarri deitzen zioten lur zabalean sakabanatzen ziren artean.

Azkenean mango basotxoan sartu ziren, pauso astunekin.

— Inguru honetan edo izango da... Ofizialen dendak zuhaitzen azpian noski, eta gainontzeko-
ok kanpoan geratuko gara. Egin al dituzte hor atzean intendentziako gurdientzako arrastoak?

Berriz ere urrutiko lagunei egin zien garrasi, eta erantzun zakarra ahuldua eta leundua etorri zen atzera.

— Jarri bada hemen bandera —esan zuen batek.

— Zer ari dira prestatzen? —galdetu zuen lamak, harrituta oso—. Mundu handi eta ikaragarria da hau. Zein da banderaren ikurra?

Soldadu batek makila bat sartu zuen lurlean beraiengandik hurbil, marmarrean aritu zen ernegatuta, atzera egin zuen berriz, lagunarekin hitz egin zuen, eta lagunak leku fresko berdeari begiratu ondoren lurlean sartu zuen berriz makila.

Kim adi-adi zegoen, arnasa bizkorra eta estua zuela. Soldaduak eguzkitara atera ziren.

— Maisu! —xuxurlatu zuen—. Nire horoskopo! Umballako apaizak hautsetan egin zuen marrakia! Gogoratu zer esan zuen. Lehenbizi bi *ferashe* datoz... gauza guztiak prestatzera... leku ilun batean, halaxe gertatzen baita beti ikuspen baten hasieran.

— Baina hau ez da ikuspena —esan zuen lamak—. Munduaren lilura besterik ez da.

— Eta horien atzetik Zezena etorriko da, Zezen Gorria zelai berdean. Begira! Bera da!

Gaueko haizeak hiru metro eskasetara mugiarazten zuen bandera seinalatu zuen Kimek. Kanpalekuaren kokagunea markatzeko bandera arrunt bat baino ez zen; baina errejimenduak, arduratsu beti brodatu kontuetan, bere ikurrarekin zeukan hornituta, Mavericken ezaugarria: Zezen Gorri handia, irlandar berdearen gainean.

— Ikusten dut, eta oraintxe datorkit gogora —esan zuen lamak—. Zure Zezena da noski. Bi gizonak ere etorri dira dena prestatzera.

— Soldaduak dira, soldadu zuriak. Zer esan zuen apaizak? «Zezenari kontrajartzen zaion zeinua Gerra eta gizon armatuena da». Maisu, nire Bilakuntzaren gauza da hau.

— Egia. Egia da —lama ilunpetan rubi bat bezain distiratsua zen ikurrari begira-begira zegoen—. Umballako apaizak zurea gerraren zeinua zela esan zuen.

— Zer egin behar dugu orain?

— Itxoin. Itxoin dezagun.

— Iluna bera ere argitzen ari da —esan zuen Kimek. Esperagarria zen ordea ezkututzen ari zen eguzkia zuhaitz enborren artean sartzea azkenean, basoa zeharkatuz, eta une labur batez argi hori mehez margotuz dena; baina Kimentzat Umballako brahamanaren iragarpenaren gailurra zen hura.

— Hara! —esan zuen lamak—. Danborra jotzen ari dira, urruti-urrutian!

Hasieran, haize geldiak ahulduta, buruko zain bateko odolaren taupada zirudien soinuak. Berehala beste soinu zorrotzago bat elkartu zitzaion danborrari.

— A. Musika! —azaldu zion Kimek. Berak eza gutzen zuen errejimenduetako banden musika, baina lamari harrigarria gertatzen zitzaion.

Zelaiaren urrutieneko ertzetik hautsezko zutabe handi bat agertu zen. Orduan haizeak doinua ekarri zuen:

*Zuen bihotz onari egiten diogu eskaera
Dakiguna kontatzeko
Mulliganen guardiekin
Sligoko porturaino martxa egiteaz.*

Eta txirulen ahots zorrotzak tartekatu ziren:

*Armak lepoan hartuta,
Martxan gindoazen, bagindoazen.*

Phoenix parketik

Dublineko badiaraino.

Danborrak eta txirulak,

Zeinen doinu gozoa!

Gu martxan gindoazela, martxan, mar-

txan,

Mulliganen guardiekin!

Mavericken banda zen, errejimendua akan-palekuan sartzeko musika joka; beren hornidura guztiekin zihoazen martxan soldaduak. Zutabe mugikorra kulunka sartu zen zelai hesituan, gurdiak atzetik, ezker-eskuin banatu ziren gizonak, korrika hasi ziren xinaurriak bezala, eta...

— Baina sorginkeria da hori! —esan zuen lamak.

Zelaia dendez ziprztindu zen, gurdietatik jadanik prest ateratzen zirela ziruditela. Beste gizon andana bat basoan sartu zen, denda handi

bat jarri zuten isil-isilik, beste zortzi edo bedera-tzi jarri zizkioten aldamenean, eta eltzeak, zarta-ginak, eta fardelak agertarazi zituzten; haietaz zerbitzari indiar mordoa arduratu zen. Eta hara non bihurtu zen mango basoa ondo ordenaturiko hiria, lama eta Kim begira zeuden artean!

— Goazen —esan zuen lamak, atzera eginez ikaratuta, suak fir-fir hasi eta ofizial zuriak ezpa-ta joka janlekuan sartzen hasi zirenean.

— Egon hor itzaletan. Inork ezingo zaitu ikusi suaren argiaren atzean —esan zuen Kimek, begiak oraindik banderan jarrita. Ikusi gabea zen nola antola zezakeen kanpamendua hogeita hamar minutuetan errejimendu trebe batek.

— Ikusi! Ikusi! Ikusi! —egin zuen oihu lamak—. Apaiza dator hor!

Bennett zen, errejimenduko kaperau anglika-noa, beltzez jantzita eta hautsez beteta, herren-ka zetorrela. Bere artaldeko norbaitek halako ohar zabarrak egin zituen kaperauaren adorea; eta hura lotsarazteagatik, soldaduekin batera joan zen kaperaua egun osoaz oinez. Jantzi bel-tzak, ordulariaren kateko urrezko gurutzeak, aurpegi bizar gabeak eta hegal zabaleko son-

breiruak, beltza hura ere, India osoan gizon santua ezagutaraziko zuten. Aulki batean eseri zen nekatuta jangelaren ondoan eta botak erantzi zituen. Hiruzpalau ofizialek inguratu zuten, apaizaren egiteaz barrez eta txisteak kontari.

— Gizon zurien hizkerak ez dauka batere duintasunik —esan zuen lamak, doinuaz soil-soilik epaituz—. Baina apaiz horren itxura ikusita, aditua dela uste dut. Ulertuko ote du gure hizkerara? Nire Bilakuntzaz hitz egingo nioke.

— Ez hitz egin sekulan gizon zuri bati janda dagoen arte —esan zuen Kimek, esaera ezagun bat errepikatuz—. Jaten hasiko dira orain, eta... ez dut uste horiek onak direnik eskean ibiltzeko. Itzul gaitezen atsedeen lekura. Jandakoan berriz etorriko gara. Zezen Gorria zen, bai, *nire* Zezen Gorria.

Distraituak zeudela antzematen zitzaien bie atsoaren segiziokoek jatekoa aurrean jarri zieten; hala bada, inork ez zuen isiltasun hura hautsi, ez baitu zorte onik ekartzen gonbidatuei enbarazu egitea.

— Orain —esan zuen Kimek, makilatxo batez hortzak garbitzen zituen artean—, leku horretara

itzuliko gara; baina zuk, maisu, urrutixeago itxoin beharko duzu, zure oinak nireak baino astunagoak baitira, eta ni irrikitzen nago Zezen Gorri hori hobeto ikusteko.

— Baina nola ulertzen duzu zuk horien hizkerara? Ibili poliki. Iluna dago bidea —erantzun zuen deseroso lamak.

Kimek ez zion erantzunik eman.

— Leku bat seinalatu dut zuhaitzetatik bertan, eta hantxe egon zintezke eserita nik deitu arte. Ez —esan zuen, lama protestaka edo hasi zenean—, gogoan izan hau nire Bilakuntza dela, nire Zezen Gorriaren Bilakuntza. Izarretako zeinua ez zen zuretzat. Zertxobait badakit soldadu zurien ohiturez, eta desiratzen nago gauza berriak ikusteko.

— Ba al da mundu honetaz ez dakizun gauzarik? —lama zintzo-zintzo eseri zen lurreko zulo txiki batean, izarrez zipriztinduriko zeruaren kontra nabarmentzen zen mango-zuhaitz sailetik ehun metro eskasetara.

— Egon nik deitu arte.

Ilunean barneratu zen Kim isil-isilik. Ziur zekien begiraleak izango zirela kanpamendua-

ren inguruan, eta irribarre egin zuen berekiko begirale baten bota lodiak entzun zituenean. Lahoreko teilatuen gainera ilargiaren argitan ezkutuan ibiltzeko gai den mutil bati, pusketa eta zoko ilun oro erabiliz pertsekutatzailea nahasteko, ez dio aise antzemango ondo entrenaturiko soldadu talde batek. Bi soldaduren artean arrastaka joateko delikadezia ere izan zuen, eta, korrika eta bat-batean geldituz, makurtuz eta lurrean etzanez, aurrera egin zuen jangela zen denda argituaren aldera, eta han, zuhaitz baten kontra estu-estu jarrita, zain geratu zen ustekabeko hitzen batek pista egokia noiz emango.

Zezen Gorriaz informazio gehiago eskuratzea zen buruan zebilkion gauza. Berak zekienez, eta Kimen mugak bere jakituria bezain harrigarri eta bat-batekoak ziren, gizon haiek, bere aitaren iragarpeneko bederatziehun deabruak, otoi egin bide zioten animalari ilundu ondoren, indiarrek Behi Santuari otoi egiten dioten bezala. Hori behintzat guztiz zuzena eta zentzuzkoa litzateke, eta urrezko gurutzea zeraman apaiza izango zen beraz arazoaz galdegiteko pertsona egokia.

Beste aldetik, Lahoren saihestu zituen apaizen aurpegi serioa gogoratuz, apaiz hura oztopo ere gerta zitekeen, galdezka hasiz gero, eta ikastera behartuko zuen. Baina ez al zen bada Umballan frogatu zero urruneko zeinuak Gerra eta gizon armatuak iragartzen zituela? Ez al zen bada bera Izarren Adiskidea, Mundu osoarena zen bezalaxe, sekretu izugarritz leporaino beteta? Azkenean —eta hasieran, bere gogoeta bizkorren azpikorrontean—, abentura hura, berak hitz ingelesa ez bazekien ere, ez al zen bada primerako saltsa, garai bateko etxeen gainetikako hegaldien jarraipen zoragarria, eta era berean iragarpen bikain baten gauzatzea? Lurrera itsatsita, arrastaka joan zen janlekuko aterantz, lepoko kutunean esku bat jarrita.

Espero zuen bezalakoxea zen dena. Sahibak beren Jainkoari otoi egiten ari ziren; izan ere, mahaiaren erdian —apaindura bakarra martxan zebiltzanean—, urrezko zezen bat zegoen Pekingo Udako Palazioko harrapakin zaharren metalez egina, urre gorrixkaz egindako zezena, burua makurtuta, eraso egiteko pronto, irlandar zelai

berdearen gainean. Sahibek harengana altxatzen zituzten basoak eta oihu nahasiak egiten.

Arthur Bennett gurgarriak ordea topa egin ondoren uzten zuen beti janlekua, eta ibilaldia-gatik nekatu samarra zegoelarik, ohi baino mugimendu zakarragoak egiten zituen. Oraindik ere mahai gaineko totemari begira zegoen Kim, burua apur bat jasota; halako batean eskuineko besaburua zapaldu zion kaperauak. Kim kuzkur-tu egin zen larruaren zamapean, eta, jira-biraka alde batera mugituz, lurrera bota zuen apaiza; apaizak berriz, ekintza gizona beti ere, lepotik heldu zion mutikoari eta ia-ia zerraldo utzi zuen itota. Kim orduan, desesperatuta, urdailean osti-koka hasi zitzaion apaizari. Makurtu egin zen Mr. Bennett arnasestuka, baina Kimen eskumuturra lasaitu gabe bere buruaren gainean jiratu zuen berriz, eta isil-isilik bere gelara eraman zuen arrastaka. Ikaragarri bromazaleak ziren Maverickak; eta isilik egotea zela gauzarik egokiena bururatu zitzaion ingelesari, beharrezko galdera guztiak egin artean.

— Hara, mutikoa da eta! —esan zuen, harra-pakina dendaren makilatik zintzilik zegoen kri-

seiluaren argitara eramán zuenean; gero, Kim gogotik astinduz, oihu egin zuen—: Zertan ari zara? Lapurra zara. *Chur? Mallum?* —apaizaren hindustaniera motela zen oso, eta Kimek, minduta eta amorruz, leporatzen zioten nortasuna bereganatzeko asmoa hartu zuen. Arnasa berreskuratzen zuen artean, sukaldeko morroiren batekiko harremanak zirela eta istorio zoragarri eta sinesgarri bat hasi zen asmatzen, horrekin batera apaizaren ezkerreko besazpitik eta besazpiaren behetik begiak kendu gabe. Aukera etorri zitzaion; aterantz joan zen makurtuta, baina beso luze bat atera eta lepotik heldu zion; lokarria hautsita, kutun-poltsa hartu zuen Bennettek.

— Emadazu, emadazu. Galdu egin al da? Eman paperak.

Ingelesez esan zituen hitzak, indiarren ingeles mehe eta etenaz, eta apaiza harri eta zurgeratu zen.

— Eskapularioa —esan zuen, eskua zabalduz—. Ez, jentilen kutunen bat. Hara, hara, ingelesez egiten al duzu? Lapurtzen duten mutikoak astinduegiten dituzte. Ba al zenekien hori?

— Nik ez dut... Nik ez dut lapurtzen —Kimek jauzi egiten zuen ikararen ikaraz, altxatutako makilaren aurrean zakurrak egiten duen bezala—. Emadazu. Nire kutuna da. Ez lapurtu hori niri.

Kaperaua, mutilari jaramonik egin gabe, dendaren atera joan eta deika hasi zen. Gizon lodi-kote, bizargabe bat agertu zen.

— Zure aholkua behar dut, aita Victor —esan zuen Bennettek—. Mutil hau topatu dut ilunpetan, janlekuaren ondoan. Nik zigortu eta bidali egingo nuke, lapurra dela uste dut eta. Baina ingelesez mintzatzen dela dirudi, eta balioen bat ematen dio lepotik zintzilik duen kutun moduko bati. Agian lagunduko zenidala pentsatu dut.

Bera eta irlandarren taldeko kaperau katolikoaren artean, Bennetten ustez, amil iraganezina zegoen, baina gauza nabarmena zen Ingala-terako elizak giza arazoren batekin topo egitean aise jotzen zuela laguntza eske Erromako eliza-rengana. Bennettek Erromako eliza eta haren jardunari zion gaitzespen ofiziala aita Victorreki-

ko zuen begirune pribatuak bakarrik berdintzen zuen.

— Lapur bat ingelesez hizketan, ezta? Ea, ikus dezagun kutuna. Ez, ez da eskapularioa, Bennett —eskua luzatu zuen.

— Baina ba al dugu hori zabaltzeko eskubiderik? Astindu eder bat...

— Nik ez dut lapurtu —egin zuen protesta Kimek—. Gorputz osoan eman dizkidazu ostikoak. Orain emadazu kutuna eta joan egingo naiz.

— Mantsoago, motel, mantsoago. Begiratu egingo dugu lehenbizi —esan zuen aita Victorrek, lasai-lasai askatuz Kimball O'Hara gizarajoren «*ne varietur*» pergaminoa, askatasun ziurtagiria, eta Kimen bataio agiria. Azken hartan O'Harak, (semearen alde ikaragarritzko gauza egiten zuelako nola-halako ideiaz), behin eta berriz zakarki idatzi zuen: «*Zaindu mutila. Mese-dez zaindu mutila*»; bere izenaz izenpetuta eta errejimenduko zenbaki osoarekin ageri zen.

— Deabru arrania! —esan zuen aita Victorrek, Mr. Bennetti eman ez dena—. Ba al dakizu zer diren gauza hauek?

— Bai —esan zuen Kimek—. Nireak dira, eta joan egin nahi dut.

— Ez dut ondo ulertzen —esan zuen Mr. Bennetek—. Apropos ekarri ditu noski. Trikimailuren bat edo izan daiteke.

— Ez dut bada inoiz ikusi bere laguntzaileekin gutxiago egon nahi duen eskalerik. Misterio eder baten itxura du honek. Sinesten al duzu Probidentzian, Mr. Bennett?

— Halaxe espero dut.

— Nik berriz mirarietan sinesten dut, beraz, berdintsu gabilitza. Deabru arrania! Kimball O'Hara! Eta O'Hararen semea! Baina mutil hau indiarra da, eta neronek ezkondu nuen Kimball Annie Shottekin. Noiztik izan dituzu gauza hauek, mutiko?

— Umetatik.

Aita Victorrek pauso bizkor bat egin zuen aurrera eta kolkoa agerian jarri zion.

— Ikusten duzu, Bennett, ez da oso beltza. Nola duzu izena?

— Kim.

— Kim ala Kimball?

— Baliteke Kimball izatea. Utziko al didazue joaten?

— Eta besterik?

— Kim Rishti ke deitzen didate. Rishtietako Kim esan nahi du.

— Zer da hori, «Rishti»?

— Khrishti, hori zen errejimendua, aitarena.

— Irish (irlandarra). Orain ulertzen dut.

— Bai. Halaxe esan zidan aitak. Aita, bizitu zen.

— Non bizitu?

— Bizitu zen. Hilda dago noski... joanda.

— A! Era zakar horretan esaten dituzu zuk gauzak, ezta?

Bennettek bestea isilarazi zuen.

— Bidegabekeriaz jokatu dut beharbada mutilarekin. Zuria da noski, batere ondo zaindu ez badute ere. Ziur naiz min eman diodala. Ez dut uste ardoak..

— Emaiozu basokada bat jerez bada, eta utziozu ohatilan esertzen. Orain, Kim —jarraitu zuen aita Victorrek—, inork ez dizu kalterik egingo. Edan hau eta emaguzu zure berri. Egia, kontrakorik ez baduzu.

Kimek eztul txiki bat egin zuen kopa hustuta-koan, eta puska batean pentsatzen jardun zuen. Erne ibili eta irudimena lantzeko unea zirudien hark. Kanpamenduen inguruan ibiltzen diren mutil kozkorak kanpora bidaltzen dituzte astindu bat eman ondoren. Baina berak ez zuen maki-lakadarik jaso; kutunak bere alde jokatzeko zuen noski, eta Umballako horoskopoa eta aitaren marmarretatik gogoratzen zitzaizkion hitz bakanak ezin hobeto egokitzen zirela ematen zuen. Bestela zergatik zirudien apaiza lodiak horren hunkituta, eta zergatik eman zion meheak edari hori bero hura?

— Aita, hilda dago Lahoren ni txikia nintzenetik. Emakumeak, *kabbari* denda bat zeukan alokairu-autoak dauden lekutik bertan —Kim betebetean hasi zen, baina egiak noraino balioko zion oso ondo jakin gabe.

— Ama?

— Ez! —nazka keinu batez—. Ni jaio nintzeanean hil zen ama. Aitak Jardu-gherren hartu zituen paper horiek... Nola deitzen diozue zuek? (Bennettek baietz egin zuen buruaz), bera, zera... ondo ikusia zegoelako. Nola deitzen dio-

zue zuek? (Berriz ere baietz egin zuen Bennettek). Aitak kontatu zidan hori. Eta esan zidan gainera eta baita ere herenegun Umballan marrazkia hautsetan egin zuen brahamanak, esan zidan, Zezen Gorri bat aurkituko nuela zelai berde batean eta Zezenak lagundu egingo zidala.

— Hauxe da gezurti puska, hau —murmurikatu zuen Bennettek.

— Deabru arrania, hauxe da herria! —murmurikatu zuen aita Victorrek—. Segi, Kim.

— Ez dut lapurtu. Gainera, orain gizon santu baten dizipulu naiz. Kanpoan dago eserita. Bi gizon ikusi genituen banderekin etortzen, lekua prestatzera. Hori horrelaxe izaten da beti amets batean, edo, zera... iragarpen bat dela eta. Hala, banekien egia bihurtuko zela. Zezen Gorria zelai berdean ikusi nuen, eta aitak esan zuen: «Bederatziehun deabru *pukka*-k eta koronelak zaldi baten gainean zainduko zaituzte Zezen Gorria aurkitzen duzunean!» Ez nekien zer egin Zezena ikusi dudanean, baina alde egin dut eta gero itzuli ilundu duenean. Zezena ikusi nahi nuen berriz, eta berriz ikusi dut Zezena... zera, sahi-

bek otoitz egiten ziotela. Zezenak lagundu egingo didala uste dut. Maisuak ere halaxe esan zuen. Kanpoan eserita dago. Minik emango al diozue, orain deitzen badiot? Oso gizon santua da. Esan ditudan gauza guztien lekukotza eman lezake, eta badaki ez naizela lapurra.

— «Sahibak zezen bati otoi egiten»! Zer arraio da hori? —esan zuen Bennettek—. Gizon santu baten dizipulua! Erotuta al dago mutila?

— O'Hararen semea da, bai. O'Hararen semea deabru guztiekin batera. Horixe bera egingo zukeen aitak ere... mozkorra zegoenean. Hobe dugu gizon santua etorraraztea. Baliteke horrek zerbait jakitea.

— Ezer ez daki —esan zuen Kimek—. Erakutsiko dizuet nirekin etortzen bazarete. Nire maisua da. Gero joan egin gintezke.

— Deabru arrania! —izan zen aita Victorrek esan ahal izan zuen guztia, Bennett kanporantz zihoala, esku bat Kimen bizkarrean indarrez jarritan.

Geratu zen lekuan topatu zuten lama.

— Bukatu da nire Bilakuntza —egin zion oihu Kimek bere hizkuntzan—. Aurkitu dut Zezena,

baina Jainkoak daki zer datorren hurrena. Jende honek ez dizu kalterik egingo. Zatoz gizon argal honekin apaiza lodiaren dendara eta ikusi bukaera. Berria da dena, eta ez dakite hindieraz hizketan. Asto hezi gabeak dira.

— Ez dago bada ondo horien ezjakituriari barre egitea —erantzun zuen lamak—. Poztu egiten nau zu alai egoteak, *chela*.

Duintasunez eta susmo txarrik gabe denda txikian sartu zen, elizgizon bezala agurtu zituen bi elizak eta ikatzezko suaren ondoan eseri zen. Kriseiluaren argitan islatzen zen dendaren oihal horiak urre gorriaren kolorea ematen zion lamarren aurpegiari.

Munduaren bederatzi hamarrenak «jentil» izenpean jartzen dituen fedearen interes gabezia izugarriaz begiratu zion Bennettek.

— Eta zer izan da zure Bilakuntzaren bukaera? Zein dohain eman dizu Zezen Gorriak? — lamak Kimi hitz egiten zion.

— Esaten du, «Zer egin behar duzu?» — Bennettek deseroso begiratzen zion aita Victorri, eta Kimek, bere onerako, bere gain hartu zuen interpretari lana.

— Ezin dut asmatu zer ikustekorik duen fakir honek mutilarekin, biktima eta konplizea izango du eta seguruena —hasi zen Bennett—. Ezin dugu onartu mutil ingeles bat... Masoi baten semea dela onartuta, zenbat eta lehenago joaten den Masoien Umezurztegira, askoz hobeto.

— A! Errejimenduko logiaren idazkari bezala duzun iritzia da hori —esan zuen aita Victorrek—, baina agureari ere esan diezaiokegu zer nolako asmoak ditugun. Ez du gaizkile itxurarik.

— Nik ikusi dudanez, ezin dira inoiz ekialdekoen pentsakizunak asmatu. Orain, Kimball, zuk gizon honi nik diodana esatea nahi dut, hitzez hitz.

Hurrengo esaldien zentzua jaso, eta horrelaxe hasi zen Kim hizketan:

— Maisu, gamelua dirudien argal txoro horrek esaten du ni sahib baten semea naizela.

— Baina nola?

— A, egia da. Jaio nintzenetik nekien hori, baina *horrek* niri kutuna lepotik kendu eta paper guztiak irakurrita jakin du. Uste du behin sahib izanda, sahib dela bat betirako, eta bien artean erabakita ni errejimendu honetan utzi edo

madrissah (eskola) batera bidaltzeko asmoa dute. Gertatu da lehen ere. Nik ihes egin izan diet beti. Txoro gizenak era bateko ideiak dauzka eta gameluak berriz bestelakoak. Baina horrek ez dio inporta. Gau bat eman dezaket hemen, eta baita hurrengo ere beharbada. Lehen ere gertatu izan da. Gero ihes egingo dut eta zuregana bueltatu.

— Baina esaiezu nire *chela* zarela. Esaiezu nola etorri zinen nigana ahulduta eta ikaraz nengoenean. Esan gure Bilakuntzarena, eta segur aski utziko dizue joaten.

— Esan diet hori. Barre egiten dute, eta polizia aipatu.

— Zer ari zarete esaten? —galdetu zien Mr Bennettek.

— A. Zera besterik ez du esaten, ez badidazue joaten uzten bere eginbeharrak etenda gertuko direla... bere eginbehar pribatu larriak — azken hura Urtegi saileko bulegari eurasiar batekin izandako elkarrizketaren oroitzapena zen, baina irribarrea baino ez zuen sortarazi, eta horrek ernegatu egin zuen—. Eta zuk eginbehar

hori zer den jakingo bazenu, ez zinateke traba egiteko irrikitzen egongo.

— Zer da bada? —galdetu zuen aita Victorrek, ez kezkarik gabe, laman aurpegira begira.

— Bada Ibai bat herri honetan nire maisua bila eta bila dabilena. Gezi batek sorrarazi zuen eta... —Kimek oinaz jotzen zuen lurra ezinegonik, pentsamenduak bere mintzairatik ingeles motelera itzultzen zituen artean— A, Buda gure Jaunak egin zuen, eta han sartzen denari bekatu guztiak garbitzen zaizkio eta kotoia bezain zuri geratzen da —entzunak zituen noizbait Kimek misiolarien hitzak—. Ni bere dizipulua naiz, eta Ibaia aurkitu beharra daukagu. Oso baliotsua da guretzat.

— Azaldu ezazu hori berriz —esan zuen Bennetek. Kimek obeditu egin zuen, istorioa osatuz.

— Baina hori izugarritzko biraoa da ordea! —egin zuen oihu Ingalaterrako elizak.

— Ai, ai —esan zuen aita Victorrek atsegina—. Edozer emango nuke beren hizkuntzan mintzatzeko gauza izateagatik. Bekatua garbitzen duen Ibaia! Eta zenbat denbora daramazue ibai horren bila?

— A, egun asko. Orain joan egin nahi dugu, eta bila hasi berriz. Ez baitago hemen.

— Bai —esan zuen aita Victorrek serio-serio—. Baina ezin duzu agure horrekin joan. Bestelakok lirateke gauzak, Kim, soldadu baten semea ez bazina. Esaiozu errejimendua arduratuko dela zutaz eta zure... zera, gizonik gizonena bezain jatorra bihurtuko zaitugula. Esaiozu mirarietan sinesten badu, sinetsi behar duela...

— Ez dago horren sinesgarritasunaz baliatu beharrik —moztu zuen Bennettek.

— Ez naiz horrelakorik egiten ari. Sinetsi behar du mutila hona etorri izana, bere errejimendura, Zezen Gorriaren bila, miraria dela nolabait. Kontutan hartu, Bennett, horren aurka dauden aukerak. Mutil hau, bakarra India osoan, eta gure errejimendua, beste guztien artean, maniobratan, eta elkartu egin dira! Ezagun du Patua izan dela. Bai, esaiozu *Kismet* dela hau (patua). *Kismet, mallum?* (ulertzen al duzu?)

Lamarengana jiratu zen; lama Mesopotamiaz hitz egin baliote bezalaxe zegoen.

— Esaten dute —agurearen begiak argitu egin ziren Kimen hitzak entzutean—, agerian

jarri dela orain nire horoskopoaren zentzua, eta hona etorri naizenez gero, nahiz eta zuk badakizun jakin-minez etorri naizela, bai jende honengana eta bai beren Zezen Gorriarengana, *madrissah*-era joan behar dudala eta sahib bihurtu. Orain nik konforme nagoela egingo ditut itxurak, zeren, okerrenean ere, zugandik urrun egindako jatordu batzuk baino ez dira izango. Gero ihes egingo dut eta bideari jarraituko diot Sahararunporeraino. Hala bada, maisu, Kuluko emakume horrekin egon, eta ez apartatu ni etorri arte. Zalantzarik gabe, Gerra eta gizon armatuena da nire zeinua. Ikusi nola eman didaten ardoa edateko eta ohorezko ohe baten gainean eseri! Aitak gizon handia behar zuen izan. Hala bada, ohore ematen badidate, primeran. Bestela izanda ere, ondo. Nolanahi ere, nekatzen naizenezan zugana joango naiz. Baina egon *rajputni*-arekin, galdu egingo baitut bestela zure oinen arrastoa... Bai, bai —esan zuen mutikoak—, esateko esan didazuen guztia itzuli diot.

— Eta ez dut ikusten zertan itxoin behar duen —esan zuen Bennettek, eskua praketako sake-

lan sartuz—. Xehetasunak geroago aztertuko ditugu, eta orain emango diot honi ru...

— Denbora eman. Baliteke mutikoa maite izatea —esan zuen aita Victorrek, bestearen mugimendua geldiarazteko keinu bat eginez.

Arrosarioa atera zuen lamak, eta bere txano handiaz estali zituen begiak.

— Zer nahi du orain?

— Esaten du... —Kimek esku bat jaso zuen—, esaten du: isilik egon. Nirekin hitz egin nahi du. Begira, esaten duenetik hitz bat bera ere ez duzue zuek ulertzen, eta uste dut hitz egiten baduzue oso madarikazio txarrak egingo dizkiuzuela. Arrosario aleak horrela hartzen dituenean, isilik egon nahi izaten du beti.

Zur eta lur eseri ziren bi ingelesak, baina Bennetti Kimentzat zorigaiztokoa izango zen zer-bait igarri zitzaion begietan, mutila adar erlijiosoaren eskueran jarritakoan.

— Sahiba eta sahib baten semea —minak lakartu egiten zuen lamaren ahotsa—. Baina ez da lur hau eta lur honen ohiturak zuk bezain ederki ezagutzen duen gizon zuririk. Nola izan liteke hori egia?

— Zer axola dio, maisu? Gogoan izan gau bat edo bitarako izango dela. Gogoratu, ni oso bizkor alda naiteke. Zam-Zammah kanoi handiaren azpian zurekin lehenengoz mintzatu nintzen bezalaxe izango da...

— Gizon zurien erara jantzitako mutila, Etxe Miragarrira lehenengoz joan nintzenean. Eta bigarren aldian berriz indiarra zinen. Zein izango da hirugarren enkarnazioa? —barre triste bat egin zuen—. A, *chela*, mindu egin duzu agure bat, zugana joan baita nire bihotza.

— Eta nirea zugana. Baina nola asma neza-keen Zezen Gorriak istilu honetara ekarriko ninduela?

Lamak berriz ere aurpegia estali zuen, eta, urduri, arrosarioari eragin zion. Aldamenean eseri, eta esku bat jarri zuen Kimek bere maisua- ren jantzian.

— Beraz, sahiba al da mutil hau? —jarraitu zuen ahots nekatuz—. Etxe Miragarriko irudiak zaintzen dituen sahiba bezalakoxea —lamak gizon zuriekin izandako harremanak mugatuak ziren. Irakasgai bat errepikatzen ari zela zirudien—. Orduan, harritzekoa litzateke beste sahi-

bek egiten dituzten ez bezalako gauzak egitea. Bere jendearengana itzuli behar du.

— Gau eta egun batez eta beste egun bat — erregutu zuen Kimek.

— Ez, ez! —aita Victorrek ate aldera abiatzen ikusi zuen Kim eta zango indartsu batez geldiarazi zuen.

— Ez ditut ulertzen gizon zurien ohiturak. Lahoreko Etxe Miragarriko irudien apaiza hemengo mehe hau baina konplituagoa zen. Kendu egingo didate mutila. Sahib bihurtu behar al dute nire dizipulua? Gizarajoa agure hau! Nola aurkituko behar dut nire Ibaia? Ez al dute bada beraiek dizipulurik? Galdeiezu.

— Esaten du pena handia duela orain ezingo duelako Ibaia aurkitu. Esaten du, zergatik ez duzuen zuek dizipulurik, eta bera bakean uzten? Bekatuak garbitu nahi ditu.

Ez Bennettek ez aita Victorrek, ez zeukaten hartarako erantzun egokirik prest.

Kimek, lamaren sufrimenduak kezkatuta, esan zuen ingelesez:

— Nik uste dut, orain joaten uzten badidazue, lasai-lasai joango garela eta lapurtu gabe. Ibai

horren bila joango gara ni harrapatu baino lehen ari ginen bezala. Zergatik etorri ote naiz hona Zezen Gorria eta horrelako gauzen bila! Orain ez ditut nahi.

— Zeure buruaren mesedetan sekula egin duzun lanik onena izan da, motel —esan zuen Bennettek.

— Jainkoaren izenean, ez dakit nola kontsolatu gizona —esan zuen aita Victorrek lamari begira-begira—. Ezin du mutila eraman, baina gizon zintzoa da hala ere. Ziur naiz gizon zintzoa dela. Bennett, rupia hori ematen badiozu, burutik oinetaraino madarikatuko zaitu!

Elkarren arnasa entzuten egon ziren, hiru, host minutu luzez. Orduan lamak burua jaso eta besteen gaintik espaziora eta hutsera begiratu zuen.

— Bidearen Jarraitzaile naiz ni —esan zion Kimi ahots garratzez—. Nirea da bekatua eta nirea zigorra. Sinestarazi egin nion neure buruari, orain ikusten baitut sinetsi egin nahi nuela, nire Bilakuntzan laguntzera bidalia zinela. Hala, nire bihotza zugana joan zen zure adin laburra-
ren karitate, kortesia eta jakituriagatik. Baina

Bideari jarraitzen diotenek ezin dute onartu desioa edo loturaren surik, hori dena Lilura da eta. Esaten duen bezala... —testu txinatar zahar-zahar bat errezitatu zuen, beste bat erantsi zion, eta hura hirugarren batekin indartu—. Aldendu egin naiz Bidetik, *chela*. Ez da zure errua izan. Gozatu egiten nuen bizitza ikusita, jende berria bideetan, eta gauza horiek ikusita zuk zenuen pozarekin. Pozik nengoen zurekin, eta zuk nire Bilakuntzaz, nire Bilakuntzaz besterik ez, behar zenuen arduratu. Orain penaz nago nigandik aldendu zaituztelako, eta Ibaia urrun dudalako. Legea hautsi dut!

— Deabru arrania! —esan zuen aita Victorrek, esaldi bakoitzean mina nabarituta, aditua baitzen aitorpenetan.

— Orain konturatzen naiz Zezen Gorriaren zeinua niretzako ere bazela, zuretzako bezainbeste. Desio oro gorria da, eta gaiztoa. Penitentzia egingo dut eta bakarrik bilatu Ibaia.

— Itzuli behintzat Kuluko andrearengana —esan zion Kimek—, bestela galdu egingo zara kaminoetan. Jaten emango dizu ni zugana itzultzan naizen arte.

Lamak eskuari eragin zion erabakia hartuta zeukala adierazteko.

— Eta orain —ahoskera aldatu egin zitzaion Kimengana jiratu zenean—, zer egingo dute zurekin? Agian, merituak eskuratuz, garbitu ahal izango ditut egin ditudan okerrak.

— Sahib bihurtu, asmo hori dute. Etzi itzuliko naiz. Ez penarik izan.

— Nolakoa? Hauek bezalakoa? —aita Victor seinalatu zuen—. Arratsaldean ikusi ditudanak bezalakoa, gizon ezpatadun horiek, indarrez zapaltzen zutenak bezalakoa?

— Baliteke.

— Hori ez dago ondo. Gizon horiek desioaren atzetik dabilta eta hustasunera heltzen dira. Zuk ez duzu horrelakoa izan behar.

— Umballako apaizak Gerra zela nire marra esan zuen —moztu zuen Kimek—. Txoro horiei galdetuko diet... Baina ez, ez dago galdetu beharrik. Gaur gauean egingo dut ihes, nik gauza berriak ikusi besterik ez bainuen egin nahi.

Kimek bizpahiru galdera egin zizkion ingelesez aita Victorri, eta erantzunak itzuli zizkion lamari.

— Esaten du, «Kendu egiten didazue eta ezin duzue esan zer egingo duzuen berarekin». Esaten du, «Esadazue ni joan baino lehen, ez baita txantxetako gauza ume bat heztea».

— Eskolara bidaliko zaitugu. Gero, ikusiko da. Kimball, soldadu izan nahiko duzu, ezta?

— *Gorah-log* (gizon zuriak). Ez, ez! —Kimek indarrez eragin zion buruari. Militarren ariketa eta diziplinak ez zuten batere erakartzen—. Soldadua ez naiz izango.

— Esaten dizuten huraxe izango zara —esan zuen Bennettek—; eta eskerrak eman beharko zenituzke lagundu behar dizugulako.

Kimek irribarre egin zuen, errukitsu. Gizon haiek berak nahi ez zuen zerbait egingo zuela uste bazuten, askoz hobeto.

Beste isilune luze bat izan zen. Bennett urduri mugitzen zen, eta begirale bati deitzea proposatu zuen fakirra bidal zezan.

— Ikasketak ematen al dira, edo saltzen, sahiben artean? Galdeiezu —esan zuen lamak, eta Kimek itzuli egin zuen.

— Dirua ordaintzen zaiola irakasleari diote, baina diru hori errejimenduak emango du... Baina zer axola dio? Gau bat besterik ez da eta.

— Eta... zenbat eta diru gehiago eman, ikasketak hobea ematen al dute? —lamari ez zitzaion atsegin Kimen segituan ihes egiteko plan hura— Ez dago gaizki ikasteagatik ordaintzea. Ezjakinari jakinduria eskuratzen laguntzea meritua da beti —arrosarioaren aleek abakoak bezain gogor jotzen zuten elkar. Orduan lamak aurre egin zien bere zapaltzaileei.

— Galdeiezu zenbat diruren truke ematen duten irakaspen zuhur eta egokia. Eta zein hiritan.

— Bada —esan zuen aita Victorrek ingelesez Kimek aurrekoa itzuli zuenean—, segun eta. Errejimenduak zure gastu guztiak ordainduko lituzke Umezurztegi Militarrean zauden artean; edo Punjabeko umezurztegi masoian sar zintezke (nahiz eta ez zuk eta ez berak ez duzuen ulertuko zer esan nahi duen horrek); baina mutil batek Indian izan dezakeen eskolarik onena, jakina, St. Xabier in Partibusekoa da, Lucknowen.

Luze jo zuen hark itzultzerakoan, Bennettek laburtzea nahi baitzuen.

— Zenbat den jakin nahi du —esan zuen Kimek lasai-lasai.

— Berrehun edo hirurehun rupia urteko —aita Victorrek bazeraman puska bat ezertaz harritu gabe. Bennettek, eraman txarreko, ez zuen ezer ulertzen.

— Esaten du jartzeko izena eta diru kopurua paper batean, eta emateko berari. Eta zure izena ere jartzeko azpian, gutun bat idatzi behar baitizu egun batzuk barru. Gizon jatorra zarela dio. Beste gizona berriz zoroa omen da. Badoa.

Lama bat-batean zutitu zen.

— Nire Bilakuntzari jarraitu behar diot —egin zuen oihu, eta joana zen.

— Begiraleekin egingo du topo —esan zuen oihuka aita Victorrek jauzi eginez lama ateratzerakoan —baina ezin dut mutila utzi —Kimek jarraitzeko keinu bizkor bat egin zuen, baina atzera egin zuen. Ez zen agindurik entzun kanpoan. Desagertua zen lama.

Kim eroso jesarri zen kaperauaren ohatilan. Agindu zion behintzat lamak Kuluko andre *raj-*

put-arekin egongo zela, eta gainontzekoak ez zuen askorik axola. Bi apaizak horren asaldatuta egoteak poztu egiten zuen. Luze jardun zuten ahots isilez hizketan, aita Victor planen bat proposatzen premiatsu Mr Bennetti, honek sinesgogor zirudien artean. Berria eta zoragarria zen guzti hura, baina hala ere logaleak zegoen Kim. Gizonak ekarri zituzten dendara —haisetako bat koronela zen dudarik gabe, aitak iragarri bezala— eta sekulako galderak egin zizkioten, batez ere zaintzen zuen emakumeaz, eta den denari egiaz erantzun zion Kimek. Ez zirudien emakumea zaindari egokitzat jotzen zutenik.

Huraxe zen, izan ere, Kimen esperientziarik berriena. Lehenago edo geroago, nahi izanez gero, India handi, gris, forma gabera egingo zuen ihes, dendak, apaizak eta koronelak atzean utziz. Bitartean, sahibak txundituta utzi behar bazituen, ahal zuen guztia egingo zuen hura lortzeko. Bera ere zuria zen.

Kimek ulertu ezin zuen hizketaldi luze baten ondoren, sarjentu batengana eramán zuten, mutilari ihes egiten ez uzteko agindu zehatzak zituena. Errejimenduak Umballaraino jarraituko

zuen, eta Kim berriz, erdia logiak ordainduta, eta beste erdia harpidetzaz, Sanawar izeneko leku batera bidaliko zuten.

— Gauza miragarria da, pentsaezina, koronela —esan zuen aita Victorrek, hamar minutuz segidan isildu gabe hizketan aritu ondoren—. Bere lagun budistak ospa egin du nire izena eta zuzenbidea hartu ondoren. Ezin dut asmatu mutilaren heziketa ordaindu nahi ote duen ala bere kabuz sorginkeria bat prestatzen ari ote den —eta gero Kimi—. Izango duzu denborarik zure adiskide den Zezen Gorriari eskerrak emateko. Gizon egingo zaitugu Sanawarren, baita protestante egin behar baduzu ere.

— Jakina, jakina —esan zuen Bennettek.

— Baina zuek ez zarete Sanawarrera joango —esan zuen Kimek.

— Baina gu Sanawarrera joango gara, gizon-txo. Horixe da komandantearen agindua, eta komandanteak O'Hararen semeak baino garrantzi handixeagoa badu.

— Zuek ez zarete Sanawarrera joango. Zuek gerrara joango zarete.

Barre algarak entzun ziren dendan.

— Zure errejimendua hobexeago ezagutzean ez dituzu nahastuko martxa eta borroka, Kim. Gerrara noizbait ere joango garela espero dugu.

— A, badakit guzti hori —berriz ere itsu-itsuan bota zuen Kimek tiroa. Ez baldin bazuten gerrara joateko asmorik, berak Umballako atariko hizketaldiaz zekiena ez zekiten haiek.

— Badakit ez zaudetela gerran orain. Baina gauza bat esaten dizuet, Umballara heldu bezain pronto gerrara bidaliko zaituzte, gerra berrira. Zortzi mila gizonetako gerra da, kanoiez gain.

— Horixe bai zehatza izatea. Zuk ere iragarpena eransten al diezu gainontzeko dohainei ala? Eraman ezazu, sarjentu. Eskuraiozu danborjole baten uniformeak, eta kontuz ibili, ez dadila behatz artetik itzuri. Nork esan du bukatu dela mirarien garaia? Ohera joango naizela uste dut. Ahultzen hasita daukat buru gaixo hau.

Ordubete beranduago, kanpamenduaren beste muturrean, eta basoko abere bat bezala isil-isilik, eserita zegoen Kim, goitik behera garbitu berria, beso eta zangoetan harramaskak egiten zizkion jantzi nazkagarri batean sartuta.

— Oso txori bitxia —zioen sarjentuak—. Horra non agertzen den brahaman batekin, horia baino horiagoa apaiza, bere aitaren masoi agiria lepotik zintzilik zeukala, eta nik ez dakit zer esaka zezen gorri batez. Gero hantxe desagertu da brahamana ezer esplikatu gabe, eta mutila kaperauaren ohatilan eseri da zangoak gurutzatuta agertzen den kristo guztiari gerra zikina iragarriz. Leku txarra da India Jainkoaren beldur den gizon batentzat. Dendaren ardatzean lotuko diot zangoa, sabaitik ihes egin nahi badu ere. Zer esan duzu gerraz?

— Zortziehun gizon, kanoiez gain —esan zuen Kimek—. Azkar asko ikusiko duzue.

— Horixe da kontsolamendua! Etzan hor danborren artean eta segi lotara. Bi mutil horiek zainduko dizute loa.

6. ATALA

Orain gogoratzen naiz, lagunok...

Itsaso berrietako jolaskide zaharrak...

*Ur-airearen salerosketan jardun genuenean
Basatien artean.*

Hamar mila legoa hegorantz

Eta hogeita hamar urte beranduago

Ez zuten Valdez prestua ezagutzen,

Baina ni ezagutu eta maite ninduten.

Diego Valdezen kantua.

Goizean goiz kendu zituzten eta desagertu ziren denda zuriak, Maverickek Umballarako zeharbide bat hartzen zuten artean. Bide hura ez zen atsedan lekutik gertu igarotzen, eta Kimek, intendentzi gurdietako baten ondoan, soldaduen emazteen komentarioen zaparradaren azpian, ez zeukan bezperako ziurtasuna. Ondo bijilatuta zegoela deskubritu zuen: aita Victor alde batean, eta Mr Bennett bestean.

Eguerdiaren ondoren gelditu egin zen taldea. Zerbitzari batek, gamelu gainean, gutun bat eman zion koronelari. Koronelak irakurri eta

komandante batekin hitz egin zuen. Kilometro erdi bat atzerago, Kimek marmar zakar eta alai bat entzun zuen hauts loditik berarenganaino zetorrela. Orduan norbaitek bizkarrean jo zuen, oihuka:

— Esaguzu nola jakin duzun, deabru txiki hori! Aita, ea zuri esaten dizun.

Zaldi txiki bat jarri zitzaion Kimi ondoan, eta apaizaren zelaren pareraino eramane zuen.

— Hara, seme, bart egin zenuen iragarpena egia bihurtu da. Bihar Umballan frenterako itsasoratzeko agindua daukagu.

— Zer da hori? —esan zuen Kimek, «frente» eta «itsasoratu» hitzak berriak gertatzen zitzaizkion eta.

— Zure gerrara goaz.

— Jakina bada, gerrara zoaztela. Esan nuen bart.

— Halaxe da, bai. Baina, deabru arrania, nola zenekien zuk hori?

Distiraka jarri zitzaizkion begiak Kimi. Ezpainak itxi zituen, buruari eragin, eta itxura misteriozua hartu. Kaperauak aurrera egin zuen hautsetan, soldadu, sarjentu eta subalternoak elka-

rri keinuak egiten zizkioten artean, mutila seinatuz. Koronelak, zutabearen buruan, jakinminez begiratzen zion:

— Bazarreko zurrumurruak izango ziren noski —esan zuen—; baina hala ere... —eskuan zeukan paperari begiratu zion—. Deabru arrania, azken berrogeita zortzi ordu hauetan hartu dute eta erabakia!

— Zu bezalako beste asko al dira Indian? — galdetu zion aita Victorrek—, ala *lusus naturae* izateko bidean zaude?

— Orain badakizue; utziko al dizkidazue agurrearengana itzultzen? Kuluko emakume horrekin ez badago, beldur naiz ez ote den hilko.

— Ikusi nuenagatik, zu bezain ederki ardura daiteke hura bere buruaz. Ez. Zortea ekarri diguzu, eta guk gizon egingo zaitugu. Zure intendentzi gurdira itzuliko zaitut orain, eta iluntzean zatoz nigana.

Handik aurrera Kimek konplutuz inguratuta ikusi zuen bere burua ehunka gizonen artean. Ez kanpamenduan nola agertu zen, nola jakin zen nor zuen aita, ezta iragarpenak ere, ez zuten batere galdu ahoz aho igarotzean. Emakume

zuri, handi batek, oheko arropa mordo baten gainean eserita, misteriotsuki galdetu zion ea senarra gerratik itzuliko zela uste al zuen. Kim serio-serio pentsatzen jardun ondoren, baietz esan zion, eta emakumeak jaten eman zion. Alderdi askotatik, segizio handiak, tarteka-tarteka musika joaz, hain erraz hitz egin eta barre egiten zuen jendetza hark Lahoreko jaialdi bat zirudien. Ordura arte behintzat, lan gogorrik ez zen inon ageri, eta Kimek ikuskizunari begira egotea erabaki zuen. Iluntzean musika bandak etorri zitzaizkien harrera egitera, eta Maverickekin joan ziren kanpamenduraino musika joka, Umballako geltokitik bertan. Gau interesgarria izan zen hura. Beste errejimenduetako gizonak etorri zitzaizkien Maverickei bisita egitera. Maverickak ere bisitaldiak egiten ibili ziren. Haien bila zihozten soldadu taldeek, itzularazteko, gauza bera egiten ari ziren errejimendu ezezagunetako taldeekin egin zuten topo; eta segituan, turutak jo eta jo hasi ziren beste talde eta ofizialei deika, iskanbila baretu asmoz. Mantendu beharra zeukaten Maverickek betidanik zeukaten gartsu fama. Biharamunean halere itxura eta egoera

ezin hobean formatu zuten kaian; eta Kim ere, atzean utzi baitzuten gaixo, emakume eta muti-koekin, hantxe ageri zen agur esaten oihuka, asaldatuta, trenak abiatzerakoan. Sahibak bezala bizitzea ordura arte behintzat entretenitua izan zen; baina Kimek zuhurtasunez ukitzen zuen bizimodu hura. Gero itzuli egin zen mutil danbor-jole baten ardurapean, barraka huts, kareztatuetara; zabor, soka eta paperez zeukan lurra estalita; sabaiek bere oin-urrats bakartiak itzultzen zizkioten. Indiakoan modura, bil-bil egin zen ohatila baten gainean eta lotara jarri. Gizon bat etorri zitzaion haserre ataritik oinekin soinua eginez, esnatu egin zuen, eta maisua zela esan zion. Nahikoa izan zuen Kimek hura bere baitan ixteko. Ozta-ozta zen gatiza Lahoreko poliziaren zenbait iragarki irakurtzeko, bere ongi izanarekin zerikusia zutelako; eta bera zaintzen zuen emakumearen gonbidatu ugarien artean alemaniar bitxi bat ere izan zen, antzerti ibiltari *parsi* batentzat dekoratuak margotzen zituena. Kimi esan zion barrikadetan izana zela berrogeita zortzian», eta, hartaz, hala ulertu zuen behintzat Kimek, idazten erakutsiko omen zion jatekoaren

truke. Kim hizki soilak ikastera iritsi zen, baina ez zion halere oso ongi irizten idazketari.

— Ez dakit ezer. Alde hemendik! —esan zion Kimek maisuari, susmo txarra hartuz.

Orduan gizonak belarritik heldu zion, eta urruneko gela batera eramane zuen; dozena bat danbor-jole zeuden han bankuetan eserita, eta geldik egoteko esan zion maisuak besterik ezean. Hartan primeran moldatu zen Kim. Gizonak gauzaren bat edo beste azaldu zuen arbel beltz baten gainean marra zuriak eginez, eta etendako loak hartu zuen berriz Kim. Gogoz gaitzesten zuen egoera hura, huraxe baitzen hain zuzen ere berak bere bizitza laburraren zatirik handiena saihesten eman zuena: eskola eta diziplina. Bat-batean ideia zoragarri bat bururatu zitzaion, eta zergatik ez ote zuen lehenago hartan pentsatu galdetu zion bere buruari.

Maisuak kanpora bidali zituen, eta Kim izan zen ataritik eguzkitara irteten lehena.

— E, zu! Egon! Geldik! —esan zuen bere atzean ahots ozen batek—. Zaindu egin behar zaitut. Nire bistatik aldentzen ez uteko agindua daukat. Nora zoaz?

Goiz osoan Kimen inguruan zebilen danbor-jolea zen, hamalau bat urtetako mutil potolo eta pekatsua: Kimek gorroto zion botetako zorueta-tik txanoaren zintetaraino.

— Bazarrera... gozokiak eroatera... zuretzat —esan zion Kimek, ondo pentsatu ondoren.

— Mugaz kanpo dago bazarra. Hara joaten bagara astindu ederra jasoko dugu. Itzuli.

— Hurbilen noraino joan gintezke? —Kimek ez zekien mugak zer esan nahi zuen, baina ongi hezia agertu nahi zuen... orduan.

— Hurbilen? Urrutien esan nahiko duzu! Beheko zuhaitz horretaraino joan gintezke.

— Orduan horra joango naiz.

— Ondo da. Ni ez naiz joango. Beroegi dago. Hemendik bijilatuko zaitut. Ez du merezi ihes egiteak. Berehala ezagutuko zaituzte arropa horiekin. Daramazun hori errejimenduko arropa da. Ez da Umballan segituan bueltan ekarriko ez zaituen patruilarik.

Hark ez zuen Kim askorik beldurtu, baina bai ordea jantziak leher eraziko egingo zuela jakiteak, korrika egiten saiatuz gero. Desgogora, azokara zeraman oso bide ibili baten bihurgune-

ko zuhaitzera joan zen, eta bertako jendea nola pasatzen zen begira egon zen. Gehienak behe kastako zerbitzariak ziren, kanpamenduan lanean jarduten zutenak. Kimek erratzarekin ari zen bati deitu zion, eta hark segituan erantzun zion beharrik gabeko lotsagabekeriaz, mutiko europarrak ez zuela ulertuko pentsatuz noski. Bestearen erantzun zakar, bizkorrak, atera zuen okerretik. Kimek hartantxe jarri zuen bere anima kateatua, menderatzen zuen hizkuntzan norbait iraintzeko aukera zuelako eskertuta.

— Eta orain, zoaz bazarreko gutun-idazle hurbilenarengana eta esaiozu etortzeko hona. Gutun bat idatzi behar dut.

— Baina... baina zer nolako zurien seme zara zu bazarreko eskribau baten beharra izateko? Ez al da bada barraketan maisurik?

— Bai, eta infernua ere horrelakoz josita dago. Bete ezazu nire agindua, nazkante...! Zure ama saski baten azpian ezkondu zen! Lal Beg-en zerbitzari hori (Kimek bazekien zein zen erratzarien Jainkoa), segi nire mandatua betetzera, bestela beste elkarrizketa bat izango dugu eta!

Erratzaria korrika urundu zen.

— Zuria ez den zuri bat duzu zain barraken ondoan zuhaitz baten azpian —esan zion hitz totelka azokan topatu zuen lehenengo eskribauari—. Zure beharra dauka.

— Ordainduko al du? —galdetu zuen eskribau txukunak, mahaia, lumak eta argizaria ordenan jasoaz batera.

— Ez dakit. Ez da besteak bezalakoa. Joan eta ikusi. Merezi du.

Kim ezinegonaz dantzari zen *kayeth* gazte lerdena agertu zenean. Bere ahotsa entzuteko bezain gertura heldu zenean lasai-lasai iraindu zuen.

— Lehenbizi dirua hartuko dut —esan zuen eskribauak—. Hitz gaizto horiek prezioa igo egin dute. Baina nor zara zu, horrela jantzita, eta horrela hizketan?

— A! Zuk idatzi behar duzun gutunean esango dut hori. Ez da sekula halako istoriorik izan. Baina ez daukat presarik. Beste eskribau batekin moldatuko naiz. Eskribauez josita dago Umballa, Lahore bezalaxe.

— Lau ana —esan zuen eskribauak, eseri eta oihala zabalduz barraka huts baten itzaletan.

Aldamenean eseri zitzaion Kim ia oharkabeen —indiarrek baino ez dakiten eran—, nahiz eta praka nazkagarri haiek eramanean. Eskribauak zeharka begiratzen zion.

— Hori sahibei eskatzen zaiena da. Orain esadazu benetako prezioa.

— Anna t'erdi. Nola dakit nik gutuna idatzita-koan ez duzula alde egingo?

— Zuhaitz hau baino harantzago ezin naiz joan, eta gainera zigilua ere hartu behar da kontutan.

— Ez daukat komisorik zigiluaren prezioan. Beste behin, zein eratako mutil zuria zara zu?

— Hori gutunean agertuko da, Mahbub Ali, Lahoreko *Kashmir Serai*-ko zaldi-tratulariarentzat baita. Nire adiskidea da.

— Ene! —murmurikatu zuen eskribauak, luma tintontzian sartuz—. Hindieraz idatzi behar al da?

— Jakina. Mahbub Aliri bada. Hasi! *Umballaraino etorri naiz agurearekin trenean. Umballan eman nuen behor uherraren albistea.* —loreto-
kian ikusitakoaren ondoren, ez zuen hazitarako zaldi zuririk aitatu.

— Mantsoxeago. Zer ikustekorik du behor uher batek... Mahbub Ali al da, tratulari handia?

— Nor bada? Haren zerbitzuan izana naiz. Har ezazu tinta gehiago. Berriz hartu. *Agindua behar bezala bete nuen. Gero oinez abiatu ginen Benares aldera, baina hirugarren egunean errejimendu jakin batekin egin genuen topo. Idatzita al dago hori?*

— Bai, *pulton* —murmurikatu zuen eskribauak, adi-adi.

— *Haien kanpamendura joan nintzen eta harrapatu egin ninduten, eta lepoan dudan kutuna zela eta, zuk ezagutzen duzun hori, errejimendu horretako gizonen baten semea nintzela erabaki zuten: Zezen Gorriaren iragarpenaren arabera, zuk ederki dakizun bezala bazarreko guztiek ezagutzen duten berbera.* —Kim isildu egin zen, eskribauaren bihotzean sar zedin gezi hura, eta eztarria garbituta jarraitu zuen—: *Apaiz batek jantzi egin ninduen eta beste izen bat eman... Apaiz bat, hala ere, zoroa zen. Arropak oso astunak dira, baina sahiba naiz eta bihotza ere astuna daukat. Eskolara bidali eta jo egiten naute. Ez ditut hemengo haizea eta ura atsegin.*

Zatoz laguntzera, Mahbub Ali, edo dirua bidali, ez baitaukat honako hau idazten ari denari ordaintzeko nahikoa.

— «Nahikoa». Neure erruz sartu didazu ziria. Nucklaoko Altxorraren zigiluak faltsifikatu zituen Husain Bux bezain bizkorra zara. Baina hauxe da istorioa! Hauxe da istorioa! Egia al da?

— Ez da ezer onik ateratzen Mahbub Aliri gezurrak esanez. Askoz ere hobeto da Mahbub Aliren adiskideei zigiluak utziz laguntzea. Dirua heltzen denean ordainduko dizut.

Idazlea, zalantzakor, marmarka aritu zen, baina zigilu bat atera zuen mahaitik, gutunean jarri, Kimi eman eta alde egin zuen. Mahbub Alik izen boteretsua zuen Umballan.

— Horixe duzu Jainkoekin harreman onak izateko bidea! —egin zion Kimek atzetik oihu.

— Dirua etortzean, beste horrenbeste eman! —egin zuen gizonak garrasi bizkar gainetik.

— Zer ari zinen beltz horri kontatzen? —galdetu zion danbor-joleak Kimi atarira itzuli zenean—. Zelatan nengoen.

— Hitz egin besterik ez dut egin.

— Beltzak bezala hitz egiten duzu, ezta?

— Ez, ez! Pixka bat besterik ez dakit. Zer egingo dugu orain?

— Bazkaritarako deia joko dute segituan. Jainkoa! Gustura joango nintzen frentera errejimentuarekin! Nazkagarria da eskolara joan behar eta besterik egin ezina, ez al zaizu iruditzen?

— A, bai!

— Ihes egingo nuke nora jo baneki, baina, soldaduek dioten bezala, India zikin honetan gartzelik gabeko preso bezala dago bat. Ez dago ihes egiterik segituan harrapatua izan gabe. Nazka-nazka eginda nago honetaz.

— Izan al zara inoiz Be... Ingalaterran?

— Azkeneko tropak bidali zituztenean etorri nintzen-eta amarekin! Ingalaterran izana naizela esango nuke nik. A zer eskale ez-jakina zaren! Zabor artean hazia zara, ezta?

— A... bai. Kontaidazu zerbait Ingalaterraz. Handik etorri zen aita.

Halakorik esango ez bazuen ere, Kimek ez zuen noski sinesten bere Ingalaterra zen Liverpooleko auzoaz mutilak esan zuen hitz bat bera ere. Afalordura arteko denbora pasarazten

lagundu zion: batere erakargarria ez zen jatekoa, mutilei eta ezindu taldetxo bati barraka baten zokoan zerbitzatu. Mahbub Aliri idatzi ziolako izan ez balitz, oso triste zegokeen. Ohituta zegoen indiar jendetzaren axolagabekeriarekin; baina gizon zurien arteko bakardade handi hark min handia ematen zion. Hala bada eskertu egin zuen arratsean soldadu handi batek aita Victorrengana eraman izana, beste etxe batean bizi baitzen, arma plazaren bestaldean. Apaiza gutun bat ari zen irakurtzen, ingelesez eta tinta morez idatzia. Inoiz baino jakin-min handiagoz begiratu zion Kimi.

— Gustatzen al zaizu hau, seme, ikusi duzuna? Ez asko, ezta? Gogorra behar du izan, oso gogorra, abere basati batentzat. Entzun orain. Gutun harrigarri bat daukat hemen, zure adiskidearena.

— Non dago? Ondo al dago? A! Gutuna idazten asmatu badu, ondo dagoela seinale.

— Maite duzu orduan?

— Jakina bada, maite dut. Berak maite ninduen.

— Halaxe ematen du, hau ikusita. Berak ez daki ingelesez idazten, ezta?

— Ez, ez. Jakin ez daki, baina eskribauren bat aurkitu du noski ingelesez oso ondo idazten dakiena, eta idatzi egin du. Ulertuko duzula espero dut.

— Horrek azaltzen du bada gutunarena. Ba al dakizu zuk bere diru kontuez ezer? —aurpegian igarri zitzaion Kimi ez zekiela.

— Nola jakin nezake?

— Horixe galdetu dizut. Orain entzun, ea ezer ateratzen duzun honetatik. Lehenengo zatia utzi egingo dugu... Jagadhirreko bidetik idatzita dator... «*Bide ertzean eserita meditazio sakonetan, eman behar dudan urratsagatik Jaun horren txaloak jasoko ditudalakoan, urrats hau ematea gomendatzen diot Jaun horri jainko Ahalguztidunaren izenean. Heziketa bedeinkapen handiena da ona denean. Bestela, ez du lurrean baliorik.*»

—Benetan, bete-betean asmatu du agureak oraingo honetan!— «*Jaun horrek emango balio nire mutilari heziketarik onena Xavierren (Si Xavier in Partibus izango da hori noski), zure dendan hil honen 15 datarekin izandako elkarriz-*

ketaren arabera (hona hemen ukitu komertziala!), orduan Jainko Ahalguztidunak Jaun horren oinordekoak bedeinkatuko ditu hirugarren eta laugarren belaunaldira arte eta —entzun orain!— ziur izan jaun horren zerbitzari apalak emango diola une bakoitzeko ordain egokia hundi bidez, hirurehun rupien balioaz, St. Xavierreko heziketa garestiarentzat, Lucnowen, eta utzidazu denbora diru hori hundi bidez bidaltzeko Jaun horrek agintzen duen Indiako edozein lekutara. Jaun horren zerbitzari honek ez du orain burua non jarri, baina Benaresera doa trenez, horrenbeste hitz egiten duen andrearen pertsekuzioa dela eta, eta gogorik gabe Saharunporen egoteko etxeko lanetan aritzeko.» — eta zer arraio esan nahi du horrek?

— Bere *puro*-a izatea eskatu dio atsoak, bere apaiza, Saharunporen, nik uste. Berak ez du hori egin nahi bere Ibaia dela eta. Hitz egin egiten zuen.

— Zuretzat garbi dago, ezta? Nik berriz tutik ere ez dut ulertzen. «*Hala, Benaresa noala, eta han lekua bilatuko dut eta rupiak bidali nire bihotzeko kuttuna den mutilarentzat, eta Jainko Ahal-*

guztidunaren izenean heziketa hori buru ezazu, eta eskaria egiten dizun honek, behar duen bezala, otoi egingo du etengabe. Sobrao Sataik idatzia, Allahadad Unibertsitatean sartu ezin izan zuena, Teshu lama Agurgarriarentzat, Mai baten bila dabilen Such-zeneko apaiza, helbidea Tirt-hankar Elizan, Benares. PD. Mesedez, kontutan izan mutila bihotzeko kuttuna dela, eta rupiak hundi bidez bidaliko direla hirurehun urteko. Jainko Ahalguztidunaren izenean.» Zer da hau, agurea burutik eginda dagoela, ala eskaintza komertziala? Zuri galdetzen dizut, ez baitut ezer-txo ere ulertzen.

— Hirurehun rupia urteko emango dizkidala esaten al du? Eman egingo dizkit orduan.

— A, horrela ikusten duzu zuk hau, ezta?

— Jakina bada. Hori baldin dio!

Apaizak txistu egin zuen; gero bera bezalako balitz bezala hitz egin zion Kimi.

— Ez dut sinesten; baina ikusiko dugu. Sana-warreko Umezurztegi militarra joatekoa zinen gaur, eta hantxe egongo zinateke Errejimendua-ren eskuetan soldadu izateko urteak bete arte. Ingalaterrako Elizan heziko zaituzte han; Bennett

arduratu da horretaz. Bestalde, St Xavierrera joaten bazara heziketa hobea izango duzu, eta... erlijioa ere bai. Ikusten al duzu zein den nire arazo?

Kimek ez zuen ezer ikusten, trenean hegoaldera zihoan lamaren irudia izan ezik, eskean aritzeko laguntzarik gabe.

— Jende gehiena bezala, amore eman behar dut. Zure lagunak Benaresetik dirua bidaltzen baldin badu... Baina zer arraio, nondik atera behar ditu kaleko eskale batek hirurehun rupia? Lucknowera joango zara eta nik ordainduko dizut bidaia, ezin baitut harpidetzaren dirua ukitu zu katoliko egiteko asmoa baldin badut, eta horixe da nire asmoa. Dirua bidaltzen ez badu, Militarrren Umezurztegira joango zara Errejimendua-ren diruarekin. Hiru egunetako epea emango diot, batere sinesten ez badut ere. Hala ere, geroko ordainketetan huts egiten badu... baina hori ez dago nire esku. Mundu honetan pausoak banaka eman beharra daude, bedeinkatua izan bedi Jainkoa! Eta Bennett frentera bidali dute eta ni atzean utzi. Bennettek ezin du dena izatea espero.

— A, bai —esan zuen Kimek oharkabeen.
Apaiza aurrerantz makurtu zen.

— Gustura emango nuke hilabeteko soldata zure buru biribil horretan dabilena jakiteagatik.

— Ezer ez —esan zuen Kimek, eta burua arraskatu zuen. Rupia bat bera bidaliko ote zion Mahbub Alik ari zen bere artean pentsatzen. Orduan eskribauari ordaindu ahal izango zion eta gutunak idatzi lamari Benaresera. Agian Mahbub Alik bisita egingo zion hurrena zaldiekin hegoaldera etortzean. Jakingo zuen segur aski Kimek Umballako ofizialari gutuna eman izanak eragin zuela gizonak eta mutilek horren zarata-tsu barrakako mahaien gainean komentatu zuten gerra hura. Baina Mahbub Alik hori ez bazekien, ez litzateke batere segurua izango berak kontatzea. Gogorra izaten zen Mahbub Ali gehiegi zekiten, edo gehiegi zekitela uste zuen mutilekin.

— Beste albisterik jasotzen dudan arte —aita Victorren ahotsak moztu egin zizkion pentsakizunak—, joan zintezke eta beste mutilekin jolasean ibili. Zerbait ere erakutsiko dizute... baina ez dut uste gustukoa izango duzunik.

Ari zen heltzen eguna poliki-poliki bere bukaera tristera. Lo egin nahi izan zuenean, arropa nola tolestu eta botak nola jarri erakutsi zioten, besteek barre egiten zioten artean. Turutek esnatu zuten egunsentian; maisuak gosariaren ondoren berekin hartu zuen, zentzu gabeko irudiz betetako orri bat jarri zion sudur azpian, izen harrigarriak eman zizkien irudiei eta besterik gabe jo egin zuen. Kimi barraka garbitzaile bati opioa eskatu eta maisua pozoitzea bururatu zitzaion, baina pentsatu zuen, denek mahai batean eta ageri-agerian jaten zutenez gero (hori bereziki nazkagarria gertatzen zitzaion Kimi, nahiago baitzuen jaterakoan munduari bizkarra ematea), urrats hura arriskutsua izan zitekeela. Gero ihes egiten saiatu zen apaizak lama drogatu nahi izan zuen herrira, soldadu zaharra bizi zen herri hartara. Irudi gorri txikia irteera guztietan bidali zuten atzera ordea begi zorrotzeko begiraleek. Prakak eta jakak berdin-berdin ezintzen zizkioten Kimi gorputza eta arima, eta hala asmo hura baztertu eta, ekialdekoen erara, denboraz eta zortiaz fidatzea erabaki zuen. Atsekabezko hiru egun igaro ziren gela zuri

handi oihartzunez beteetan. Arratsaldeetan kanpora ateratzen zen danbor-jolearen babespean, eta lagunari entzuten zion guztia zurien irain hiztegiaren zatirik handiena osatzen zutela ziruditen hitz baliogabeak ziren. Kimek hitz haiek aspalditik ezagutzen zituen eta bihotz-bihotzez mesprezatzen. Kim astinduz hartzen zien mutilak isiltasuna eta interesgabezia hari mendekua, ohi den bezala. Ez zitzaizkion batere axola mugetan zeuden bazarrak. Indiar guztiei «beltz» deitzen zien; hala ere zerbitzari eta garbitzaileek sekulako irainak esaten zizkioten muturrera, eta, haien errespetuzko jarrerarekin nahastuta, ez zuen inoiz ezer ulertzen. Hark nolabait ere kontsolatzen zuen Kim astinduengatik.

Laugarren egunaren goizean etorri zitzaion berea danbor-joleari. Elkarrekin atereak ziren Kim eta bera Umballarako hipodromo aldera. Bakarrik itzuli zen, negarrez, eta esanez O'Hara gazteak, berak ezer egin gabe, agur egin ziola zaldi gainean zihoan beltz bati; beltzak orduan zartailu bereziki itsasgarri bat jarri omen zion gainean, O'Hara gaztea hartu, eta eraman egin omen zuen galapa bizian. Berri haiek aita Victo-

rren belarrietara heldu ziren, eta ahoa okertu zuen. Nahikoa harrituta zegoen ordurako Benareseko Tirthankar elizatik jasotako gutun bat zela eta, indiar bankari baten hirurehun rupietako ordainduko batekin heldu zena, eta «Jaun Ahalguztidunari» zuzenduriko otoi harrigarri batekin. Apaiza baino gehixeago ere haserretuko zen lama jakin izan balu nola itzuli zuen azokako gutun-idazleak bere «merituak irabazi» esaldia.

— Deabru arrania! —aita Victor atzera eta aurrera zebilen diruarekin—. Eta orain joan egin da agertu eta desagertu ibiltzen diren beste adiskide horietako batekin! Ez dakit zer ote den lasaigarriagoa niretzat, mutila itzularazi ala galitzen utzi. Ezin dut ulertu. Nola arraio, bai, nola arraio ingura lezake kaleko eskale batek mutil zuriei eskola emateko dirua?

Handik bost kilometrotara, Umballako hipodromoan, Mahbub Ali, Kabuleko hazitarako uher baten hedeetatik tiraka, eta Kim aurrean eserita zuela, honela ari zen hizketan:

— Baina, Mundu osoaren Adiskide, neure ohorea eta izen ona hartu behar dira kontutan.

Errejimendu guztietako sahib ofizialek, eta Umballa osoak ezagutzen dute Mahbub Ali. Jen-deak ikusi egin nau zu hartu eta mutil hori astintzen. Oraintxe ere urrunetik ikusten gaituzte zelai honetan. Nola eramango zaitut nirekin, edo zure desagerpena azaldu, lurreratu eta baratze-tan galtzen uzten badizut? Kartzelan sartuko nindukete. Lasai egon. Behin sahiba, betirako sahiba. Gizon bihurtzen zarenean, nork daki?, esker-tu egingo diozu hau Mahbub Aliri.

— Eraman nazazu begiraleengandik urruti, gorri hau alda litekeen lekura. Emadazu dirua eta Benaresera joango naiz, eta nire lamarekin izango naiz berriz ere. Ez dut sahiba izan nahi, eta, gainera, gogoan izan mezua eramanez nuela.

Zaldiak sekulako jauzia egin zuen. Mahbub Alik, oharkabea, sabela ukitu zion ertz zorrotze-ko oin-burdinekin. (Ez zen tratulari aberats berri horiek bezalako, bota ingeles eta ezproinak daramatzatenak). Kimek bere ondorioak atera zituen deskuidu hartatik.

— Horren gauza handia ere ez zen. Umballa Benareserako bidean dago. Dagoeneko ahaztuta daukagu sahibak eta biok hura. Horrenbeste

gutun bidaltzen dizkiet zaldiez galderak egiten dituzten gizonei, ezen oso zehatz ere ez baititut gogoratzen. Ez al zen Peters sahibak pedigria jakin nahi zuen behor uher batez?

Kimek berehala ikusi zuen xedera. «Behor uherra» esaten bazuen, berehala konturatuko zen Mahbub, aldaketa hura onartu zuela eta, zerbaiten susmoa bazuela mutikoak. Horretaz, erantzun zion:

— Behor uherra? Ez. Niri ez zaizkit mezuak horrela ahazten. Hazitarako zuria zen.

— Bai, halaxe zen, bai. Hazitarako zaldi zuri arabiarra. Baina zuk «behor uherra» idatzi zenidan.

— Nork esaten die bada eskribauei egia? — erantzun zuen Kimek, Mahbub Aliren eskua bihotzean sentituz.

— E! Mahbub Ali, lapur alaena, egon pixka bat! —egin zuen oihu ahots batek, eta ingeles bat hurbildu zitzaien polo zaldi txiki baten gainean—. Zuen atzetik nator India erdian barrena. Ez du gutxi korritzen zuen zaldi kabuliar honek. Salgai izango duzu, ezta?

— Zaldi gazte bat daukat bidean, Zeruak egina, polo joko zail eta delikatuarentzat. Ez dauka parekorik. Ez...

— Poloan ibiltzen da eta mahaia zerbitzatzen ere badaki. Bai. Badakigu hori dena. Zer arraio daramazu hor?

— Mutil bat —esan zuen serio-serio Mahbub Alik—. Beste mutil bat joka ari zitzaion. Aita soldadu zuria izan zen gerra handian. Lahoren hazia da, eta nire zaldiekin ibiltzen zen jolasean umetan. Orain uste dut soldadu egin nahi dutela. Bere aitaren errejimenduak harrapatu du, joan den astean gerrara joan zen harexek. Baina ez dut uste berak soldadu izan nahi duenik. Zaldi gainean buelta bat ematera daramat. Esadazu non diren zure barrakak eta hantxe utziko zaitut.

— Utzi niri joaten. Aurkituko ditut nik bakarrik barrakak.

— Eta ihes egiten baduzu nork esan behar du ez dela nire erruz izan?

— Afaltzera itzuliko da. Nora egin lezake ihes? —galdetu zuen ingelesak.

— Lur honetan jaioa da. Lagunak dauzka. Nahi duen lekura joaten da. Cha *buk sawai*-a da

(mutiko zorrotza). Arropa aldatu, eta une batean behe kastako mutil indiarra bihurtuko zaizu.

— Hara bestea berriz! —ingelesak begi zorrotzez begiratu zion Kimi Mahbub Ali barraketa-rantz abiatzen zen artean. Kimek hortzak estutu zituen. Mahbub burlaka ari zitzaion, afganiar desleial batek egiten duen bezala; izan ere, hizketan jarraitu zuen:

— Eskolara bidaliko dute, jarriko dizkiote bota astunak oinetan eta arropa horietan sartuko dute. Eta orduan dakien guztia ahaztuko zaio. Zein da zure barraka?

Kimek, hitzik ere egin ezinik, aita Victorren hegala seinalatu zuen, zuri-zuria besteen ondoran.

— Baliteke soldadu ona izatea —esan zuen Mahbubek pentsakor—. Ordenantza ona izango da behintzat. Lahoretik bidali nuen behin mezu bat eramatera. Hazitarako zaldi zuri baten pedigriari zegokion.

Hura irain ikaragarri bat eranstea laido ikaragarriago bati izan zen; eta gerra sortzaile izandako gutun hura halako abileziaz eman zion sahiba den-dena ari zen entzuten. Mahbub Ali betirako

sutan erretzen imajinatu zuen Kimek egin zion traizioarengatik, eta bere buruarentzat berriz, barrakak, eskolak, eta berriz ere barrakez osaturiko ikuskizun luze grisa ikusi zuen. Erreguz begiratu zion ongi osaturiko aurpegiari, non ez baitzen errekonozimendu distirarik batere ageri; baina, ezta egoera hartan ere, ez zitzaion bururatu gizon zuriaren eskuetan jartzea bere burua edo afganiarra salatzea. Eta Mahbub ingelesari begira-begira zegoen, eta ingelesa begira-begira Kimi, dardarka eta hitz egin ezinik gizarajoa.

— Nire zaldia ondo hezia da —esan zuen traturariak—. Beste bat ostikoka hasiko zitzaizun, sahib.

— A —esan zuen ingelesak azkenean, zaldia-
ren soin bustia zartailuaz igurtziz—. Nork egingo du mutila soldadu?

— Aurkitu zuen errejimenduak dio berak, eta bereziki errejimendu horretako sahib-aitak.

— Horra hor aita! —eztarria trabatu zitzaion Kimi aita Victor, buru-hutsik, ataritik atera zenean.

— Deabru arrania, O'Hara! Beste arrazatako beste zenbat adiskide dauzkazu Asian? —egin

zuen oihu, Kim jaitsi eta, etsita, aurrean jartzen zitzaionean.

— Egun on, aita —esan zuen alai ingelesak—. Ondo ezagutzen zaitut zure ospea dela eta. Lehenago etorri eta bisita egiteko asmoa nuen. Creighton naiz.

— Etnologi Zerbitzukoa? —esan zuen aita Victorrek. Ingelesak baietz egin zuen buruaz—. Benetan, pozten nau zu ezagutzeak; eta esker-rak zor dizkizut mutila ekartzeagatik.

— Niri ez eman eskerrak, aita. Gainera, mutila ez zebilen ihesi. Ez duzu ezagutzen Mahbub Ali zaharra —zaldi tratularia sorgor zegoen eguzkitan eserita—. Hilabete eman hemen eta ezagutuko duzu. Berak saltzen dizkigu xamalko guztiak. Mutil hau nahikoa gauza bitxia da. Ba al daukazu berataz ezer kontatzerik?

— Ba al daukadan? —esan zuen arnasestuka aita Victorrek—. Zeu zara saltsa honetan niri laguntzeko gizonik aproposena. Kontatu! Deabru arrania, irrikitzen nago hemengo jendeaz zerbait dakien bati kontatzeko!

Morroï bat agertu zen kantoitik bueltan. Creighton koronelak ahotsa jaso zuen, urdueraz hizketan.

— Oso ondo, Mahbub Ali, baina zertarako kontatzen dizkidazu gauza guzti horiek zaldiaz? Hirurehun eta berrogeita hamar rupia emango dizkizut, besterik ez.

— Sahiba berotxo eta goseak dago zaldi gainean ibili ondoren —erantzun zuen zaldi tratulariak, bromazale pribilegiatuaren irribarreez—. Segituan ikusiko ditu hobeto nire zaldiaren abantailak. Itxoin egingo dut aitarekin hizketan bukatzen duen arte. Zuhaitz horren azpian egongo naiz zain.

— Zoaz infernura! —barre egin zuen koronelak—. Horixe gertatzen da Mahbuben zaldi bati begiratzeagatik. Primerako zurruparia da, aita. Itxoin, bada, horrenbeste denbora baduzu xahutzeko, Mahbub. Zure esanetara nago, aita. Non da mutila? A, Mahbubekin hitz egitera joan da. Oso mutil bitxia. Aginduko al duzu mesedez jar dezatela behorra babespean?

Kim eta Mahbub Ali zuhaitzaren azpian hizketan ondo ikusten zituen aulki batean eseri zen koronela. Apaiza barrura sartu zen zigarro bila.

Kim erresuminez hizketan entzun zuen Creightonek:

— Brahamanari sugeari baino lehenago sine-tsi behar zaio, sugeari emagalduari baino lehenago, eta emagalduari afganiar bati baino lehenago, Mahbub Ali.

— Berdin dio horrek —arrandiaz mugitu zen bizar gorri handia—. Marrazkiak argi ageri diren arte ez lukete umeeek alfonbra ehundegian ikusi beharko. Sinetsazu, Mundu osoaren Adiskide, zerbitzu handia ari natzaizu egiten. Ez zaituzte soldadu bihurtuko.

«Pekatarari alena» pentsatu zuen Creightonek. «Baina ez zabilta oker. Mutil hori ez da alferrik galdu behar, esan didaten bezalakoa baldin bada.»

— Barkaidazue une batez —esan zuen aita Victorrek barrutik—, kasuaren dokumentuak inguratzen ari naiz.

— Sahib koronel zuhur eta ausart honen laguntza nire bitartez lortzen baduzu, eta ohore egiten badizute, nolako eskerrak emango dizkiozu Mahbub Aliri gizon izatean?

— Ez, ez! Berriz ere Bidera eramateko erregutu dizut, han seguru nengoke eta; eta zuk berriz ingelesei saldu nauzu. Zenbat diru emango dizute horrengatik?

— Horixe da deabru txikia! —koronelak bere zigarroa hozkatu zuen, eta konplimenduz jiratu zen aita Victorrengana.

— Zer dira apaiz lodiak koronelaren aurrean mugitzen dituen gutun horiek? Egon zaldiaren atzean zutik, hedeei so bazeunde bezala! —esan zuen Mahbub Alik.

— Jagadhirreko bidetik nire lamak bidali didan gutuna da, esanez hirurehun rupia urteko ordainduko dituela nire eskolarako.

— Hara! Horrelakoa al da Txano Gorri zaharra? Zein eskolatarako?

— Jainkoak daki. Nucklaon dela uste dut.

— Bai. Eskola handi bat dago han sahiben seme eta erdi sahibentzat. Zaldiak saltzen izan naizenean ikusi izan dut. Beraz, maite al zuen lamak ere Mundu osoaren Adiskidea?

— Bai; eta lamak ez zituen gezurrak kontatzen, edo jendea etsaiengana eramaten.

— Ez da harritzekoa apaizak ere mataza nola askatu ez jakitea. Zeinen azkar mintzaten zaion sahib koronelari! —Mahbub Alik barre txiki bat egin zuen—. Alaren izenean! —begi zorrotzek ataria kurritu zuten instant batean—. Zure lamak ordainduko bat dirudiena bidali du. Neronek ere egin izan ditut negozio batzuk hundi-ekin. Sahib koronela paperak begiratzen ari da.

— Zertarako balio dit horrek niri? —esan zuen Kimek nekatuta—. Zu joan egingo zara, eta horiek gela huts horietara itzularaziko naute, lotarako leku egokirik gabe, eta mutilak joka dauzkadala.

7. ATALA

*Noren erabilerarako orekatzen ote dira eguzki
fruitukorrak*

*Ilargi ezjakin eta izarrak dakartzaten izarrekin?
Sar zaitez tartean, ez dezatela zure etorrera
sumatu.*

*Zeruek gerra goitiarrak dauzkate, Lurrak
berek bezala, behekoak.*

*Istilu, harrabots, borroka horien ondorengo
(Betirako lotuta Adanen bekatuaz, aitarenaz,
zeureaz)*

*Jaso begiak, horoskopoa osatu eta esan
zein planetak askatzen ala kondentatzen duen
zure patua!*

Sir John Christie

Arratsaldean maisu aurpegi gorriak esan zion Kimi «ezabatu egin zutela kopurutik», berarentzat batere esanahirik ez zuen esaldia, jolastera alde egiteko esan zioten arte. Orduan bazarrera joan zen korrika, eta han zigilua zor zion eskribaua topatu zuen.

— Orain ordaindu egingo dizut —esan zion Kimek errege baten moduan—, eta orain beste gutun bat idaztea behar dut.

— Umballan da Mahbub Ali —esan zuen kartsuki eskribauak. Bere ogibidea zela eta, eskribauaren txokoa oinarrizko informazio bulegoa zen, nahiz eta sarritan okerreko informazioa izan.

— Hau ez da Mahbubentzat, apaiz batentzat da. Hartu luma eta idatzi bizkor. *Teshu laman, Bhotiyaleko Santua, Mai baten bila dabilena, orain Benareseko Tirthankar elizan dagoena.* Hartu tinta gehiago! *Hiru egun barru Nucklaoka joatekoa naiz, Nucklaoko eskolara. Eskolak Xavier du izena. Ez dakit non dagoen eskola hori, baina Nuncklaon dago.*

— Nik ezagutzen dut Nucklao ordea —moztu zuen idazleak—. Ezagutzen dut eskola.

— Esaiozu non den, eta anna erdi bat eman-go dizut.

Kanaberazko lumak gogoz jardun zuen.

— Topatuko du —gizonak burua jaso zuen—. Nor daukagu hor kalearen bestaldean begira?

Kimek segituan begiratu eta Creighton koronela ikusi zuen tenis prakak jantzita.

— A, hori barraketako apaiz lodia ezagutzen duen sahib bat da. Deika ari zait.

— Zertan ari zara? —galdetu zion koronelak Kimi, hurbildu zitzaionean.

— Ez... ez nabil ihesi. Gutun bat bidali behar diot nire maisuari Benaresa.

— Ahaztuta neukan hori. Esan al diozu nik eramango zaitudala Lucknowera?

— Ez, ez diot esan. Irakurri gutuna, zalantzarik baduzu.

— Orduan zergatik ez duzu nire izena aitatu gizon santu horri idazterakoan? —irribarre bitxia egin zuen koronelak. Kimek ahal zuen adore guztia inguratu zuen.

— Behin esan zidaten ez dela gauza egokia edozertan zerikusirik duten ezezagunen izena idaztea, izenak aitatzekoan plan asko eta asko hondatu egiten dira eta.

— Ondo erakutsita zaude —erantzun zuen koronelak, eta Kim gorritu egin zen—. Puruen kaxa apaizaren atarian utzi dut. Ekar ezazu nire etxera ilunabarrean.

— Non da etxea? —galdetu zuen Kimek. Barruak esaten zion nola edo hala froga ari zitzaiola egiten koronela, eta erne zegoen.

— Galdetu edonori bazar handian —koronelak alde egin zuen.

— Puruen kaxa ahaztu zaio —esan zuen Kimek bueltan—. Iluntzean eraman behar diot. Hori da gutun osoa, hau izan ezik, hiru bider: *Zatoz niregana! Zatoz niregana! Zatoz niregana!* Orain zigilua ordainduko dizut eta gutuna bidaliko dut —joateko altxatu zen, baina bat-batean bururatu balitzaio bezala, galdetu zuen—: Nor da kopeta iluneko sahib hori, kaxa ahaztu duena?

— A, Creighton sahib da hori, oso sahib ergeta, errejimendurik gabeko sahib koronela baita.

— Zer egiten du?

— Jainkoak daki. Erabili ezin dituen zaldia erosten ibiltzen da beti, eta Jainkoaren egiteei buruzko asmakizunak galdetzen... landareak direla, harriak direla edo jendearen ohiturak. Merkatariek gizon ergelen aita deitzen diote, oso erraz sartzen diote eta zaldiekin ziria. Mahbub Alik esaten du beste sahib gehienak baino errotuago dagoela.

— A! —esan zuen Kimek, eta alde egin zuen.

Jendearen izaeraz ezaguera ederra emana zion Kimi bizitzak, eta gizon ergelei ez zitzaizela zortzi mila gizon eta kanoiak mugi erazten zituen informazioa ematen bururatu zitzaion. India osoko gudalburuak ez zuen, Kimek entzunda zeukanez, txoroekin hitz egiten. Eta Mahbub Aliri ahoskera ere ez zitzaion aldatuko, koronelaren izena aitatzin zuen bakoitzean gertatzen zen bezala, hura ergel hutsa izan balitz. Beraz, hor nonbait —eta jauzika hasi zen Kim—, bazegoen misterioaren bat; Mahbub Ali espioitzan aritu bide zen koronelarentzat, Kimek Mahbubentzat espioitza lanak egin izan zituen bezalaxe. Eta, zaldi merkatariak bezala, koronelak bere burua agerian bizkorregi jartzen ez zuen jendea errespetatzen zuen noski.

Pozik zegoen ez zuelako adierazi ezagutzen zuela koronelaren etxea; eta, barraketara itzuli eta ikusi zuenean ez zuela koronelak ezertxo ere utzi han, pozez zorutzen jarri zen. Horra hor berak maite zuen klaseko gizon bat: pertsona nahasi eta bihurria, jolas ezkutuan. Hala bada,

Creightonek zoro bezala agertu ahal bazuen, baita Kimek ere.

Ez zituen bere pentsakizunak agertu aita Victorrek, hiru goiz luzez, irakaspenak eman zizkionean Jainko eta Jainkosa multzo guztiz berri batez, eta Maria izeneko Jainkosa batez bereziki; hura, erabaki zuen, Kimek, Mahbub Aliren teologiako Bibi Miriam bera zen. Ez zuen sentipen berezirik agertu, hitzaldiaren ondoren, aita Victorrek dendaz denda eramanean horniduraren osagaiak erostera, eta danbor-jole inbidia-tsuek eskola hobeago batera zihoalako jo zutenean ere ez zen kexatu, aldiz, adi-adi gertaeren jarraipenaren zain geratu zen. Aita Victorrek, bihotz oneko gizona baitzen, geltokira eramanean zuen, Creighton koronelaren lehen klaseko bagoiaren hurrengo zen bigarren mailako bagoi huts batean jarri zuen, eta agur esan zion benetakoko sentipenez.

— Gizon egingo zaituzte, O'Hara, St Xavieren; gizon zuria, eta, halaxe espero dut, gizon zintzoa. Badakite nola agertu zinen, eta arduratu da koronela bidean ez zaitezen galdu edo nahastu. Azaldu dizut zertxobait erlijioaz, hala

espero dut behintzat, eta gogoan izan, galdetzen dizutenean, katolikoa zarela. Edo hobeto, Erromatar katolikoa esan, nahiz eta hitz hori ez dudan atsegin.

Kimek zigarro nazkagarri bat piztu zuen — arduratu zen mordo bat erosteaz azokan— eta pentsatzera etzan zen. Bidai bakarti hura eta lamarekin hirugarren klasean egindakoa desberdinak izan ziren oso. «Sahibek ez diote plazer handirik ateratzen bidaiatzeari», pentsatu zuen. «*Hai Mai!* Alde batetik bestera noa pilota baten gisa. Nire *Kismet*-a da. Inork ezin dio ihes egin bere *Kismet*-ari. Baina otoi egin behar diot Bibi Miriami, eta sahiba naiz». Botei erreparatu zien, minduta. «Ez; ni Kim naiz. Mundu handia da hau, eta ni Kim naiz, besterik ez. Nor da Kim?». Bere nortasunaz pentsatzen jardun zuen, sekula egin ez zuen gauza, burua jira-biraka hasi zitzaion arte. Hutsaren hurrengoa zen bera Indiako zirimolo zaratatsu hartan, hegoalderantz zihoala ezagutzen ez zuen patura.

Halako batean koronelak zerbitzari bat bidali zuen bere bila, eta luze aritu zitzaion hizketan. Kimek ulertu zuenez, erne ibiltzea espero zuen,

eta Indiako Zerbitzuan sartuko zela gero lur-neurketarako laguntzaile gisa. Lana behar bezala egiten bazuen, eta beharrezko azterketak gainditu ondoren, hilabeteko hogeita hamar rupia irabaziko zituen hamazazpi urterekin, eta arduratuko zen Creighton koronela lanpostu egokia topa zezan.

Kimek hasieran hiru hitzetatik bat ulertzen zuelako itxurak egin zituen. Koronela orduan, bere okerra ikusita, urduera arin eta bizira igaro zen, eta Kim lasaitu egin zen. Hizkuntza horren ederki ezagutzen zuen gizonak, hain poliki eta lasai mugitzen zenak, eta begiak beste sahibenak ez bezalakoak izanda, haziak eta lausoak, ezin zuen ergela izan.

— Bai, eta bideak, mendiak eta ibaiak irudikatzen ikasi behar duzu, irudi horiek begietan eramaten paperean jartzeko parada duzun arte. Egunen batean beharbada, lur-neurtzaile zarenan, esan ahal izango dizut elkarrekin lanean ari garenean: «Zoaz mendixka horren bestaldera eta ikusi zer dagoen atzean.» Orduan batek esango du: «Jende gaiztoa bizi da mendi horietan, eta hil egingo dute neurtzailea sahib itxura

duela konturatzen badira.» Zer egingo zenuke orduan?

Kim pentsatzera jarri zen. Egokia ote zen berak koronelak galdetu bezala erantzutea?

— Beste gizonak esandakoa kontatuko nuke.

— Baina nik erantzungo banu: «Hirurehun rupia emango dizkizut mendi horien atzean dagoena jakiteagatik... Ibai baten marrazkia eta bertako jendeak esaten duenaz hitz batzuetatik?»

— Zer esango dizut? Mutil bat besterik ez naiz. Itxoin ezazu gizona naizen arte —orduan, koronelaren kopeta iluna ikusita, jarraitu zuen— : Baina uste dut ehun rupia horiek irabaziko nituzkeela egun batzuetan.

— Nola?

Kimek buruari eragin zion erabakior.

— Esango banu nola irabaziko nituzkeen, beste batek entzun ahal izango zuen eta niri aurrea hartu. Ez da gauza ona informazioa hutsaren truke saltzea.

— Esadazu orain —koronelak rupia bat luzatu zion. Kim eskua aurreratzen hasi zen, baina gero erortzen utzi zuen.

— Ez, sahib, ez. Badakit zenbat diru emango didaten erantzunaren truke, baina ez galdera zergatik egiten den.

— Oparitzat hartu orduan —esan zuen Creightonek, txanpona jaurtikiz—. Lehengaia baduzu zuk. Ez dezatela St Xavierren hondatu. Erruz dira han gizon beltzak mesprezatzten dituzten mutilak.

— Bazarreko saltzaileak dituzte horiek amak —esan zuen Kimek. Ondo asko zekien ez dagoe-la odol nahasikoak bere koinatuari dioen gorrotoa bezalakorik.

— Egia da; baina zu sahiba zara, eta sahiba-ren semea. Horretaz, ez zaitzatela bultzatu gizon beltzak mesprezatzera. Ezagutu ditut Gobernuaren zerbitzura sartu berriak ziren mutilak beltzen ohiturak edo hizkera ezagutzen ez zituztelako itxurak egiten zutenak. Soldata urritu genien ezjakintasun horregatik. Ez da ezjakintasuna bezain bekatu handirik. Gogoan izan hori.

Hogeita lau ordutako hegoalderako bidai luzean sarritan bidali zuen koronelak norbait Kimen bila, beti ere azken burutapen haietaz luzeago mintzatzeko.

«Soka berberari helduta egongo gara bada denok» pentsatu zuen Kimek azkenean, «koro- nela, Mahbub AL eta ni, neurketa laguntzaile bihurtzen naizenean. Mahbub Alik enplegatu nin- duen bezala erabiliko nau noski. Ondo dago hori, Bidera itzultzen uzten badit. Arropa hau ezta ibi- liarekin ere ez da biguntzen.»

Lucknoweko jendez jositako geltokira heldu zirenean ez zen lamaren arrastorik ageri. Kimek irentsi egin zuen nahigabea, koronelak *ticca- gharri* batean bere gauza txukunekin sartu eta St Xavierrera bakarrik bidali zuenean.

— Ez dizut agurrik esaten, elkartuko gara berriz eta —egin zion oihu—. Berriz, eta askotan, behar bezalako bazara. Baina oraindik ere fro- gatzeko zaude.

— Gau hartan —Kim berdinen arteko *tum-a* erabiltzen ausartu zen—, hazitarako zaldi zuri baten pedigria eraman nizun arren?

— Erruz irabazten da gauzak ahaztuz, mutiko —esan zuen koronelak Kim, gurdian sartzen ari zenean, aldez alde gurutzatu zuen begiratu batez.

la bost minutu behar izan zituen mutilak bere onera etortzeko. Orduan haize berria arnastu zuen, gustura.

— Hiri aberatsa —esan zuen—. Lahore baino aberatsagoa. Nolakoak ote dira hemengo bazarrak! Gidari, eraman nazazu pixka batean hemengo bazarretan barrena.

— Eskolara eramateko agindua daukat —hizkera zakarra erabiltzen zuen gidariak gizon zuriekin aritzeko. Kimek hutsegite hura luze eta garbi azaldu zion, bertako hizkuntzaz; aldamean eseri zitzaion, eta, harreman ezin hobea lortuta, ordu pare batez ibili ziren gora eta behe-ra, gauzak ikusten, alderatzen, eta gozatzen. Bere estilo deigarrian ez da hiri ederragorik, Bombay izan ezik, denen erregina baita hura, Lucknow baino, nahiz ibai gaineko zubitik ikusi, nahiz Imambararen gailurretik, Chutter Munzileko kupula doratu eta hiriaren oinarria osatzen duten zuhaitzen gainean dagoena. Eraikuntza miresgarriz apaindu dute erregeek, erruki etxez hornitu, pentsionistez josi eta odoleztatu. Nagieria, luxu eta azpijoko guztien zentroa da Luck-

now, eta Delhirekin batera urduera nahasgabea hitz egiteko ohorea aldarrikatzen du beretzat.

— Hiri polita da... Oso ederra —gidaria, bertakoa baitzen, poztu egin zen konplituarekin, eta gauza harrigarri mordoa kontatu zion Kimi, ingeles gidari batek mutinaz hitz egingo zuen lekutan.

— Orain goazen eskolara —esan zuen Kimek azkenean.

Eraikuntza txuri txikiek ilaran jarrita osatzen dute St Xavier in Partibus eskola zahar handia. Lur zabalez inguratuta dago, hiritik urruti samar.

— Nolakoa da bertako jendea? —galdetu zuen Kimek.

— Sahib gazteak... deabruak denak. Baina egia esatera, eta horietako asko eta asko eraman eta ekartzen ditut trenaren geltokitik, ez dut inoiz ikusi deabru ezin hobea izateko zuk, orain daramadan sahib gazte honek bezainbeste dakarrenik.

Kimek egun haren unerik ederrena kale jakin bateko goiko leihoetan bizpahiru dama arinekin eman zuen noski, ez baitzion inork erakutsi haienganako tratua desegokia zenik, eta, jakina,

konplituak trukatzerakoan oso ondo irten zuen. Gidariaren azken lotsagabekeriari erantzuteko-tan zegoela, hantxe sumatu zuten Kimen begiek —iluntzen ari zuen—, irudi bat, atariko zutabe zuri baten ondoan, horma luzean.

— Geldik! —egin zuen oihu—. Egon hemen. Oraindik ez noa eskolara.

— Baina zer ordainduko didate atzera eta aurrera horrela ibiltzeagatik? —esan zuen handikiro gidariak—. Erotuta al dago mutil hau? Azkenean dantzaria zen. Oraingo honetan apaiza.

Kim buruz behera joan zen bidera, jantzi hori zikinaren azpiko oin hautsezatuak garbitzera.

— Egun bat eta t'erdi eman dut hemen zain —hasi zen lama hizketan, ahots lasaiez—. Dizi-pulu bat neukan aldamenean. Tirthankarreko elizan nire adiskide zenak gidari bat eman zidan bidaiarako. Benaresetik *te-ren-ez* etorri nintzen zure gutuna eman zidatenean. Bai, ondo janda nago. Ez dut ezer behar.

— Baina ez zinen Kuluko emakumearekin gel-ditu, maisu. Nola joan zinen Benaresera? Bihotza txiki-txiki eginda eduki dut apartatu ginenez geroztik.

— Nekatu egin ninduen andreak bere etengabeko hitz jarioarekin, umeak izateko aztikeriak eskaka. Konpainia hartatik apartatu egin nintzen, eta merituak oparien bidez lortzen utzi nion. Emakume eskuzabala da behintzat, eta agindu nion itzuliko nintzela bere etxera behar izanez gero. Orduan, neure burua bakarrik ikusita mundu handi eta izugarri honetan, Benareserako *te-ren-a* gogoratu zitzaidan, ezagutzen baitut han Tirthankar Elizako bat, bila dabilen bat, ni bezala.

— A, zure Ibaia —esan zuen Kimek—. Ahaztuta neukan Ibaia.

— Horren azkar, *chela?* Nik ez dut inoiz ahazten. Baina zu utzitakoan hobeto iruditu zitzaidan elizara joan eta aholkua eskatzea, handia baita oso India, eta baliteke gure aurretik gizon jakintsuren batzuek, bizpahiruk, idatzita utzi izana gure Ibaiaren kokaguneaz zerbait. Gai honetaz eztabaidan ari dira Tirthankar elizan; batzuek gai»a bat diote, eta beste batzuek berriz beste bat. Oso jende konplitua da.

— Hala izan bedi. Baina zertan ari zara orain?

— Merituak irabazten ditut, *chela*, jakituria-
ren bidean zuri lagunduz. Zezen Gorria zerbitza-
tzen duen gizon talde horren apaizak idatzi zidan
esanez gauzak nik nahi bezala behar zutela izan
zuretzat. Urtebeterako dirua bidali nuen, eta
gero etorri egin naiz, ikusten duzun bezala, Jaki-
turiaren Ateetatik nola sartzen zaren ikustera.
Egun t'erdi eman dut zain, ez zureganako senti-
penak ekarrita, hori ez baita Bidekoa, baizik, Tirt-
hankar elizan dioten bezala, ikasketetarako
dirua ordaindu dudanez gero, zuzena zelako
guzti honen bukaera ikustea. Oso ondo argitu
zizkidaten han zalantzak. Beldur nintzen ez ote
nintzen hona zu ikusteko irrikaz etorriko, zaleta-
sunaren Hodei Gorriak nahastuta. Ez da halako-
rik... Gainera, amets batek kezkatu egiten nau.

— Baina, maisu, ez zenuen bada Bidea eta
bertan gertatzen den guztia ahaztuko. Etorriko
zinen noski pixka bat ni ikusteagatik?

— Zaldiak hotzak daude, eta pasata dute
jateko ordua —egin zuen intziri gidariak.

— Zoaz infernura eta egon han zure izeba
lotsagabearekin! —egin zion orro Kimek sorbal-
da gaineratik—. Bakar-bakarrik nago lurralde

honetan; ez dakit ez nora noan ez zer gertatuko zaidan. Bidali nizun gutun hartan zegoen nire bihotza. Mahbub Ali izan ezik, eta afganiarra da hura, zutaz beste adiskiderik ez daukat, maisu. Ez nazazula bakar-bakarrik utzi.

— Horretan ere pentsatu dut —erantzun zuen lamak, ahots dardaratiz—. Gauza nabarmena da noiz behinka merituak irabaziko ditudala, ez badut lehenago nire Ibaia topatzen, oinak jakituriaren bidean jarrita daukazula ziurtatuz. Zer erakutsiko dizuten ez dakit, baina apaizak idatzi zidan India osoan ez dela zu bezain ongi irakatsitako sahiben semerik izango. Beraz, tarteka-tarteka etorri egingo naiz. Agian lente hauek eman zizkidan sahib hura bezalakoa izango zara — lamak arduraz garbitu zituen betaurrekoak—, Lahoreko Etxe Miragarriko hura bezalakoa. Hori xe da nire itxaropena, hura Jakituria Iturria zen eta, abade asko eta asko baino jakintsuagoa... Baina beharbada ahaztu egingo nauzu, ni eta gure harremanak.

— Zure ogia jaten badut —egin zuen oihu Kimek bero-bero—, nola ahaztuko zaitut?

— Ez, ez —alde batera jarri zuen lamak mutila—. Benaresera itzuli beharra daukat. Tarteka-tarteka, orain ezagutzen ditut eta herri honetako idazkera ohiturak, gutun bat bidaliko dizut, eta tarteka-tarteka ikustera etorriko natzaizu.

— Baina nora bidali behar ditut nik gutunak? —esan zuen intzirika Kimek, lamaren arropari helduta, sahiba zenik ere gogoratu gabe.

— Benareseko Tirthankar Elizara. Leku hori aukeratu dut Ibaia aurkitu arte. Ez negarrik egin; izan ere, Lilura da Desio oro, eta beste lotura bat Gurpilean. Zoaz Jakituriaren Ateetara. Ea nola joaten zaren... Maite al nauzu? Zoaz bada, bestela hautsiko zait eta bihotza... Etorriko naiz berriz. Etorriko naiz, bai.

Eskola barruan sartzen ikusi zuen lamak *ticca-gharri-a*, eta alde egin zuen, pauso luzeen artean arnasa gogotik hartuz.

Danbateko batez itxi ziren «Jakituriaren Ateak».

Indian jaio eta hazitako mutilak bere jarrerak eta bere ohiturak dauzka, beste lurraldeetako antzik ez dutenak; eta ingeles maisu batek ulertuko ez lituzkeen bitartekoak erabiltzen dituzte

bertako maisuek. Hala bada, ez zaizkizue segur aski interesatuko Kimen esperientziak St Xavierreko dizipulu zenean, beste berrehun edo hirurehun mutilen artean, gehienak itsasoa ikusi gabeak. Kolera izurritea izan zenean hirian ohiko zigorrak jasan zituen ezarririko mugak gurutzatzeagatik. Ingelesez ondo idazten ikasi baino lehen gertatu zen hura, eta, hartaz, eskribau bat bilatu behar izan zuen bazarrean. Salatu egin zuten noski erretzeagatik, eta baita St Xavierren sekula entzundako baino irain biziagoak esateagatik ere. Bere burua garbitzen ikasi zuen bertakoen ardura lebitikoaz, indiarrek beren bihotzean ingelesak nahikoa zikinak direla uste baitute. Ohiko bromak egin zizkien eraman oneko *coolii*-ei, logeletan barrena *punkah*-ak bultzatzen ibiltzen zirenean, gau beroetan egunsentira arte kontu kontari atzera eta aurrera ibiltzen baitziren han mutilak; eta nabarmendu gabe bere burua neurtu zuen bere ikaskide seguruenen kontra.

Burdinbide, Telegrafo eta Urtegi Zerbitzueta-ko azpi-ofizialen semeak zeuden eskolan; behe mailako ofizialenak, erretiratuak batzuetan eta

besteetan raja feudalen baten armadaren guda-
buruentzat lanean; indiar marinako kapitaine-
nak, Gobernuko pentsionista, plantazioen jabe,
distritu desberdinetako salerosle eta misiolarie-
nak. Batzuen batzuk familia eurasiar zaharren
seme gazteenak ziren, aspalditik sustraituak
Dhurrumtollahen: Pereirak, De Souzak, eta D'Sil-
vak. Gurasoek bidal zitzaizketen semeak eskolara
Ingalaterrara, baina beren gaztaroko eskola hura
maite zuten, eta azal iluneko belaunaldiak jarrai-
tzen zion aurreko belaunaldiari St Xavierren.
Haien etxeak burdinbideko jendearen Howrahe-
tik Monghyr eta Chunar bezalako kuartel aban-
donatuetara zihoazen; Oudh edo Deccaneko
herrietara, haien aitak terrateniente handiak bai-
tziren han; geltoki hurbilenetik astebetara zeu-
den misioetara; hegoalderantz mila eta bos-
tehun kilometroetara zeuden itsas portuetara,
Indiko itsaso zakarraren aurrean; eta kina plan-
tazioetara, hegoalderantz denetan urrunenak.
Haien abenturen kontraera soilak, beraiantzat
abentura ere ez zirenak, eskolarako edo eskola-
tikako bidean, zut jarriko zukeen Mendebaldeko
mutil baten ilea. Ohituta zeuden oihanean barre-

na ehun kilometro baino gehiago oinez bakar-bakarrik egiten, tigreek atzeraraziko ote zituzten aukera zoragarria zegoelarik beti; baina mutil haiek ez ziren bainatuko abuztuan Mantxako kanalean, munduaren bestaldeko anaiak geldirik egongo ez ziren bezalaxe, lehoinabar batek beren palankina usmatzen zuen bitartean. Baziren egun t'erdi lur pusketa batean hazitako ibai baten erdian eman zuten hamabost urteko mutilak, beren ardurapean hartuz, eskubidea zutelakoan, santutegi batetik bueltan zetozen erromes talde ikaratu bat. Baziren, ikasle zaharrenean artean, ustekabeen topatutako raja baten elefantea Frantzisko Xabier donearen izenean errekisatu zutenak, behin batean euriak beren aitarren lurretara zeraman gurdibidea desagerrarazi zuenean, eta animaliatzarra zingiran galtzekotan ibili zirenean. Bazen mutil bat esaten zuena, eta inork ez zuen dudarik egiten, aitari lagundu ziola behin bere etxeko ataritik *aka* talde bati tiroka aurre egiten, buru-ehiztari horiek plantazio bakartiei eraso egiten zieten garaian.

Eta istorio oro indiarren ahots neurtu, pasiorik gabeen kontatzen zituzten, gogoeta bitxiz

hornituta, indiar inudeei oharkabeen ikasitako istorioak, eta unean-unean bertako hizkuntzatik itzultzen ari zirela aditzera ematen zuten esamoldeak erabiliz. Kimek begiratu egiten zuen, entzun, eta onetsi. Ez zen hura mutil danborjoleen zaporerik gabeko hizketa sinplea. Berak ezagutu eta ulertu ere egiten zuen bizimodu batekin zuen hark zerikusia. Giroa atsegin zuen, eta gora eta gora zihoan bera. Drilezko jantzi zuri bat eman zioten eguraldia berotzen hasi zuenean, eta atsegin zituen gorputzeko erosotasun ezagutu berriak, atsegin zuen bezala bere buru zorrotza ematen zizkioten lanetan erabiltzea. Kimen bizkortasuna zoragarria gertatuko zitzaion maisu ingeles bati; baina St Xavierren ondo asko ezagutzen dute eguzkiak eta inguruak bultzatzen duen adimenaren lehen garapena, eta ezagutzen dute halaber hogeita bi edo hogeita hiru urteetan gertatzen den etena.

Hala ere, gogoan zeukan Kimek ez zuela nabarmendu behar. Gau beroetan istorioak kontatzen zituztenean, ez zituen bere oroitzapenekin denak atzera uzten; ez baititu begi onez ikusten St Xavierrek indiarrekin guztiz bat egiten

duten mutilak. Ez da sekula ahaztu behar sahiba dela bat, eta egunen batean, azterketak gainditutakoan, bere agindupean izango dituela indiarak. Kontutan hartu zuen Kimek hura, hasia baitzen ulertzen nora zeramaten azterketek.

Gero oporrak etorri ziren abuztutik urrira arte, beroak eta euriak inposaturiko oporraldi luzea. Iparraldera joango zela esan zioten Kimi, mendietako norabait Umballaren atzean, eta han aita Victorrek moldatuko omen zion zerbait.

— Errejimenduaren eskolaren bat? —galdetu zuen Kimek, galderak erruz egiten baitzituen, eta gehiago pentsatu.

— Bai noski —esan zion maisuak—. Ez dizu batere kalterik egingo gaiztakeriatatik urrun mantentzea. De Castro gaztearekin joan zintezke Delhiraino.

Kimek alde guztietatik aztertu zuen hura. Erne ibilia zen, koronelak esan bezala. Mutil baten oporra mutil horren beraren gauza zen —bere ikaskideen hitzek erakutsi zioten bezala—, eta errejimenduaren eskola ikaragarria izango zen St Xavierren ondoren. Gainera —eta hura beste edozerk baino gehiago balio zuen gauza

magikoa zen—, idazteko gauza zen. Hiru hilabeteetan deskubritu zuen hitz egiterik badagoela hirugarren baten beharrik gabe, anna erdia eta ezagupen batzuen truke. Ez zuen lamaren berririk izan, baina hortxe zeukan Bidea. Kim irrikitzen zegoen lokatz bigunaren laztana behatzen artean sentitzeko, eta ahoa urtu egiten zitzaion gurina eta azarekin prestaturiko arkumean pentsatzean, edo txanpar lore usaintsuekiko arroza, edo azafraniez koloreztatukoa tipula eta baratxuriekin, edo bazarretako gozoki koipetsu debekatuetan. Errejimenduaren eskolan haragi gordina emango zioten, eta ezkutuan erre beharko zuen. Baina, berriz ere, sahiba zen eta St Xavierren zegoen, eta Mahbub Ali zerri hura... Ez, ez zion frogarik egingo Mahbub Aliren abegikortasunari... baina hala ere... Bakarrik pentsatzen aritzen zen logelan, eta Mahbubekin bidegabe jokatu zuelako ondoriora heldu zen.

Hutsik zegoen eskola; joanak ziren maisu gehienak; eskuan zeukan Creighton koronelaren trenerako txartela, eta harro sentitu zen ez zuelako ez koronelaren dirua ez Mahbubena bizimodu zalapartarian xahutu. Oraindik ere bi rupia

eta zazpi annen jabe zen. Logela hutsean zeuden bere kaiza berria, «K. O'H.» inzialez markatuta, eta bere oheko arropa. «Sahibak beren ekipaiari lotuta daude beti», esan zuen Kimek, gauza haiei keinu bat eginez. «Zuek hemen egongo zarete». Euri beroaren azpian atera zen, irribarre gaiztoa eginez, eta lehenago kanpoaldean begiztatu zuen etxe jakin baten bila abiatu zen...

— *Arre!* Ba al dakizu nolako emakumeak diren auzo honetan? Hau lotsa!

— Atzo jaio nintzen ala? — Kim indiarren gisan eseri zen goiko gelako kojinetan—. Tinta pixka bat eta hiru metro oihal broma bat egiteko. Asko eskatzea al da?

— Nor da neska? Oso gaztea zara, sahiba izanda, gaiztakeria hauetarako.

— A, neska? Errejimendu bateko maisu baten alaba da. Bi bider astindu nau bere hesia arropa honekin gurutzatzeagatik. Orain lorazain laguntzaile gisa joango naiz. Agureak oso jeloskorak dira.

— Hori egia da. Ez zirkinik egin nik zukua jartzan dizudan artean.

— Beltzegia ere ez, *naikan*. Ez dut neskak *hubshi*-a (beltza) naizenik pentsatzea nahi.

— A, maitasunak huskeria bihurtzen ditu gauza horiek. Eta zenbat urte ditu?

— Hamabi, uste dut —esan zuen Kim lotsaga-beak—. Bularrean ere eman. Baliteke aitak arropa haustea, eta kolore desberdinetako azala badaukat... —barre egin zuen.

Neska lan eta lan ari zen, intxaur-margoak baino gehiago irauten duen tinta marroi batean bustiz oihal pusketan bat.

— Orain bidali norbait durbantearentzako oihal bila. Hara berriz, moztu gabea daukat ilea eta! Eta durbantea ere harrika botako dit noski.

— Ez naiz ile-mozkina, baina saiatuko naiz. Bihotzak hausteko jaioa zara! Mozorro hau gau bakar baterako? Gogoan izan, hau ez da urez garbitzen —barrez lehertzen ari zen neska, brazaileak eta zirgiloak tintinka hasi ziren arte—. Baina nork ordainduko dit niri hau dena? Hunifak berak ere ez zukeen hobeto egingo.

— Jainkoengan sinetsi, arreba —esan zen Kimek serio-serio, aurpegia okertuz margoa

lehortzen zitzaion artean—. Gainera, lagundu al diozu inoiz sahib bati margotzen?

— Inoiz ez. Baina broma bat ez da dirua.

— Askoz gehiago balio du.

— Ume, ezbairik gabe, ezagutu dudan deabruaren semerik lotsagabeena zara, neska gaixobaten denbora horrela hartuz jolas honekin, gero esateko: «Ez al da nahikoa broma?». Urrutira helduko zara mundu honetan —dantzarien agurra egin zion, adarra joaz.

— Berdin dio. Azkar ibili, eta moztuidazu ilea ahal duzun bezala —Kim balantzaka hasi zen, oinak altxatu gabe, begiak pozez distiratsu aurrean zituen egun aberatsetan pentsatuz. Lau ana eman zizkion neskari, eta eskaileretan behera joan zen korrika behe kastako indiar mutiko baten itxurarekin, ezin hobea xehetasun guztietan. Hurrengo bisitaldia jatetxe batera egin zuen, eta han luxu koipetsu eta litxarreriaz oparitu zuen bere burua.

Lucknoweko geltokian De Castro gazteari begira egon zen, nola sartzen zen, goitik behera erreta, bigarren klaseko hagoi batean. Kim hirugarreneko batean sartu, eta bertako bizia eta

arima bihurtu zen. Bidai lagunei malabarista baten laguntzailea zela esan zien, atzean utzi zuela maisua gaixo zegoelako sukarrarekin, eta Umballan elkartuko zirela. Bagoiko jendea berri-
tu ahala, aldatu egiten zuen istorioa, edo apain-
du bere irudimen biziaren burutapenekin, are
biziagoa indiar hizkeratik horren luze aldentuta
egon zelako. Ez zen gau hartan India osoan Kim
baino gizaki alaiagorik. Umballan jaitsi eta ekial-
dera abiatu zen, zelai bustietan barrena soldadu
zaharra bizi zen auzunerantz.

Ordurako esana zioten Simian telegrama
bidez Creighton koronelari desagertu egin zela
O'Hara gaztea. Hantxe zegoen Mahbub AE ere
zaldiak saltzen, eta harixe kontatu zion korone-
lak sekretua goiz batean Annandaleko hipodro-
moan zaldi gainean zebiltzala.

— A, ez da ezer —esan zuen zaldi merkata-
riak—. Zaldiak bezalakoxeak dira gizonak.
Batzuetan gatza behar izaten dute, eta askan
topatzen ez badute, lurrean miazkatuko dute.
Puska baterako Bidera joan da berriz. *Madrissah-*
ak nekatu egin du. Banekien nik hori. Beste
batean, neronek eramango dut Bidera. Ez kezka-

tu, Creighton sahib. Polo zaldi batek egingo lukeena egin du mutilak, askatu eta joko baka-
rrik ikastera ihes egin.

— Orduan ez dela hil uste duzu?

— Sukarrak hil lezake. Mutilak ez dit bestela beldurrik ematen. Zuhaitzen artean ez da tximua erortzen.

Hurrengo goizean, leku berean, koronelaren parean jarri zen Mahbuben zaldia.

— Nik uste bezala gertatu da —esan zuen zaldi-tratulariak—. Umballara joan da azkenean, eta handik gutun bat idatzi dit, azokan jakin baitu ni hemen nintzela.

— Irakurri —esan zuen koronelak, lasaitasun keinu bat eginez. Zentzugabea zen bere posizio-ko gizon batek halako interesa hartzea Indian hazitako alproja batengan; baina koronelari treneko elkarrizketa gogoratzen zitzaion, eta azken hilabeteetan sarritan aurkitu zuen bere burua mutil bitxi, isil, ziurtasunez betetako hartan pentsatzen. Ihesa, noski, lotsagabekeria huts-hutsa zen, baina hala ere baliabideak eta adorea ematen zituen aditzera.

Mahbuben begiek ñirñirka ari ziren zaldia zelai txikiaren erdian geldiarazi zuenean, ikusia izan gabe inor hurbildu ezin zen leku batean.

— *«Izarren Adiskidea, zeina Mundu Osoaren Adiskide baiten...»*

— Zer da hori?

— Lahoren jarri genion izen bat. *«Mundu osoaren Adiskideak alde egin du bere gustuko lekuetara joateko. Itzuliko da esandako egunera-ko. Joan daitezela kaiza eta ohe-arroparen bila; eta okerrik izan bada, Adiskidetasunaren Eskuak aldendu dezala Hondamendiaren Zartailua.»* Gehixeago bada, baina...

— Ez dio axola, segi.

— *«Badira sardez jaten dutenek ezagutzen ez dituzten gauzak. Hobe da bi eskuez jatea puska batean. Hori ulertzen ez dutenekin hitz bigunak erabili, nire itzulera onezko izan dadin.»* Adierazteko era, noski, eskribauaren lana da, baina ikusi zeinen zuhur egin dituen mutilak gauzak inork ez dezan, dakitenak ezik, ezer susmatu!

— Adiskidetasunaren Eskua al da hori, Hondamendiaren Zartailua aldentzearren? —esan zuen koronelak barrez.

— Ikusi zeinen zuhurra den mutila. Nik esan bezala, Bidera itzuliko da. Baina bere zeregina ez dakienez gero...

— Ez nago batere ziur horretaz —murmurikatu zuen koronelak.

— Nigana jo du zurekin bakea egin asmoz. Ez al da zuhurra? Itzuliko dela dio. Ezagutzak osatzen besterik ez da ari. Kontura zaitez, sahib! Hiru hilabete eman ditu eskolan. Eta ez dago horretara ohituta. Ni behintzat poztu egiten naiz. Zaldia jokoa ikasten ari da.

— Bai, baina hurrengoan ez du bakarrik joan behar.

— Zergatik? Bakarrik zebilen sahib koronelaren babespean jarri aurretik. Joko Handian parte hartzean, bakarrik ibili beharko du... bakarrik, eta bere burua arriskuan jarriz. Orduan, bijilatzen ari den jendea ez bezala botatzen badu lista, edo doministiku egin, edo eseri, hil egin lezakete. Zergatik bada trabak jarri orain? Gogotan izan persiarrek diotena: «Mazanderaneko

basamortuetan bizi den txakala Mazanderaneko txakurrek bakarrik harrapa dezakete».

— Egia. Egia da, Mahbub Ali. Eta ez bazaio ezer gertatzen, aski izango dut. Hala ere, bere aldetik lotsagabekeria handia izan da.

— Ez dit esaten, gainera, ezta nora doan ere —esan zuen Mahbubek—. Ez da batere inozoa. Denbora bukatzen zaionean nigana etorriko da. Heldu da garaia berataz ardura dadin perlen sendatzailea. Bizkorregi ari da heltzen, sahiben neurritarako.

Iragarpen hura hitzez hitz bete zen hilabete geroago. Mahbub Umballara joana zen zaldi talde berri bat eramatera, eta Kim Kalkako bidean inguratu zitzaion ilunabarrean, limosna eskatu zion, iraindu egin zuten, eta ingelesez erantzun zuen. Ez zen inor inguruan Mahbuben harridura oihua entzuteko.

— Hara berriz! Eta non ibili zara?

— Gora eta behera... behera eta gora.

— Zatoz zuhaitz baten azpira, aterpera, eta kontaidazu.

— Puska batean Umballa inguruan egon nintzen agure batekin; gero ezagutzen dudan sendi

batekin Umballan bertan. Haietako batekin Delhiraino joan nintzen hegoaldera. Hiri harrigarria da. Gero idi bat eraman nuen *teli* batentzat (olio saltzailea), iparrerantz; baina festa handi bat zegoela Patialan entzun nuen eta haraxe joan nintzen suziriak egiten zituen batekin. Hura festa zoragarria! (sabela igurtzi zuen). Rajak ikusi nituen, eta elefanteak urre eta zilarrezko apaindurekin; eta suziri guztiak batera piztu zituzten, eta hamaika lagun hil ziren, nire su-egilea haien artean, eta ni denda baten kontra erori nintzen, baina ez zitzaidan ezer gertatu. Orduan *rêl*-era itzuli nintzen zaldun *sij* batekin, eta morroi egon nintzen harekin jatekoaren truke; eta halaxe etorri naiz hona.

— *Shabash!* —esan zuen Mahbub Alik.

— Zer dio sahib koronelak? Ez dut astindurik nahi.

— Adiskidetasunaren Eskuak Hondamendiaren Zartailua aldendu du; baina beste batean Bidera joan nahi duzunean nirekin joango zara. Azkarregi joan zara.

— Nahikoa berandu niretzat. Ingelesez pixka bat irakurtzen eta idazten ikasi dut *madrissah*-en. Laster erabateko sahiba izango naiz.

— Hara bestea! —egin zuen barre Mahbubek, blai eginda zegoen irudi txikia euritan dantzan ikusita—. *Salaam*, sahib —eta ironiaz agurtu zuen—. Hala bada, nekatuta zaude Bideaz, ala nirekin etorriko zara Umballara berriz ere zaldiekin lan egin egitera?

— Zurekin joango naiz, Mahbub Ali.

8. ATALA

*Zerbait zor diot hazi naizen lurrari
Gehiago jaten eman zidan bizitzari
Gehiago ordea Alari, Hark eman baitzizkidan
Burrurako bi alderdi.*

*Alkandora eta zapatarik gabe ibiliko naiz,
Adiskideok, tabako edo ogirik gabe
Buruaren alderdietako bat
galdu baino lehen une bakar batez.
Bi aurpegietako gizona.*

— Orduan, Jainkoaren izenean, urdina jarri gorriaren ordeaz —esan zuen Mahbubek, Kimen durbante kaskarraren kolore hinduari erreparatuz.

Kimek esaera zahar batekin erantzun zion:

— Aldatuko ditut fedea eta oheko arropa, baina *zuk* ordaindu beharko dituzu.

Tratulariak zalditik erortzeraino ia egin zuen barre. Hiriz kanpoko denda batean egin zuten aldaketa, eta Kimek, kanpotik behintzat, mahomatar itxura hartu zuen.

Mahbubek gela bat alokatu zuen geltokiaren parean, eta jateko onenetarikoak agindu zituen, gaztanbera eta almendrazko gozokiak (*balushai* esaten diegu guk) eta Lucknoweko tabakoa, xehe-xehe eginda.

— Hobe da hau *sij*-ekin jan ditudan gauza batzuk baino —esan zuen Kimek, irribarrez eser-tzen zen artean— eta nire *madrissah*-en ere ez dituzte ez horrelako gauzak ematen.

— *Madrissah* horren berri entzuteko irrikitzen nago —Mahbub, ase ezinik, arkumea espeziekin ari zen jaten, gantzetan frijituta eta aza eta ondo erretako tipulekin—. Baina esadazu lehenbizi, oso-osorik eta egiatan, nola egin zenuen ihes. Izan ere, Mundu osoaren Adiskide —gerriko kirrinkaria askatu zuen—, ez dut uste sarritan sahib batek, sahiben seme dena gainera, *madrissah*-etik sarritan egiten duenik ihes.

— Nola bada? Ez dituzte lurralde hauek eza-gutzen. Ez zen ezer izan —esan zuen Kimek, eta istorioa kontatzen hasi zen. Mozorrotzearena, eta bazarreko neskarekin izandako elkarrizketa-ra heldu zenean, seriotasuna erabat desagertu

zitzaion Mahbub Aliri. Algaraka hasi zen, eskuaz izterra jotzen zuela.

— *Shabash! Shabash!* Primeran egin zenuen! Zer esango ote du horretaz turkesen sendatzai-leak? Orain, poliki-poliki, entzun dezagun zer gertatu zen gero, banaka-banaka dena, ezer utzi gabe.

Hala bada, banaka-banaka kontatu zituen Kimek bere abenturak ez tulen artean, tabako usaintsua biriketara heldu ahala.

— Esaten nuen bada nik —murmurikatu zuen Mahbubek berekiko—, esaten nuen poloan ibiltzeko askatu zela zaldia. Heldu da fruitua... baina oraindik distantziak eta neurriak ikasi behar ditu, mugarriak eta itsas orratzak. Entzun orain. Koronelaren zartailua aldendu dizut bizkar gaintetik, eta hori ez da gero hutsaren hurrengoa.

— Egia —Kimek lasaitasunez bota zuen kea—. Hori egia da.

— Baina ez duzu pentsatu behar alde batera eta bestera horrela ibiltzea komenigarria denik.

— Oporrak ziren, *hajji*. Gatibu egon naiz denbora luzez. Zergatik ez nuen bada alde egin behar eskola imita zegoenean? Kontura zaitez

gainera, adiskideen kontura biziz edo ogia irabazteko lan eginez, *sij*-akin egin nuen bezala, sahib koronelari dirutza galanta aurreratu diodala.

Mahbuben ezpainak estutu egin ziren bere mahomatar bibote zainduaren azpian.

— Zer dira rupia batzuk —afganiarrak esku zabala luzatu egin zuen oharkabean—, sahib koronelarentzat? Helburu jakinez gastatzen ditu, ez zugarako maitasunagatik.

— Hori —esan zuen Kimek poliki—, aspalditik nekien.

— Nork esanda?

— Sahib koronelak berak. Ez hitz horiexekin, baina bai garbi asko burua bere lekuan duen batentzat. Bai, *te-ren*-ean esan zidan Lucknow-
era etorri ginenean.

— Ondo da. Orduan beste gauza bat esango dizut, Mundu osoaren Adiskide, hau esanda burua zure eskuetan jartzen badut ere.

— Jarri zenuen lehenago ere —esan zuen Kimek, hitzekin gozatuz—, Umballan, zaldien hartu ninduzunean danbor-joleak astinduta gero.

— Garbiago hitz egin. Edonork esan ditzake gezurrak, gu biok ez beste. Izan ere, nire eskue-tan legoke orain zure bizitza behatza altxatzea erabakiko banu.

— Eta hori ere badakit —esan zuen Kimek, ikatz pusketa pipan ondo jarriz—. Oso lotura segurua daukagu bion artean. Bai, zure indarra nirea baino handiagoa da; izan ere, nork botako luke faltan makilakadaka hildako mutiko bat, edota, agian, bide ertzetik putzura botatakoa? Askok eta askok ordea, hemen eta Simian eta Mendien arteko pasabideetan, esango lukete: «Zer gertatu zaio Mahbub Aliri?», hilda topatuko balute bere zaldien artean. Segur aski gainera sahib koronelak galderak egingo lituzke. Baina hala ere —maltzurkeria keinu batek okertu zuen Kimen aurpegia— ez lituzke galdera gehiegi egingo, bestela jendeak esango luke eta: «Zer ikusirik du sahib koronel honek zaldi-merkatari batekin?» Baina ni... bizi banintz...

— Zu zalantzarik gabe hil egingo zinateke eta...

— Baliteke; baina, nik, biziko banintz, nik bakar-bakarrik jakingo nuke norbait etorri zela

gauzez, lapur arrunt baten itxura hartuta, Mahbub Aliren azokako gelara eta hantxe hil zuela, eta lapur horrek berak goitik behera arakatu zituela, Mahbub hil baino lehen edo geroago, Mahbub Aliren zakuak eta zapatilen zoruak. Koronelari kontatzeko berriak dira horiek, ala esango ote lidake (ez zait ahaztu nola bidali ninduen utzi ez zuen zigarro kaxa baten bila), «Zer axola zait niri Mahbub Ali?»

Ke hodei trinko bat altxatu zen. Isilune luzea izan zen: orduan Mahbub Ali miresmenez mintzatu zen:

— Eta gauza horiek izanik buruan, sahiben seme gazteen artean etzaten zara eta gero berriz altxatu *madrissah* horretan, zure maisuen irakaspenak txintxo-txintxo hartzera?

— Agindua da —esan zuen atsegin Kimek—. Nor naiz bada ni aginduak eztabaidatzeko?

— Deabruaren semea —esan zuen Mahbub Alik—. Baina zer da lapurra eta miaketaren kontu hori?

— Hori ikusi nuen —esan zuen Kimek—, nire lama eta biok Kashmir *serai*-n zure aldamenean lo egin genuenean. Atea giltzapetu gabe utzi

zuten, eta ez dut uste hori denik ohitura, Mahbub. Zu puska batean itzuliko ez zinela ziur balego bezala etorri zen gizona. Nik hormako zulo batean neukan begia jarrita. Zerbaiten bila balebil bezala jardun zuen: ez alfonbra, edo oin-burdinak, edo hedeak, ez brontzezko ontziak, ez, zerbait txikia eta ondo ezkutatua. Bestela, zergatik sartu zuen burdin bat zure zapaten zoruetan?

— Ja! —Mahbub Alik atsegin egin zuen irribarre—. Eta gauza horiek ikusita, zer bururatu zitzaizun zuri, Egiaren Putzu horri?

— Ezer ez. Eskua kutunean jarri nuen, larruazalaren ondoan baitaukat beti, eta, ogi mahomatar bat hozkatzerakoan topatu nuen hazitarako zaldi zuri baten pedigriaz gogoratuz, Umballara abiatu nintzen erantzukizun handia nuela nire gain ederki konturatuta. Ordu hartan, nahi izan banu, nire esku neukakeen zure burua. Nahikoa nuen gizon hari esatea: «Paper bat daukat hemen zaldi bati dagokiona, eta ez dakit irakurtzen.» Eta orduan? —Kimek bekainen azpitik egi ten zion so Mahbubi.

— Orduan ura bi bider edango zenuen... hiru beharbada, geroago. Ez dut uste hiru bider baino gehiago izango zenik —esan zuen Mahbubek besterik gabe.

— Egia da. Pentsatu nuen horretan, baino batez ere maite zaitudala pentsatu nuen, Mahbub. Horretaz, Umballara joan nintzen, dakizun bezala, eta (baina hau ez dakizu) ezkutatu egin nintzen Creighton sahib koronelak hazitarako zaldi zuriaren pedigria irakurritakoan zer egiten zuen ikusteko.

— Eta zer egin zuen? —izan ere, Kimek ez zion elkarrizketa haren berri eman.

— *Zuk* informazioa maitasunaren truke ematen duzu, ala saldu egiten al duzu? —galdetu zuen Kimek.

— Nik, saldu... eta erosi egiten dut —Mahbubek lau annetako txanpon bat hartu zuen gerrikotik eta Kimi eskaini zion.

— Zortzi! —esan zuen Kimek, oharkabean Ekialdekoen merkatal senari jarraiki.

Mahbubek barrez ezkutatu zuen txanpona.

— Errazegia da merkatu honetan aritzea, Mundu osoaren Adiskide. Maitasun truke konta-

tu. Bata bestearen eskuetan daude gure bizitzak.

— Oso ondo. Jang-i-Lat sahiba ikusi nuen (gudalburua) afari handi batera zetorrela. Ikusi nuen Creighton sahibaren bulegoan. Ikusi nuen biek hazitarako zaldi zuriaren pedigria irakurtzen zutela. Gerra handia hasteko aginduak entzun nituen.

— Ja! —baietz egin zuen buruaz Mahbubek, begiak sutan—. Ondo burutu da jokoa. Bukatua da gerra orain, eta etsaia, hala espero dugu, erro-errotik aterea... niri esker... eta zuri. Zer egin zenuen gero?

— Informazio hura amu bezala erabili nuen jatekoak eta ohoreak lortzeko nire lama drogatu zuen apaiz baten herrian. Baina nik hartu nuen agurearen poltsa eta brahamanak ez zuen ezer topatu. Hala, biharamunean oso haserre zegoen. Ja, ja! Eta albiste horiek ere erabili nituen errejimendu zuri horren eskuetan erori nintzenean, beren Zezenarekin!

— Hori ergelkeria hutsa izan da —esan zuen erdeinuz Mahbubek—. Albisteak ez dira simaurra

bezala harrika botatzeko, arduraz erabiltzeko baizik, *bhang*-a bezala (hachis edo marihuana).

— Halaxe iruditzen zait orain; gainera guzti hark ez zidan batere onik egin. Baina hori aspaldi izan zen —esku mehe beltzaranez keinu bat egin zuen, dena desagerrarazteko bezala—, eta orduz geroztik eta batez ere gauetan, *punkah*-en azpian *madrissah*-en, galanki pentsatu dut horretan.

— Galdegin al nezake nora daramaten Zerutik Jaiotakoaren pentsamenduek? —esan zuen Mahbubek, mesprezuz deliberatuki, bizar gorria lisatzen zuen artean.

— Galdegin zenezake —esan zuen Kimek, tonu berbera itzuliz besteari—. Nucklaon diote sahib batek ez diola esan behar beltz bati okerrik egin duenik.

Mahbubek bularrera eraman zuen eskua, afganiarrei «beltz» deitzea (*kala admi*) odolez garbitzen den iraina baita. Baina gogoratu eta barrez hasi zen.

— Mintza zaitez, sahib. Adi-adi daukazu zure beltza.

— Baina —esan zuen Kimek—, ni ez naiz sahiba, eta esaten dizut oker egin nuela zu irainduz, Mahbub Mi, egun hartan Umballan afganiar batek traizioa egin zidala uste izan nuenean. Nire onetatik aterata nengoen, harrapatu berria bainintzen, eta behe kastako danbor-jolea hil nahi nuen. Orain esaten dizut, *hajji*, ondo egin zenuela eta garbi ikusten dudala bidea hemen-dik aurrera baliagarria izateko. *Madrissah*-en egongo naiz heldua naizen arte.

— Ondo esana. Distantziak, zenbakiak, eta itsas orratzak erabiltzeko era ikasi behar dira batez ere joko honetan. Lagun bat daukazu Mendietan zain gauza horiek irakasteko.

— Gauza horiek baldintza batekin ikasiko ditut: *madrissah*-a itxita dagoenean denbora librea nik nahi bezala erabili. Eskaiozu hori koronelari.

— Baina zergatik ez diozu hori sahiben hizkuntzaz zerorrek eskatzen?

— Koronela gobernuaren zerbitzaria da, hitz bat esan orduko batera eta bestera bidaltzen dute, eta kontutan izan behar du bere egoera. (Ikusi zenbat ikasi dudan dagoeneko Nucklaon!).

Gainera, duela hiru hilabete bakarrik ezagutzen dut. Mahbub Ali delako bat sei urtez ezagutu dut. Hala bada, *madrissah*-era joango naiz. *Madrissah*-en ikasi egingo dut. *Madrissah*-en sahiba izango naiz. Baina *madrissah* hori itxita dagoenean, orduan libre izan behar dut neure jendearengana joateko. Bestela hil egingo naiz!

— Eta zein da zeure jendea, Munduaren Adiskide hori?

— Lur handi eta zoragarri hau —esan zuen Kimek, eskuari eraginez eta lokatzezko hormekiko gela txikia seinalatuz, olioeko kriseiluak bere apaletik argitzen zuela ke trinkoaren artetik—. Eta, gainera, nire lama ikusiko nuke berriz. Eta, gainera, dirua behar dut.

— Denon beharra da hori —esan zuen Mahbubek tristuraz—. Zortzi ana emango dizkizut; zaldien azkazaletatik ez da diru askorik ateratzen, eta egunetan iraun beharko dizu diru horrek. Gainontzekoaz, lasai nago, eta ez dago gehiago hitz egin beharrik. Bizkor ikasi, eta hiru urte hartu, edo baliteke gutxiago izatea, lagun-garria izango zara... baita niretzat ere.

— Halako enbarazua egin al dut bada orain arte? —esan zuen Kimek, barre txiki bat eginez.

— Ez erantzunik eman —moztu zuen Mahbub Alik—. Nire morroi berria zara. Zoaz beste morroiekin lotara. Geltokiaren iparretik bertan daude, zaldiekin.

—Aginpiderik gabe joaten baldin banaiz hegoaldeko muturrera bidaliko naute ostikoka.

Mahbubek gerrikoa ukitu zuen, txinatar tinta pastilla batean behatza busti eta indiar paper puska bigun batean ezarri zuen. Balkhetik Bombayera zen ezaguna orbain zaharrek zeharkatzen zuten inprimaki zatar hura.

— Nahikoa izango duzu hori morroien buruari erakusteko. Ni goizean joango naiz.

— Zein bidetatik?

— Hiritik datorren bidetik. Bat besterik ez dago, eta orduan Creighton sahibarengana itzuliko gara. Astindu bat kendu dizut gainetik.

— Alaren izenean? Zer da bada astindu bat burua bera sorbalda gainean eutsi ezinik dagoeanean?

Isil-isilik atera zen Kim gaueko ilunpetan, etxe erdia inguratu zuen hormen kontra estu-

estu jarrita, eta geltokia baino pare bat kilometro harantzago joan zen. Gero, buelta handia eginenez, lasai itzuli zen, denbora behar baitzuen Mahbuben morroiren bat galdezka hasiz gero zerbait asmatzeko.

Trenbidearen ondoko lur sail zabal batean zuten akanpalekua, eta, indiarrek izanik morroiak, ez zituzten noski deskargatu Mahbuben animalien bi bagoiak, Bombayeko tranbia konpainiak erositako zaldien artean zeudelarik. Morroi buruak, oso itxura txarreko mahomatar zaharra, gelditzeko esan zion Kimi, baina lasaitu egin zen Mahbuben zeinua Kimen eskuan ikusita.

— *Hajji*-ak lana emateko ohorea egin dit — esan zion Kimek umore txarrez—. Dudarik baduzu, itxoin ezazu bera goizean etorri arte. Bien bitartean, leku bat sutondoan.

Behe kastako indiarrek edozer dela eta sortu ohi duten marmar zentzugabeak jarraitu zien hitz haiei. Isildu ziren, eta Kim Mahbuben gizonen taldearen atzean etzan zen, zalgurdi baten gurpilen azpian ia, utzi zioten estalki bat babeserako hartuta. Adreilu eta hondakinen arteko ohe

hura, zaldi mordo bat eta garbitu gabeko baltia-
rrez inguratuta, ez litzateke oso deigarria izango
mutil zuri askorentzat; baina Kim guztiz zorion-
tsu sentitzen zen. Eskenatoki, lan, eta inguru
aldaketa haize berria zen Kimen biriketarako,
eta St Xavierreko ohatila txuri txukunetan pen-
tsatzeak, *punkah*-en azpian, biderketa taulak
ingelesez errepikatzeak bezainbesteko poza
ematen zion.

— Oso zaharra naiz —pentsatu zuen erdi
lotan—. Hilero-hilero urte bat gehiago betetzen
dut. Oso gaztea nintzen, eta inozoa goitik behe-
ra, Mahbuben mezua Umballara eraman nue-
nean. Errejimendu zuri harekin nengoenean ere
oso gaztea eta txikia nintzen, eta jakituririk
gabea. Baina orain egunero ikasten dut zerbait,
eta hiru urte barru koronelak *madrissah*-etik ate-
rako nau eta Bidera joaten utzi Mahbubekin zaldi
pedigrien bila, edo beharbada bakarrik joango
naiz; edo baliteke lama topatu eta berarekin joa-
tea. Bai; horixe da onena. *Chela* bezala ibiltzea
nire lamarekin bera Benaresera itzultzen
denean.

Pentsamenduak gero eta mantsoago eta solteago zetozkion. Ametsezko mundu zoragarri batean ari zen murgiltzen belarriek xuxurlo bat harrapatu ziotenean, fina eta zorrotza, suaren ondoko marmar monotonoaren gainetik. Burdinazko zaldi-bagoien atzetik zetorren soinua.

— Orduan, ez dago hemen?

— Non izango da bada hirian parrandan ez bada? Nor joaten da igelen artera sagun baten bila? Goazen beste leku batera. Hori ez da gure gizona.

— Ez ditu pasabideak berriz gurutzatu behar. Hori da agindua.

— Emakumeren bati dirua eskaini eta eman diezaiola drogaren bat. Rupia gutxi dira, eta ez da frogarik geratuko.

— Emakumea bera izan ezik. Hori baino gauza seguruagoa behar dugu; eta gogoan izan bere buruari jarri dioten prezioa.

— Bai, baina poliziak beso luzea dauka, eta mugatik urruti gaude. Penschawurren bagina!

— Bai... Penschawurren —esan zuen mesprezuz bigarren ahotsak—. Penschahawur, bere odolkoz josita, ezkutalezkuz josita, eta emaku-

meez, beren gonapetan sartzeko. Bai, Penshawur infernua bera bezain komenigarria genuke.

— Orduan, zein da plana?

— Zoro alaena, ez al dizut bat hamaika bider esan? Etzatera etortzen den arte itxoin, eta orduan... tiro seguru bat. Bagoiak daude gu eta jazarleen artean. Burdinbidea korrika gurutzatu besterik ez dugu egin behar, eta gure bidetik joan gero. Ez dute ikusiko nondik zetorren tiroa. Gutxienez egunsentira arte itxoin beharko dugu. Zer nolako fakirra zara zu, zelatan pixka bat egi-teagatik hor dardarka?

«Hara!» pentsatu zuen Kimek begi itxien azpitik. «Mahbub da berriz ere. Ez da ez sahibei saltzeko aproposa hazitarako zaldi zuri baten pedigria! Edo agian bestelako albisteak saltzen arituko zen Mahbub. Eta orain zer egin behar da, Mahbub? Ez dakit non egiten duen Mahbubek lo, eta egunsentia baino lehen itzultzen bada eraso egingo diote. Hori ez litzateke probetxuzkoa izango zuretzat, Kim. Eta ez da hau poliziarentzako kontua. Ez litzateke probetxuzkoa Mahbubentzat eta —ia-ia ozen egin zuen barre—, ez dut gogoratzen orain lagunduko didan Nucklao-

ko irakaspenik. Ala bedeinkatua! Hona hemen Kim eta horra hor horiek. Lehenbizi orduan, altxatu eta alde egin behar du Kimek, ez dezaten susmo txarrik hartu. Gizonak esnatu egiten ditu amesgaiztoak... horrela...

Estalkia gainetik kendu zuen eta altxatu egin zen bat-batean, eta amesgaiztoak esnatutako asiarren txilio izugarria, zentzurik gabea, dardarata, egin zuen.

— Urr-urr-urr-urrr-urr! Ya-la-la-la-la! *Narain! Churel-a! Churel-a!*

Umea erditzerakoan hil den emakume baten mamua, bereziki gaiztoa, da *churel-a*. Bide bakartietan agertzen da, oinak atzekoz aurrera dituela, eta erotu egiten ditu gizonak.

Kimen oihu dardarata ozenagoa egin zen, azkenean zutik jarri eta erdi lotan balantzaka hasi zen arte, besteek esnatzeagatik iraintzen zuten artean. Hogeit bat metro harantzago, gora-go, etzan egin zen berriz, xuxurlaka ari zirenak bere marmarioak eta zaratak entzun zitzaten arduratuz, bere onera zetorren artean. Geroxea-go bide aldera mugitu eta aldendu egin zen ilunpe trinkoan.

Bizkor mugitu zen ur-isurki batera heldu zen arte, eta haren atzean ezkutatu zen, kokotsa gaineko harriaren parean zuela. Gauekoen joan-etorri guztiak ikus zitzakeen handik, baina bera ikusiezina zen.

Bizpahiru gurdi pasa ziren, hiriaren kanpoaldera tintilika; polizia bat eztulka eta ibiltari bat edo bi, kantari izpiritu gaiztoak uxatzeko. Gero zaldi baten azkazalen tarrapata entzun zen.

— A, horrek bai, horrek Mahbub Ali dirudi! — pentsatu zuen Kimek; aberea, harriaren gaineko buru txikia ikusita, ikaratu egin zen.

— Eh, Mahbub Ali! —xuxurlatu zuen—, kontuz ibili!

Zaldia ia zutik jarri zen hedeetako tirazoarekin, eta ur-isurki aldera mugitu zen.

— Ez dut sekula berriz —esan zuen Mahbubek—, zaldi herratu bat hartuko gauez ateratzeko. Hiriko hezur eta iltze guztiak hartzen dituzte —zaldiaren aurreko hanka jasotzeko makurtu zen, burua Kimenaren pare-parean jarriz—. Egon... egon hor —murmurikatu zuen—. Begiz josita dago gaua.

— Bi gizon daude zu noiz helduko zain zaldien bagoien atzean. Tiroa botako dizute etzaten zarenean, zure buruari prezioa jarri diote eta. Zaldien ondoan lotan nengoela entzun dut.

— Ikusi al dituzu?... Egon geldik, deabru zikina! —esan zion amorruez zaldiari.

— Ez.

— Ez al zegoen bat fakirrez jantzita?

— Batek esan dio besteari, «Nolako fakirra zara zu, zelatan egiteagatik dardarka»?

— Ondo. Zoaz berriz akanpalekura eta etzan zaitez. Gaur gauean ez naiz hilko.

Mahbubek zaldia atzera jirarazi zuen eta desagertu egin zen. Kim ubidetik joan zen bizkor, bigarren atsedenekuaren parean zegoen lekuraino heldu arte, erbinude batek bezala gurutzatu zuen bidea eta estalkiaren azpian sartu zen berriz.

— Jakin badaki behintzat —pentsatu zuen pozik—. Eta dudarik gabe espero balu bezala mintzaten zen. Ez dut uste bi gizon horiek onik aterako diotenik gaur gaueko zelatari.

Ordubete igaro zen, eta, gau osoa esna emateko borondate oso-osoaz, lo seko geratu zen.

Noizean behin gaueko tren bat orroka igarotzen zen burdinbidetik sei metrotara; baina soinu hutsekiko ekialdekoen arduragabezia zeukan Kimek, eta amets bat bera ere ez zitzaion tartekatatu loaldian.

Mahbub lotan ez beste edozertan ari zen. Asko molestatu zuen bere leinukoa ez zen jendeak eta bere noizbehinkako maitasun istorioekin zerikusirik ez zutenak bere bizitzaren atzetik ibiltzea. Senak aginduta, burdinbideak beheaxeagotik gurutzatzea izan zuen lehenengo burutapena, gora joan berriz, eta, bere adiskideak atzetik harrapatuz, lepoa moztu biei. Baina, pentsatu zuen penaz, Gobernuko beste adar batek, Creighton koronelarekin batere zerikusirik gabea, erantzuten zailak lirakeen galderak egingo lizkioke; eta ederki asko zekien mugaren hegoaldean sekulako zalaparta sor zezaketela gorpu batek edo bik. Alde horretatik ez zuten molestatu Kim mezuarekin Umballara bidali zenez geroztik, eta susmoa azkenean desagerrarazia izatea espero zuen.

Orduan primerako gauza bururatu zitzaion.

— Ingelesek egia diote beti —esan zuen berekiko—, eta, gu, hemengoak, inozo bezala gertzen gara. Alaren izenean, ingelesen bati kontatuko diot egia! Zertarako balio du Gobernuaren poliziak kabuliar gizarajo bati bere zaldiak bagoietatik osten badizkiote? Pensahawurren bezain gaizki daude hemen gauzak! Protesta jarri beharko nuke geltokian. Ez, hobeto, burdinbideetako sahib gazteren bati esango diot! Oso gartsuak izaten dira horiek beren lanetan, eta ohore handitzat hartzen dute lapurrak harrapatzea.

Zaldia geltokiaren kanpoaldean lotu zuen, eta kaira joan zen.

— Kaixo, Mahbub Ali! —esan zion distrituko burdinbidean behera joateko zain zegoen superintendentearen laguntzaile gazte batek. Mutil handia zen, lastozkoa zirudien ilearekin, zaldi itxurakoa, eta harizko traje zuri zikin samar bat zeraman—. Zertan ari zara hemen? Zaldi zikinak saltzen, ala?

— Ez; ez nago zaldiekin kezkatuta. Lutuf Ullahen bila nator. Han goian bagoi bat daukat bete-

ta. Inork eramaterik izango ote luke Trenbide Konpainiak jakin gabe?

— Ez dut uste, Mahbub. Salakuntza jar deza-kezu gure aurka halakorik gertatzen bada.

— Bi gizon ikusi ditut bagoi baten gurpilen ondoan kuzkurtuta ia-ia gau osoz. Fakirrek ez dituzte zaldiak lapurtzen, beraz, ez diet garrantzi handirik eman. Lutuf Ullah, nire sozioa, topatu behar dut.

— Egiatan? Eta ez zara batere kezkatu? Benetan esaten dizut, horixe da zortea zu topa-tu izana. Nolakoak dira?

— Fakirrak baino ez ziren. Beharbada gari pixka bat hartu besterik ez dute egingo, bagoi-ren batetik. Asko daude han pian. Estatuari ez dio kalterik egingo limosna txiki horrek. Nire sozioaren bila etorri naiz hona, Lutuf Ulah...

— Ez dio inporta orain zure sozioak. Non daukazu zaldien bagoiak?

— Trenerako kriseiluak egiten dituzten azken postua baino honantzaxeago.

— Orratz aldaketaren kutxa, bai.

— Eta bidetik hurbilen dagoen burdinbidea-ren ondoan, eskuineko aldean, burdinbidera

begira, alde honetara. Baina Lutuf Ullah dela eta... gizon luze bat, sudurra hautsia duena, eta persiar xarlango batekin... E!

Joana zen presaka mutila polizia gazte eta gartsu bat esnatzera; izan ere, eta azaldu zue-
nez, Konpainiak lapurreta franko jasaten zituen biltegietan. Mahbub Alik barre egin zuen bizar tindatuaren azpitik.

«Beren botekin joango dira, soinua atereaz, eta orduan harriturik ikusiko dute ez dagoela fakirrik. Oso mutil bizkorak dira, Barton sahiba eta Young sahiba».

Egonean eman zituen minutu batzuk, burdin-
bidean barrena poliziak korrika lanerako prest noiz azalduko. Geltokitik lokomotora txiki bat atera zen, eta Barton gaztea ikusi zuen kabinan.

«Ez dut behar bezala epaitu mutil hori. Horren inozoa ere ez da. Su-gurdi bat hartzea lapurrak harrapatzeko, berria da hori gero!»

Akanpalekura joan zenean Mahbub Ali egun-
sentian, ez zitzaion inori burutik pasa ere egin gaueko albisterik emateak merezi zuenik. Inori ez, morroi txiki bati izan ezik, gizon handiaren zerbitzura etorri berria zen bat, hari deitu bai-

tzion Mahbubek bere denda txikian zerbait bil-
tzen laguntzera.

— Badakit dena —xuxurlatu zion Kimek, zela-
zakuen gainean makurtuz—. Bi sahib etorri dira
te-ren batean. Batera eta bestera nenbilen ni
ilunpetan, bagoien alde honetan, *te-ren-a* gora
eta behera poliki-poliki zebilen artean. Bagoia-
ren azpian eserita zeuden bi gizonengana joan
dira... *Hajji*, zer egin behar dut tabako pusketa
honekin? Paperean bildu eta gatzaren poltsaren
azpian jarri? Bai, eta lurrera bota dituzte. Baina
gizonetako batek eraso egin dio sahib bati fakir
adar batekin (Kim Indiako antilopearen adarrez
ari zen, horixe baita fakirrek mundu honetan
duten arma bakarra), eta odola isuri da. Orduan
beste sahibak, bere gizona korderik gabe utzita
gero, erasotzailea egurtu du besteari eroritako
pistola batez. Erotuta bezala hasi dira denak
borrokan.

Mahbubek irribarre egin zuen, etsimen
lasaiaz.

— Ez! Hori *dewani*-a ezik (eromena, edo epai-
tegi zibilerako kasua, bi zentzuak baititu hitzak
eta hitz jokoak egin daiteke), *nizamut*-a da, (kasu

kriminala). Pistola, esan duzu? Hamar une luze bai kartzelan.

— Orduan etzanda geratu dira biak, mugitu ezinik, eta nire ustez hiltzeko zorian zeuden *teren*-ean jarri dituztenean. Horrelaxe mugitzen zituzten buruak. Eta odola erruz dago burdinbidean. Ikusi nahi al duzu?

— Lehendik ere ikusita daukat odola. Kartzela dute horiek lekurik seguruen... segur aski izen faltsuak emango dituzte, eta segur aski ez ditu inork denbora luzez aurkituko. Ez ziren nire aldeko. Zure patua eta nirea, nonbait, soka berean daude. Horixe da istorioa perla sendatzailearentzat! Orain, arin ibili zakuekin eta sukaldeko ontziekin. Zaldiak hartu eta Simlara joango gara.

Agudo —ekialdekoek abiadura ulertzen duten eran—, azalpen luzeekin, irain eta berriketa hutsalekin, arduragabe, hamaika aldiz ahaztutako txikikeriak errepasatu ondoren, kanpamendu zatar hura altxatu eta eraman zituzten zaldi zurrundu urduriak Kalkako bidean barrena, euriak freskatutako egunsentian. Kimi, Mahbub Aliren kuttuna bezala ikusten baitzuten afgania-

rrarekin ondo konpondu nahi zuten guztiek, ez zioten lanerako deitu. Aurrera egin zuten oso bidaia eroso eginez, atsedean lekuetan ordu gutxika geldituz. Sahib ugari ibiltzen da bidaiari Kalkako bidean; eta, Mahbub Alik dioen bezala, sahib gazte orok zaldi epaile ontzat dauka bere burua, eta, zorrez leporaino badago ere, eroste-ko prest dagoelako itxurak egin behar ditu. Horrexegatik sahib bat bestearen atzetik, zalgurdian zetoze, gelditu eta hizketan hasten zen. Batzuk gurdietatik jaitsi ere egiten ziren, eta zaldien hankak ukitu; galdera hutsalak egiten zituzten, edo, bertako hizkuntzan hitzik ez zekitelako hain zuzen, irain zarpailak egiten zizkioten tratulariari.

— Sahibekin tratuak lehenbizikoz egin nitue-
nean, eta Soadi koronela Abazia Gazteluko
gobernadore zela izan zen hori, amorruren
amorruez bete zuenean komisarioaren kan-
patzeko lur saila —aitortu zion Mahbubek Kimi
mutilak zuhaitz baten azpian pipa betetzen
zuen artean—, ez nekien nik nolako zoro
puskak diren, eta horrek sutan jartzen
ninduen. Esate baterako.. —eta esamolde
baten istorioa kontatu zion

Kimi, oharkabea oker erabilia, Kim barrez leher-tu beharrean jarri zuena—. Orain konturatzen naiz ordea —poliki bota zuen kea—, horiekin ere beste guztiekin bezalaxe gertatzen dela: gauza batzuetan argiak dira, eta besteetan berriz zoro hutsak. Zorakeria handia da arrotz batekin okerreko hitzak erabiltzea; zeren, bihotza irainez garbi badago ere, nola jakin lezake hori atzerri-tarrak? Labana hartuta joango da segur aski egiaren bila.

— Egia. Egia diozu —esan zuen Kimek arrandiaz—. Zoroak katu batez mintzatzen dira emakume bat erditzen ari denean, esate baterako. Entzun egin dut.

— Beraz, zu zauden egoeran, batez ere hau gogoratzea komeni zaizu, bi aurpegiena. Sahiben artean, ez inoiz ahaztu sahiba zarela; India-ko jendearen artean, gogoan izan beti... —isildu egin zen, harrimenezko irribarrea eginez.

— Zer naiz ni? Mahomatarra, hindua, jain ala budista? Korapilo ederra da hori.

— Dudarik gabe, sinesgabea zara, eta kondena-tu egingo zara beraz. Hala dio nire Legeak, edo hala uste dut behintzat. Baina zu nire Mundu

osoaren Adiskide Txikia zara, eta maite zaitut. Halaxe dio nire bihotzak. Sinesteen kontu hau zaldien antzekoa da. Gizon zuhurrak badaki zaldiak onak direla... probetxugarriak direla denak; eta nik berriz, *sunni* zintzoa naizela eta Tiraheko gizonei gorroto diedalako izango ez balitz, gauza bera pentsatuko nuke fede guztiez. Orain, garbi dago Kathiawarreko behor bat bere jaiolekuko hondarretatik atera eta Bengalako mendebaldera eramanda, honda-honda eginda geratzen dela; eta halaxe ere Balkheko hazitarakoek (eta ez da Balkheko zaldiak baino hobeagorik, ez balira bizkarkiz horren astunak), ez dute batere balio Iparreko basamortu handietan, nik ikusi izan ditudan elur-gameluen ondoan. Horretaz, fedeak zaldiak bezalakoak direla esaten dut bihotzean. Bakoitzak bere herrian bere merituak dauzka.

— Nire lamak oso bestelako gauzak esaten zituen ordea.

— A, Bhotiyalen ametsen ameslari zahar bat besterik ez da hura. Bihotza haserre samar daukat, Mundu osoaren Adiskide hori, zuk horrelako

balioa ikusten duzulako horren ezezaguna den gizon batengan.

— Egia da, *hajji*; baina balio hori ikusi egiten diot, eta bihotza harengana jarrita daukat.

— Eta harena zugana, entzun dut. Bihotzak zaldiak bezalakoxeak dira. Joan eta etorri egiten dira, baita jatekoa edo ezproiaren kontra ere. Egin oihu Gul Sher Kani, hazitarako uherraren habeak hobeto segurta ditzan. Ez dugu zaldi borrokarik behar atsedenaldi bakoitzean, eta arrea eta beltza segituan jarriko dituzte giltzapean... Orain entzudazu. Beharrezko al duzu bihotza lasaitzeko lama hori ikustea?

— Dauzkadan eginbeharretakoa da —esan zuen Kimek—. Ikusten ez badut, eta kentzen baldin badidate, atera egingo naiz Nucklaoko *madrissah* horretatik, eta, aterata gero, nork bilatuko nau berriz?

— Egia da hori. Ez da sekulan zu baino soka arinago batekin lotutako moxalik izan —Mahbubek buruari eragin zion.

— Ez beldurrik izan —Kim une hartan bertan desagertu ahal izango balitz bezala mintzatzen

zen—. Nire lamak esan du etorriko dela *madrissah*-era ni ikustera.

— Eskale bat eta bere ontzia sahib gazte horien aurrean...

— Ezta hurrik eman ere! —moztu zuen Kimek mesprezuz—. Behe kastako odolak ilunduta dauzkate begiak, eta belztuta azkazalak, horietako askok eta askok. *Mehterani*-en semeak... (printzesak; ironiaz, garbitzaileak) *bhungi*-en koinatuak (erratzariak).

Ez dugu zertan gainontzeko pedigria errepi-katu beharrik; baina Kimek garbi asko azaldu zizkion bere ideiak eta berotu gabe gainera, azukre-makila mastekatzen zuen artean.

— Mundu osoaren Adiskide —esan zuen Mahbubek, garbi zezan Kimi luzatuz pipa—, gizonak franko ezagutu ditut, emakumeak eta mutilak erruz, eta ez sahib gutxi. Zu bezalako lotsagabe batekin ez dut sekula topo egin.

— Eta zergatik? Zuri beti egia esaten dizut eta.

— Horrexegatik beharbada, arriskutsua baita gizon zintzoentzat honako mundu hau —lurretik

altxa, gerrikoa estutu eta zaldiengana joan zen Mahbub Ali.

— Ala saldu?

Bazen zerbait hitz haiek ahoskatzerakoan Mahbub gelditu eta jirarazi egin zuena.

— Zein gaiztakeria berri da hori?

— Zortzi anaia, eta kontatuko dizut —esan zuen Kimek, ahoa okertuz—. Zure bakearekin du zerikusia.

— Deabruaren semea! —dirua eman zion Mahbubek.

— Gogoratzen al zara lapurren kontu hartaz, ilunpetan, Umballan?

— Bizitza kendu nahi zidatela kontutan hartuta, ez zait erabat ahaztu. Zergatik?

— Gogoratzen al zara Kashmir *Seraia*-z?

— Belarriak bihurrituko dizkizut segituan... sahib.

— Ez duzu horren beharrik izango, afganiar hori. Baina, bigarren fakirra, sahibek korderik gabe utzi zuten hura, Laboren zure gela miatze-ra joan zen gizon bera zen. Lokomotoran sartu zutenean ikusi nion aurpegia. Gizon berbera.

— Zergatik ez didazu lehenago esan?

— A, kartzelara joango da, eta seguru egongo da urte batzuetan. Aldi bakar batean behar baino gehiago kontatu beharrik ez dago. Gainera, orduan ez nuen gozokietarako dirurik behar.

— *Allah kerim!* —esan zuen Mahbub Alik—. Salduko ote duzu bada inoiz nire burua gozokien truke gogoak ematen badizu?

Hil arte gogoratuko du Kimek bidai luze, nagihura Umballatik aterata, Kalaka eta Pinjorrekoko Loratokiak igaroz, Simlaraino. Gugger ibaiaren bat-bateko uholde batek zaldi bat eramane zuen (baliotsuena noski), eta Kim ito zen ia-ia harri dantzarien artean. Bidean gorago Gobernuko elefante batek sakabanatu egin zituen zaldiak, eta, belarra oso hazia zegoenez gero, egun t'erdi behar izan zuten zaldi guztiak berriz inguratzeko. Gero Sikandar Khanekin egin zuten topo, zaldi salduezineko batzuk zekartzala —saldu gabe geratu zitzaizkionak— eta Mahbubek, merkatariagoa baitzen behatz txikiko azkazalean Sikandar Khan bere denda guztietan baino, okerrenetako bi erosi behar izan zituen, zortzi ordu-

tako diplomazia arduratsua eta tabako mordo galanta suposatu zuelarik tratuak. Baina zoragarrria zen dena: bide bihurria, igo eta jaitsi, gero eta gorago; goizeko argitasuna urruneko elurretan; beso ugaritako kaktusak, ilaraz ilara malkar harritsuetan; uraren xuxurloa ehunka urtegitan; tximuen berriketa; izai dotoreak, bata bestearen atzetik igotzen beheraka makurtutako adarrekin; lautaden ikuskizuna, urruti-urrutira hedatuz; *tonga*-adarren etengabeko soinua eta lehenengo zaldien lasterketa zoroa *tonga* batek jiratzen zuenean; otoi egiteko geldialdiak (oso erlijioso zen Mahbub abluzio eta garrasi bizian egindako otoitzetan, presarik ez zenean); ilunabarreko hizketaldiak atsedean lekuetan, game-luek eta idiek batera arrandiaz mastekatzen zutenean eta mandazain astotzarrak bideko albisteak kontatzen zituztenean: gauza guzti haiek kantari jartzen zuten Kimen bihotza.

— Baina kanta eta dantza bukatzean —esan zuen Mahbub Alik—, sahib koronela etortzen da, eta hori ez da horren gozoa.

— Lurralde ederra... lurralde guztiz zoragarrria da India... eta Bost Ibaien lurraldea da dene-

tan ederrena —zioen Kimek erdi kantari. Haraxe joango naiz berriz Mahbub Ali edo koronelak eskua edo zangoa altxatzen badidate. Joanda gero, nork aurkituko nau? Begira, *hajji*, Simla al da hango hiri hura? Alaren izenean, hori da hiria, hori!

— Nire aitaren anaiak, eta zaharra zen hura Mackerson sahibaren putzua Penshawurren ireki berri zutenean, gogoratzen zuen bi etxe besterik ez zituenean.

Zaldiak errepide nagusiaren azpitik eraman zituen Simlako beheko bazarrera: untxitegi ugari bat zirudien bazarrak, eta arantetik udaletxera igotzen zen berrogeita bost gradutako maldarekin. Han bidea jakiteko gauza den gizonak erronka egin diezaioke Indiako udako hiriburu denaren polizia osoari, hain era zuhurrean elkartzen baitira atariak, pasabideak, eta ezkutuko irteerak. Han bizi dira hiri alaiaren beharren hornitzaileak: jhampaniak, gauzez emakume ederren rickshaw-ak eraman eta egunsentira arte jokoan ibiltzen direnak; dendariak, olio edo zur saltzaileak, antikuarioak, apaizak, lapurrak eta gobernuaren enplegatu indiarak. Hantxe komenta-

tzen dituzte dama limuriek Indiako Kontseiluaren sekretu ezkutukoena omen direnak; eta han biltzen dira Estatu Indiarren ordezkari guztiak. Hantxe hartu zuen gela bat Mahbub Alik ere, Lahorekoak zuena baino askoz sarraila segurua-go batekin, mahomatar ganadu tratulari baten etxean. Mirari lekua ere bazen hura, mahomatar morroi bat sartu baitzen han iluntzean, eta ordu-bete beranduago mutiko eurasiar bat atera — Lucknoweko neskaen tinteak onenatarikoa zen—, gaizki samar zegokion dendako arroparekin.

— Creighton sahibarekin mintzatu naiz — esan zion Mahbub Alik—, eta bigarren aldiz apartatu du Adiskidetasunaren Eskuak Hondamendiaren zartailua. Koronelak dio hirurogei egun xahutu dituzuela dagoeneko bidean eta beranduegi dela beraz zu inongo Mendiko eskolara bidaltzeko.

— Esan dut nire oporrak nireak direla. Ez naiz bi bider joango eskolara. Hori tratua parte da.

— Koronel sahibak oraindik ez daki ezer kontratu horretaz. Lurgan sahibaren etxean egongo zara berriz Nucklaora itzultzeko eguna heldu bitartean.

— Nahiago nuke zurekin egon, Mahbub.

— Ez dakizu zer nolako ohorea den hori. Lurgan sahibak berak eskatu du zu hara joatea. Mendixkara igoko zara; gero goiko bidetik joan, eta orduan ahaztu egin behar duzu ni inoiz ikusi edo nirekin hitz egin izana, ni, Mahbub Ali, zuk ezagutzen ez duzun Creighton delako sahib hari zaldiak saltzen dizkiona. Gogoan izan agindu hori.

Kimek baietz egin zuen buruaz.

— Ondo da. Eta nor da Lurgan sahiba? Ez — Mahbuben begiratu zorrotza harrapatu zuen—. Egia esan, ez dut sekula horren izena entzun. Ez da bada izango —ahotsa jaitsi zuen—, gutakoa?

— Zer da «gutako» hori, sahib? —erantzun zion Mahbub Alik, europarrekin erabili ohi zuen tonuarekin—. Afganiarra naiz ni; zu sahiba zara eta sahiben semea. Simia guztiak daki hori. Galdetu han... eta, Mundu osoaren Adiskide, azkeneko zirkinean ere obeditu behar zaio gizon horri. Magia egiten duela dio jendeak, baina horrek ez du zurekin zerikusirik. Zoaz mendixkara eta galdetu. Horra hor non hasten den Joko Handia.

9. ATALA

*Yelth zuhurraren semea zen S'doaks
Bele endaren buruzagi.
Inswoot Hartzak zuen haren ardura
Azzi behar baitzuen egin.*

*Bizkorra baino bizkorragoa zen ikasten
Ausarta baino ausartagoa egiteetan:
Kloo-Kwallie dantza izugarria dantzatu zuen
Itswoot Hartza entretenitzearren!
Oregoneko legenda.*

Gogo beroz sartu zen Kim gurpilaren hurrengo biran. Sahiba izango zen berriz ere puska batean. Asmo hori hartuta Simlako Udaletxe ondoko kale nagusira heldu bezain azkar, nor txundituko ote zuen bila hasi zen. Ume hindu bat, hamar bat urtetakoa, farol baten azpian eserita zegoen.

— Non dago Mr Lurganen etxea? —galdetu zion Kimek.

— Ez dut ingelesa ulertzen —izan zen erantzuna, eta Kim, horretaz, beste hizkuntzaz mintzatu zitzaion.

— Erakutsiko dizut.

Elkarrekin jarri ziren bidean ilunabar misteriotsu, mendi magalean zabaltzen den hiriaren zarataz betean, eta, izaiez inguratuta gailurra, izarretatik hurbil dagoen Jakkotik datorren haize freskotan. Etxeetako argiek, maila guztietan barreiatuta, bigarren ortzi bat osatzen zuten, nolabait esateko. Argi batzuk finkoak ziren eta beste argiak berriz afaltzera kanpora zihoazen ingeles arduragabe, eta ahots ozeneko *rickshaw*-etatik zetozen.

— Hementxe da —esan zuen Kimen gidariak, eta kale nagusiaren mailan zegoen atari batean gelditu zen. Aurrean ez zegoen aterik, ale eta junkoz osaturiko gortinak baizik, barrutik zetorren argia banatzen zutelarik.

— Etorri da —esan zuen mutilak, suspirio bat baino ahots ozenxeagoz, eta desagertu egin zen. Ziur zegoen Kim hasiera-hasieratik zegoela mutil hura bera gidatzeko jarrita, baina, ausart agertu nahian, gortina apartatu zuen. Bizar beltzekiko

gizon bat zegoen mahai batean eserita, bisera berde bat zuela begien aurrean; banaka-banaka, esku txiki zuriz, argi bolatxoak hartzen zituen eta zilarrezko hari distiratsu batean sartu, bitartean berekiko kantari. Kim konturatu zen argi zirku-luaren atzean Ekialdeko eliza guztien usaina zerien gauzez beteta zegoela gela. Musketa ahokada, osasun belar hatsaldi bat eta jasmin bafada eztitsu batek hartu zituzten bere sudur-zulo irekiak.

— Hemen naiz —esan zuen azkenean Kimek, bertako hizkuntzaz: usain haiek ahantzarazi egin zioten sahib behar zuela izan.

— Hirurogeita hemeretzi, laurogei, laurogeita bat —kontatzen zuen gizonak bere artean, perla bat bestearen atzetik sartzearekin batera, horren bizkor non Kimek ezin baitzien ia behatzei jarraitu ere egin. Bisera berdea kendu zuen eta Kimi begira-begira geratu zitzaion minutu erdi oso batez. Begi-niniak zabaldu eta estutu egiten zitzaizkion orratz-buru bihurtu arte, bere borondatez egingo balu bezala. Bazen fakir bat Taksaliko Ateetan dohain horixe zeukana: dirua ateratzen zuen hartatik, batez ere emakume

ergelak madarikatzen zituenean. Kimek interesez begiratzen zion. Bere izen txarreko lagun hark belarriak ere mugi zitzakeen, ahuntzak bezala ia-ia, eta desilusionaturik geratu zen gizon honek ezin zuela hura imitatu ikustean.

— Ez beldurrik izan —esan zuen Lurgan sahibak bat-batean.

— Zergatik izan behar dut bada beldur?

— Hemen egingo duzu lo gaur gauean, eta nirekin egongo zara Nucklaora itzultzeko garaia izan arte. Agindua da.

— Agindua da —berresan zuen Kimek—. Non egingo dut lo?

— Hemen, gela honetan —Lurgan sahibak eskuari eragin zion atzean zuen ilunaren aldera.

— Ondo da —esan zuen Kimek lasai—. Orain?

Gizonak baietz egin zuen buruaz eta buru gainera jaso zuen kriseilua. Argiak hartu ahala, deabru dantzetarako maskara bilduma tibetar bat agertu zen, ospakizun ikaragarri horietarako erabili ohi diren deabruz hornituriko arropa brodatu gainean zintzilik: maskara adardunak, kopeta zimurtuta duten maskarak, edo gizakiz gainekeo ikara adierazten duten maskarak. Zoko

batean, gerlari japoniar batek, armadura eta lumekin, mehatxu egiten zion alabarda batez, eta lantza, *khandā* eta *kuttar* sail batek itzultzen zuen argi dardaratia. Baina gauza haiek baino gehiago beste bat interesatu zitzaion Kimi —ikusita baitzeuzkan deabru dantzen maskarak Lahoreko museoan—, begi samurreko ume hindua atarian begiztatzea, zangoak gurutzatuta perlen mahaiaren azpian eserita, irribarre txiki bat zuela ezpain gorrietan.

«Uste dut Lurgan sahib ni ikaratu nahian dabilela. Eta ziur naiz mahai azpiko deabru txiki horrek ikaratuta ikusi nahi nauela».

— Leku hau —esan zuen ozen—, Etxe Miragarrri bat bezalakoa da. Non dut ohea?

Lurgan sahibak zokoan zegoen estalki indiar bat seinalatu zuen, maskara espantagarrien ondoan; kriseilua hartu eta ilun-iluna utzi zuen gela.

— Hori al zen Lurgan sahib? —galdetu zuen Kimek etzaterakoan.

Ez zen erantzunik izan. Sumatzen zuen ordea mutiko hindua arnasa hartzen, eta, soinuari

jarraiki, arrastaka joan zen lurretik, eta zaplastako bat eman zuen ilunpetan, oihuka:

— Erantzun, deabru alaena! Horrelako gezurrak esaten al zaizkio sahib bati?

Barre txiki baten soinua entzuten zela ilunpetan iruditu zitzaion. Ezin zitekeen izan bere haragi samurreko adiskidea, negar-zotinka ari baitzen hura. Hala, ahotsa jasoz, esan zuen Kimek garrasika:

— Lurgan sahib! Lurgan sahib! Agindua al da zure zerbitzariak niri ez hitz egitea?

— Agindua da —atzetik etorri zitzaion ahotsa, eta Kim harritu egin zen.

— Oso ondo. Baina gogoan izan —murmurikatu zuen, tapakiaren bila zebilen artean—, goizean astinduko zaitut. Ez ditut hinduak maite.

Ez zen hura oso gau alaia izan, ahots eta musikaz bete-bete egin da baitzegoen gela. Bi bider esnatu zuen Kim bere izena esaten zuen norbaitek. Bigarren aldian ahots haren bila hasi zen, eta azkenean sudurraz jo zuen giza hizkuntzaz, baina ez giza ahoskeraz, mintzatzen zen kutxa bat. Latoizko turuta batean bukatzen zela kutxa zirudien, eta hari batzuen bitartez lurrean

zegoen kutxa txikiagoren batekin lotuta zegoela, Kimi behatzez ukituz iruditzen zitzaionez behintzat. Eta ahotsa, oso zakarra eta durunditsua, turutatik ateratzen zen. Kimek sudurra igurtzi zuen eta amorru bizian jarri zen, ohi bezala, hindieraz pentsatuz.

«Hau ona izan liteke azokako eskale batekin, baina... ni sahiba naiz eta sahiben semea, eta, hori baino askoz gehiago dena, Nucklaoko ikasle. Bai» (hemen ingelesera itzuli zen), «St Xavierrekoa. Madarikatuak Mr Lurganen begiak! Makinaren bat da, josteko makinaren antzekoa. Azala gogorra du, bai... Baina ez gara ez horren erraz ikaratzen Lucknowen... Ez!». Gero hindieraz: «Baina zer irabazten du horrekin? Merkataria besterik ez da... Ni bere dendan nago. Baina Creighton sahib koronela da... Eta nire ustez Creighton sahibak eman zuen agindua. *Nola* astinduko dudan hindu hori goizean! Zer da hori?»

Turutaren kutxa Kimek inoiz entzun ez bezalako irain landuak ari zen botatzen ahots altu arduragabez, eta une batez lepondoko ile txikiak altxa erazi zizkion. Izaki lizun hura arnas hartze-

ra gelditu zenean, Kim lasaitu egin zen josteko makinen antzeko durundi leuna entzutean.

— *Chûp!* (isilik) —egin zuen oihu, eta berriz ere erabakiorra iruditu zitzaion barre txiki bat entzun zuen—. *Chûp!* Bestela zanpa-zanpa egingo dizut burua.

Kutxak ez zion jaramonik egin. Kimek tirazo bat eman zion latoizko turutari eta zerbait altxatu egin zen klik batez. Taparen bat altxatu zuen noski. Deabruren bat baldin bazen han barruan, huraxe zuen une aproposa, ezen —usaindu egin zuen— usain berbera baitzerien azokako josteko makinei. Akabatu egingo zuen *shaitan* hura. Jaka kendu eta kutxaren ahoan sartu zuen. Gauza luze eta biribil bat makurtu egin zen zamaren azpian, soinu bat entzun zen eta ahotsa isildu egin zen, ahotsei gertatu ohi zaien bezala hiru bider tolesturiko jaka batez egiten bazaie eraso fonografo garesti baten argizarizko zilindro eta hozkadurei. Arima lasaiaz amaitu zuen Kimek loaldia.

Goizean ohartu zen Lurgan sahib begira zeukala.

— Aaa! —esan zuen Kimek, bere sahibgoari heltzera erabakita—. Bart irainka aritu zait kutxa bat. Eta isilarazi egin dut. Zurea al zen?

Gizonak eskua luzatu zion.

— Tori bostekoa, O'Hara —esan zuen—. Bai, nire kutxa zen. Nire adiskide rajak atsegin ditzutela edukitzen ditut horrelako gauzak. Horko hori hautsita dago, baina merkea zen. Bai, nire adiskideak, erregeak, oso jostailu zaleak izaten dira... eta ni ere bai batzuetan.

Kimek begi ertzetik begiratu zion. Sahiba zen Lurgan, sahiben arropak zeramatzan tamainan; ordea urdueraren ahoskerak, eta ingelesaren intonazioak sahib ez beste edozer zela ematen zuten aditzera. Ematen zuen Kimek buruan zeukana hitz egiteko ahoa zabaldu baino lehen asmatzen zuela, eta ez zen nekatu gauzak esplikatzeko Victor aita edo Lucknoweko maisuek egiten zuten bezala. Eta denetan gozoena: Kim, asiar zen aldetik, bera bezalakoxea balitz bezala tratatzen zuen.

— Sentitzen dut, baina gaur goizean ezingo duzu nire mutila astindu. Labana edo pozoiz hilko zaituela esaten du. Inbidiaz dago, eta zoko-

ra bidali dut eta gaur ez diot hitzik egingo. Ni hiltzen saiatu da oraintxe bertan. Gosariarekin lagundu behar didazu. Inbidia handiegia du horrek ezertan sinesteko.

Ingalaterratik etorritako benetako sahib batek sekulako istiluak sortuko zituen istorio harekin. Lurgan sahibak esan egiten zuen besterik gabe, Mahbub Alik bere iparraldeko saltsa txikiak kontatzen zituen bezalaxe.

Dendaren atzeko ataria mendi-aldapa pikua-
ren gainean zegoen eraikita, eta auzokoen ke-
bideak ikusten ziren handik, Simian ohi den
eran. Baina Lurgan sahibak berak egositako
benetako persiar jatekoak baino, dendak zora-
tzen zuen Kim. Handiagoa zen Lahoreko
museoa, baina hemen gauza miragarri gehiago
zegoen: Tibeteko mamuen dagak eta otoi egite-
ko gurpilak; turkesa eta anbar gordineko koila-
reak; jade berdezko eskumuturrekoak; intsentsu
makilatxoak bitxiki paketatuak granate gordina
tartekatua zuten ontzietan; bezperako deabruen
maskarak eta tapiz urdin biziz beteriko horma;
Budaren irudi urre kolorekoak, eta esku-aldare
lakatuak; errusiar samovarrak, turkesez hornitu-

ta estalkiak; portzelana delikatuzko jokoak kanaberazko kutxa oktogonal bitxietan; marfil horizko gurutzeak, Japonia eta mundu osotik ekarriak, hala esan zuen Lurgan sahibak: hautsez gainezka zeuden fardeletan bilduriko alfonbrak, usain beldurgarriarekin, marrazki geometrikoa zuten bionboen atzean baztertuta; jandakoan eskuak garbitzeko persiar ontziak; kobre matezko intsentsu ontziak, ez txinatarrak ez persiarrak, deabru harrigarri sail bat korrika zutela inguruan; distira gabeko zilarrezko gerrikoak, landu gabeko larrua bezala lotzen zirenak; jade, marfil eta kaltzedoniozko orratzak; era eta mota guztietako armak, eta beste mila bitxikeria zeuden kaxetan sartuta, pilatuta, edo besterik gabe gelan botata, leku txiki bat bakarrik utziz libre Lurgan sahibak lan egiten zuen mahai hondatua-
ren inguruan.

— Hori dena hutsa da —esan zuen Lurganek, Kimen begiratuari jarraiki—. Ederrak direlako erosten ditut, eta batzuetan saldu ere egiten ditut... eroslearen itxura atsegin badut. Nire lana mahai gainean dago... lanaren zati bat.

Distira egiten zuten goizeko argitan: distira gorriak, urdinak, berdeak, noizbehinkako diamante baten sugar zuri-urdinarekin nahastuta. Kimek begiak zabaldu zituen.

— A, bai, ondo daude harri horiek. Eguzkia hartzeak ez die kalterik egingo. Merkeak dira gainera. Baina harri gaixoekin gauzak desberdinak dira oso —berriz bete zuen Kimen platera—. Ni bakarrik naiz perla gaixoak sendatu eta turkesak berriz urdintzeko gauza. Ez ditut tartean opaloak sartzen, opaloak edozein txorok senda baititzake... baina perla gaixo batentzat ni naiz bakarra. Pentsa, ni hilko bainintz! Orduan ez litzateke inor izango... Ez, ez! Zuk ezin duzu ezer egin bitxiekin. Aski izango duzu egunen batean turkesez zerbait jakitearekin... egunen batean.

Atariaren beste aldera mugitu zen irazkitik buztin porotsuzko ur-ontzi astuna berriz betetzerara.

— Nahi al duzu edan?

Kimek baietz egin zuen buruaz. Lurgan sahibak, bost metrotara, esku bat jarri zuen ontzi gainean. Hurrengo unean, Kimen ukondoaren ondoan zegoen ontzia, goraino beteta ia: mantel

zurian, zimur txiki batek bakarrik erakusten zuen nondik irristatu zen ontzia bere lekuraino.

— Hara! —esan zuen Kimek, guztiz harrিতා—. Hori magia da —Irribarrean ezagun zuen Lurgan sahibak pozez hartu zuela konplitu hura.

— Bota berriz hona.

— Hautsi egingo da.

— Bota hona, esan dizut.

Edozein eratarata bota zuen Kimek. Motzegi geratu zen eta berrogeita hamar puskatan hautsi zen, ura atariko zolu landu gabea isurtzen zen artean.

— Esan dizut hautsi egingo zela.

— Berdin dio. Begiraiozu. Begiraiozu zatirik handienari.

Zati handienak ur distira ageri zuen biraguan, lurrean zegoen izar bat balitz bezala. Kim adi-adi zegoen begira. Lurgan sahibak esku bat jarri zion poliki-poliki lepoan Kimi, bizpahiru bider igurtzi zuen, eta xuxurlatu zion:

— Ikusi! Osatu egingo da berriz zatika-zatika. Lehenbizi zati handia eskuinekoa eta ezkerrekoarekin batuko da, eskuinekoa eta ezkerrekoarekin. Ikusi!

Bere bizitza salbatzeko ere ez zukeen Kimek burua jiratuko. Ukitu arin hark iltzez josita balego bezala zeukan hartuta, eta odolak hazkura gozoa egiten zion zainetan. Txarroaren zati handi bat ageri zen orain lehen hiru zeuden lekuan, eta haien ganean berriz ontzi osoaren irudi lausoa. Ikusten zuen Kimek ataria pusketen bestaldean, baina ikuskizun hura astundu eta iluntzen ari zitzaion odol-taupada bakoitzarekin. Hala ere ontzia —zeinen mantso zetozkion pentsamenduak!—, ontzia bere begien aurrean apurtu zen. Beste sugar kilikari batek igurtzi zion lepoa, Lurgan sahibak eskua mugitu ahala.

— Ikusi! Ari da tankera hartzen —esan zion Lurgan sahibak.

Ordura arte Kim hindieraz pentsatzen aritu zen, baina dardara-ikara bat gaineratu zitzaion eta igerilari batek tiburoiak ikustean dituenegitan dituen ahaleginak eginez, bere burua uretatik erdizka atereaz, irensten ari zen iluntasunetik jauzi egin zuen Kimen gogoak eta babes hartu zuen... ingeleseko biderketa taulan!

— Ikusi! Ari da tankera hartzen —xuxurlatu zion Lurgan sahibak.

Ontzia apurtu egin zen... bai, apurtu... ez hinderazko hitza, ez zuen hartan pentsatuko, apurtu, berrogeita hamar piezetan, eta hiru bider bi sei, eta hiru bider hiru bederatzi, eta hiru bider lau hamabi. Etsi-etsian lotu zitzaion errepikape-nari. Ontziaren irudi lanbrotsua desagertu egin zen, begiak igurtzitakoan lainoa desagertzen den bezala. Hantxe zeuden zati apurtuak; hantxe eroritako ura eguzkitan lehortzen, eta ataria-ren zoruko pitzaduretatik, marretan, beheko etxearen horma zuria ageri zen... eta hiru bider hamabi hogeita hamasei!

— Ikusi! Ari al da tankera hartzen? —galdetu zion Lurgan sahibak.

— Baina apurtuta dago... apurtuta —esan zuen Kimek arnasestuka. Azken minutu erdiaz marmar isilean jarduna zen Lurgan sahiba. Kimek alde batera jiratu zuen burua—. Ikusi! *Dekho!* Horra hor, lehen bezalaxe.

— Horra hor, lehen bezalaxe —esan zuen Lurganek, Kimi begira-begira mutilak lepoa igurzten zuen artean—. Baina zu izan zara askoren artean horrela ikusi duen lehena —kopeta zabaleko izerdia xurgatu zuen.

— Magia al zen hori ere? —galdetu zuen susmakor Kimek. Joanda zeukan zainetako hazkura; ohi ez bezain esna sentitzen zen.

— Ez, ez zen magia. Zera besterik ez zen, bitxiak akatsik ba ote zeukan ikustea. Batzuetan oso bitxi ederrak txiki-txiki egiten dira eskuetan hartu eta nola egin baldin badaki batek. Horregatik kontuz ibili beharra dago bitxia kokatu aurretik. Esadazu, ikusi al duzu txarroaren forma?

— Une batez bai. Lorea lurretik bezala hazten hasi da.

— Eta zer egin duzu orduan? Alegia, zer bururatu zaizu?

— A! Banekien apurtuta zegoela, eta uste dut horixe bururatu zaidala... eta apurtuta zegoen.

— Um! Egin al dizute inoiz horrelako magia-rik?

— Hala balitz —esan zuen Kimek—, berriz egiten utziko niokeela inori uste al duzu? Ihes egingo nuke.

— Baina orain ez zaude ikaratuta, ezta?

— Orain ez.

Lurgan sahibak inoiz baino hurbilagotik begiratu zion.

— Mahbub Aliri galdetuko diot... orain ez, geroago —murmurikatu zuen—. Pozik nago zurekin... bai; eta pozik nago zurekin... ez. Libratu zaren lehena izan zara. Jakin nahi nuke zer izan den... Baina arrazoi duzu. Ez diozu hau inori kon-tatu behar... ezta niri ere.

Dendaren ilunpetara jiratu eta mahaian eseri zen, eskuak poliki igurtziz. Alfonbra mordo baten atzetik intziri ahul lakar bat heldu zen. Mutil hinda zen, txintxo-txintxo hormari begira. Sorbalda txikiak dardarka mugitzen zitzaizkion nahigabeaz.

— A! Jeloskor dago, oso jeloskor. Ez dakit ez ote nauen berriz ere gosaritan pozoitu nahiko, eta gosaria bi bidet presta erazi.

— *Kubbi... kubbi nahin.* (Inoiz... inoiz ez!) — heldu zen totelka erantzuna.

— Eta beste mutila hilko ote du?

— *Kubbi... kubbi nahin.*

— Zuk zer uste duzu egingo duela? —Kimen-gana jiratu zen Lurgan bat-batean.

— A! Ez dakit. Joaten utzi, beharbada. Zergatik nahi zintuen pozoitu?

— Oso maite nauelako. Eman dezagun zuk norbait oso maite duzula, eta beste mutil bat ikusten duzula etortzen, eta maite duzun gizona gusturago dago horrekin zurekin zegoen baino, zer egingo zenuke?

Kim pentsatzera jarri zen. Lurganek hindieraz errepikatu zuen poliki esaldia.

— Nik ez nuen gizon hori pozoituko —esan zuen Kimek pentsakor—, ordea, mutila astinduko nuke, mutil horrek gizona maite *baldu* bazuen. Baina lehenbizi mutilari berari galdetuko nioke.

— A! Berak uste du denek maite behar nautela.

— Orduan zoro hutsa dela iruditzen zait.

— Entzun al duzu? —esan zien Lurgan sahibak sorbalda dardaratiei—. Sahibaren semeak zoro hutsa zarela uste du. Atera hortik, eta hurrena kezkarik duzunean bihotzean, ez saiatu artseniko zuria horren agerian erabiltzen. Dasim deabrua mahaiko jauna izan dugu gaur noski! Gaixotu egin nintzatekeen, ume, eta orduan eze-

zagan batek hartuko zukeen bitxien ardura. Zatoz!

Umea, negarraren negarrez begiak hazita, fardelaren atzetik atera zen arrastaka eta bere burua bota zuen lehiatsu Lurgan sahiben oinetara, halako bihotz zimikoa erakutsiz, non Kim bera ere hunkitu egin baitzen.

— Tinta putzuetan begiratuko dut... Leialtasunez zainduko ditut bitxiak. O, aita eta ama zaitudan hori, bidali *hori* hemendik! —Kim seinalatu zuen oin hutsa atzeraka astinduz.

— Oraindik ez... oraindik ez. Laster joango da. Baina orain eskolan dago, *madrissah* berri batean, eta zu izango zara maisua. Ibili bere aurka Bitxien Jolasean. Nik eramango ditut kontuak.

Umeak segituan lehortu zituen malkoak, eta dendaren atzealdera joan zen, kobrezko erretilu batekin itzuliz.

— Eman! —esan zion Lurgan sahibi—. Etor daitezela zure eskutik, bestela lehendik ezagutzen nituela esan lezake eta.

— Poliki... poliki —erantzun zuen gizonak, eta mahai azpiko kajoi batetik aterata erretilua dar-

daratu zuen txikikeria eskukada bat jarri zuen bertan.

— Orain —esan zuen umeak, egunkari zahar bati eraginez—. Nahi adina luze begiraiezu, arrotz horrek. Konta itzazu, eta behar baduzu, eskuetan hartu. Begiratu bat nahikoa dut nik —bestaldera begira jarri zen harro-harro.

— Baina zer da jolasa?

— Denak kontatu dituzunean eta eskuetan hartu eta ziur zaudenean denak gogora ditzakezula, nik paper honekin estaliko ditut, eta zuk Lurgan sahibi deskribatu beharko dizkiozu. Nik neure deskribapena idatzi egingo dut.

— Hara! —lehiaketa sena ernatu zitzaion Kimi bularrean. Erretiluaren gainean makurtu zen. Hamabost harri baino ez zegoen han.

— Erraza da hori —esan zuen minutu baten ondoren. Umeak bitxi distiratsuen gainean jarri zuen papera eta indiar koaderno batean hasi zen presaka idazten.

— Paper horren azpian bost harri urdin daude: handi bat, beste bat txikiagoa, eta hiru txiki —esan zuen Kimek oso bizkor—. Lau harri berde daude, eta bat zulo batekin; harri hori bat

dago, gardena, eta bat pipa baten tutua bezalako. Bi harri gorri daude, eta... eta... hamabost kontatu ditut, baina bi ahaztu egin zaizkit. Ez! Eman denbora. Bat marfilezkoa zen, txikia eta arrea; eta... eta... eman denbora...

— Bat... bi —Lurgan sahibak hamar arte kontatu zuen. Kimek buruari eragin zion.

— Entzun niri! —moztu zuen umeak, barrez lehertzen—. Lehenbizi, badira bi zafiro akatsak dituztenak: bat bi kilateetako eta bestea lauokoa nik uste. Lau kilateetako zafiroa zanpatua dago ertzean. Bada Turkestaneko turkesa bat, laua eta gabarro beltzekin, eta badira bi idazkiekin: bata Jainkoaren izenean urretan eginda eta bestea alde alde pitzatuta dago, eraztun zahar batetik baitator, eta ezin izan dut irakurri. Horiek ditugu bost harri urdinak. Badira lau esmeralda, akastunak, baina bat zulatuta dago bi lekuetan eta beste bat landuta...

— Pisuak? —galdetu zuen Lurgan sahibek sorgor.

— Hiru, bost, bost, eta lau kilate nik uste. Bada anbar puska zahar bat, berdetsua, pipa baterako, eta Europako topazio bat. Burmako

rubi bat ere bada, bi kilateetakoa, akatsik gabea, eta balas-rubi bat, akatsekin, bi kilateetakoa. Txinako marfil landu bat dago, arrautza bat irensten ari den sagu bat irudikatuz; eta azkenik dago... ja, ja! kristalezko bola bat dago ilar ale baten tamainakoa urrezko hosto batean txertatuta.

Bukaeran txalo egin zuen.

— Hori duzu maisua —esan zuen Lurgan sahibak, irribarrez.

— Hara! Badakizki harrien izenak —esan zuen Kimek gorrituz—. Saia gaitezen berriz! Baina bai berak eta bai nik ezagutzen ditugun gauza arruntekin.

Berriz bete zuten erretilua dendatik hartutako gauzeekin, eta baita sukaldekoekin ere, baina umeak irabazten zuen beti, Kim zeharo harrituta utziz.

— Estalizkidazu begiak, utzi behatzekin behin ukitzen, eta horrela ere atzera utziko zaitut, begiak zabalik badauzkazu ere —egin zion umeak erronka.

Kimek zorua oinaz jo zuen ernegatuta mutikoak arrandiaz esandakoa bete zuenean.

— Gizonak balira... edo zaldiak —esan zuen—, hobeto jolastuko nuke. Horrela jolastea, pintza, labanak eta guraziekin, hori gutxiegi da.

— Lehenbizi ikasi, eta gero irakatsi —esan zuen Lurgan sahibak—. Hartzen al duzu hau maisutzat?

— Jakina bada. Baina nola egiten da?

— Askotan eginez, ezin hobeto egiten den arte, merezi baitu.

Mutil hinduak, primerako umorean, bizkarrean jo zuen Kim.

— Ez etsi —esan zion—. Neronek erakutsiko dizut.

— Eta arduratuko naiz ni ondo ikas dezazun —esan zuen Lurgan sahibak, oraindik ere hindie-raz hizketan—, zeren, nire mutikoa izan ezik... zorakeria handia egin du horrenbeste artseniko zuria erosiz, ezen, eskatu izan balu neronek emango nion eta..., nire mutila izan ezik, ez dut aspaldian inor ezagutu irakastea horren merezi-ta zeukanik. Eta hamar egun geratzen dira ezer garrantzitsurik ikasten ez den Lucknao horretara itzuli aurretik. Adiskideak izango garela uste dut.

Ez hanka eta ez buru ez zuten hamar egun izan ziren, baina Kim gehiegi ari zen gozitzen eromen hartan pentsatzeko. Goizetan Bitxien Jolasean ibiltzen ziren, batzuetan egiazko harriekin, zenbaitetan ezpata eta laban mordoeekin, besteetan berriz bertako gizonen argazkiekin. Arratsaldeetan Kim eta mutikoa zelatan egoten ziren dendan, alfonbra fardel bat edo bionbo baten atzean isil-isilik eserita, eta Mr Lurganen bisitari ugari eta bitxiei begira. Baziren raja txikiak, segizioa atarian eztulka zutela, bitxikeriak erostera etorri ohi zirenak, fonografoak eta jostailu mekanikoak. Baziren koilare bila joaten ziren emakumeak, eta gizionezkoak, halaxe irudituz zitzaion Kimi —nahiz eta bazitekeen gazte ikasten hasi izanak bere pentsaera gaiztotu izana— emakume haien bila joaten zirenak; bazen feudopeko gorte libreetako jendea, zeinen ageriko jarduera koilare hautsiak konpontzea baitzen —argitasunezko ur-lasterrak, mahai gainean isurita—, baina benetako asmoa dirua biltzea zuten Maharani haserrekor edo raja gazteentzat. Baziren *babu*-ak; haiekin Lurgan sahibak seriotasun eta aginpidez hitz egiten zuen,

baina elkarrizketa bakoitzaren ondoren dirua ematen zien zilarrezko txanponetan eta txartele-
tan. Noizean behin izaten ziren jantzi luzeko
indiar harrigarri batzuen bilkurak, eta ingelesez
eta bengalieraz metafisikaz jarduten zuten, Mr
Lurganen onbiderako. Beti egoten zen Mr Lurgan
erlijioetan interesatuta. Egunaren buruan, Kimek
eta mutil hinduak —haren izena Lurganen gus-
tuen arabera aldatzen zen—, ikusi eta entzunda-
ko guztiaren kontu zehatza eman behar zuten:
nolakoa ikusten zuten gizon bakoitzaren izaera,
aurpegian, hizkeran, jarreran ageri zenez, eta
benetako izan zitekeen asmoa zer ote zuen esan
behar zuten. Afal ondoan, Lurgan sahiben irudi-
menak mozorroak dei litekeenera jotzen zuen,
eta oso interes formatzailea jartzen zuen jolas
horretan. Aurpegiak zoragarri margotzen zituen;
pintzelkada bat hemen eta marra bat han, ezin
ezagutu ahal izateko moduan aldatzen zituen.
Era guztietako jantzi eta durbantez josita zegoen
denda, eta bata bestearen atzetik bihurtu zen
Kim familia oneko mahomatar gaztea, olio sal-
tzailea, eta behin, ilunabar alai batean, *oudh* lur-
jabe baten semea, festa handirako jantzita. Oso

begi zorrotza zuen Lurgan sahibak makillajeren akatsik txikienari igartzeko; eta teka egurrezko sofa zartatu batean etzanda, ordu erdi ematen zuen mutilei esplikatzan nola hitz egiten zuten halako eta halako kastakoek, edo ibili, edo eztul egin, edo listua bota, edo doministiku egin, eta, «nola»-k mundu honetan garrantzi handirik ez duenez gero, guzti haren «zergatik»-a. Mutil hindua motela zen jolas hartan. Haren adimena, bizi-bizia jolasak bitxien deskribapenarekin zerikusia zuenean, ez zen beste baten ariman sartzeko gai; baina Kimen baitan berriz deabru bat esnatu zen eta pozaren pozez kantari aritzen zen bestelako jantziak janzten zituenean, eta jantziekin batera hizkera eta keinuak aldatzen.

Gogo beroak eramanda, ilunabar batean Kimek Lurgan sahibi erakutsi nahi izan zion nola aritzen ziren eskaka bide ertzean fakir kasta jakin bateko dizipuluak, Kimen aspaldiko ezagunak; eta nolako hizkera erabiliko luketen ingeles bat, festara zihoan punjabiar nekazari bat, eta belorik gabeko emakume batekin. Lehertu beharrean aritu zen barrez Lurgan sahib, eta erregutu zion Kimi egoteko zegoen bezala, ordu erdiz

mugitu gabe, zangoak gurutzatuta, errautsez estalita eta ero begiratu harekin, atzeko gelan. Denbora pasatakoan *babu* erraldoi, lodi bat sartu zen: zangoak, galtzerdiekin, dardara egiten zioten gantzarekin; Kimek bide ertzeko txiste zaparrada batez hartu zuen. Lurgan sahibak —eta horrek molestatu egin zuen Kim—, babuari begiratzen zion eta ez antzerkiari.

— Uste dut —esan zuen poliki babuak, zigarro bat piztuz—... nire iritzian honako hau aktua-zio harrigarria eta ezin hobea da. Lehenago esan ez bazenit, usteko nuen, zera... adar joka ari zinela. Gutxi gora behera, noiz bihur liteke mutila lur-neurketa laguntzaile trebea? Orduan eskaera aurkeztuko dut eta.

— Horixe da Lucknowen ikasi behar duena.

— Orduan aginduiozu tximista baino biziago ibiltzeko. Gabon, Lurgan —lokatzetan trabaturiko behi baten mugimenduak eginez atera zen babua.

Eguneko bisitarien zerrenda aztertzen ari zirenean, Lurgan sahibak galdetu zion Kimi ea zein uste zuen izan zitekeela gizon hura.

— Jainkoak daki! —esan zuen Kimek alai. Tonu hark nahas zezakeen Mahbub'Mi, baina huts egin zuen ordea perla gaixotuen sendatzailerarekin.

— Hori egia da. Jainkoak bai, Hark badaki; baina zuk zer uste duzun jakin nahi dut nik.

Kimek zeharka begiratu zion bere lagunari, begi haiek egia eskatzen baitzioten.

— Nik... nik uste dut berarekin nahi nauela eskolatik itzultzen naizenean, baina —konfiantzaz, oniritziz mugitzen baitzuen burua Lurgan sahibak—, ezin dut ulertu nola eraman ditzakeen horrek jantzi asko eta hizkuntza desberdinez mintzatu.

— Geroago gauza asko ulertuko duzu. Koronel jakin bati istorioak idazten jarduten du. Jaun hori Simian bakarrik da handia, eta nabarmena da izenik ez duela, aldiz, zenbaki bat eta letra bat besterik ez... gure arteko usadioa da hori.

— Eta horren buruak ere prezioa al dauka, Mahbub eta beste guztienak bezala?

— Oraindik ez; baina orain hementxe eserita dagoen mutil bat zutitu eta joan egingo balitz... ikusi, zabalik dago atea!... gorriz margoturiko

ataria duen etxe jakin batera, Beheko Azokako antzoki zaharra zenaren atzean, eta leihatiletatik xuxurlatu: «Hurri Chunder Mukerjik albiste txarrak ekarri ditu aurreko hilabeteaz», baliteke mutil horrek rupiaz betetako gerrikoa eramatea.

— Zenbat? —galdetu zuen Kimek bizkor.

— Bostehun, edo mila, eskatu bezainbeste.

— Ondo. Eta zenbat denboraz bizituko litzateke mutil hori albistek eman ondoren? —alai-alai egin zion irribarre Kimek Lurgan sahibaren bizarrari.

— A! Hori ondo pentsatzekoa da. Oso bizkorra balitz, egun osoz bizituko litzateke... baina ez gauaz. Gauaz mola ere ez.

— Orduan zenbat ordaintzen zaio babuari bere buruak horrenbeste balio baldin badu?

— Laurogei... ehun beharbada... agian ehun eta berrogeita hamar rupia; baina ordaina azkeneko gauza da lanean. Behin edo behin, Jainkoak jaio erazten ditu, eta horietakoa zara zu, atzerri joan eta berriak deskubritzeko gutizia duten gizonak, baita beren bizitzak arriskuan jartzen badituzte ere; gaur oso urrutiko gauza izan liteke, ezkutuko mendiren batzuetakoa bihar, eta

hurrengo egunean Estatuaren aurka zorakeria-
ren bat egin duten hurbileko gizonak. Halako ari-
mak eskasak dira; eta gutxi horietatik, ez dira
hamar baino gehiago onentsuenen artean.
Hamar horien artean babua daukat nik, eta hori
gauza bitxia da. Eta horrexegatik, zeinen handia
eta desiragarria behar duen izan bengaliar baten
bihotza adorez betetzen duen lana!

— Egia. Baina egunak mantso igarotzen zaiz-
kit. Gaztea naiz, eta bi hilabete ere ez dira
angrezi-z idazten ikasi nuenez geroztik. Oraindik
ere ez dakit ondo irakurtzen. Eta urteak eta
urteak eta urte luzeak dira ni lur-neurketa lagun-
tzaile izan naitekeen arte.

— Pazientzia izan, Mundu osoaren Adiskide —
Kim harritu egin zen izenarekin—. Gustura hartu-
ko nituzke nik zu horrenbeste ernegatzen zaituz-
ten urte horietako batzuk. Froga txiki desberdi-
nak egin dizkizut. Ez zait hori ahaztuko sahib
Koronelari txostena egiten diodanean —eta,
barre ozen batez ingelesera joaz bat-batean—:
Ene, O'Hara! Uste dut baduzula zuk gauza han-
diak egiteko lehengaia; baina ez duzu horratik
harrotu behar, eta ezta horretaz hitz egin ere.

Lucknowera itzuli behar duzu, mutiko zintzoa izan eta liburuaz arduratu, ingelesek dioten bezala, eta, agian, hurrengo oporretan nahi baduzu, itzuli zaitez nigana! —planta mudatu zitzaion Kimi—. A, nahi baldin baduzu esan nahi dut. Ondo asko dakit nora joan nahi duzun zuk.

Handik hamar egunetara leku bat erreserbatu zioten Kim eta bere kaiza txikiari Kalkarako *tonga* batean. Bale itxurako babua zuen bidaiailagun; oihal flekodun bat zuela buruko bueltan, eta ezkerreko zango lodiaren gainean eserita, galtzerdi kalatuekin, dardarka eta marmarka zihoan goizeko freskuran babua.

«Nola izan liteke gizon hau gutako bat izatea?» pentsatu zuen bizkar lingirdatsuari begira Kimek, bidean barrena jauzika zihoazen artean; eta burutapen hark amets gozoak ekarri zizkion. Lurgan sahibak bost rupia eman zizkion —diru mordo ederra— eta baita bere babesaren ziurtasuna lan egiten bazuen. Mahbubek ez bezala, garbi asko hitz egin zion Lurgan sahibak obedientziari jarraituko zion sariaz, eta pozik zegoen Kim. Letra eta zenbaki baten ohorea izango balu, babuak bezala, eta bere buruak prezioa! Egunen

batean guzti hori izango zuen eta baita gehiago ere. Egunen batean Mahbub Ali bezain gizon handia izan zitekeen! India erdiak osatuko zituen bere bilakuntzaren etxe gainak; Errege eta Ministroen atzetik ibiliko zen, garai batean *vakil*-ak eta abokatuen mandatarien atzetik Mahbuben aginduz ibiltzen zen bezala. Bitartean, Xt Xavierreko oraina zeukan aurrean, eta horren desatsegina ere ez zen hura. Mutil berriak izango zituen amore emateko, eta oporretako abenturen kontaera entzun ziezaioten. Martin gaztea, Manipurreko te landatzaile baten semea, esaten aritua zen borrokara joango zela, eskopeta hartuta, buru-ehiztarien kontra. Bazitekeen hala izatea, baina segurua zen Martin gazteak ez zuela iragan, su artifizialen leherkuntzak bultzatuta, Palatiako gazteluaren patio erdia; eta ezta ere... St Xavier osoa zur eta lur utz zezakeen —baita zaharrenak ere, bizarra mozten zutenak—, kontraerarekin, hartarako baimena izango balu. Baina hori dena noski aitatu ere ezin zen egin. Izango zuen bere garaian bere buruak prezioa, Lurgan sahibak ziurtatu zion bezala; eta txoro ergel bat bezala hasten bazen orain hizketan, ez

bakarrik ez zioten inoiz prezio hori jarriko, baizik eta Creighton koronelak baztertu egingo zuen, eta Lurgan sahib eta Mahbub Aliren haserrearen mende egongo zen, geratuko zitzaion bizitza zati laburrean.

«Hala, arrain batengatik Delhi galduko nuke», zen Kimen esaera zaharrez osaturiko filosofia. Orain oporrak ahaztu behar zituen (beti izango zuen abenturak asmatzea entretenitze-ko), eta, Lurgan sahibak esan bezala, lanera.

St Xavier aldera presaka zihoazen mutil guztien artean, Sukkurretik Galleraino hondarretako palmondoen atzean, inor ez zegoen Kimball O'Hara adina bertutez betea, bunbuluka Umballara zihoala Hurri Chunder Mukerjiren atzean, Etnologi Zerbitzuaren sail bateko liburuetan izena R17 zuena.

Eta beste bultzadarik beharko balu ere, babuak eman zion. Kalkan ikaragarrizko bazkaria egin ondoren, isildu gabe aritu zen hizketan. Eskolara al zihoan Kim? Orduan berak, Calcutta-ko Unibertsitatean Letretan lizentziatua baitzen, azalduko zizkion heziketaren abantailak. Oso nota onak eskura zitezkeen atentzio egokia jarriz

latina eta Wordsworthen *Ibilaldia*-n (guzti hura grekoa zen Kimentzat). Frantsesa ere oinarri-oinarrizkoa zen, eta frantsesik onena Chanderingoren ikasten zen huraxe zen, Calcuttatik kilometro batzuetara. Eta halaxe ere urrutira helzitekeen bat, berak egin zuen bezala, atentzio zehatza jarriz *Lear* eta *Julius Caesar* izeneko obretan, aztertzaileek asko eskatzen baitzituzten biak. *Lear*-ek ez zituen *Julius Caesar*-en adinako historia aipamenik; liburuak lau ana balio zituen, baina bigarren eskuko ere eros zitekeen Bow Azokan bi annatan. Hala ere Wordsworth edo Burke eta Hare autore bikainak baino garrantzitsuagoa zen neurketaren arte eta zientzia. Adar horietan azterketak gaindituriko mutil batek —hori zela eta, ez zegoen horietarako testu libururik—, itsas orratza hartuta lurralde bat zeharkatuz, sestra eta begia zorrotza izaki, lurralde horren marrazki zehatza egiteko gai zen, eta gero diru mordo baten truke, zilarrezko txanponetan, saldu ahal izango zuen. Baina batzuetan neurri-kateak ganean eramatea komenigarria ez zenez gero, ondo letorkioke mutil bati bere oin-urratsaren neurri zehatza

jakitea, eta horrela, Hurri Chunderrek «ustegabeko lagungarriak» deitzen zituenak gabe baze-
goen ere, hala ere distantziak kalkulatu ahal
izango zituen. Mila urratsen kontua eramateko,
Hurri Chunderren esperientziak erakutsiko zion
ez zela ezer laurogeita bat edo ehun eta zortzi
aleetako arrosario bat izan ere, hori «zatigarria
eta azpi-zatigarria zen multiplo eta azpi-multiplo
askotan». Ingelesezko hitz zaparrada amaigabe
hartan, harrapatu zuen Kimek hizketaldiaren
hari orokorra, eta biziki interesatu zitzaion. Han-
txe zegon gizon batek buruan gorde zezakeen
langintza berri bat, eta aurrean zabaltzen
zitzaion mundu zabalaren itxurarengatik, iruditu
zitzaion zenbat eta gehiago jakin batek, askoz
hobeto berarentzat.

Ordu t'erdiz mintzatu ondoren, esan zuen
babuak:

— Egunen batean zu ofizialki ezagutzeko
ohorea izatea espero dut. *Ad interim*, eta barka
espresioa, betel hostozko kutxa hau emango
dizut; oso gauza baliotsua da, eta duela lau urte
bi rupia besterik ez nuen ordaindu —latoizko
gauza merke bat zen, bihotz baten tankerakoa,

betelaren fruitu betirakoa, lima eta *pan*-hostoak eramateko hirutan zatitua; baina barruan pastillak zituzten botilatxoez beteta zegoen—. Gizon santu haren papera egiteagatik saria duzu hau. Begira, oso gaztea zara eta horregatik uste duzu betirako iraungo duzula eta, horretaz, ez duzu gorputza zaintzen. Kalte handia da gaixo jartzea lanean ari zarela. Medizinak oso gogoko ditut, eta jende pobrea sendatzeko ere baliagarriak dira. Medizina onak dira hauek, Zerbitzukoak, kinina eta beste batzuk. Oroigarri bezala ematen dizkizut. Orain agur. Negozio pribatu larriak dauzkat hemen ondoan.

Katu bat bezain isilik jaitsi zen Umballarako bidean, eta handik zihoan gurdi bat alokatu eta tintinen artean urrundu zen, Kimek, harridurak mutututa, latoizko kutxatxoa eskuan biraka zeukan artean.

Mutil baten heziketaren historiala ez zaio jende askori interesatzen, gurasoei izan ezik, eta, dakizuenez, umezurtza zen Kim. Idatzita dago St.Xavier in Partibuseko liburuetan Kimen

aurrerapenaren berri ematen zuen txosten bat bidaltzen zietela hiruhileko ororen amaieran Creighton koronela eta aita Victorri, apaizaren eskuetatik iristen baitzen puntualki eskolarako dirua. Liburu horietan ere ageri da gaitasun handia erakusten zuela Kimek matematika ikasketa eta kartografiarako, eta sari bat lortu zuela (*Lord Lawrenceren Bizitza*, larruz koadernatua, bi ale, bederatzi rupia, zortzi anna) haietan egindako aurrerapenarengatik; eta hilabete berean jokatu omen zuen St Xavierreko cricket taldean Alighurreko eskola mahomatarren aurka, hamalau urte eta hamar hilabete zituelarik orduan. Bigarren aldiz eman zioten halaber txertoa (eta hori dela eta pentsa genezake beste baztanga izurritea izan zela Lucknowen) garai bertsuan. Ikasle zerrenda zahar baten ertzean arkatzez egindako oharrek jasotzen dute zenbait aldiz zigortu zutela «jende desegokiarekin hitz egiteagatik», eta behin oso gogor zigortu zuten nonbait «egun batez kaleko eskale batekin kanpora joateagatik». Atariko ate gaineratik jauzi egin eta egun oso bat eman zuenean Gumtiko ibai ertzean izan zen hura; lamari erreguka aritu zitzaion, utz ziezaio-

la berarekin joaten hurrengo oporretan, hilabetez, astebetez; lamak ordea, zirkinik ere egin gabe, horretarako garaia oraindik ez zela heldu esaten zion. Kimen zeregina, esan zuen agureak elkarrekin pastelak jaten zituzten artean, sahiben jakituria guztia eskuratzea zen, eta gero ikusiko zuten. Adiskidetasunaren Eskuak nola edo hala aldenduko zuen Hondamendiaren Zartailua, ezen sei hilabete geroago Kimek gainditu baitzuen lur-neurketa azterketa bat «primerako probetxuz», hamabost urte eta zortzi hilabete zituelarik orduan. Data horrez geroztik ez dio ezer txostenak. Kimen izena ez da ageri Indiako Zerbitzu Topografikoan sartzekoak ziren taldekoen barruan, baina hala ere «izendapenez lekuz aldatuta» hitzak ageri dira txostenean.

Hiru urte horietan zenbait aldiz agertu zen lama Benareseko Tirthankar elizan, mehexeago eta apur bat horiago, litekeena balitz, baina beti bezain atsegina eta kutsatu gabea. Batzuetan hegoaldetik zetorren —Tutikorinen hegoaldetik; handik abiatu ohi dira sua daramaten itsasontzi zoragarriak Ceylanera, han baitaude paliera dakiten apaizak—; beste batzuetan mendebalde

berde hezetik eta Bombay inguratzen duten oihalen lantegien milaka tximinietatik; eta behin iparretik: mila eta berrehun kilometro egin zituen berriz atzera Etxe Miragarriko irudien gordetzailearekin egun batez hitz egiteko. Marmol freskoaren gainean pauso handiak emanaz joaten zen lama bere gelara —eliza hartako apaizek oso jator jokutzen zuten agurearekin—, bidaiako hautsa garbitu, eta Lucnowera abiatzen zen, ederki asko ohituta ordurako burdinbidera, hirugarren mailako bagoian. Itzultzerakoan, gauza nabaria zen, lamaren adiskide Bilatzaileak abadeari esan bezala, puska batean utzi egiten ziola bere Ibaiaren galaraz deitoratzeari, edo Bizitzaren Gurpilaren irudi harrigarriak egiteari, eta nahiago izaten zuen elizako inork ikusi ez zuen halako *chela* misterioitsu baten edertasun eta jakituriaz mintzatu. Bai, Oin Bedeinkatuen arrastoak jarraitu zituen India osoan barrena. (Museoko gordetzaileak badauka oraindik ere lamaren ibilaldi eta meditazioen kontaera zoragarri bat). Bizitza honetan ez zitzaion egitekorik geratzen, Geziaren Ibaia topatzea baizik. Hala ere ametsetan agertu omen zitzaion Bilakuntza batere arra-

kasta itxaropenik gabe behar zela hartu, bilatzai-
leak ondoan ez bazuen zegokion *chela* egitekoa
onik burutzeko, eta jakituria handiaz hornitua
gainera; esate baterako, ile zuriko irudien gorde-
tzaileak duena bezalakoa. Adibidez (hementxe
ateratzen zen rapearen kalabaza, eta apaiz *jain*
atseginak isildu egiten ziren segituan):

— Aspaldi-aspaldian, Devadatta Benareseko
errege zenean —adi denok *Jâtaka*-ri!—, erregea-
ren ehiztariak elefante bat eduki zuten preso
puska batean, eta, askatu baino lehen, burdin
mingarri bat jarri zioten hankan. Saiatu zen ele-
fantea burdina kentzen, suminduta eta amorruz,
eta basoetan barrena gora eta behera ibili zen,
ken ziezaiotela erreguka anaia elefanteei. Bana-
ka-banaka, beren tronpa indartsuekin, saiatu
ziren beste elefanteak baina huts egiten zuten.
Azkenean erabaki zuten burdin hura abereen
indarrik ezin zuela hautsi. Zuhaizti batean egun
bateko elefante jaio berria zetzan, jaiotzaren
hezetasunaz estalita, ama hil egin zitzaiona. Ele-
fante kateatuak, bere hilzoriaz ahaztuta, esan
zuen: «esnetako honi laguntzen ez badiot hil
gingo da gure hanken azpian». Hala bada txi-

kiaren gainean jarri zen, taldearen mugimendu urdurien aurkako hesi bihurtuz hankak; eskatu zion esnea eme zintzo bati, eta elefante kumea koxkortu egin zen, eta kateaturiko elefantea txikiaren gidari eta defendatzaile bihurtu. Baina, elefantearen bizitzan —adi denok *Jâtaka*-ri!— hogeita hamabost urte behar dira indarrera heltzeko, eta hogeita hamabost Euriz zaindu zuen gaztea elefante kateatuak, eta bitarte guzti horretan burdina gero eta barrurago sartu zitzaion haragitan.

«Eta egun batean elefante gazteak burdin ia ezkutua ikusi zuen, eta zaharrarengana jiratzuz esan zion: «Zer da hau?» «Nire betiko nahigabea da», esan zuen gaztea zaindu zuenak. Orduan besteak atera zuen tronpa eta begien ñirñir baten denboran apurtu zuen burdina, esanez: «Heldu da garaia». Halaxe bada, eraman onez itxoin eta zintzo jokatu zuen elefante bertute-tsua, libratu egin zuen, esandako garaian, berak zaintzeko apartatu zuen kumeak berak —adi denok *Jâtakari*!—, ezen Ananda baitzen elefantea, eta burdina apurtu zuen kumea Jauna Beta baitzen...»

Gero buruari eragiten zion lamak bihotz onez, eta betiko arrosario tilinkariaren gainean ohartarazten zion besteei zeinen libre zegoen harrokeriaren bekatutik elefantekumea. Apala zen lama, bere maisua Jakituriaren Ateen bestaldean ilunpetan eserita ikusirik, ateen gaintetik (nahiz eta itxita egon) iragan eta hiri harroaren aurrean bihotz-bihotzez besarkatu zuen *chela* hura bezain apala. Aberats askoa izango zen bai, halako maisua eta halako *chela*-ren saria, askatasuna elkarrekin topatzeko garaia etortzen zitzaizkion!

Halaxe mintzatzen zen lama, Indian zehar mutur batetik bestera saguzar baten leuntasunaz ibiliz. Saharunporeren atzean fruitu zuhaitzen artean zegoen etxe bateko andre mingain zorrotz batek ohore egin zion emakumeak iragarleari bezala, baina ez zioten hormaren kontrako gela eman; aurreko patioko leku batean jarri zuten, urrumaka ari ziren usoz inguratuta, emakumeak bere alferreko beloa alde batera jarri eta Kuluko izpiritu eta deabruetz berriketan jarduten zuen artean, jaio gabeko ilobez, eta mingaina oso librea zuen mukitsu batez, atsedean

lekuan berarekin hizketan aritu omen zen bat. Behin lama bera bakarrik aldendu zen Bide Handitik apaiza lama drogatzen saiatu zen herriraino, Umballa azpian; baina lamak zaintzen dituen Zeru borondatetsuak gidatu zuen ilunabarrean, bere baitan sartuta eta susmo txarrik gabe, komandante ohiaren ateraino. Han ia-ia gaizki ulertu handi samar bat gertatu zen, soldadu zaharrak galdetu baitzion lamari ea zergatik egin zuen bide hura bera Izarren Adiskideak lamak baino sei egun lehenago.

— Hori ezin liteke izan —esan zion lamak—. Bere jendearengana itzuli da.

— Txoko horretan eserita egon zen ehunka pasadizo xeblebre kontari duela bost gau —insistitu zuen ostalariak—. Egia da, egunsentian desagertu egin zen bat-batean nire ilobarekin txantxetan aritu ondoren. Bizkor asko ari da koxkortzen, baina gerraren egiazko berri ekarri zidan Izan Adiskide berbera zen. Banatu egin al zarete?

— Bai... eta ez —erantzun zion lamak—. Ez gara... ez gara erabat banatu, baina oraindik ez da heldu Bidera elkarrekin joateko garaia. Beste

leku batean ari da Jakituria bereganatzen. Itxoin egin behar dugu.

— Berdin dio... baina hura ez bazen mutila nolaz bada aritu zen zutaz etengabe hizketan?

— Eta zer esan zuen? —galdetu zuen lamak jakin-minez.

— Hitz samurrak, eta ehunka gainera, zu bere aita eta ama zarela eta horrelako gauzak. Lastima ez dela jarriko Erreginaren zerbitzura. Ezerk ez du ikaratzen.

Berri haiek txundituta utzi zuten lama, orduan ez baitzekien zeinen zintzo betetzen zuen Kimek Mahbub Alirekin egin eta Creighton koronelak indarrean legeztaturiko kontratua...

— Ez dago zaldi gaztea jokotik apartatzerik — esan zuen zaldi-tratulariak koronelak ohartarazi zionean opor garaian Indian barrena bueltaka ibiltzea zentzugabea zela—. Berak nahi bezala atzera eta aurrera ibiltzea ukatzen baldin badiogu, ez dio jaramonik egingo debekuari. Eta nork harrapatuko du orduan?. Koronel sahib, ehun urtez behin bakarrik jaiotzen da jokorako horrelako dohainak dituen zaldia. Eta gizonen beharrean gaude.

10. ATALA

Luzeegi egon da zure mirotza hegan egin gabe. Ez da lotuta jaio, pasekoa da, ehizan ibili ohi zen guk harrapatu baino lehen.

Haizeetan libre arriskuan. Bai, neurea banu (Nekaturik eskularruan jartzen zaidanean nirea dudan bezala)

Mirotz handia bailitzan egin eraziko niokeen hegan. Ondo dago

Ezin hobeto lumatuta, gizonekin horren ohituta, zailduta...

Emaiozu Jainkoak harentzat egin zuen ortzia, Eta zerk kenduko dio haizea?

Gow's Watch.

Lurgan sahibak ez zuen zuzenean esan, baina bere aholkua bat zetorren Mahbubenarekin; eta aholkuak emaitza ona izan zuen Kimentzat. Orain ez zen indiarrez jantzita ateratzen Luckonowetik, eta gutunak hel zitezkeen lekuren batean zegoenean Mahbub, harexen akanpalekura joaten zen, eta afganiarraren begirada

ernearen azpian aldatzen zuen janzkera. Topatu balu oporretako egiteen berri emateko mingai-rik Kimek eskolan erabiltzen zuen Topografia marrazki kutxa txikiak, eskolatik bidaliko zuten beharbada. Behin Mahbub eta bera Bombay hiri zoragarriraino heldu ziren, zaldiz betetako hiru bagoi zeramatzatela tranbietara, eta Mahbub pozez urtu zen ia-ia Kimek proposatu zionean *dhow* batean Indiar Ozeanoa arabiar zaldiak erosteko gurutzatzea, zaldi haiek, Abdul Rahmanen kontura bizi zen bati entzun zionez, kabuliarrak berak baino prezio hobeagotan saltzen baitziren.

Tratulari handi horrek sartu zuen erretilu berean sartu zuen Kimek eskua, Mahbub eta erlijokide batzuk *haj* afari handi batera gonbidatu zituztenean. Karatxira itsasoz itzuli ziren, eta orduantxe izan zuen Kimek itsasoko zorabioaren lehenengo esperientzia, kostako bapore baten brankako kubiertan jarrita, pozoitu egin zutela guztiz sinetsita. Babuaren sendagai kutxa sonatuak ez zion ezertarako balio izan, Kimek Bombayen bigarren aldiz hornitu zuen arren. Mahbubek negozioak zituen Quettan, eta han, afgania-

rrak onartu zuen bezala, bere soldata irabazi zuen Kimek, eta beharbada baita gehixeago ere, lau egun bitxi eman ez intendentziako sarjentu lodi baten etxean morrontzan; haren idazmahaitik hartu zuen, une egoki batean, mintzezko koadernotxo bat, eta bere hartan kopiatu —ganadu eta gameluen salmentarekin zuela zerikusia zirudien—, ilargiaren argitan, etxaleku baten atzean etzanda, gau bero oso batez. Gero bere lekura bihurtu zuen koadernoak; Mahbuben esanetan, kobratu gabe utzi zuen zerbitzua, eta bidean hamar kilometro aurrerago elkartu zen afganiarrarekin, kopia kolkoan zeramala.

— Arrain txikia da soldadu hori —azaldu zion Mahbub Alik—, baina denborarekin handia harra-patuko dugu. Idiak bi prezioetan saldu besterik ez du egiten, bata bere negozioetarako eta bestea gobernurako, baina hori ez zait bekatua iruditzen.

— Zergatik ezin nuen liburuxka hartu eta kito?

— Hori eginda ikaratu egingo zen, eta bere nagusiari kontatu. Eta guk berriz, Quettatik Iparrera doazen errifle berri mordo ederra galduko

genuke beharbada. Jokoa oso handia da, eta lagun batek une jakin batean pixka bat besterik ez du ikusten.

— A! —esan zuen Kimek, eta isildu egin zen.

Montzoiien oporretan izan zen hura, matematiketako saria jaso ondoren. Gabonetako oporrak, bere entretenimendu pribatuetarako hamar egun kenduta, Lurgan sahibarekin eman zituen, sutondo zaratatsu baten ondoan —Jakko-rako bidea metro bat elurrez estalita zegoen urte hartan— eta, hindu txikia ezkontzeko joana zenez gero, Lurgani laguntzen jardun zuen Kimek perlak harian kokatzen. Sahibak Koranaren atal osoak buruz ikasi erazi zizkion Kimi, *mullah* baten erritmo eta kadentzia berberaz esateko gai izan zen arte. Gainera, bertako droga askoren izenak eta ezaugarriak erakutsi zizkion, eta baita ematerakoan errexitatu beharreko runa egokiak ere. Gauetan sorginkeriak idazten zituen pergaminoetan, pentagrama landuak: deabruen izenez koroatuak zeuden —Murra eta Awan, Erregeen laguna—, eta idazki harrigarriak zeuzkaten ertzetan. Eta, aproposagoa zena, gorputzaren zaintzaz eman zizkion

aholkuak, sukarra sendatzekoak, eta bidaietarako sendabide errazak. Joateko eguna baino hamar egun lehenago, Creighton koronel sahibak —hura ez zen leiala izan— idatzizko azterketa bat bidali zion Kimi, neurgailu, kate, lokarri eta angeluez oso-osorik.

Hurrengo oporretan Mahbub Alirekin joan zen; egarriz hiltzekotan egon zen bidaiaria hartan, gamelu baten gainean neke handiz gurutzatzen ari zela harea Bikanirreko hiri misteriotsurantz; ehun metrotako sakonera dute han putzuek, eta gameluen hezurrez daude estalita. Kimen ikuspuntutik ez zen hura bidaiaria entretentua izan. Izan ere, eta tratuaren aurka, murailaz inguraturiko hiri basati haren mapa egitea agindu zion koronelak; eta esperagarria ez denez gero morroi mahomatar bat, eta nagusiaren pipa prestatzailea, indiar estatu libre baten hiriburua-ren inguruan lur neurketarako kateekin ibiltzea, oinekin eta arrosario aleen laguntza hutsez hartu behar izan zituen Kimek neurriak. Itsas orratza erabili zuen orientatzeko aukera izan zuenean —ilundu ondoren gehienetan, gameluak janda zeudenean—, eta bere topografia kutxatxoaren

laguntzaz, hiru margo eta sei pintzelekin, lortu zuen Jeysulmir hiriaren oso ez bestelakoa zen zerbait. Mahbubek gogotik egin zuen barre, eta txosten idatzi bat prestatzeko aholkua ere eman zion; eta Mahbuben zela kuttunenaren oihalaren azpian zegoen kontu-liburuaren azalaren gainean ekin zion Kimek lanari.

— Ikusi, ukitu edo aztertu duzun guztia hartu behar du lanak kontutan. Jang-i-Lat sahiba bera, armada osoarekin eta gerrarako prest, bat-batean agertu izan balitz bezala idatzi.

— Zer tamainatako armada?

— A, *lakh* erdi bat.

— Horixe da zorakeria! Gogoan izan zeinen eskas eta txarrak diton hondarretako putzuak. Mila gizon egarritu ez lirateke honaino hurbilduko.

— Orduan jarri hori, eta hormetako pitzadura zaharrak ere aitatu, eta egurra non dagoen, eta nolako umorea eta jarrera duen erregeak. Ni hemen egongo naiz zaldi guztiak saldu arte. Gela bat hartuko dut hiriaren sarreraren ondoan, eta zu neure laguntzailea izango zara. Sarraila ederra du gelak atean.

Txostena St Xavierreko idazkera etzan nahastezinean idatzita ageri da, eta mapa arre, hori eta gorria baliagarria izan zen duela urte gutxi (bulegari arduragabe batek artxibatu egin zuen E23k Sistanera egindako bigarren espedizioaren ohar zakarrekin); baina arkatzez idatzitakoak ulertezina behar du izan orain. Idazkia itzuli egin zuen Kimek Mahbuhentzat, olioeko krisailu baten argipean izerdi patsetan, itzul bidaiaren bigarren egunean. Afganiarra altxatu eta makurtu egin zen bere zela-zakuen gainera.

— Banekien jaietarako jantzia beharko zenuela, eta, horretaz, prestarazi egin dut — esan zion irribarrez—. Afganistango Emirra banintz (eta egunen batean hori ere ikusiko dugu beharbada), urrez beteko nizuke ahoa.

Serio-serio Kimen oinetan utzi zituen jantziak. Bazen han Peshawurreko urrez brodatutako txano bat durbanterako, kono baten tankerakoa, eta durbante oihal handi bat, bukaeran urrezko flekoak zituena. Bazen Delhiko txaleko brodatu bat esnea bezain zuria zen alkandora baten gainean jartzeko, eskuinetan lotua, zabala eta kulunkaria; praka berdeak, zeta bihurrituta-

ko gerriko batekin; eta, batere hutsunerik ez zedin izan, Errusiako larruz egindako babutxak ere baziren, usain zoragarriarekin, muturrak harro-harro goraka jasota.

— Asteazkenez, eta goizean arropa berria janzteak zoriona dakar—esan zuen Mahbubek ahots beteaz—. Baina ez zaigu ahaztu behar munduan dagoen jende gaiztoa. Beraz...

Distira guzti hura, Kimi arnasa modu zoragarrian kendu ziona, 45. errebolber batekin burutu zuen, nakar eta nikelezkoa, eta automatikoa.

— Kalibre txikiagoa neukan pentsatuta baina gero gogoratu zait gobernuaren balak hartzen dituela honek. Horiek beti lortu litezke... batez ere mugaren bestaldean. Ea, altxa eta utzidazu begiratzen —bizkarrean jo zuen Kim—. Ez ahal zara sekula nekatuko, afganiar hori! A, zenbat bihotz urratu behar dituzun zuk! A, betileen azpiko begi horiek, zeharka begira!

Kim jiratu egin zen, behatzak luzatu, tente-tente jarri, eta hazten hasita zeukan bibotea ukitu zuen oharkabean. Gero Mahbuben oinetara makurtu zen eskerrak behar bezala emateko, esku hegalarri, mugikorrez, hitzik esateko betee-

gia baitzeukan bihotza. Aurreratu eta besarkatu egin zuen Mahbubek.

— Seme... behar al dugu bada gu biok hitzik? Ez al da pistola txiki hori zoragarria? Zirkin batean ateratzen dira sei kartutxoak. Kolkoan sartuta eramaten da, larru-azalaren ondoan, nolabait esateko, larruak koipeztatua mantentzen du eta. Ez dezazula inoiz beste inon utzi, eta, Jainkoak nahi beza zuk horrekin egunen batean gizonen bat hiltzea.

— *Hai mai!* —esan zuen Kimek penan—. Sahib batek gizon bat hiltzen badu zintzilikatu egiten dute sahiba gero gartzelan.

— Bai; baina muga gurutzatu bezain agudo zuhurragoak dira gizonak. Jaso ezazu; baina kargatu lehenbizi. Zertarako balio du kargarik gabeko arma batek?

— *Madrissah*-era itzultzerakoan emango dizut berriz. Han ez dute armarik ametitzen. Zuk edukiko didazu orduan?

— Begira, seme, nekatuta nago *madrissah* horretaz, urterik onenak kentzen dizkiote eta leku horietan gizonari, bidean ez beste inon ikas litekeena erakutsi nahian. Sahiben zoramenak

ez du ez hasiera ez bukaerarik. Ez dio axola. Bali-teke txosten idatzi horrek morrontza luzeago batez libratzea; eta Jokoan gero eta gizon gehiago behar ditugula badaki Jainkoak.

Aurrera egin zuten, harea mugikorraz babes-teko ahoa estalita, gatzezko basamortutik barrena Jodhpurreraino; han Mahbubek eta Habib Ullah bere iloba ederrak salerosketa ugari egin zuten; eta ondoren, tristura handiz, gero eta txikiagoak zituen jantzi europarrekin, St Xavierreko bigarren klasera itzuli zen Kim. Hiru aste geroago, Creighton koronelak, Tibeteko mamu-ezpata batzuen prezioaz galdezka ari zela Lurganen dendan, Mahbub Ali nabarmen asaldatu bat topatu zuen. Lurgan sahibek erreserbako ordezkari bezala jokatzeko zuen.

— Eginda dago zaldia, bukatuta, jaten eta erakutsitako bidetik ibiltzen ikasita, sahib! Hemendik aurrera, egunetik egunera, ahaztu egingo zaio ikasitakoa gauzak errepikatzen behartzen badugu. Askatu hedeak eta utziozu joaten —esan zuen zaldi tratulariak—. Zaldi horren beharra daukagu.

— Baina oso gaztea da, Mahbub... hamasei urte besterik ez, ezta?

— Nik hamabost urte nituenean, hilda neukan gizon bat eta seme bat eginda, sahib!

— Zu bai jentil zahar lotsagabea! —Lurganengana jiratu zen Creighton. Bizar beltzak baiezkoa egin zion afganiarraren bizar gorri tindatuaren jakituriari.

— *Nik* aspalditik erabiliko nukeen —esan zuen Lurganek—. Zenbat eta gazteago, askoz hobeto. Horrexegatik edukitzen ditut nik benetan baliotsuak diren bitxiak ume baten ardura-pean. Hona bidali zenidan mutila frogatzearren era askotako saioak egin nizkion: eta bera izan da gauzak ikustarazi ezin izan nion mutil bakarra.

— Kristalean, ala tintontzian? —galdetu zion Mahbubek.

— Ez. Nire eskuaren azpian, esan nizun hezala. Orain arte ez da sekula halakorik gertatu. Eta horrek esan nahi du nahikoa indarra duela... (nahiz eta zuk huskeria dela pentsatu), edonori berak nahi duena eginarazteko. Eta duela hiru urte gertatu zen. Orduz geroztik gauza asko eta

asko erakutsi diot, Creighton koronela. Nire ustez, orain alferrik galtzen ari zara mutila.

— Um! Baliteke arrazoi izatea. Baina, dakizun bezala, une honetan ez dago berarentzako topografia lanik.

— Utzizue joaten... utzi joaten —moztu zuen Mahbubek—. Nork espero du bada hasiera-hasieratik zama handiak eramatea moxalak? Utzizue karabanekin joaten, gure gamelu zuri gazteekin esate baterako... horrek zorte ona ematen du eta. Neronek eramango nuke, baina...

— Bada mutila oso baliagarria izan litekeen asunto txiki bat hegoaldean —esan zuen Lurganek, oso xamur, betazal urdindu astunak erotzen utziz.

— E23-k dauka hori kontrolpean —esan zuen Creightonek bizkor—. Ez du hara joan behar. Gainera, turkieraz ez daki.

— Behar ditugun gutunek nolako tankera eta usaina duten mutikoari esan eta ekarriko ditu —insistitu zuen Lurganek.

— Ez. Gizonen lana da hori —esan zuen Creightonek.

Ez hanka eta ez buru ez zuen istorioa zen: gutun baimenik gabeak eta asaldariak, erlijio mahomatarreko gauza guztietan mundu osoko azken autoritatea zela uste zuen gizon bat eta britainiar lurraldeetan emakumeak bahitzeagatik zigortu izan zuten erregetzako gizon gazte baten artean. Artzapezpiku mahomatarrak ziurtasunez eta arrandiatsu jokatu zuen; printze gaztea haserre zegoen besterik gabe bere eskubideak mugatu zizkiotelako, baina ez zuen egunen batean konprometigarri gerta lekioken postarekin jarraitzeko asmorik. Eskuratu zuten haietako gutun bat, baina aurkitu zuena hilda topatu zuten gero bide ertzean arabiar tratulariz jantzita, E23-k, lana bere gain hartuta, informatu zuen bezala.

Gertaera haiek, eta argitara eman ezin diren beste zenbaitek, Mahbub eta Creightoni buruak eragin erazi zizkioten.

— Utziozu bere Lama Gorriarekin joaten — esan zuen zaldi tratulariak ahalegin nabarmenez—. Agurea maite du. Pausoak arrosarioarekin neurtzen ikasiko du behintzat.

— Izan dut harremanik agurearekin, gutunez —esan zuen Creighton koronelak, berriz ere irribarre eginez—. Zertan dabil?

— Batera eta bestera dabil, hiru urte hauetan egin duen bezala. Sendatzeko gauza den Ibai baten bila dabil. Jainkoak madarika ditzala...! Tirthankar Elizan egoten da, edo Buddh Gayan, bideari uzten dionean. Gero mutila ikustera joaten da *madrissah*-era: bitan edo hirutan mutila horrexegatik zigortu izan dutelako dakigu. Burutik eginda dago agurea, baina gizon baketsua da. Ezagutzen dut. Babuak ere baditu harremanak berarekin. Hiru urtez bijilatu dugu. Lama Gorriak ez dira Indian oso arruntak, eta ez zaie arrastoa aise galtzen.

— Babuak bitxiak dira oso —esan zuen Lurganek pentsakor—. Ba al dakizu zer den Hurri babuak benetan nahi duena? *Royal Society*-aren partaide izan nahi du, egiten dituen etnologi oharrak direla eta. Mahbubek eta mutilak lamaz esaten didaten guztia kontatzen dizut zuri eta baita hari ere. Hurri babuak Benaresera joateko asmoa du... bere kontura, uste dut.

— Nik ez dut hori uste —esan zuen Cregihtonek. Berak ordaindu zituen Hurriren bidai gastuak, lama nor ote zen jakiteko irrikatan baitzegoen babua.

— Eta lamarengana ere joan izan da behin baino gehiagotan une hauetan lamaismoaz informazioa jasotzeko, deabruen dantzez, eta sorginkeria eta kutunez. Birjina maitea! Aspaldi kontatuko niokeen nik guzti hori. Zahartzen ari da nire ustez Hurri bidean ibiltzeko. Nahiago du ohitura eta usadioei buruzko informazioa jaso. Bai, *Society*-ko kide izan nahi du.

— Iritzi ona du Hurrik mutilaz, ezta?

— A, bai, oso ona; oso arratsalde atseginak eman izan ditugu nire txokoan... baina nire ustez alferrikakoa litzateke mutil hori etnologi lanetarako Hurriekin bidaltzea.

— Ez ordea lehenengo saio baterako. Zuk zer diozu, Mahbub? Utzizu mutikoari lamarekin sei hilabetez joaten. Gero ikusiko dugu. Esperientzia hartuko du.

— Hori badauka, sahib, arrainak igeri dabilen ura ezagutzen duen bezalaxe. Baina arrazoi

askorengatik, gauza ona litzateke mutila eskola-tik libratzea.

— Ondo da —esan zuen Creightonek, bereki-ko ia—. Joan liteke lamarekin, eta Hurrik bijilatu nahi baditu askoz hobeto. Ez du arriskueta bultzatuko mutila, Mahbubek egingo lukeen bezala. Gauza bitxia, *Society*-an sartu nahia. Oso giza-tiarra ere bai. Hobe da Etnologian... Hurri.

Ez diruaren truke, ez gorago egoteagatik, ez luke Creightonek Indiar Etnologi Zerbitzuko lana utziko, baina bihotzaren sakonean berak ere ize-naren ondoren «*Society*-koa» idazteko desioa zeukan gordeta. Berak ezagutzen zituen moduko ohoreak eskura zitezkeen arte pixka bat eta adiskideen laguntzaz, baina, ondo zekienez, lanak eta ez beste ezerk —bizitza oso bat atzean zuen lanak— eraman zezakeen gizon bat *Society*-ra, berak asiar kultu bitxi eta usadio ezezagunez egindako monografiak zaparradaz bete zuen *Society* hura. Hamar gizonetatik bederatzik ihes egingo zuten *Royal Society*-ko bilera batetik asper-asper eginda. Baina Creighton zen hamargarrena, eta batzuetan bihotz-bihotzez desiratzen zituen bizimodu errazeko Londongo jendez

jositako gelak, non ile urdinduko gizonak edo gizon burusoilak, armadaz tutik ere ez dakitenak, esperimentu espektroskopikoen artean mugitzen baitiren, tundra izoztuetako landare kaskar, hegaldia neurtzeko makina elektriko eta eltxo emearen ezkerreko begia milimetroetako zatietan neurtzeko tresnen artean. Era guztieta-ko arrazoi eta eskubidez behar zuen Geografia Elkarteak Creighton erakarri, baina gizonak umeak bezain ustekabeko dira jostailuak aukeratzekoan. Hala, Creightonek irribarre egin zuen, eta Hurriz zuen iritzi ona areagotu egin zen, bera ere antzeko irrikak mugitzen zuen eta.

Marnuen ezpata erortzen utzi eta Mahbuberi begiratu zion.

— Noiz atera dezakegu moxala ukuilutik? — esan zion zaldi tratulariak, bestearen begiek ziotena irakurriz.

— Urn! Oraintxe bertan ematen baldin badut erretiratzeko agindua... zer uste duzu egingo duela? Ez dut sekula parte hartu horrelako baten irakaspenean.

— Nigana etorriko da —esan zuen bizkor Mahbubek—. Lurgan sahib eta biok prestatuko dugu biderako.

— Hala izan dadila bada. Nahi duena egin ahal izango du sei hilabetez. Baina nor izango du erantzule?

Lurganek burua okertu zuen pixka bat.

— Ez du ezer esango, horren beldur bazara, Creighton koronela.

— Mutil bat besterik ez da, azken finean.

— Bai; baina lehenbizi, zer esanik ez dauka; eta bigarren, badaki zer gertatuko litzatekeen hitz eginez gero. Gainera, Mahub oso maite du, eta ni ere bai zertxobait.

— Ezer ordainduko al zaio? —galdetu zuen zaldi-tratulari praktikoak.

— Jatekoaren dietak besterik ez. Hilabeteko hogeit hamar rupia.

Kontuen berrikuspenaz ez dagoela zertan kezkatu beharrik da zerbitzu sekretuaren abantailako bat. Aurrekontu barregarria du noski, baina gizon gutxi batzuk arduratzen dira diruaz, eta ez dute frogagirik edo kontu xeherik eskatzen. Mahbuben begiak argitu egin ziren, ia-ia

sij-ek diruarekiko duten maitasunaz. Lurganen aurpegi sorgorra ere aldatu egin zen. Aurrean zituzten urteak etorri zitzaizkion burura, Kimek ez gauzez ez egunez eteten ez den Joko Handian parte hartuko zuenean, India osoan barrena. Aurrez ikusten zituen, aukeraturiko gutxi batzuen ahotan, ohorea eta ospea, bere ikaslearen bidez berarengana zetozela. Lurgan sahibek egin zuen E23 zena, ipar-mendebaldeko probintziako gizontxo urduri, lotsagabe, gezurti bat hartuta.

Baina maisu haien poza hutsaren hurrengoa izan zen Kimen pozaren ondoan, St Xavierreko zuzendariak bakarka deitu zionean Creighton koronela bila joan zitzaiola esateko.

— Ulertu dudanez, O'Hara, lur-neurketa laguntzaile bezala lanpostu bat aurkitu dizu Ubi-deen Sailean; matematikak gogotik ikasi izanari zor diozu hori. Zorte handia duzu, hamasei urte besterik ez dituzu eta; baina ulertuko duzu noski ez zarela *pukka* (finkoa) bihurtuko udazkeneko azterketa gainditu baino lehen. Beraz ez duzu pentsatu behar ondo pasatzera irtengo duzunik, edo dirua egitera. Lan gogorra duzu aurrean.

Pukka bihurtzea lortzen baduzu ordea, hileko lauhunetik bostehunera irabaz zenezake.

Eta ondoren zuzendariak aholku ugari eman zion jokoeraz, gizabideaz eta moralaz. Eta beste batzuek, ikasle zaharragoak, oraindik lanposturik lortu gabeak, anglo-indiarrak ez beste inor mintza litekeen moduan aritu ziren hizketan, kuttunkeria eta korrupzioaz. Cazalet gazteak gainera, zeinak aita pentsionista baitzuen Chunarren, oso garbi eman zuen aditzera Creighton koronelak Kimengan zuen interes hura aita bate-na zela; eta Kimek, mendekua hartu ordez, ez zuen txintik atera. Zetorkion gozamen handian, bezperan Mahbubek bidalitako gutunean ari zen pentsatzen, ingelesez txukun-txukun idatzitako gutuna, arratsalde hartarako zitatzuz izenak berak zuzendariaren ilea ikaraz zut jarriko zukeen etxe batean...

Gau hartan, esan zion Kimek Mahbuberi Lucknoweko geltokian, ekipaien baskularen ondoan zeudela:

— Beldur nintzen azkenean ez ote zitzaidan sabaia gainera eroriko eta atera ezinik geratu. Egia al da dena bukatu dela, aita?

Mahbubek behatzak klaskatu zituen bukaera haren erabatekoa erakusteko; ikatz pusketek bezala distiratu zioten begiek.

— Eta non dago eraman behar dudan pistola?

— Poliki, motel! Urte erdia loturarik gabe korrika egiteko. Hori eskatu nion Creighton koronelari. Hogei rupia hilabeteko. Txano Gorri Zaharrak badaki bazoazela.

— Hiru hilabetez nire soldataren *dusturie*-a (komisioa) ordainduko dizut —esan zuen Kimek serio—. Bai, bi rupia hilabeteko. Baina lehenbizi hauek kendu behar ditut —harizko galtza finei eta lepokoari tira egin zien—. Gainean ekarri dut bidean beharko dudan guztia. Nire kaiza Lurgan sahibarengana joan da.

— Eta goraintziak bidaltzen dizkizu... sahib.

— Oso gizon argia da Lurgan sahiba. Baina zu zertan ari zara?

— Iparrera noa berriz, Joko Handia dela eta. Zertan bestela? Oraindik ere Txano Gorriaren atzetik joateko asmotan zaude ala?

— Ez ahaztu hark egin nauela orain naizena, berak ez bazekien ere. Irakatsi didan dirua bidaldi du urtez urte.

— Nik ere beste horrenbeste egingo nukeen... nire buru gogorretik horrelakorik pasa izan balitz —esan zuen marmarka Mahbubek—. Goazen. Piztuta daude farolak, eta bazarrean ez da inor zurekin konturatuko. Hunifaren etxera joango gara.

Harako bidean, Lemueli amak emandako aholku bera eman zion Mahbubek, eta, gauza bitxia bada ere, zuzen zebilen Mahbub Hunifa eta bera bezalakoek erregeak suntsi zitzaketela esatean.

— Eta gogoan dut —errepikatu zuen Mahbubek maliziaz—, nola esan zuen batek «Sinetsi sugeari emagalduari baino lehenago, eta emagalduari afganiar bati baino lehenago, Mahbub Ali». Baina, afganiarrena izan ezik, tartekoa bainaiz ni, egia da dena. Eta are egiagoa Joko Handian, emakumeen bidez hondatzen baitira plan guztiak, eta egunsentian agertzen gara gero lepoa moztuta. Halaxe gertatu zitzaion bati —xehetasun osoz kontatu zion istorioa.

— Orduan zergatik? —Kim isildu egin zen gela altu bateko ilunpe berora zeraman ezkaratz zikin baten aurrean, Azim Ullahen tabako denda-

ren atzean dagoen bizilekuan. Ezagutzen dutenek Txoritokia deitzen diote... bete-beteta baita-go txistu, xuxurlo eta urrumaz.

Kojin zikin eta erdizka erretako nargilez beteta, tabako mingotsaren kirats eramanezina zerion gelari. Emakume erraldoi eta tankeragabe bat zetzan zoko batean, berde antzeko gasatan bilduta, eta kopeta, sudurra, belarriak, lepoa, eskumuturra, besoa, gerria, eta txorkatila indiar bitxi astunez apainduta. Jiratzerakoan eltzeek elkar jotzean egiten duten soinu bera egin zuen. Katu argal batek kanpoko balkoian miau egin zuen, goseak. Kim, lotsatuta, sarrerako gortina atzean gelditu zen.

— Hau al duzu merkantzia berria, Mahbub? — esan zuen nagikeriaz Hunifak, nargilearen bokila ezpainenatik aldentzeaz arduratu gabe—. O, Buktanus! —bere klaseko gehienak bezala, deabruak aitatzeko ohitura zuen—. O, Buktanus! Oso itxura ona du.

— Hori zaldi salmentaren parte da —azaldu zion Mahbubek Kimi, eta Kimek barre egin zuen.

— Sei egun bete nituenez geroztik daukat hizkera hori entzunda —erantzun zion Kimek,

lurrean argiaren ondoan eseriz—. Zertarako gaude hemen?

— Zure babeserako. Gaur gauean kolorea aldatuko dizugu. Teilatupean lo egite horrek almendrak bezain zuri utzi zaitu. Baina Hunifak ezkutatu egiten duen kolorearen sekretua dauka. Ez bizpahiru egunetako margoa. Gainera, indartu egingo zaitugu bideko arriskuen aurka. Hauxe da nik egiten dizudan oparia, seme. Kendu gainean dituzun metalezko gauza guztiak eta utzi hemen. Presta ezazu dena, Hunifa.

Kimek itsas orratza atera zuen, topografiarako margo-kaxa eta bete berria zuen sendagai kutxa. Guzti haiek bidaietan lagundu izan zioten beti, eta, gazteei gertatu ohi zaien bezala, balio handia zuten beretzat.

Emakumea poliki altxatu eta mugitu egin zen eskuak aurrean apur bat zabalduta. Orduan konturatu zen Kim itsua zela.

— Ez, ez —murmurikatu zuen—, egia dio afganiarrak... nire kolorea ez da desagertzen ez astebete ez hilabetean, eta nik babesten ditudanak ondo defendatuta daude.

— Urruti eta bakarrik dagoenean bat, ez da gauza ona izaten bat-batean pikorrez eta arras-toz betetzea —esan zuen Mahbubek—. Nirekin zeundenean ardura nintekeen ni horretaz. Gainera, larruazala argia dute afganiarrek. Erantzi zaitetz gerriraino eta ikusi nola zuritu zaren —Hunnifa tentuan itzuli zen barneko gela batetik—. Ez dio axola, ez du ikusten —buztin-lokatzezko ontzi bat hartu zuen emakumearen esku eraz-tundunetik.

Tintea urdina eta lingirdatsua zen. Kimek saio bat egin zuen eskumuturraren atzealdean para pusketa batekin baina Hunifak entzun egin zuen.

— Ez, ez —egin zuen oihu—. Hori ez da horrela egiten, dagokion zeremoniarekin baizik. Kolorrea da gutxiena. Biderako babes osoa emango dizut.

— *Jaddo?* (magia) —galdetu zuen Kimek dardara ikara arin batez. Ez zituen gogoko begi zuri ikusmen gabeko haiek. Mahbuben eskuak, lepotik helduta, lurrera makur erazi zuen, sudurra ia-ia oholetan zuela.

— Geldik egon. Ez dizugu kalterik egingo, seme. Neure burua zuretzat opari!

Ezin zuen ikusi zertan ari zen emakumea, baina bitxiaren zarata entzun zuen puska luze batean. Pospolo batek argitu zuen iluna; intsentzu aleen ohiko txinpartak harrapatu zituen. Gero kez bete zen gela: ke astuna, usaintsua eta loarrazlea. Gero eta lokartuago, deabruen izenak aditu zituen, Zulbazan, Eblisen semea, azoka eta *paraoetan* bizi dena, bat-bateko haragikeriak eragiten dituela atsedean hartzera geratzen direnen artean; Dulhan, meskiten inguruan ikusiezi-na, jendea otoitzetatik aldentzen duena; eta Musbut, gezur eta ikararen jauna. Hunifa, belarrrira xuxurlatzen ziola orain, oso urrutitik bezala mintzatzen zen, behatz leun beldurgarriz ukitzen zuen, baina hala ere Mahbuben esku indartsuak ez zion Kimi lepoa askatu hasperen batez erlaxatuz kordea galdu zuen arte.

— Ala! Nolako borroka egin duen! Ez genuen inola ere lortuko drogekin izan ez balitz. Odol zuriak egingo zion hori noski —esan zuen Mahbubek umore txarrez—. Segi *dawut*-arekin (inbokazioa). Emaiozu babes osoa.

— *Entzule hori! Belarriekin entzuten duzun horrek, zatoz hona. Entzun, Entzule hori!* —egin

zuen intziri Hunifak, begi hilak mendebaldera jarrita. Intziri eta marmarrez bete zen gela iluna.

Kanpoko balkoitik, irudi astun batek buru birituak jaso eta ez zuten egin zuten urduri.

— Ez eten sabeliztunaren nekromantziak, adiskide —esan zuen ahotsak ingelesez—. Zuri oso nahasgarria gertatuko zaizu noski, baina begirale adituak ez du zertan kezkatu beharrik.

— ... *Zerbait asmatuko dut horiek hondatze-ko! O, iragarle hori, pazientzia izan sinesgabeekin. Bakean utzi puska batean!* —Hunifaren aurpegiak, iparrera jiratuta, keinu beldurgarriak egiten zituen, eta ematen zuen sabaitik zetozen ahotsek erantzun egiten ziotela.

Hurri Babu bere ohar-koadernora itzuli zen, leihoaren zurerian ezarrita, baina eskuak dardarra egiten zion. Hunifa, drogen estasian edo, aurrera eta atzera mugitzen zen zangoak gurutzatuta Kimen buru geldiarenekin ondoan eserita, eta deabru bati bestearen atzetik egiten zion dei, erritoaren ordena zaharrean, mutila ekintza orotatik alden zezatela eskatuz.

— *Harekin daude Gauza Sekretuen giltzak! Berak ez beste inork ez ditu ezagutzen. Berak*

daki lur lehorrean eta itsasoan dagoen guztia! — Berriz ere arrapaladan heldu ziren erantzun txistukari misterioitsuak.

— Ez... ez da bada ekintza horretan dena gaiztoa izango, ezta? —esan zuen babuak, ikusiz nola egiten zuten dardara eta nola gogortzen ziren Hunifaren eztarriko giharrak hizkuntza arrotzez mintzatzen zen artean. Ez... ez zuen bada mutila hilko? Hala baldin bada, uko egiten diot epaiketan lekuko izateari... Zein zen azkena aipatu duen balizko deabrua?

— *Babuji* —esan zuen Mahbubek hindieraz—. Ez diet batere begirunerik Indiako deabruei, baina Eblisen Semeak oso bestelakoak dira, eta nahiz eta *jumali* izan (parte onekoak), nahiz *jullali* (parte txarrekoak), ez dituzte sinesgabeak atsegin.

— Orduan uste duzu hobe dudala joatea? —esan zuen Hurrik, erdizka altxatuz—. Materiarik gabeko fenomenoak baino ez dira noski. Spence-rrek dio...

Txilio leherketa batekin bukatu zen Hunifaren krisia, halakoetan gertatu ohi den bezala, eta ezpainenetan apar ukitu bat ere bazuela. Leher

eginda eta mugitu ezinik geratu zen Kimen ondoan, eta ahots eroak isildu egin ziren.

— Hara! Eginda dago lana. Ibiliko ahal da orain hobeto mutila; bai noski, *dawut*-ean aditua da eta Hunifa. Lagunduidazu alde batera eramaten, *babu*. Ez beldurrik izan.

— Nola izango naiz ez dagoenaren beldur? — esan zuen Hurri babuak, bere burua lasaitzearen ingelesez hizketan. Gauza izugarria da halako erdeinuz ikertzen den magiaren beldur izatea, Ilunaren Botere guztietan biziki sinetsiz *Royal Society*-rako folklorea jasotzea.

Mahbubek barre txiki bat egin zuen. Izana zen bestetan ere Hurrekin bidean.

— Buka dezagun margoketa —esan zuen—. Ondo babestuta dago mutila... Haizeetako Jaunek entzuteko belarriak baldin badauzkate. Ni *sufi*-a naiz (adimenzalea), baina emakume, hazi-tarako edo deabru baten puntuitsuak topatuz gero, zergatik bestaldera jarri ostikoa eman diezaguten? Jarri mutila bidean, *babu*, eta kontuz ibili ez dezan Txano Gorriak eraman guk harra-patu ezingo dugun lekura. Nik zaldietara itzuli beharra daukat.

— Ondo da —esan zuen Hurri babuak—. Ikus-
kizun bitxia da une honetan mutila.

Oilarrak hirugarren kukurrukua jo zuenean,
mila urtetako loalditik esnatu zen Kim. Hunifa,
bere zokoan, zurrungaka ari zen, baina Mahbub
joana zen.

— Ez zinen ikaratuko noski —esan zion sor-
balda ondotik ahots koipetsu batek—. Neronek
superbisatu dut ekintza oso-osorik, eta guztiz
interesgarria izan da etnologiaren ikuspuntutik.
Dawut bikaina izan da.

—A! —esan zuen Kimek, Hurri babu zela kon-
turatuta, besteak irribarre lausengaria egiten
zion artean.

— Eta Lurganen partez orain daramazun jant-
zia ekartzeko ohorea izan dut. Ez dut horrelako
hornidurak menpekoei ekartzeko usadiorik,
baina —barre txiki bat egin zuen—, zure kasua
berezia bezala ageri da liburuetan. Hartuko ahal
du kontutan Mr Lurganek nik egindakoa.

Kimek ahoa zabaldu eta nagiak atera zituen.
Atsegina zen berriz ere jantzi lasaietan jira-bira-
ka ibiltzea.

— Hau zer da? —jakin-minez begiratu zion oihal lodiari, Ipar urruneko usainez betea.

— O! Hau lama lamaistikoaren zerbitzura dagoen *chela* jantzi diskretua da. Oso-oso xehetasun guztietan —esan zuen Hurri babuak, balkoiraino joanez buztinezko ontzi batean hortzak garbitzera—. Nire iritziz, ez da zure jaun zaharraren erlijio berberekoa, erlijio horren azpiadar batena baizik. Ohar batzuk bidali ditut gai honetaz *Asiatic Quaterly Review* aldizkarira. Hala ere, gauza bitxia da jaun zahar horrek berez erlijiotasunik batere ez izatea. Bost axola zaio dena.

— Ezagutzen al duzu?

Hurri babuak eskua altxatu zuen, hortza garbiketa eta halako gauzekin batera bengaliar ongi ikasien artean doazen erritoak betetzen zituela adieraziz. Gero *arya-somaj* otoi teista esan zuen ingelesez, eta *pan* eta betel hostoz bete zuen ahoa.

— A, bai. Ikusi izan dut behin baino gehiagotan Benaresen, eta baita Buddh Gayan ere, galderak egin nahi bainizkion zenbait erlijio arazoz eta deabruen jaurespenaz. Agnostikoa da erabat, neroni bezalaxe.

Hunifa mugitu egin zen lotan, eta Hurri babuak jauzi egin zuen urduri kobrezko intsentsu ontziraino —beltza eta koloregabea goizeko argitan—, behatzez igurtzi zuen kedarra eta diagonalean mugitu zuen aurpegiaren aurrean.

— Nor hil da zure etxean? —galdetu zion Kimek hindieraz.

— Inor ez. Baina badu begiz jotzea... Sorginkeria egin duenak —erantzun zuen babuak.

— Eta zer egingo duzu bada orain?

— Benareserako bidean jarriko zaitut, harantz bazoaz, eta esango dizut zer jakin behar dugun.

— Hara noa. Zer ordutan da *te-ren-a*? —altxatu egin zen; gela desolatuari begiratu zion eta argizaria bezain horia zegoen Hunifaren aurpegiari, eguzki ahulak zorua gurutzatzen zuen artean—. Ordaindu egin behar al zaio sorgin honi?

— Ez. Aztikeria egin dizu deabru eta arrisku guztien aurka, bere deabruen izenean. Halaxe nahi zuen Mahbubek —eta ingelesez—. Nahikoa atzeratuta dabil, nik uste, halako aztikeriatan

sinesteko. Zera, bentrilokia besterik ez da eta dena. Sabelarekin hitz egin, ezta?

Kimek oharkabeen kliskatu zituen behatzak edozein deabru aldendu asmoz —Mahbubek pentsatu gabekoa—, Hunifaren egiteen bidez ustekabeen baten bat sartu ahal izan zelakoan; eta Hurriek beste barre txiki bat egin zuen. Hala ere gela gurutzatzerakoan kontuz ibili zen ez zapaltzarren Hunifaren itzal biribila zoruko oholetan. Sorginek —deabruak hartuta daudenean— arimako orkatilak harrapa diezazkiote gizon bati horrelakorik egiten badu.

— Orain entzun ondo —esan zuen babuak kanpoko haize freskoan—. Ikusi ditugun zeremonia horien artean gure sailekoei kutun eraginkor bat ematea dago. Lepoa ukituta, kutun bat topatuko duzu, oso merkea. Hori gurea da. Ulertzen al duzu?

— A, bai *hawa-dilli-a* (adore ematekoa) —esan zuen Kimek, lepoa ukituz.

— Hunifak egiten ditu, bi rupia eta hamabi annagatik, zera... era guztietako aztikeriekin. Nahikoa arruntak dira, erdia beltzez esmailatuta dutela izan ezik, eta bakoitzak paper bat dauka

barruan, hemengo santuen izenez eta antzekoetz beteta. Horixe da Hunifaren ikuspuntua, konturatzeko al zara? Hunifak guretzat bakarrik egiten ditu, baina badaezpada ere, hartzen ditugunean turkesa txiki bat sartzen diegu, banatu baino lehen. Mr Lurganek eskuratzen ditu. Ez dago beste iturririk; baina neuk asmatu nuen guzti hau. Ofiziala ez da noski, baina egokia da menpekoentzat. Creighton koronelak ez daki horren berri. Europarra da. Turkesa paperean bilduta dago... Bai, hauxe da geltokirako bidea... Orain eman dezagun lamarekin zoazela, edo nirekin, hala espero dut, egunen batean, edo Mahbubekin. Eman dezagun larri gabiltzala. Gizon beldurtia naiz.. oso beldurtia... baina, egiatan esaten dizut, buruan ditudan ileak baino estutasun gehiagotan izana naiz. Hau esan behar duzu: «Kutunaren semea naiz.» Oso ondo.

11. ATALA

Eman ofizioan

Ohituta ez dagoen gizonari

Jaurti eta berriz jasotzeko ezpatak

Bota eta berriz heltzeko txanponak

Zauritu eta berriz sendatzeko gizonak,

Sorgindu eta berriz erakartzeko sugeak...

Ezpatak min emango dio

Sugeek ez diote obedituko

Bere zakarkeriak traizio egingo dio

Bere jendeak trufa erdeinuz...

Ez zaio hala gertatuko malabarista jaio denari!

Hauts apurra edo lore zimeldua,

Lurreko fruitua edo inork utzitako makila,

Aski ditu bere beharretarako

eta boterea diote areagotzen,

Aztikeria edo barrea sortu!

Baina gizon horrek, etab.

Malabaristaren kantua, op. 15.

Bat-bateko erreakzio naturala etorri zitzaion gero.

«Bakarrik nago orain... bakar-bakarrik» pentsatu zuen. «Ez da India osoan ni bezain bakarrik

dagoenik! Gaur hiltzen banaiz, nork eramango du albistea... eta nori? Bizitzen banaiz eta Jainkoa ona bada, nire buruak prezioa izango du, ni Kutunaren Semea naiz eta... ni, Kim».

Oso zuri gutxik, baina asiarrek berriz askok eta askok murgil dezakete beren burua harriduran, nolabait esateko, beren izena berekiko behin eta berriz errepikatuz, adimena libre utziz nortasuna deritzanaz burutazioetan aritzeko. Zahartzerakoan, ahalmen hori desagertu egiten da gehienetan. Baina irauten duen artean edozein unetan etor lekiok e gizon bati.

— Nor da Kim... Kim... Kim?

Itxoin-gela zaratatsuaren zoko batean eseritzen, bestelako pentsamendu guztiak baztertuta, eskuak magalean gurutzatuta eta begi-niniak orratz-buruak bezain estu. Konturatzen hasi zen minutu batean, beste segundo erdi batean, helzitekeela arazo ikaragarri haren soluziobidera; baina orduantxe, beti gertatu ohi den bezala, pentsamenduak altura haietatik zaurituriko txoribatzen abiadaz lurreratu zitzaizkion, eta eskuaz begiak igurtziz, buruari eragin zion.

Ile luzeko indiar *bairagi* bat, (gizon santua), txartel bat erosi berria, parean jarri zitzaion une hartan eta begira-begira geratu.

— Nik ere galdu dut —esan zion Kimi tristuraz—, Biderako Ateetako bat da, baina nik urte askotan izan dut itxita.

— Zertaz ari zara?

— Hortxe ari zinen zeure baitan galdezka zer nolakoa duzun arima. Zalantza etorri zaizu bat-batean. Nik badakit. Nik ez beste nork jakin lezake bada? Nora zoaz?

— Kashi aldera (Benares).

— Ez da Jainkorik han. Saiatu naiz. Prayagera noa ni (Allahabad) bosgarren aldiz, Argitasunaren Bidearen bila. Zein fedetakoa zara?

— Ni ere Bilatzailea naiz —esan zuen Kimek, Jamaren hitz kuttunetako bat erabiliz—. Nahiz eta —une batez zeramatzan Iparreko arropak ahaztu zitzaizkion—, nahiz eta Alak bakarrik dakien zeren bila nabilen.

Agureak bairagi makulua besazpian jarri eta lehoinabar larru puska zati gorrixka batean eseritzen Kim Benareserako trenaren deia entzun eta altxatzen hasi zenean.

— Ez dezazula itxaropena galdu, anaia txiki horrek —esan zuen—. Bide luzea da Bakarra den Haren oinetaraino; baina haraxe goaz denok.

Kim ez zen hain bakarrik sentitu haren ondoren, eta bagoi bete-betean hogeita hamar kilometro egin baino lehen, bidai kideak animatzen ari zen bere eta bere maisuaren ahalmen magikoei buruzko kontakizun harrigarriekin.

Hiri bereziki zikina iruditu zitzaion Benares, nahiz eta atsegina gertatu arropa nola errespetatzen zioten ikustea. Populazioaren hiruren batek gutxienez otoi egiten dio etengabe ehunka jainkoetako talde bati edo besteari, eta hala, era guztietako gizon santuak jauresten dituzte. Tirthankar elizaraino, hiritik kilometro t'erdira, Sarnathetik bertan, ustekabean topatutako punjabiar batek gidatu zuen; Jullundur aldeko *kanboh*-a zen, bere lurraldeko Jainko orori seme txikia sendatzeko otoi egina zen, eta azken itxaropen bezala Benaresera joana.

— Iparrekoa al zara? —galdetu zion Kimi, kale estu, usaintsuetan barrena bidea besaburuekin zabaltzen zuen artean, bere behi kuttunak herrian egiten zuen eran.

— Bai, ezagutzen dut Punjaba. Ama *paharin*-a zen, baina aita Amritzarretik zetorren, Jandiala ondotik —esan zuen Kimek, bere mingain trebea Bidearen beharretarako koipeztatuz.

— Jandiala! Jullundur? Hara! Orduan nolabait ere auzoak gara, esaten ahal bada —keinu goxo bat egin zion besoetako ume negartiari—. Noten zerbitzura zaude?

— Tirthankar Elizan dagoen oso gizon santu baten zerbitzura.

— Oso santuak dira denak... eta oso diruzaleak —esan zuen *jat*-ak erresuminez—. Alde batera eta bestera ibili naiz elizetan barrena oinak honda-honda egin arte, baina umea ez da batere hobetu. Eta ama ere gaixo dago... Ixo, txikitxo... Izena aldatu genion sukarra etorri zitzaionean. Nesken arropak jantzi genizkion. Ez dago egin ez dugun gauzarik, gauza bat izan ezik... Eta esan nion amari Benaresera bidali nindueanean... Nirekin etorri behar zuen. Esan nion nik Sakhi Sarwar sultanak gehiago balioko zigula. Ezagutzen dugu Haren eskuzabaltasuna, baina barrualdeko Jainko hauek ezezagunak dira niretzat.

Beso zailduek osatzen zuten kojinean jiratu zuen umea; umeak Kimi begiratu zion betazal astunen azpitik.

— Eta alferrik izan al da dena? —galdetu zuen Kimek, biziki interesaturik.

— Dena alferrik... dena alferrik —esan zuen umeak, ezpainak sukarrak pitzatuta.

— Adimena behintzat ona eman diote Jainkoek —esan zuen aitak harro-harro—. Horrela ego-tea ere, adi-adi, eta dena ulertzea! Hortxe duzu Eliza. Gizon pobrea naiz ni, apaiz askorekin izan ditut tratuak... baina semea semea da, eta zure maisuari egindako opari batek sendatzen ahal badu... Indarrak agortzen ari zaizkit.

Kim pentsatzen aritu zen, harrotasunak kili-mak egiten zizkiola. Hiru urte lehenago egoera hura bere onerako erabili eta alde egingo zuen gero batere pentsatu gabe; baina orain, *jat* hark erakusten zion begiruneak frogatu zion gizona zela. Gainera, sukarra izanda zen behin edo bitan, eta bazekien elikadura faltaz ikusten zue-nean ezagutzeko aski.

— Esaiozu etortzeko eta idi pare hoberena emangodiot, umea senda dadin.

Elizaren kanpoko ate landuaren aurrean gelditu zen Kim. Ajmirreko bankari *oswal* batek, zuriz jantzita, garbitu berriak lukurreria bekatuak, zer behar zuen galdetu zion.

— Teshu lama, Bhotiyaleko gizon santuaren *chela* naiz... hemen dago bera. Etortzeko esan zidan. Zain nago. Esaiozu.

— Ez ahaztu umea! —egin zion oihu *jat* setatiak sorbalda gaintetik, eta gero punjabieraz hasi zen garrasika—: O, santu zaren hori! O, gizon santuaren dizipulu hori! O, Mundu guztien gaineko Jainkoak! Ikusi oinazea zuen ateetan eserita! —garrasi hori hain da arrunta Benaresen, non inguruko inork ez baitu burua jiratzen.

Oswal-ak, gizadiarekin bakeak eginda, atzeko ilunera eraman zuen mezua, eta Ekialdeko minutu lasaiak, inork kontaktzen ez dituenak, igaro ziren; izan ere, lotan zegoen lama bere gelan, eta ez zegoen esnatuko zuen apaizik. Arhaten irudi lasaiak dauden aterpeko isiltasuna lamaren arrosarioaren soinuak berriz hautsi zuten, lekaidegai batek xuxurlatu zion: —Hemen da zure *chela*—, eta agurea kanpora abiatu zen, otoia amaitzeaz ahaztuta.

Irudi luzea atean agertu bezain agudo, korrika joan zitzaion *jat*-a aurrera, eta, umea altxatuz, garrasika hasi zitzaion:

— Begiraiozu honi, santu zaren hori, eta, Jainkoek nahi badute, bizituko da! Bizituko da!

Gerrikoan bila ibili ondoren, zilarrezko txanpon txiki bat atera zuen.

— Zer da hau? —lamaren begiak Kimengana jiratu ziren. Nabari zitzaion lehen baino, Zama-Zammahen azpian zegoenean, urduera argiagotan mintzatzen zela; baina aitak ez zuen onartzen hizketaldi pribaturik.

— Sukarra da huts-hutsik —esan zuen Kimek—. Umea ez dago ondo elikatuta.

— Edozerekin gaixotzen da, eta ama ez du hemen.

— Baimena badut, senda dezaket nik, maisu.

— Hara! Sendagile egin al zaituzte? Itxoin hemen —esan zion lamak *jat*-ari, eta aldamean eseri zitzaion elizaren maila beheenean, Kimek, begi ertzetatik begira, betelezko kutxa txikia poliki-poliki zabaltzen zuen artean. Amets egin izan zuen eskolan sahib baten gisan itzuliko zela lamarengana, eta adarra joko ziola nor zen

agertu baino lehen, gazteen ametsak denak. Dramatismo handiagoa zuen ordea flaskoak miatze hark, itxura distraitura eta zimurtuta kopeta, noizbehinka pentsatu eta otoi bat murmurikatzeko eten bat eginez. Kinina tabletak zituen eta kolore arre iluneko haragi-zuku pastillak, behiarena segur aski, baina hura ez zitzaion berari ardura. Umeak ez zuen jaten, baina hala ere antsiaz zurrupatu zuen pastilla bat, eta gatza kutsua zuela esan zuen.

— Orduan hartu hauetako sei —Kimek gizonari luzatu zizkion—. Egin otoi Jainkoei, eta irakin hiru pastilla esnetan; beste hiru uretan. Esnea edanda gero, emaiizu hau (kinina pildoraren erdia zen), eta bero-bero jarri umea. Beste hiruen ura eman, eta pildora honen beste erdia esnatzen denean. Bitartean, horra hor beste sendagarri arre hau, etxerako bidean zurrupa dezan.

— Jainkoa, zer nolako jakituria! —esan zuen *kanboh*-ak, dena jasoz.

Udazkenean, sukar gaitzak eraso egin zionean, berak hartutako sendabideaz gogoratzen

zitzaiona zen hura, kentzen badira lama txundituta uztearren egin zituen marmarrak.

— Zoaz orain! Eta goizean etorri berriz.

— Baina prezioa... prezioa —esan zuen *jat*-ak, eta sorbalda sendoak atzera jarriz—: Semea semea da. Orain sendotu egingo da berriz, eta nola joango naiz ni amagana eta esan bide ertzean eman zidatela laguntza eta nik berriz ontzi bat mami ere ez nuela eman ordainetan?

— Berdinak dira denak, *jat* hauek —esan zuen Kimek bigun—. Zutik jarri zen *jat*-a simaurraren gainean eta aldamenetik igaro zitzaizkion erregearen elefanteak. «Aizu, gizon» esan zuen, «zenbatean saltzen dituzu astotxo horiek?»

Jat-a barre algaraka hasi zen, baina berehala ito zituen algarak lamari barkamena eskatuz.

— Halaxe diote nire herrian... Berdin-berdin. Halakoxeak gara *jat* guztiak. Bihar etorriko naiz umearekin; eta gure etxeko Jainkoen bedeinkapenak, Jainko txiki zintzoak dira eta, izan ditza zuela zuek biok... Orain, seme, indartsuak izango gara berriz ere. Ez dezazula pastilla bota, printze txiki horrek! Nire bihotzeko errege, ez bota, eta

gizon indartsuak izango gara biok bihar goizera-ko, borrokalariak eta ezpatarekin trebeak.

Aldendu egin zen, erdi kantari eta marmarrean. Lama Kimengana jiratu zen, eta arima zahar maitagarria oso-osorik igarri zitzaion begi estuetan.

— Gaixoak sendatzea merituak eskuratzea da; baina lehenbizi jakituria behar da. Zuhur jokatu duzu, Mundu osoaren Adiskide hori.

— Zuk egin ninduzun jakitun, maisu —esan zuen Kimek, bukatu berria zen komedia ahaztuta; ahaztuta St Xavier; ahaztuta bere odol zuria; ahaztuta baita Joko Handia ere, mahomatarren erara *jain*-en elizako hautsetan bere maisuaren oinak ukitzera makurtu zenean—. Zuri zor dizut ikasi dudana. Hiru urtez zure ogia jan dut. Bukatua dut denbora. Utzi dut eskola. Zugana nator.

Hementxe dut saria. Sartu! Sartu! Ondo al doa dena? —aterpera igaro ziren; luze-luze ageri ziren han arratsaldeko eguzkiaren urrezko izpiak—. Egon hor, nik ondo ikusteko. Horrelaxe! —begiratu kritikoz aztertu zuen mutila—. Hau ez da jadanik umea, gizona baizik, jakituriaz jantzita, eta sendagileak bezala ibiltzen dena. Asmatu

egin nuen... Asmatu egin nuen gau beltz hartan gizon armatuen eskuetan utzi zintudanean. Gogoan al duzu gure lehenengo eguna Zam-Zammahen azpian?

— Bai —esan zuen Kimek—. Gogoan al duzu nola egin nuen jauzi gurditik, lehenengoz joan nintzenean...

— Jakituriaren Ateetara? Egia da. Eta gozokiak elkarrekin jan genituen hartan, Nucklaoko ibaiaren beste aldean. A! Askotan ibili zara zu niretzat eskean, baina egun hartan ni aritu nintzen zure ordeaz.

— Bazen horretarako arrazoirik —esan zuen Kimek—. Ni orduan Jakituriaren Ateetako ikasle nintzen, eta sahiben erara jantzita nenbilen. Ez ahaztu, maisu —jarraitu zuen txantxetan—, sahiba naizela oraindik, zuri esker.

— Egia da. Eta asko estimatzen duten sahiba. Zatoz nire gelara, *chela*.

— Nola dakizu zuk hori?

Lamak irribarre egin zuen.

— Lehenbizi gizon armatuen akanpalekuan ezagutu genuen apaiz atsegin haren gutunen bidez; baina orain bere sorterrira joana da, eta

haren anaiari bidaltzen diot dirua —Creighton koronela, harexek jasotzen baitzuen dirua aita Victor Ingalaterrara Maverickekin joan zenez geroztik, nekez izan zitekeen kaperauaren anaia—. Baina ez ditut ondo ulertzen sahibaren gutunak. Azaldu egin behar izaten dizkidate. Eta bide seguru bat hartu dut. Askotan, nire Bilakuntzatik bueltan eliza honetara etortzean, beti izan baitut hau habia, askotan etorri izan da Argitasun bila dabilen bat, Leheko gizon bat; hindua izana da, esan zidanez, baina nekatu egin omen da Jainko guzti horietaz —lamak Arhatak seinalatu zituen.

— Gizon lodi bat? —esan zuen Kimek, fir-fir begiak.

— Oso lodia; baina berehala konturatu nintzen erabat alferrikako gauzatara zeukala jarrita adimena, deabruak zirela eta, aztikeriak, gure monasterioetako tea edateko erak eta usadioak, nola inizatzen ditugun gure lekaidegaiak... Galdera ugari egiten zituen gizon hark; baina zure laguna zen, *chela*. Funtzionario batek adinako ohorea izateko bidean zeundela esan zidan. Eta orain ikusten dut sendagile zarela.

— Bai, horixe naiz... funtzionarioa sahiba naitzen, baina hori bazterrean geratzen da zure dizipulu gisa natorrenean. Bete ditut sahibentzat jarritako urteak.

— Lekaidegai bazina bezala? —esan zuen lamak, buruari eraginez—. Ez al duzu eskolaren beharrik? Ez al duzu gero eskola azkarregi utziko.

— Bukatu dut. Garai egokian Gobernuaren zerbitzura jarriko naiz funtzionario gisa.

— Eta ez gerlari bezala. Ondo dago hori.

— Baina lehenbizi bidera itzuliko naiz... zurekin. Horretarakoxe nago hemen. Nor ibiltzen da zuretzat eskean, egun hauetan? —jarraitu zuen bizkor. Irristakorra zen hizketagai hura.

— Neroni ibiltzen naiz eskean sarritan; baina, dakizun bezala, gutxitan egoten naiz hemen, ez bada nire dizipulua berriz ikusteko natorrenean. Indiako mutur batetik bestera ibili naiz oinez eta *te-renean*. Lur handi eta zoragarria da bai hau! Baina hemen, atsedean hartzera etortzen naizenean, nire Bhotiyalen bertan nagoela iruditzen zait.

Atseginez begiratu zion gela txikiari. Kojin zabal batek eserlekuaren papera egiten zion, eta hantxe jarri zen zangoak gurutzatuta, Bodhisat meditaziotik atera zeneko jarreran; aurrean, teka zurezko mahai beltz bat zuen, berrogei bat zentimetrotako altura zuena, eta kobrezko teontziekin prest. Zoko batean aldare txiki bat zegoen, hura ere oso apaindutako teka zurezkoa, kobre doratuzko Buda eseriaren irudi batekin eta kriseilu bat eta kobrezko bi lorontzi zituela aurrean.

— Duela urtebete, Etxe Miragarriko Irudien Gordetzaileak merituak eskuratu zituen niri hauek emanda —esan zuen, Kimen begiei jarraiki—. Bere lurraldeetatik urrun dagoenean bat, horrelako gauzek oroitzen dizkio; eta Jauna jauretsi egin behar dugu Bidea erakutsi digulako. Ikusi! —arroz koloredun pilo bitxi bat seinatu zuen, metalezko apaindura harri-garri bat zuela gainean—. Nire lekuan abade nintzenean, gauzak hobeto ezagutu aurretik, egunero egiten nuen eskaintza hau. Unibertsoak Jaunari egiten dion sakrifizioa da. Eta horrela, mundu osoa eskaintzen diogu Bhotiyalen Lege

Apartari. Eta orain ere halaxe egiten dut, nahiz eta orain badakidan Aparta den Hura zikoizkeria eta zurikeria guztien gainera dagoela —rapea hartu zuen bere kalabazatik.

— Ondo egina, maisu —murmurikatu zuen Kimek, lasai murgilduz kojinetan, zoriontsu oso eta nekatu samar.

— Eta —agureak barre txiki bat egin zuen—, Bizitzaren Gurpilaren marrazkiak ere egiten ditut. Hiru egun marrazki bat egiteko. Horretan ari nintzen, edo baliteke une batez begiak itxi izana, zure berri ekarri didatenean. Nire artea erakutsiko dizut... ez harrokeriaz, ikasi behar duzulako baizik. Ez dute sahibek mundu honetako jakituria guztia.

Mahai azpitik atera zituen usain bitxia zerion txinatar paper hori bat, pintzelak, eta indiar tinta pusketak bat. Txukun eta apaindurarik gabe, Gurpil Handia marraztu zuen lamak bere sei erradioekin, zentroa Zerria, Sugea eta Usoa direlarik (Jakineza, Amorrua eta Haragikeria) eta solairuak berriz Zeruak eta Infernuak, eta giza bizitzaren aukera guztiak. Esan ohi da Bodhisatek Berak marraztu zuela lehenengo aldiz arroz

leak hautsetara boteaz, bere dizipuluei gauzen zergatia erakusteko. Denbora luzeak gauzatu du tradizio zoragarri hori, ehunka irudi txikiz josita, marra bakoitzak bere esanahia duelarik. Gutxi dira irudi-parabola itzultzeko gauza; mundu osoan hogeia ez dira marrazkia kopiarik gabe ondo egiteko gai; eta marrazkia egin eta azaldu batera egin dezaketenak hiru lagun besterik ez daude.

— Ikasi dut pixka bat marrazten —esan zuen Kimek—. Baina hau zoragarria baino zoragarriagoa da.

— Urte asko eman ditut honetan —esan zuen lamak—. Garai batean hogeita lau orduetan bukatzeko gauza ere banintzen. Arte hau erakutsiko dizut, prestakuntza egokiaren ondoren; eta Gurpilaren esanahia azalduko dizut.

— Bidera joango al gara orduan?

— Bidera eta gure Bilakuntzara. Zure zain baino ez nengoen. Ehun ametsek erakutsi didate garbi asko, eta batez ere Jakituriaren Ateak lehenbizikoz itxi ziren egunaren gauean etorri zitzaidan batek, zu gabe ez nuela sekula nire Ibaia topatuko. Behin eta berriz, ondo dakizunez,

aldendu nuen burutapen hori, lilura zelako bel-
durrez. Horretaz, ezin zintudan nirekin eraman
Lucknoweko egun hartan, gozokiak jaten aritu
ginenean. Ez nuen zu hartzeko asmorik garai
egokia heldu eta parte onekoa izan arte. Mendie-
tatic Itsasora, Itsasotik Mendietara joan naiz,
baina alferrik. Orduan Jâtaka gogoratu zitzaidan.

Zangoan burdina zuen elefantearen istorioa
kontatu zion Kimi, apaiz *jain*-ei horren maiz kon-
tatutako bera.

— Ez dugu beste frogarik behar —bukatu
zuen lasai—. Niri laguntzera bidali zintuzten.
Laguntza kendu zidaten, eta Bilakuntza hutsean
geratu zen. Hala bada, elkarrekin irtengo dugu
berriz, eta gure Bilakuntzak ez du huts egingo.

— Nora joango gara?

— Zer axola dio, Mundu osoaren Adiskide?
Bilakuntzak, esan dizut, ez du huts egingo. Beha-
rrezko bada, lurretik sortuko da Ibaia gure
aurrean. Merituak eskuratu nituen Jakituriaren
Ateetara bidali zintudanean, eta Jakituria den
bitxi hori eman nizunean. Eta, orain ikusten dut,
Sakyamuni Sendagilearen jarraitzaile bihurtu
zara, Bhotiyalen horrenbeste aldare dituen.

Nahikoa da. Elkarrekin gaude, eta gauza guztiak zeuden bezala daude orain, Mundu osoaren Adiskide, Izarren Adiskide, nire *cheld!*

Gero gauza mundutarrez mintzatu ziren; baina, harritzekoa, lamak ez zion St Xavierreko bizimoduaz xehetasunik galdetu, eta jakin-minik txikiena ere ez zuen agertu sahiben ohitura eta usadioez. Burua iraganera zeukan erabat jarrita, eta Kimek eta berak elkarrekin egin zuten lehen bidaia zoragarriaren urrats oro bizitu zituen berriz, eskuak igurtziz eta barre txikiak eginez, zahartzaroaren bat-bateko loaldian murgiltzea desiratu zuen arte.

Azken eguzki hautseztatua patiotik nola desagertzen zen ikusten egon zen Kim, eta mamu-ezpata eta arrosarioarekin jolasean aritu zen. Lurreko hirietan zaharrena denaren zaratak, Benares, gau eta egun esna Jainkoen aurrean, hormak kolpatzen zituen itsasoaren orroak uhin-urrategia astintzen duen bezala. Noizean behin, apaiz *jain* batek gurutzatzen zuen patioa, eskaintza txikiren bat eramanez irudiei, eta bere inguruko lurra erratzarekin garbitzen zuen ustekabean ez ziezaion izaki txikiren bati bizitza kendu.

Kriseilu batek ñirñir egin zuen, eta otoitz baten soinuak jarraitu zion distirari. Kim izarrei begira egon zen, nola altxatzen ziren bata bestearen atzetik ilun gelditako trinkoan, aldarearen oinean loak hartu zuen arte. Gau hartan hindustanieraz egin zuen amets, ingelesezko hitz bat bera gabe...

— Maisu, sendagaia eman genion umea dago —esan zuen, goizeko hirurak aldera, lama, bera ere orduantxe ametsetatik aterata, erromesaldian aterako litzatekeen orduan—. *Jat*-a hemen-txe agertuko zaigu egun argiarekin.

— Ondo erantzun didazu. Presarekin, okerren bat egingo nukeen —kojinetan eseri eta arrosariora itzuli zen—. Zaharrak umeak bezalakoak dira noski —esan zuen era hunkigarrian—. Zer-bait desiratzen dute, eta kontuz, berehalakoan egin behar da, bestela haserretu eta negarrez hasiko dira eta! Bidean nintzenean lurra oinez jotzekotan izan naiz sarritan, idi-gurdi bat zego-elako bidean, edo hauts hodei bat. Ez zen halakorik gertatzen gizon heldua nintzenean... aspal-di. Hala ere ez da barkatzekoa...

— Baina zu zaharra zara, maisu.

— Eginda dago. Zio bat jarri zen munduan, eta, gazte nahiz zahar, osasungabe nahiz osasuntsu, jakinda nahiz jakin gabe, nork geldiarazten ditu Zio horren ondorioak? Gelditu egiten al da Gulpila ume batek bultzatzen duelako, edo mozkor batek? *Chela*, mundu handia eta izugarria da hau.

— Niri ona iruditzen zait —esan zuen Kimek aho zabalka—. Zer dago jateko? Atzo arratsaldeaz geroztik ez dut ezer jan.

— Ahaztuta neukan zure beharra. Hortxe duzu Bhotiyaleko tea eta arroz hotza.

— Horrekin ez gara urrunera helduko —europar guztiek haragitarako duten irrika zeukan Kimek, eta ezin da eliza *jain* batean haragirik eskuratu. Baina eske ontziarekin segituan atera beharrean, arroz hotzezko bolekin lasaitu zuen sabela, eguna argitu zuen arte. Eta egunak nekazaria ekarri zien, berritsu, eskerronez hitz-totelka.

— Gauean sukarra jaitsi zaio eta izerdietan hasi da —egin zuen oihu—. Ukitu hemen... Azala freskoa eta berritua dauka! Gustatu zaizkio pastilla gatzatuak, eta esnea gogo onez hartu du —

kendu zion aurpegitik oihala, eta umeak irribarre egin zion erdi lotan Kimi. Apaiz *jain* taldetxo bat, isilik baina adi, bildu zen elizaren atean. Bazekiten, eta Kimek bazekien apaizek bazekitela, nola ezagutu zuen lama zaharrak bere dizipulua. Jende konplutua zenez gero, ez zuten trabarik egin gauean beren agerpen, hitz edo keinuz. Hartaz, Kimek ordaindu egin zien eguzkia atera zenean.

— Eskerrak *jain*-en Jainkoei eman, anaia — esan zion, ez baitzekien nola deitzen ziren Jainko haiek—. Sukarra jaitsi egin zaio, bai.

— Begira! Ikusi! —lama atzean zegoen irribarrez, hiru urtez ostalari izan zituenen ondoan—. Izan al da sekula horrelako *chela*-rik? Gure Jaun Sendatzailearen jarraitzailea da.

Jain-ek berez erlijio hinduaren Jainko guztiak ematen dituzte ontzat, eta baita Lingam ere, sor-kuntzaren sinboloa, hau da, Faloa, eta Sugea. Brahamanen haria eraman ohi dute, eta kasten lege hindu oro jarraitzen. Baina, lama ezagutu eta maite zutelako, zaharra zelako, Bidearen bila zebilelako, gonbidatua zutelako, eta gau luzeak ematen zituelako apaiz-buruarekin hizketan —

metafisikari adimenzalea berau, lle bat hirurogeita hamar zatietan inoiz zatitu gabea—, adostasuna azaldu zuten marmarka.

— Gogoan izan —Kim umearengana makurtu zen—, arazo hau berriz ere sor daitekeela.

— Ez, zuk aztikeria egokia baldin baduzu —esan zuen aitak.

— Baina berehala alde egingo dugu hemen-dik.

— Halaxe da —esan zien lamak *jain* guztiei—. Elkarrekin abiatuko gara orain sarritan aipatu dudan Bilakuntzara. Nire *chela* heldua izan arte egon naiz zain. Begiraiozue! Iparrera goaz. Ez dut berriz ikusiko atsedean leku hau, borondate oneko jende hori.

— Baina ni ez naiz ordea eskalea —nekazaria zutitu egin zen, umea estutuz.

— Egon geldik. Ez molestatu gizon santua —egin zuen oihu apaiz batek.

— Zoaz —xuxurlatu zion Kimek—. Elkartu berriz gurekin burdinbideko zubi handiaren azpian, eta, gure Punjabeko Jainko guztien izenean, jatena ekarri... kurrya, barazkiak, koipetan

frijitutako txigorrak, eta gozokiak. Batez ere gozokiak. Bizkor ibili!

Gosearen zurtasuna primeran zegokion Kimi, han zutik zegoela, luzea eta argala, harea koloreko arropa lasaietan, esku bat arrosarioan zuela eta bestea bedeinkapenaren keinua eginez, lamari leialtasunez kopiatuta. Ingeles behatzaile batek kristalezko leiho bateko santu gaztea zirudiela esango zukeen, hazten ari zen mutil bat ahuleriaz akabatzen baino ez zenean.

Agurrak luzeak eta konplikatuak izan ziren, hiru bider bukatu ziren eta hiru bider hasi berriz. Bilatzaileak —lama urruneko Tibetetik babesleku hartara gonbidatu zuena, zilar aurpegiko aszeta bizargabe bat—, ez zuen hartan parte hartu, aldiz, meditazioan jardun zuen, beti bezala, irudien artean bakar-bakarrik. Besteak berriz oso gizatiarrak ziren; agureari erosotasun txikiak ematen saiatu ziren —betelezko kutxa, burdinazko arkatz-kaxa berri eder bat, jatekoarentzako poltsa, eta antzekoak—, kanpoko munduaren arriskuez aholkuak emanaz, eta Bilakuntzak bukaera zoriontsua izango zuela iragarritz. Bitartean Kim, inoiz baino bakarrago, eskaileretan

zegoen eserita, eta bere artean erneguka ari zen St Xavierreko hizkeran.

— Nire errua da ordea —bukatu zuen—. Mahbubekin, Mahbuben ogia jaten nuen, edo Lurgan sahibarena. St Xavierren, eguneko hiru jatordu. Hemen neure burua zaindu beharra daukat. Gainera, ez nago entrenatuta. Jango nuke gero platerkada bat haragi orain!... Bukatu al da, maisu?

Lamak, bi eskuak jasota, azken bedeinkape-nari ekin zion txinera apain-apainaz.

— Zure besaburuan sostengatu beharko dut —esan zuen, elizako atea itxi zirenean—. Zurruntzen ari naizela uste dut.

Metro eta laurogeiko gizon baten zama ez da aise eramaten jendez jositako kaleetan barrena, eta Kim, biderako fardelez kargatuta, poztu egin zen burdin bideko zubiaren itzalpera heldu zirenean.

— Hemen jan egingo dugu —esan zuen zirt eta zart, urdinez jantzita eta irribarrez agertu zenean *kanboh*-a, saski bat esku batean eta umea bestean.

— Prest dago mahaia, gizon santu horiek! — egin zuen garrasi berrogeita hamar metrotara

zegoenean. (Zubiaren lehen zatian zeuden, harearen ondoan, apaiz gosetuen begietatik urruti)—. Arroza eta kurry ona, txigor bero-berokak eta *hing*-ez gozatuak, gaztanbera eta azukrea. Nire zelaietako errege —hori semetxoari—, erakuts diezaiegun gizon santu hauei badakigula Jullundurreko *jat*-ok mesede bat ordaintzen... Entzunda neukan *jain*-ek ez dutela jaten beraiek egosi ez duten gauzarik, baina egia esatera —konplitu begiratu zuen ibai zabalaren aldera—, begirik ez dagoen lekuan ez da kastarik.

— Eta gu —esan zuen Kimek, beste aldera jiratuz eta hostozko plater bat lamari beteaz—, kasta ororen gaintetik gaude.

Jateko onez ase ziren isilik. Behatz txikitik azkeneko kondar gozo lingirdatsua milikatu zuen arte ez zen Kim konturatu *kanboh*-a ere bidaia-rako prest zegoela.

— Gure bideek bat egiten badute —esan zien zuzen-zuzenean—, zuekin joango naiz. Mirari egileak ez dira maiz aurkitzen, eta umea ahul dago oraindik. Baina erabat ustela ere ez naiz ni—. Bere *lathi*-a hartu zuen (metro t'erdiko makila, banbuzkoa, burdin leundutako bandez

hornitua), eta haizetan eragin zion—. *Jat*-ak haserrekorrak direla esaten da, baina ez da egia. Amorrarazten gaituztenean izan ezik, gure bufa-loak bezalakoak gara.

— Hala izan bedi —esan zuen Kimek—. Maki-la on bat arrazoi ona da.

Lamak atsegin begiratzen zuen ibaian gora; han, ikusmira luze eta nahasian, ke zutabe luzeak altxatzen ziren etengabe ibai ondoko hileta sutzarretatik. Noizean behin, udal aginduen aurka izanda ere, erdizka erretako gorpu baten zatiak ageri ziren ur azalean lasterraren erdian.

— Zugatik izan ez balitz —esan zion *kanboh*-ak Kimi, umea bere bular iletsuaren kontra estutuz—, haraxe joana nintekeen neu ere, honako hau hartuta. Apaizek esan ohi digute hiri santua dela Benares, eta horretaz ez du inork zalantzarik egiten, eta desiragarria dela hemen hiltzea. Baina nik ez ditut horien Jainkoak ezagutzen, eta beraiek berriz dirua eskatzen dute; eta sakrifizio bat egin eta buruhas batek esaten dizu ez duela ezer emango beste bat egiten ez bada. Garbitu hau! Garbitu bestea! Bota ura, edan, bainatu, bota loreak.._ baina beti ere apaizei ordaindu

behar. Ez, Punjaba niretzat, eta Jullundur-doabeko lurra, bertako lurrik onena.

— Askotan esan izan dut, elizan uste dut, behar izanez gero gure oinetan zabalduko dela Ibaia. Hala bada, Ipar aldera joango gara —esan zuen lamak altxatuz—. Leku atsegin bat gogoratzzen zait, fruitu-zuhaitzez inguratuta, meditazio-tan aritzeko aproposa; freskoagoa ere bada han haizea. Mendietatik dator, eta Mendietako elurretatik.

— Nola du izena? —galdetu zuen Kimek.

— Nola jakin dezaket? Ez al zenuen zuk... ez, hori armada lurretik altxatu eta zu eraman ondoren izan zen. Hantxe egon nintzen meditazioa egiten usategiaren ondoan zegoen gela batean... emakumeak etengabe hitz egiten zue-nean izan ezik.

— A! Kuluko emakumea. Saharunporeren ondoan da hori —esan zuen Kimek barrez.

— Nola mugitzen du izpirituak zure maisua? Oinez joaten al da, iraganeko bekatuak garbitzeko? —galdetu zuen zuhur *jat*-ak—. Puska ederra da Delhiraino.

— Ez —esan zuen Kimek—. Eskean egingo dut *te-ren-erako tikkut* bat lortzeko.

— Orduan, Jainkoen izenean, har dezagun sugurdia. Hobeto dago nire semea bere amaren besoetan. Gobernuak zerga ugari ekarri digu, baina baita gauza on bat eman ere... adiskideak eta antsiaka dabiltzanak elkartzen dituen *te-ren-a*. Gauza zoragarria da *te-ren-a*.

Bi ordu geroago trenaren barruan pilatu ziren denak eta lo egin zuten eguneko ordu beroenetan. *Kanboh*-ak ehunka galdera egin zizkion Kimi lamaren ibilaldi eta bizimoduaz, eta erantzun bitxiak jaso zituen. Pozik zegoen Kim leku hartan egoteagatik, ipar-mendebaldeko paisaia lauari erreparatuz, eta bidai lagunek osaturiko jendetza aldakorrarekin hitz egiteagatik. Oraindik orain, txartelak eraman eta pikatzeko erakutsi beharra zapalkuntza iluna gertatzen zaie indiar nekazariei. Ezin dute ulertu zergatik kentzen dioten ezezagun batzuek, paper pusкета magiko baten truke dirua ordaindu dutenean, zati bat beren kutunari. Hala bada, luzeak eta beroak izan ohi dira eztabaidak bidaiari eta eurasiar txartel-biltzaileen artean. Kimek bizpahiruri

lagundu zien aholku serioak emanaz, eztabaida ilundu asmoz eta lama eta *kanboh* mireslearen aurrean bere jakituria erakustearren. Baina Somna Roaden bidali zien Patuak zertan pentsatua. Trena alde egiten ari zela, gizontxo argal txatxu bat sartu zen balantzaka bagoian, *mahra-tta*, durbante estuaren muturra ikusita Kimek erabaki zuenez. Aurpegia ebakita zeukan, arroparen goiko aldeko muselina zeharo apurtuta, eta zango bat lotuta. Bagoikoei kontatu zien nekazari batzuen gurdia irauli eta hil zorian utzi zuela: Delhira omen zihoan, hantxe baitzuen semea. Kimek bertatik begiratzen zion. Gizonak esan bezala, biraka ibili bazen lurrean, hartxintzarren arrastoak nabaritu behar zitzaizkion larru azalean. Hark zeuzkan zauri guztiek ordea ebaki garbiak ziruditen, eta gurdi batetik erortze hutsak ezin zuten gizon bat horrela ikaratu. Oihal apurtua lepoan lotu zuenean kutun bat agertu zitzaion, «adorea emateko» deritzanetakoa. Kutunak gauza arruntak dira, bai, baina ez dira askotan kobre bihurritz egindako karratu baten barruan egoten, eta are gutxiagok daramate esmail beltza zilar gainean. Ez zegoen

bagoian *kanboh*-a eta lamaz beste inor, eta, zorionez, bagoia bera zahar tankerakoa zen, itxia. Kimek kolkoa arraskatzeko itxurak egin zituen, eta, hala, agerian jarri zuen bere kutuna. *Mahratta*-ri aurpegiera aldatu egin zen erabat hura ikustean, eta bularrean jarri zuen berea, ageri-agerian uztearren.

— Bai —jarraitu zuen gizonak *kanboh*-ari hizketan—, presaka nenbilen, eta gurdiak, zerri batek baitzeraman, putzu batean sartu zuen gurpila, eta egin zidan kalteaz gain tarkian platerkada oso bat ere galdu nuen. Ez nintzen nonbait Kutunaren Semea (gizon zorionekoa) egun hartan.

— Horixe da galera handia —esan zuen *kanboh*-ak, interes itxurak eginez. Benaresen gertatutakoek susmakor egin zuten.

— Nork egosi zuen? —galdetu zion Kimek.

— Emakume batek —*mahratta*-k begiak jaso zituen.

— Baina emakume guztiak egosten dituzte *tarkian*-ak —esan zuen *kanboh*-ak—. Oso kurry ona da, nik dakidanez.

— A, bai, oso kurry ona da. —esan zuen *mahratta*-k.

— Eta merkea —esan zuen Kimek—. Baina zein kastatakoa zen?

— A, ez da kastarik gizonak... tarkian bila joaten diren lekuetan —erantzun zuen *mahratta*-k, agindutako kadentzian—. Noren zerbitzura zaude zu?

— Santu honen zerbitzura —Kimek erdi lotan zihoan lama zoriontsua seinالاتu zuen, eta lama jauzi batez esnatu zen maite zuen mundura.

— A, hau Zerutik bidali zidaten laguntzera. Mundu osoaren Adiskidea deitzen diote. Izarren Adiskide ere deitzen diote. Sendagile baten gisa dabil, heldu zaio garaia eta. Jakituria handia du.

— Eta Kutunaren Semea —esan zuen Kimek ahopetik, *kanboh*-ak presaka pipa prestatzen zuen artean, ez ziezaion *mahratta* eskaka hasi.

— Eta nor da hori? —galdetu zuen *mahratta*-k, zeharka begiratzuz urduri.

— Semea... zera, sendatu diodan bat, eta gurekin zorretan dagoena... Leiho ondoan eseri, Jullundurreko gizona. Hona hemen gaixorik dagoena.

— Hara! Ez daukat ustekabeen topaturiko alferrekin nahasteko desiorik. Ez daukat belarri luzerik. Ez naiz besteen sekretuak entzun nahi dituen emakumea —bazterrera joan zen *jat-a* arrastaka.

— Sendatzailea al zara? Honda-honda eginda nago ni —egin zuen oihu *Mahratta*-k, emandako aukera airean harrapatuz.

— Gizon hau ebakiz eta ubelez josita dago. Sendatzen saiatuko naiz —erantzun zuen Kimek—. Zure semetxoa eta nire artean ez zuen inork trabarik jarri.

— Errieta egin didazu —esan zuen apal *kan-boh*-ak—. Zorretan naukazu nire semearen bizi-tzarengatik. Mirari egilea zara... Badakit.

— Ea, erakutsi ebakiak —Kim *mahratta*-ren lepora makurtu zen, bihotza eztarrian zuela ia; izan ere, Joko Handia zen hura, baina areagotua—. Orain, kontatu dena bizkor, anaia, nik azti-keria bat esaten dudan artean.

— Hegoaldetik nator; han egiten dut lan. Gutako bat bide ertzean hil zuten. Ba al zene-kien? —Kimek buruari eragin zion. Berak noski ez zekien ezer E23-ren aurrekoaz; hegoaldean

agertu zen hilda arabiar merkatariz jantzita—. Behar nuen gutun bat topatu ondoren, alde egin nuen. Hiritik ihes egin eta Mhowera joan nintzen. Ziur nengoen oso inork ezer ez zekiela, eta ez nuen itxura aldatu. Mhowen emakume batek utzi berria nuen hirian bitxiak lapurtzeaz salatu ninduen. Orduan konturatu nintzen alarma zabaldu zela. Gaez alde egin nuen Mhowetik, polizia sobornatu ondoren, polizia sobornatu egin baitzuten ni hegoaldeko etsaiei batere galderarik egin gabe entregatzeko. Gero Chitorreko hiri zaharrean ezkutatu nintzen astebetetz, penitente gisa eliza batean, baina ezin izan nuen gainetik kendu nire kontu neukan gutuna. Erreginaren Harriaren azpian lurperatu nuen, Chitorren, gu guztiok ezagutzen dugun lekuan.

Kimek ez zuen ezagutzen, baina ez zuen kontakizunaren haria moztezko asmorik.

— Chitorren, konturatu ondo, erregeen herrialdean nengoen; izan ere, Kotah, Ekialdean, Erreginaren legeaz kanpo dago, eta Ekialdean daude baita Jaipur eta Gwalior ere. Espiak ez dituzte han gogoko, eta ez dago justiziarik. Zakurra bezala pertsegitu ninduten; baina Ban-

dakuin ihes egitea lortu nuen, eta han jakin nuen salatu egin nindutela utzi berria nuen hirian mutil bat hiltzeagatik. Zain nituen gorpua eta lekukoak.

— Baina ezin al zaitu Gobernuak babestu?

— Jokoan gaudenok ez daukagu horrelako babesik. Hiltzen bagara, hilda gaude. Gure ize-nak desagertu egiten dira liburutik; hori da dena. Bandakuin, non Gutako bat bizi baiten, itxura aldatuz desagerraraziko nuela nire arrastoa bururatu zitzaidan, eta hala *mahratta* bihurtu nintzen. Gero Agrara joan nintzen, eta Chitorre-ra itzultzea erabaki nuen gutuna berreskuratze-ra, guztiz ziur bainengoen atzetik nituenak saihestu egin nituela. Eta horrexegatik ez nion inori *tar*-ik bidali (telegrama) gutuna non zegoen esanez. Meritu guztiak niretzat bakarrik nahi nituen.

Kimek baietz egin zuen buruaz. Ondo uler-tzen zuen sentimendu hura.

— Baina Agran, kalean nenbilela, gizon batek dirua zor niola esan zidan, eta lekuko asko inguraturuz, orduantxe bertan eraman nahi izan ninduen epaitegira. A, bizkorrak dira bai hegoal-

dean! Bere ordezkaria nintzela zioen, kotoi saltzailea. Erreko ahal da infernuan horratik!

— Eta halaxe al zen?

— Hara bestea! Gutunarengatik bila zebiltzan gizona nintzen ni! Harakinen auzoan ezkutatu eta Judutarraren Etxetik atera nintzen; judutarra istiluen beldur zegoen eta kalera bidali ninduen. Somna Roadera joan nintzen oinez, Delhirako *tikkut*-a erosteko dirua baino ez neukan, eta han, erreten batean nengoela sukarrak gaixoturik, gizon bat sasi artetik atera eta astindu egin ninduen, labanaz zauritu eta burutik oinetaraino miatu. *Te-ren*-aren ondo-ondoan izan zen!

— Zergatik ez zintuen hil?

— Ez dira hain zoroak. Legearen aginduz Delhin harrapatzen banaute, hilketa salakuntza frogatu batekin, desiratzen duen Estatuari emango diote nire burua. Zainpean itzultzen naute, eta gero... poliki-poliki hilko nintzateke Gure Taldeko gainontzekoen irakaspenerako. Hegoa ez da nire herria. Zirkuluetan mugitzen naiz, ahuntz begibakarra bezala. Bi egunetan ez dut jan. Ezaugarri bat jarri didate —hankako bendatu zikina ukitu zuen—, Delhin ezagutu nazaten.

— *Te-ren-ean* behintzat toki ziurrean zaude.

— Egon urte bat Joko Handian eta esango didazu hori berriz! Telegrafo hariak nire aurka arituko dira Delhin, nire xehetasun guztiak deskribatuz. Hogeit lagunek, ehun behar izanez gero, ikusiko ninduten mutil hori hiltzen. Eta zuk ez didazu ezertarako balio!

Bazekien Kimek indiarren metodoez aski kasua ezin hobeto antolatuta egongo zenaz, gorpua eta guzti, zalantzarik batere ez izateko. *Mahratta*-k noizean behin behatzak bihurritzen zituen oinazez. *Kanboh*-ak erresuminez begiratzzen zion bere bazterretik; lama arrosarioarekin zebilen lanpetuta; eta Kimek, gizonaren lepoaren inguruan sendagileen erara mugituz, inbokazio artean antolatu zuen bere plana.

— Ba al duzu itxura aldatzeko aztikeriarik? Hilda nago bestela. Bost... hamar minutu bakarrik, horrenbeste estutu ez banindute, eta agian...

— Sendatuta al dago, mirari egile? —esan zion *kanboh*-ak jeloskor—. Nahikoa luze kantatu duzu.

— Ez. Zauri hauentzako sendabiderik ez dago, nire ustez, ez baldin baditu hiru egun *bairagi*-z jantzita ematen —penitentzia arrunta da hori, merkatari gizenegiari bere maisu izpiritualak sarritan ezartzen diona.

— Apaiza beti saiatzen da beste apaizak egiten —izan zen erantzuna. Oso superstiziozalea den jende gehienak bezala, *kanboh*-ak ere ezin izaten zion uko egin elizaz gaizki esaka aritzeari.

— Zure semea ere apaiza izango al da orduan? Nire kinina hartzeko ordua du berriz.

— *Jat*-ok bufaloak gara denak —esan zuen *kanboh*-ak, bigunduta.

Kimek zumintz pixka batez igurtzi zituen umearen ezpain txiki sineskorrak.

— Ez dut ezer eskatu —esan zion serio aitari—, jatekoa izan ezik. Arrangura al didazu horregatik? Beste gizon bat sendatu behar dut. Ematen al didazu baimena... printze jauna?

Gizonaren atzapar handiak erregu keinuan altxatu ziren.

— Ez, ez. Ez niri horrela iseka egin.

— Atsegin dut gaixo hau sendatzea. Zuk merituak eskuratuko dituzu laguntzen badidazu.

Zein koloretakoa duzu pipa-ontziko errautsa? Zuria? Hori parte onekoa da. Ba al zen kurkuma gordinik zure jatekoetan?

— Nik... nik...

— Zabal ezazu poltsa!

Ohiko txikikeria arruntak agertu ziren: oihal pusketak, petrikiloen sendagaiak, ferietako hizki-mizkiak, atta-grisaska, indiar irin zakar ehoa zapi batean bilduta, nekazal tabako hariak, pipa-hodi apainduak eta kurry bakete bat, estalki batean bilduta guztiak. Kimek dena aztertu zuen azti jakintsu baten eiteaz, mahomatar inbokazio bat murmurikatuz.

— Sahibei ikasitako jakituria da —xuxurlatu zion lamari; eta horretan, Lurganenean izandako entrenamendua gogoraturuz, ez zuen gezurrik esaten—. Gaitz handi bat dago gizon honen patuan, Izarrek erakutsi bezala, eta... eta horrek kezkatu egiten du. Kenduko al diot?

— Izarren Adiskide hori, ondo jokatu duzu gauza guztietan. Izan bedi zuk nahi bezala. Beste sendaketa al da hau?

— Bizkor! Bizkor ibili! —esan zuen arnasestuka *mahratta*-k—. Gelditu egin liteke trena.

— Heriotzaren itzalaren aurkako sendakuntza-esan zuen Kimek, *kanboah*-aren irina buztin gorrizko piparen ontziko ikatza eta tabakoaren errautsarekin nahastuz. E23-k, hitzik atera gabe, durbantea kendu eta ile beltz luzea askatu zuen.

— Hori nire jatekoa da... apaiza —esan zuen marmarka *jat*-ak.

— Bufaloa elizan! Horren urrutira begiratzen ausartu al zara? —esan zuen Kimek—. Misterioak burutu behar ditut jende ergelaren aurrean; baina zaindu begiak. Ez al zara konturatu estaltzen hasita dauzkazula? Umea salbatu dizut, eta zuk, ordainetan... O, lotsagabea! —gizona kuzkurtu egin zen begiratu zuzenaren azpian, Kim oso serio ari baitzen—. Madarikatu egingo zaitut... —fardelaren kanpoko zapia hartu eta buru soilaren gainean jarri zuen—. Ikusteko desioa duzula pentsatzen ere saiatu, eta... eta... neronek ere ezingo zaitut salbatu. Egon! Eta egon mutu!

— Itsua naiz... mutua. Ez madarikaziorik egin! Za... zatoz, ume; gordeketan ibiliko gara jolasean. Ez begiratu, inola ere, oihalaren azpitik.

— Bada esperantzarik —esan zuen E32-k—. Zer asmo duzu?

— Hori hurrena dator —esan zuen Kimek, alkandora meheari tiratuz. E23-k zalantza egin zuen, ipar-mendebaldekoek ez baitute biluztea atsegin.

— Zertarako balio dio kastak moztutako lep-ari? —esan zuen Kimek, alkandora gerriraino ebakiz—; *saddhu* horia bihurtu behar zaitugu, burutik oinetaraino. Erantzi... erantzi bizkor, eta astindu burua begien ganean nik errautsa botatzen dudan artean. Orain, kasta ikurra kopetan —kolkotik atera zituen Saileko marrazki-kaxa txikia eta laka gorri biziko pastilla bat.

— Hasberria al zara? —esan zuen E23-k, literalki bere bizitzaren aldeko ahaleginetan, bere gorputzaren estalkietatik atera eta galtza motxetan geratzen zelarik, Kimek errautsez zikindutako kopetean ohorezko kasta ikur bat jartzen zion artean.

— Bi egun baino ez dira Jokoan sartu nintzetik —erantzun zuen Kimek—. Jarri errauts gehiagobularrean.

— Ezagutzen al duzu zuk... perla gaixotuen sendatzaile den bat? —durbantearen tolesturiko oihal luze estua astindu zuen, eta esku bizkorrez, bira eta bira estutu zuen giltzurrunen azpitik *saddhu*-en gerrikoaren tankera nahasian.

— Ja! Ezagutzen al duzu zuk ere haren ukitua? Irakasle izan nuen puska batean. Hankak estali behar dizkizugu. Errautsak zauriak sendatzen ditu. Zabaldu berriz errautsa.

— Ni haren harrotasuna izan nintzen garai batean, baina zu hobea zara ia-ia. Jainkoak alde ditugu! Emadazu hori.

Opio pastilla kutxa txiki bat zen, *jat*-aren fardeleko zikinkerien artean zegoena. E23-k esku-kada erdia irentsi zuen.

— Onak dira hauek gosea, beldurra eta hotzaren aurka. Eta begiak gorritu egiten ditu — azaldu zuen—. Orain izango dut Jokoari ekiteko adorea. *Saddhu*-en turkesak baino ez zaizkigu falta. Zer egingo dugu arropa zaharrarekin?

Kimek bil-bil egin zuen arropa, eta bere tunikaren tolesdura zabaletan sartu. Margo pusqueta hori-arre batez hankak eta bularra estali zizkion,

arrasto handiak utziz azpiko irin, errauts eta kurkumaren gainean.

— Arropa horretan dagoen odola aski duzu urka zaitzaten, anaia.

— Baliteke; baina ez dago zertan leihotik bota behar... bukatuta dago —ahotsak dardara egin zion Jokoan parte hartzen duen mutiko baten pozarekin—. Egin buelta eta begiratu, *jat!*

— Jainkoek zain gaitzatela —esan zuen *kanboh* kapusaidunak, bufaloa kanabera artetik bezala atereaz—. Baina... nora joan da *mahratta*? Zer egin duzu?

Lurgan sahibak erakutsita zegoen Kim; E23 berriz, bere lanbidea zela eta, ez zen aktore txarra. Tratulari dardarati eta kuzkurtuaren ordeztu, hantxe ageri zen zokoaren kontra *saddhu* bat ia biluzik, errautsez igurtzia, marra horixkekin eta hautseztatua ilea, begi haziak —eragin bizkorra du opioak urdail hutsean— distiratsu lotsagabekeria eta haragikeria ikaragarriaz, zangoak gurutzatuta, Kimen arrosario arrea lepoaren bueltan, eta metro eskas bat kretona zaharkitu loreduna zuela sorbalda gainean. Umeak aita txundituaren besoetan murgildu zuen aurpegia.

— Altxa begiak, printze txiki hori! Sorginekin goaz, baina ez dizue kalterik egingo. O, ez negarrik egin... Zer zentzu du egun batean ume bat sendatzeak eta hurrengoan berriz ikaraz akabatzek?

— Ume hori zoriontsua izango da bere bizitza osoan. Sendakuntza handia ikusi du. Txikitan, buztinezko zaldiak eta gizonak egiten nituen nik.

— Nik ere egin izan ditut. Sir Banás gauez etortzen da eta bizi erazi egiten ditu denak sukaldeko zabortegiaren atzean —esan zuen umeak.

— Eta horregatik ez zaitu ezerk ikaratzen. Ezta, printze hori?

— Aita ikaratuta zegoelako nengoen ni ere ikaratuta. Sentitu egin dut nola egiten zioten besoek dardara.

— A zer oilo bustia! —eta *jat* lotsatuak berak ere barre egin zuen—. Sendakuntza burutu dut tratulari gizarajo honekin. Irabaziak eta kontu-liburuak ahaztu behar ditu eta bide ertzean eserita egon hiru gauez bere etsaien gaiztakeria gainditzeko. Izarrak aurka ditu.

— Zenbat eta diru-mailegari gutxiago, askoz hobeto, esan ohi dut nik; baina *saddhu* izanda edo izan gabe, sorbaldetan daraman oihala ordaindu beharko lidake.

— A bai? Baina zuk semea lepoan daukazu, eta heriotza-sutzarrerako zegoen bi egun ere ez direla. Beste gauza bat geratzen da. Zure aurrean egin dut aztikeria, larria baitzen beharra. Gorputza eta arima aldatu dizkiot. Hala ere, edozein ustekabez, Jullundurreko gizon hori, ikusi duzuna gogoratzen baduzu, nahiz herriko zuhaitzaren azpian zaharren artean eserita zaudela, nahiz zure etxean, nahiz apaiza abereak bedeinkatzen ari zaizkizunean, izurritea zabalduko zaizu bufaloen artean, su hartuko dizu etxeko teilatuak, saguak agertuko zaizkizu ganbaran, eta gure jainkoen madarikazioa joango da zure zelaietara, zure oinen aurrean eta goldearen hortzen atzean agor daitezten.

Taksali Ateko fakir bati ikasitako madarikazio zahar baten zatia zen hura, Kim inuzentea zeneko garaikoa. Ez zuen ezertxo ere galdu errepikatzerakoan.

— Ixo, maisu! Mesedez, isildu zaitez! —egin zuen oihu *jat-ak*—. Ez dezazula etxea madarika-tu. Ez dut ezer ikusi! Ez dut ezer entzun! Zure behia nauzu! —eta bagoiaren zorua erregular-tasunez jotzen zuten Kimen oin hutsei heltzen saiatu zen.

— Baina honetan laguntzen utzi zaizunez gero nire arterako erabiliz ohore eman diedan irin pixka bat, opio apur bat eta antzeko txikike-riekin, Jainkoek beren bedeinkapena emango dizute ordainetan —eta berehala eman zion bedeinkapena, gizonak lasaitu ederra hartu zue-larik. Lurgan sahibi ikasitakoa zen.

Betaurrekoen atzetik begira-begira zuen lama, E23 mozorrotzerakoan begiratu zuen ez bezala.

— Izarren Adiskide —esan zuen azkenean—, jakituria handia eskuratu duzu. Kontuz ibili, ez zaitzan horrek harrokeriaren bekatura eraman. Begien aurrean Legea duen gizonak ez du zakar hitz egiten ikusi edo topatu duen ezertaz.

— Ez noski, ez, ez —egin zuen oihu nekaza-riak, ez zezan maisuak ikaslea hobeagotu.

E23, ahoa lasaituta, opioari emanda zegoen, jatena, tabakoa eta sendagaia baita opioa asiar ahituarentzat.

Halaxe bada, harridurak eta gaizki ulertuak sortarazitako isiltasunean, heldu ziren Delhira kriseiluak pizten dituzten orduan.

12. ATALA

*Nork du desiratu Itsasoa, nork ur gazi amaiga-
bearen*

ikuskaria?

*Nork olatuak aitzinatzen eta gelditzen eta
oldartzen eta*

eztanda egiten haizea dutela jarraika?

*Nork distiraz tontortzen eta gailurtzen, ekaitza
baino lehen,*

*arre, apargabe, erraldoi, geroz eta garaia-
go?*

*Ekuator Lerroaren altzoan bare geldoa, edo
haize*

zurrunbiloaren begi zoratua puzka?

*Bere Itsasoa, iduriz desberdin beti, bere Itsa-
soa*

beti berdin iduri ororen azpitik?

*Halaxe eta ez bestela, halaxe eta ez bestela
du desira*

menditarrak bere Mendia!

Itsasoa eta Mendiak.

— Berreskuratu dut adorea —esan zuen E23-
k, kaiko iskanbilaren babesean—. Goseak eta

beldurak tuntundu egiten dute jendea, bestela bururatuko zitzaidakeen niri ere ihesbide hau. Zuzen nengoen. Nire bila datoz. Bizitza salbatu didazu.

Praka horiekiko punjabiar polizia talde bat ageri zen bagoien inguruko jendearen artetik zetorrela, ingeles gazte bat, beroak eta izerditan, zutela buruzagi. Haien atzetik, batere nabarmendu gabe, gizon lodi txiki bat zetorren, abokatu baten laguntzaile itxurakoa.

— Ikusi papera irakurtzen ari den sahib gaztea. Eskuetan dauka nire deskribapena —esan zuen E23-k—. Bagoiz bagoi doaz, sarea putzura botatzen ari diren arrantzaleak bezala.

Segizioa beren bagoira heldu zenean, arrosarioaren aleak pasatzen ari zen E23 eskumuturra indarrez mugituz; artean Kimek trufa egiten zion horren drogatuta egoteagatik non *saddhu*-en ikur bereizgarria diren orrikak galdu baitzituen. Lama, meditazioetan murgilduta, aurrera so zegoen; eta nekazaria, zeharka begira, bere gauzak jasotzen ari zen.

— Apaiz zoro talde bat besterik ez hemen —esan zuen ozen ingelesak, eta deserosotasun

uhinen artean igaro zen, indiar poliziak indarke-
ria esan nahi baitu India guztiko indiarrentzat.

— Arazoa orain —xuxurlatu zuen E23-k—,
telegrama bat jarri beharra da, bila bidali nindu-
ten gutuna non ezkutatu nuen esanez. Nik ezin
dut *tar* bulegora itxura honetan joan.

— Ez al da aski zure lepoa salbatu izana?

— Ez, lana burutu gabe geratzen bada. Ez al
zizun perla gaixotuen sendatzaileak horrelakorik
esan? Beste sahib bat dator! A!

Distrituko superintendentea zen orain, luzea
eta azal ilunekoa, gerriko, kasko, ezproi distira-
tsu eta gainontzeko guztiarekin, arrandiaz ibiliz
bibote iluna lisatzen zuen artean.

— Zeinen zoroak diren sahib poliziak! —esan
zuen Kimek atseginez.

E23-k betileen azpitik begiratu zuen.

— Ondo esana —murmurikatu zuen ahotsa
aldatuz—. Ura edatera noa. Gordeidazu lekua.

Balantzaka atera zen eta ingelesaren besoe-
tan erori zen ia-ia; ingelesak epelak esan zizkion
urduera tamalgarriz.

— *Tum mut?* Mozkorra al zaude? Ez duzu kol-
peka ibili behar Delhiko geltokia zurea bazenu

bezala, motel.

E23-k, aurpegiko gihar bat bera ere mugitu gabe, izugarrizko irain zaparrada batez erantzun zion, eta hark noski asko poztu zuen Kim. Umballako danbor-joleak eta garbitzaileak gogorarazi zizkion, lehen aldiz eskolara joan zeneko garai ikaragarri hartan.

— Txoro ergela —esan zuen mantso ingelesak—. *Nickle jao!* Zoaz berriz zure bagoira.

Urratsez urrats, atzera eginez errespetuz eta ahotsa jaitsiz, bagoira igo zen berriz *saddhu* horia superintendentea hirugarren belaunaldira arte madarikatuz, eta —hor Kim jauzika hastekotan egon zen—, eta Erreginaren Harriaren madarikazioa erantsiz, Erreginaren Harriko idazkiarena, eta izen guztiz berriak zeuzkaten jainko sorta batena.

— Ez dakit zer ari zaren esaten —amorruek gorritu zuen ingelesa—, baina eramanezineko lotsagabekeriaren bat da. Alde hortik!

E23-k, gaizki ulertuarena eginez, bere txartela atera zuen serio-serio, eta ingelesak haserre-tuta eskutik kendu zion.

— O, *zulum!* Hau basakeria! —esan zuen marmarka bere zokotik *jat-ak*—. Eta dena txanxetan aritzeagatik! —irribarrez aritua zen *saddhu*-aren mingain librearekin—. Zure aztikeriek ez dute onik egiten gaur, maisu!

Saddhu-a poliziaren atzetik joan zen, zurikeriak eta erreguak oihukatuz. Bidaiari taldeak, beren fardel eta umeekin, ez ziren ezertaz konturatu. Kim atzetik joan zitzaien. Bat-batean bururatu zitzaien sahib haserrekor, zoro hura entzun zuela behin atso batekin xelebrequeriak esaten Umballa inguruan hiru urte lehenago.

— Ondo doa dena —xuxurlatu zion *saddhu*-ak, deika, garrasika eta beldurrak zegoen jendezaren artean harrapatuta, xarlango persiar bat zuela hanka-tartean eta *rajput* baten zainpean zegoen falkoi zaratatsuz betetako kaiola bat giltzurrunen parean—. Ezkutatu nuen gutunaren berri bidaltzera joana da. Peshawurren zegoela esan zidaten. Jakin beharko nukeen krokodiloak bezalako delatza gizon hori: ibaiaren bestaldean beti. Oraingo hondamendiaz berak salbatu nau, baina bizitza zuri zor dizut.

— Gutakoa al da hori ere? —Kim *mewar* gamelu gidari koipetsu baten besazpitik igarozen makurtuta, eta *sij* emagin talde berritsu batekin txokatu zen.

Handiena gainera. Zorionez gabiltza biok! Emango diot zuk egin duzunaren berri. Seguru nago horren babespean.

Bagoiak inguratzen zituen jendetzaren artean bidea egin eta telegrafo bulego ondoko banku batean eseri zen.

— Zoaz berriz trenera, bestela lekua kenduko dizute eta! Ez beldurrik izan lanarengatik, anaia... edo nire bizitzarengatik. Zuk arnasaldi bat eman didazu eta Strickland sahibak ur-azalera atera nau. Baliteke berriz ere jolaskide izatea. Agur!

Kim bere bagoira joan zen presaka: zoriontsu, harrituta, baina triste samar ez zuelako bere inguruko sekretuen giltza.

«Hasberria besterik ez naiz Jokoan, hori segurua da. Ni ez nintzatekeen babespean jarriko *saddhu*-ak egin zuen bezala. Berak bazekien ilunago zegoela kriseiluaren azpian. Niri ez litzaida-ke burutik pasa ere egingo iraintzeko itxurak egi-

nez albisteak ematea... eta zeinen bizkorra den
sahiba! Ez dio axola, baten bizitza salbatu dut...
Nora joan da *kanboh*-a, maisu? —xuxurlatu zuen
Kimek ordurako jendez josita zegoen bagoian.

— Beldurrak harrapatu du —erantzun zuen
lamak, ironia ukitu samur batez—. Zitzu batean
saddhu bihurtzen ikusi du *mahratta*, gaitzaren
aurkako babes gisa. Horrek txundituta utzi du.
Gero *saddhu*-a *poli*-en eskuetan zuzen-zuzenean
erortzen ikusi du... dena zure artearen ondorioz.
Eta semea hartu eta aldean joan da; esan du
merkatari lasai bat sahibak iraintzen dituen
lotsagabea bihurtu duzula, eta beldur zen ez ote
zenuen berarekin ere antzera egingo. Non da
saddhu-a?

— *Poli*-ekin —esan zuen Kimek— ...hala ere,
kanboha-ren semea salbatu egin dut.

Lamak rapea hartu zuen poliki.

— Ai, *chela*! Nola engainatu duzun zeure
burua! Merituak eskuratzeko bakarrik sendatu
zenuen *kanboha*-ren umea. Baina mahrattari
harrokeriaz egin diozu aztikeria... begira nengo-
en..., eta agure hori, nekazari ezjakina, zeharka-

ko begiratuekin txundituta uztearren: eta hortixe etorri dira ezbeharrak eta susmo txarrak.

Kimek bere buruari eutsi zion zituen urteen gainerikako ahaleginak eginez. Beste edozein gaztek bezain gutxi atsegin zuen errietak entzun edo gaizki ulertua izatea, baina kinka larrian zegoela konturatu zen. Trena Delhitik atereaz gauaren ilunean ari zen sartzen.

— Egia da —murmurikatu zuen—. Gaizki jokatu dut zuri irain eginez.

— Hori baino gehiago da, *chela*. Ekintza bat jaurtiki duzu mundura, eta putzu batera botatzen den harria bezala, ez dakizu noraino hel daitekeen ekintza horren eragina.

Ezjakitasun hori on askoa izan zen ordea Kimen harrokeriarentzat eta baita lamaren arimaren bakerako ere, pentsatzen badugu orduantxe ari zirela Simian jasotzen kodean idatziriko telegrama bat E23 Delhira iritsia zela esanez, eta, hori baino garrantzitsuago, gutun baten nondik norakoaz informazioa emanaz, E23-ri agindu ziotena... lapurtzeko. Ustekabean, polizia arduratsuegi batek atxilotu zuen, hegoalde urruneko estatu batean egindako hilketa zela-eta,

ikaragarri asaldatu zen kotoi saltzaile *ajmir* bat, eta Mr Strickland bati ari zitzaion dena azaltzen Delhiko geltokian, E23-1c zeharbidez Delhiren bihotz ezkutua iristen zuen artean. Bi ordutan zenbait telegrama heldu zitzaion hegoko estatu bateko ministro haserretu bati, esanez galdua zela *mahratta* ubeldu samar baten arrasto oro; eta tren lasaia Saharunporen gelditu zenerako Kimek botatzen lagundu zuen harriaren azken zirkulua iristen ari zen Roum urruneko meskita baten eskaileretara, otoian ari zen gizon zintzo bati traba eginez.

Lamak berriz ederki asko egin zituen bere otoitzak kai ondoan, ihintzak estaliriko buganbila hesidunen aldamenean, eguzkiaren argiak eta bere dizipuluaren presentziak adoretuta.

—Atzean utziko ditugu gauza horiek —esan zuen, lokomotora zaratatsua eta burdinbide distiratsua seinalatuz—. *Te-ren*-aren mugimenduak, gauza zoragarria bada ere *te-ren-a*, urtu egin dizkit hezurak. Haize garbia erabiliko dugu hemendik aurrera.

— Goazen Kuluko emakumearen etxera —esan zuen Kimek, eta alai-alai abiatu zen bere

fardelen azpian. Saharunporeko bidean goizak garbiak eta usain gozokoak dira. St Xavierreko beste goizak gogoratu zitzaizkion, eta oroitzapen hark zuen poza are gehiago ase zuen, ordurago hiru bider asea baitzegoen.

— Nondik jaio da presa berri hori? Gizon zuhurrak ez dira korrika ibiltzen oiloak eguzkitan bezala. Dagoeneko ehunka *koss* egin ditugu, eta, orain arte, ez naiz zurekin bakarka ia batere egon. Nola ikas dezakezu ezer jendez inguratuta beti? Nola egin dezaket nik, hitz zaparradatan murgilduta, Bideaz meditaziorik?

— Atso horren mingaina ez da orduan urteekin laburtzen, ezta? —irribarre egin zuen dizipuluak.

— Ezta aztikeriak lortzeko duen desioa ere. Gogoan dut nola mintzatu nintzen behin Bizitzaren Gurrupilaz —egin zuen azken kopiaren bila hasi zen lama kolkoan—, eta umeei eraso egiten dieten deabruak baino ez zitzaizkion interesatzen. Merituak eskuratuko ditu gu gonbidatuz... geroxeago... beste batean... poliki, poliki. Orain oinek eramaten gaituzten lekura joango gara,

Gauzen Katean konfiantza izanez. Bilakuntzak ez du huts egingo.

Hala bada aurrera egin zuten patxadaz zuhaitzi loratuak gurutzatuz, Aminabad, Sahai-gunge, Fordeko Akrola, eta Phulesa txikitik, Siwaliken mendi katea iparrean zutela beti, eta atzean berriz ere elurra. Izar lehorren azpian egindako loaldi luze eta gozoaren ondoren, esnatzen ari zen herritikako pasio dotore eta lasaia zetorren: eskean, eske-ontzia isilik luzatuta, baina begiak batera eta bestera mugituz, Legeari jaramonik egin gabe. Gero Kim, hauts bigunetan pauso bigunez, bere maisuarengana itzultzen zen mango zuhaitz baten itzaletara edo Dun *siris* zuri baten itzal meheagora, patxadan jan eta edateko. Eguerdian, hizketan jardun eta bide pixka bat egin ondoren, lo egiten zuten; eta freskatua topatzen zuten mundua haizea hozxeagoa zenean. Lurralde berrietan sartzen harrapatzen zituen gauak: lur emankorretatik hiru ordu lehenago begizatutako herri aukeraturen bat, bidean oso aztertua.

Han beren istorioa kontatzen zuten —gauero desberdina, Kimi zegokionean—, eta han, herri-

ko apaizak nahiz agintariak, ongiatorria egiten zien, Ekialde atseginarean usadioari jarraiki.

Itzalak laburtzen zirenean eta lama astunago sostengatzen Kimen gainean, beti zuten eskura Bizitzaren Gurpila; aurrez garbituriko harrien azpian lisatuta jartzen zuten eta zikloz ziklo azaldu makila luze baten laguntzaz. Han esertzen ziren Jainkoak, goian, eta ametsen amets dira. Hantxe zegoen gure Zerua eta erdi-Jainkoen mundua, zaldunak zelaietan borroka. Han zeuden animaliek pairatzen dituzten gaitzak, ezkaratza igo edo jaisten duten arimak eta, horretaz, ez zaie trabarik egin behar. Hantxe ageri ziren Infernuak, bero eta hotz, eta izpiritu oinazedunen egoitza. Ikas ditzala *chela*-k gehiegi jatetik datozen kalteak: urdail hazia eta este erreak. Hala bada, zintzo-zintzo, burua makurtuta eta behatz iluna gauzak seinalatzen zizkionari jarraitzeko prest, ikasi egiten zuen Kimek; Gizakien Mundura heltzen zirenean ordea, lehiatsua eta probetxurik gabea, Deabruen gainean doi-doi dagoelarik, distraitu egiten zen; izan ere, bide ertzean Gurpila bera baitzebilien jira-biraka, jaten, edaten, saltzen, erosten, ezkontzen, eta

errietan: bizi-bizia dena. Lamak sarritan errealtatea bera bihurtzen zuen testuaren gai, Kimi ikustaraziz —eta horretarako gogoz zegoen beti Kim— nola haragiak ehunka tankera desberdin hartzen dituen, desiragarria edo gorrotagarria gizonen ustetan, baina batera nahiz bestera baliorik gabea azkenean; eta nola izpiritu inozoak, Zerria, Usoa eta Sugearen menpekotasunean, betel intxaurra desiratzen duelarik, idi pare berria, emakumea, edo erregeen mesedea, gorputzari jarraitu behar dion, Zeru eta Infernuen barrena, behin eta berriz. Batzuetan emakume edo gizon pobre batek, errito hura ikusiz —ez baitzen gutxiagorik— paper hori handia zabalitzen zutenean, loreak edo eskukada bat kauri botatzen zuen ertzera. Jende apal hark aski zuen bere otoitzetan gogora zitzakeen gizon santu bat topatu izana.

— Senda itzazu gaixorik badaude —esan zion lamak, Kimi jolaserako gogoia pizten zitzaionean—. Senda itzazu sukarra badute, baina ez ezazu inola ere aztikeriarik egin. Gogoan izan *mahratta*-ri gertatutakoa.

— Orduan, txarrak al dira Egite guztiak? —
erantzun zuen Kimek, zuhaitz handi baten
azpian etzanda Duneko bidegurutzean, xinau-
rriak bere esku gainean korrika nola egiten zuten
ikusiz.

— Egiteak baztertzea ona da, merituak esku-
ratzeko izan ezik.

— Jakituriaren Ateetan erakutsi ziguten jar-
duteari izuri egitea ez zela gauza egokia sahi-
bentzat. Eta ni sahiba naiz.

— Mundu osoaren Adiskide —zuzenean begi-
ratu zion lamak Kimi—, ni zaharra naiz, eta ikus-
kizunak umeei bezain gustagarri gertatzen zaiz-
kit. Bideari jarraitzen diotenentzat ez dago ez
beltzik ez zuririk, ez India ez Bhotiyal. Ihesbidea-
ren bila gabiltzan arimak gara denok. Sahiben
artean edozer ikasi duzula ere, nire Ibaira iris-
tean ilusioaz libratuko zara, nire ondoan. *Hai!*
hezurrak minez dauzkat lbai horrengatik, *te-ren-*
ean minez zeuden bezala; baina izpiritua zain
daukat hezurren gainean eserita. Bilakuntzak ez
du huts egingo!

— Erantzun didazu. Egin al dezaket galdera
bat?

Lamak bere buru dotorea makurtu zuen.

— Zure ogia jan dut hiru urtez... zuk ondo dakizun bezala. Maisu, nondik zetorren...?

— Aberastasun ugari da, gizonek dioten bezala, Bhotiyalen —erantzun zuen lasai lamak—. Nire lurrean ohoreen lilura daukat. Behar dudana eskatzen dut, ez daukat diruaz kezkatu beharrik. Monasterioa arduratzen da horretaz. Ai! Monasterioko eserleku beltz altuak, eta lekaide guztiak ilaratan!

Eta istorioak kontatzen zituen, behatz batez hautsetan marratuz, elurteez babesturiko katedraletako errito handi eta dotoreez; segizioez eta deabruen dantzez; nola moja eta fraideak zerri bihurtzen ziren; monasterioen arteko azpijokoez; mendi arteko ahotsa, eta betiko elurretan dantzatzen den lilura misteriotsuaz. Lhassaz ere mintzatu zen, eta Dalai Lamaz, ikusi baitzuen eta jauretsi.

Egun luze, ezin hobe haietako bakoitza Kimen atzean altxatzen zen bere enda eta ama-hizkuntzatik banatzen zuen hesia osatuz. Berriz ere hindieraz pentsatu eta egiten zuen amets, eta oharkabean jarraitzen zituen lamaren ohitu-

ra erritualak jan, edan eta antzekoetan. Agurearen pentsamenduek, begiak betierako elurretara eramanez, gero eta gehiago jotzen zuten bere monasteriora. Ibaiak ez zuen batere kezkatzen. Noizean behin, hori bai, luze egoten zen sasi edo txorten bati begira, esaten zuenez, noiz zabalduko ote zitzaien lurra bere bedeinkapena eskainiz; baina pozik zegoen bere dizipuluarekin zegoelako, Dunetik behera datorren haize samurra gozatuz. Ez zen hura Ceylan, ez Buddh Gaya, ez Bombay, ezta bi urte lehenago nonbait topatu zituen hondakin sasiz josiak ere. Leku haietaz harrokeriarik gabeko adituaren eran mintzatzen zen, apaltasunean mugitzen zen Bilatzaile bezala, adineko gizon bezala, zuhurra eta neurtua, jakituria sena distiratsuz aberastuz. Pixkanaka-pixkanaka, zeharkako gauzaren batek beste istorio bat zekarrelarik, Indian gora eta behera egindako ibilaldiez mintzatu zen; eta Kimek, hasieran arrazoi jakirik gabe maitatu zuelarik lama, hamaika arrazoiengatik maite zuen orain. Hala gozatzen zuten bada, guztiz zoriontsu, alde batera utziz, Arauak eskatu bezala, hitz txarrak, desio zekenak; gehiegi jan gabe, ohe altuetan

etzan gabe, arropa aberatsak erabili gabe. Sabelak adierazten zien noiz jan, jendeak ekartzen zien jatekoa, esan ohi den bezala. Aminabad, Sahaigunge, Fordeko Akrola eta Phulesa txikiko jaunak ziren, non Kimek arimarik gabeko emakumea bedeinkatu baitzuen.

Bidaiari bizkorrak dira ordea Indian albistek, eta azkar asko agertu zen, garietan barrena, Kabuleko mahatsa eta laranja doratuz betetako saski bat zeramala patila zuriko zerbitzari bat, *ury*-a mehe eta gihartsua, bere nagusiarengana joateko ohorea egin zezatela erregutuz Kim eta lamari, kezkatuta baitzegoen etxeoandrea horren luze ahaztuta zuelako lamak.

— Orain gogoratzen naiz —proposamen hura guztiz berria balitz bezala mintzatzen zen lama—. Emakume bertutetsua da, baina guztiz berri-tsua.

Kim aska baten ertzean zegoen eserita, herriko errementariaren semeari istorioak kontatzen.

— Bere alabarentzako beste seme bat baino ez dit eskatuko. Ez zait ahaztu —esan zuen—. Eskura ditzala merituak. Esaiozu joango garela.

Hemezortzi kilometro egin zituzten bi egunetan zelaietan barrena, eta begirunez hartu zituzten ibilaldiaren bukaeran; izan ere, abegikortasun tradizio luzea mantentzen zuen andreak, eta hartara behartu zuen suhia ere, familiako emakumeen agindupean baitzegoen hura, eta dirumailegari bati dirua eskatuz erosten zuen bakea. Adinak ez zituen atsoaren mingaina eta oroimena ahuldu, eta burdin sare diskretu bat zuen goiko leiho batetik, gutxienez dozena bat zerbitzarik entzuten zuela, europar entzulegoa lotsalotsa eginda utziko lituzkeen konplituak egin zizkion Kimi.

— Baina *parao*-ko eskale lotsagabea zara zu eta —esan zion txilioka—. Ez zaitut ahaztu. Garbitu zaitez eta jan. Alabaren semearen aita joan egin da puska baterako. Hala, emakume gaixok, mutu eta ezertarako gauza ez garela geratu gara.

Haren froga eman nahian, etxeko guztiei aritu zitzairen errietan jana eta edana ekarri zuten arte; eta iluntzean —ke usaineko iluntzean, kobre eta turkesa kolorekoa zelaietan zehar—, palankina jar zezatela patio zikinean

agindu nahi izan zuen, zuzi ketsuen argietan; eta hantxe, oso estu itxi gabeko gortinen atzean, hasi zen maiseaketan.

— Maisua bakarrik etorri izan balitz, beste era batera egingo niokeen ongi etorria; baina txori galdu honekin, nola ez bada arduraz ibili?

— *Maharani* —esan zuen Kimek, beti bezala hizkera dotorea aukeratuz—, nire errua al da bada sahib den batek, *polis*-sahib batek gainera, maharani-ari esatea, aurpegia...?

— Ixo! Erromesaldian izan zen hura. Bidaian gabiltzanean... ezagutzen duzu zuk esaera zaharra.

— Bihotz Urratzaile eta Atsegin Emaile esatea *Maharani*-ari?

— Hori gogoratzea ere! Egia da. Halaxe esan zuen. Nire edertasunaren loraldian izan zen hura —barre txiki bat egin zuen, azukre kozkor batekin loro bat pozez dagonean bezala—. Orain kontatzeko zure joan-etorriak... lotsatu beharrik gabe ahal den guztia. Zenbat neska eta zenbat emazte geratu dira zure betileetan lotuta? Bena-resetik al zatoz? Aurten ere gustura joango nintzateke hara, baina alaba... bi seme besterik ez

daukagu. *Phaiiii!* Lautaden ondorioa da hori. Kulun elefanteak dira gizasemeak. Baina zure gizon santuari eskatuko diot, egon bazterrean, petral alaena, mango garaian, haizeak direla eta, alabaren seme zaharrenak dauzkan beherako batzuen aurkako aztikeria. Duela bi urte oso aztikeria indartsua eman zidan.

— O, maisu! —esan zuen Kimek, barrez lehertu beharrean lamaren aurpegi penatua ikusita.

— Egia da. Haizeen kontrako bat eman nion.

— Hortzak... hortzak... hortzak —zuzendu zuen atsoak.

— «Senda itzazu gaixo badaude» —errezitatu zuen Kimek, biziki gozatuz—, «baina ez erabili aztikeriarik inola ere. Gogoan izan *maharatta*-ri gertatutakoa.»

— Hori duela bi Eurite izan zen; leher eginda utzi ninduen bere etengabeko eskakizunekin —lamak intziri egin zuen lehenago Epaile Injustuak egin izan zuen bezala—. Hala gertatzen da, eta kontutan hartu, *chela*, Bidearen jarraitzaile direnak ere bazterrean geratzen direla emakume

zoroen erruz. Hiru egun osoz, umea gaixorik zegoenean, aritu zitzaidan hizketan.

— *Arré!* Eta norekin hitz egin behar nuen bada nik bestela? Umearen amak ez zekien ezer, eta aitak berriz, eguraldi hotza egiten zuen gauetan izan zen, «Egin otoi Jainkoei» esan zuen, horrelaxe, bai, eta bestaldera jarrita, zurrungaka hasi zen.

— Aztikeria eman nion. Zer egin behar du bada agure batek?

— «Gauza ona da ekintzak baztertzea, merituak eskuratzeko izan ezik.»

— *Ai, chela,* zuk uzten banauzu, bakar-bakarrik geratuko naiz.

— Esne-hortzak erabiltzen behintzat erraz asko ikasi du —esan zuen atsoak—, baina gai-nontzekoan berdinak dira apaiz guztiak.

Kimek eztula egin zuen serio-serio. Gaztea zelarik, ez zion ongi irizten komentario desegoki hari.

— Zuhurrak garaiz kanpo molestatzea ezbeharra gonbidatzea da.

— Bada *mynah* berritsu bat (txoria) —Kimek ederki gogoratzen zuen behatz erakusle harri

bitxiz betearen kolpearekin batera etorri zen eraso—, ukuiluen ganean, familiako apaizaren ahoskera primeran ikasi duena. Baliteke nire gonbidatuei ohore egiteaz ahaztea, baina umea eskumuturrak sabel ganean jarrita ikusi izan bazenute, eta erdi hazitako kalabaza zirudien sabelak, eta garrasika, «Badator mina!», barkatuko zenidakete. Erdi erabakita nago *hakim*-aren medizinak hartzera. Merke saltzen ditu, eta, hori bai, Shivaren zezena bera bezain lodia dago bera. Sendagaiak ukatu ez ditu ukatzen, baina ikaratu egiten ninduen umeak flaskoen parte txarreko kolorea ikusita.

Lama, bakarrizketaren babespean, ilunpetan desagertu zen prestatuta zuen gelarantz.

— Amorrarazi egin duzu —esan zuen Kimek.

— Hori ez. Nekatuta dago, eta niri, amona izaki, ahaztu egin zait. (Amonak eta ez beste inork zaindu beharko lituzke umeak. Umeak erditzeko bakarrik da ama egokia.) Idatziko du azti-keria bihar, alabaren semea nola hazi den ikusten duenean. Eta *hakim* berriaren drogak epaitu ahal izango ditu.

— Nor da *hakim*-a, *maharani*?

— Ibiltari bat, zu bezala, baina era berean Daccako bengaliar serioa... maisua da medikuntzan. Jan ondorengo estutasun batez libratu ninduen behin, deabru askatu batek bezala jardun zuen pastilla txiki baten bidez. Bidaian dabil orain, balio handiko prestaketak salduz. Paperak ere baditu, *angrezi-z* inprimatuak, bizkarreko mina duten gizonentzat eta emakume ahulentzat egin dituen gauzak azalduz. Lau egun eman ditu hemen. Baina zuek etortzekoak zinatela entzunda (*hakim*-ak eta apaizak sugea eta tigrea dira mundu osoan) aterpera joan da, nik uste.

Hitz zaparrada haren ondoren arnasa hartzen zuen artean, zerbitzari zaharrak, inork ezer esan gabe zuzien argien ertzean eserita, murmurikatu zuen:

— Etxe honek oilategia dela ematen du berri-tsu eta... apaiz guztientzako. Ez dezala umeak mango gehiago jan... baina nor hasi liteke ordea amona batekin errietan? —ahotsa goratu zuen begirunez—. Sahib, *hakim*-a lotan dago, janda gero. Usategiaren atzeko gelatan dago.

Kim terrier urduri bat bezala tentetu zen. Calcuttan ikasitako bengaliar bati aurrea eman eta

gero isilaraztea jolas polita izango zen. Ez zirudien ez lama, eta agian ezta bera ere, horrelako batek erraz baztertuko zituenik. Ezagutzen zituen indiar egunkarien atzealdeko iragarki bitxiak, ingeles kaskarrez idatziak. St Xavierreko mutilak ezkutuan eramaten zituzten batzuetan eskolara beren ikaskideekin barre egin asmoz; gaixo eskerronekoaren hizkeraz sintomak kontatzen soilak eta argigarriak baitira iragarki horiek. *Ury-a*, zurrupari bat beste bat aurrean jartzeko ez gogo gabe, usategi aldera desagertu zen.

13. ATALA

*Nork du desiratu du Itsasoa, nork olatu erral-
doi*

erdainariak?

*Ontziaren dardara, jauzia eta bihurrera, bran-
kaga*

irten aurretik izarrak eztenkatzera?

*Eki haizearen hodeiak ordenan eta zafiro kiz-
kurtua*

orroka azpian?

*Ekaitz iragarri gabeak amiletatik zelatan eta
mesanako oihalen trumoi hotsa?*

*Bere Itsasoa, mirarietan beti desberdin, bere
Itsasoa*

beti berdin mirari bakoitzean,

Izatea asetzen dion Itsasoa?

*Horrela eta ez bestela, horrela eta ez bestela
desiratzen*

dituzte menditarrek beren mendiak!

Itsasoa eta Mendiak

«Mendira doana amagana doa».

Gurutzatu zituzten Siwalikak eta Dun erdi tro-
pikala, Mussurie atzean utzi, eta iparrerantz

abiatu ziren mendiko bide estuetan barrena. Egunez egun gehiago eta gehiago barneratzen ziren mendi pilatuetan, eta egunez egun ikusten zuen Kimek nola ari zen lama gaztetzen eta indartzen. Duneko terrazetan mutilaren bizkarrean sostengatzen zen, bideko atsedeen leku oro aprobetxatzeko prest. Mussurirako aldapa handiaren hasieran ehiztari zaharrak bide ezagunari ekiten dion bezala suspertu zen lama, eta leher eginda geratu beharko zukeen lekuan tunika luzea estutu zuen, hartu zuen arnasa bi aldiz sakon-sakonetik haize ezin garbiago hartan, eta menditar batek bakarrik ahal duen bezala hasi zen ibiltzen. Kim, zelaietan hazi eta hezia, izerditan zihoan eta arnasestuka, txundituta. «Hau da nire herria», esan zuen lamak. «Such-zenen ondoan, arroz sail bat baino lauagoa da hau»; eta pauso luze, indartsuz, abiadura aldatu gabe, gorantz egiten zuen. Jaitsiera pikuetan ordea, mila metro hiru orduetan, haiexetan uzten zuen Kim atze-atzean: mutilari, tente jaisteko ahaleginek, min ematen zion bizkarrak, eta behatz lodia galtzekotan ibili zen, sandalien belarrezko lokarriak ebakia eginda. Izai baso handietako

itzal zipriztinduetan barrena; garoz apaindutako haritzetan barrena; urki, arte, erroiz eta pinuetan barrena, mendi magal biluzietako belardi irristakor eguzkiak errera irten eta basoen freskotasunera itzuli arte, haritzen ordeztan banbuak eta bailarako palmondoak azaldu ziren arte, nekerik gabe ibili zen lama.

Ilunabarrean, atzean utzitako gailur erraldoietara eta etorri ziren bidearen marra lauso mehera erreparatuz, prestatzen zituen lamak, menditarren ikuspuntuaren esku-zabaleraz, biharamuneko etapak; edo, Spiti eta Kulura zerman pasabide altu baten lepoan geldialdi bat eginez, eskuak luzatzen zituen irrikaz ortzimugako elur altuetarantz. Egunsentietan sugar gorritan agertzen ziren elurak urdin garbiaren kontra, Kedarnath eta Badrinathek, bakardade haietako errege, eguzkiaren lehen izpia hartzen zuten artean. Egun osoa zilar urtua bailitzan egoten ziren eguzkipean, eta arratsaldean bitxiak janzten zituzten berriz ere. Hasieran haize gozoa bidaltzen zieten bidaiariei, gogoz hartzen den haizea malkar erraldoiren bat igo berria denean; baina, egun gutxietan, hiru mila bat metrotako

alturan, haize horiek hozka egiten dute; eta Kimek atseginez eman zion mendiko herrixka bati merituak eskuratzeko aukera berari emanaz artilezko beroki zarpail bat. Lama harritu egin zen pixka bat haize harekin, labana bezain zorrotza, arazoak zituelako inork gainerik horrenbeste urte kendu zizkion haize harekin.

— Baina hauek beheko mendiak dira eta, *chela*. Ez da hotzik benetako Mendietara heldu arte.

— Haizea eta ura onak dira, eta jendea nahikoa atsegina, baina jatekoa oso txarra —esan zuen Kimek marmarka—; eta erotuta... edo ingelesak bagina bezala gabiltza. Gainera gauetan jela botatzen du.

— Zertxobait bai, baliteke; baina gero eguzkitan hezurak poztu daitezten aski, ez gehiago. Ez dugu beti ohe bigun eta jateko aberatsetan gozatzen ibili behar.

— Bidetik joan gintezke behintzat.

Kimek lautadako maitasuna zien ondo zapalduetako bide bihurriei, bi metrotako zabalera ere gabe, mendietan gora doazenak; lamak ordea, tibetarra izaki, mendi-saihetsetako bide

zidorretatik eta hartxintzarrezko malden ertzetatik joan baino ezin zuen egin. Maisuak herrenka zihoan dizipuluari azaltzen zioenez, mendietan hezitako gizonak mendiko bide baten nondik norakoa iragarri dezake, eta behe-lainoek bidea laburtu nahi duen kanpotarra atzera eragiten badute ere, ez diote alde handirik egiten pentsakorrari. Hala, zenbait orduz edozein herrialde zibilizatuetan alpinismoa izango zena egin ondoren, arnasestuka gurutzatzen zuten bi amiletako pasabide bat, lur irauliak arduraz zeharkatzen zituzten, eta basoan barrena jaisten ziren berriz bidera berrogeita bost gradutako angeluan. Bide ertzean menditarren herrixkak ageri ziren: lokatz eta lurrezko etxolak, noizean behin aizkoraz zakar landutako egurrezko zutabeak, enaren habiak bezala maldei erantsita, mila metrotako jaitsiera baten erdian zelai txiki-txikietan pilatuta, haize korrante oro bideratu eta indartzen zuen piku arteko zoko batean sartuta, edo, udako larreak zirela eta, mendi arteko pasabidearen batean murgilduta, neguan hiru metro elur izango zuten lekuan. Eta jendea, azal ilunekoa, koipetsua, oihal latzez jantzia, hanka motz biluzi

eta ia-ia eskimalen aurpegiekin, taldean ateratzen zen bidaiariak jaurestera. Lautadak, atsegina eta konplutua, gizon santuen arteko gizon santu bezala tratatu zuen lama. Baina mendiek ordea beren deabru guztiekin konfiantza zuen bat balitz bezala jauresten zuten. Hangoen budismoa oso bestelakoa zen, ia-ia beren paisaiak bezain fantastikoak ziren naturaren kultuekin nahasia, beren baratz txiki mailakatuak bezain landua; baina ezagutu zituzten txano handia, arrosario tilinkaria, eta aginpide eztabaia daezina zuten testu txinatar bitxiak; eta errespetatzen zuten txanoaren azpiko gizon handia.

— Euako Bular Handien gainetik jaisten ikusi zintuztegun —esan zien gazta, esne mikatza eta harria bezain gogorra zen ogia eman zien *betah* batek—. Ez gara sarritan bide horretatik ibiltzen... behi ernariak galdu direnean ez bada. Egun baketsuenetan ere gizonak harrika botatzen dituen bat-bateko haize bat izaten da harri horietan artean. Baina, zer ardura zaie zuei bezalakoei Euako deabrua!

Eta Kim, gihar guztiak minduta, zorabiatuta behera begiratzeaz, behatzak zulo desegokietan

sartzeaz oinak deseginda, orduan pozten zen eguneko ibilaldiaz, St Xavierreko mutil bat laurahun metro lauak irabazitakoan adiskideen laudorioekin poztuko litzatekeen bezala. *Ghi* eta azukreak eragindako gantzak desegin egin zizkion mendiak; haize lehorrak, intzirika hartuta pasabide krudelen buruan, bularra sendotu eta indartu egin zion; eta aldapa zorrotzek gihar berri gogorak erantsi zizkioten txorkatila eta izterretan.

Sarritan meditatzen zuten Bizitzaren Gurpilaz: are gehiago, lamak esaten zuenez, haren tentazio sumagarrietatik libre zeudelako. Arrano gris bat eta noizean behin maldetan zainak miatu eta ateratzen urrutian ikusitako hartza, lehoinabar pikart amorratu bat, egunsentian ahuntza jaten ikusi zutena, eta noiz behinkako txori kolore bizi bat izan ezik, bakarrik zeuden haizearekin, eta haize azpiko belar kantariarekin. Txabola ketsuetako emakumezkoak, txabolen gainetik jaisten baitziren mendietatik behera, itsusiak eta zikinak ziren, senar askoren emazteak, eta bozioa izaten zuten. Gizasemeak aizkolaritzan aritzen ziren nekazaritza lanak utzi-

takoan: gizon baketsuak, eta ikaragarri xaloak ziren. Baina Kim eta lama ez zitezen elkarrizketa atseginik gabe egon, bidali ziren Patuak, batzuetan beraiek harrapatzen zutela bidean, eta besteetan besteak, Daccako sendagile konplituak; jatekoaren truke bozia sendatzeko ukenduak ematen zituen eta gizon eta emakumezkoen artean bakea jartzeko aholkuak. Mendiak mendietako dialektoak bezain ongi ezagutzen zituela zirudien, eta nolakoak ziren Ladakh eta Tibet alderako lurraldeak azaldu zion lamari. Nahi zutenean itzul zitezkeela lautadetara esan zuen. Bitartean, mendiak maite zituztenentzat, entretenigarria izan omen zitekeen bide hura. Guzti hura ez zien aldi bakar batean esan, harrizko larrainetan topo egin zuten zenbat arratsetan baizik, gaixoez arduratutakoan, sendagileak erretzen jarduten zuenean eta lama rapea hartzen, artean Kim behi txikiak etxeko teilatuen gainean larrean nola zeuden so egoten zelarik, edo arima begien atzetik joaten uzten zuela mendikateen arteko badia urdin ilunetan. Eta baso ilunetan ere izaten ziren elkarrizketa bakartiak, sendagileak belar bila joan behar zuenean,

Kimek, sendagile hasberria zenez gero, lagundu egin behar baitzion hartan.

— Egia esatera, Mr O'Hara, ez dakit zer demontre egingo dudan gure lagun kirolzaleak topatzen ditudanean; baina zuk ez baduzu nire aterkia bistaz galtzen, katastro topografiarako erreferentzia egokia baita, askoz hobeto sentituko naiz.

Kimek mendi gailurrez osatutako oihanari begiratu zion.

— Hau ez da nire herria, *hakim*. Errazagoa dela uste dut hartzaren larruan zorria aurkitzea.

— A, horixe da nire puntu onenetako bat. Hurrik ez du presarik. Lehen izan dira, ez aspaldi. Karakorumetik jaitsi zirela esan zuten, adar, buru, eta beste guztia hartuta. Ikaratzen nauen gauza bakarra da ez ote dituzten gutunak eta gauza konprometigarriak Lehetik errusiar lurraldeetara bidali. Ahalik eta urrutien joango dira ekialderantz noski... Mendebaldeko estatuetan ez direla inoiz izan adieraztegatik, ez besterik. Ez al dituzu mendiak ezagutzen? —marra bat egin zuen makilatxo batez lurrean—. Begira! Srinagar edo Abbottabadetik barrena etorri behar izan

dute. Horixe da biderik laburrena, ibaian behera Bunji eta Astorretik zehar. Baina egina dute kaltea mendebaldean. Hala bada —erreten bat egin zuen ezker-eskuin—, ibili eta ibili doaz ekialderantz Lehera (a, han bai hotz galanta!) eta Indusetik behera Han-léra (ezagutzen dut bide hori), eta gero behera, Bushahar eta Chini bailarara. Hau eliminazio prozesuz jakin dut, eta baita ere horren ondo sendatzen dudan jendeari galderak eginez. Denbora luzea eman dute gure lagunek itxurak eginez eta gogotik nabarmentzen. Horregatik, urrutitik ere ezagutzen dituzte. Ikusiko duzu nola harrapatzen ditudan Chini bailaran nonbait. Eta mesedez, ez itzazu kendu begiak aterkitik.

Haizeak bultzaturiko xilintxa bat bezala mugitzen zen aterkia bailara eta mendi magaletan barrena, eta lamak eta Kimek, itsasorratza erabiltzen zutelarik, harrapatu egiten zuten une jakinetan, ukenduak eta hautsak saltzen ari zela ilunabarrean. «Halako eta halako bidetik etorri gara!». Lamak atzean utzitako mendi tontorrak seinalatzen zituen arduragabe, eta aterkiak sekulako konplituak egiten zizkien.

Pasabide elurtu bat gurutzatu zuten ilargiaren argitan, eta lama, txantxetan Kimen aurretik, belaunetaraino sartu zen elurretan, gamelu baktriarraren eran, elurretan hazitako gamelua, iletsua, Kashmirreko azokan noizean behin agertzen zenetakoa. Elur arineko lurretatik igaro ziren eta elurrez hautseztatutako arbeletatik, eta han, ekaitza zela eta ardi txiki-txikiekin, bakoitzak *borax* zaku bat zeramala gainean, lautadetara zihoazen tibetar batzuen akanpalekuan hartu zuten babes. Oraindik elurrez zipriztinduriko mendi saihets belartsuetara atera ziren, eta basoa zeharkatuz, belardietara heldu ziren berriz. Baina ibilaldi guzti haiek ez zuten batere ondoriorik izan Kedarnath eta Badrinathen; eta bi egunetako bidaiaren ondoren bakarrik antze-man ahal izan zuen Kimek, hiru mila metrotako mendixka kaskar batera igota, bi jaun handien apaindura edo kozkor bat, gutxi izanda ere, aldatu egin zela.

Azkenean mundu baten barruan zegoen beste mundu batean sartu ziren: bailara luze-luze bat, non mendixkak mendi handien belau-netatik eroritako harri kozkor eta hondakinez

baitzeuden osatuta. Han egun oso batez ibiltzeak ez zituen eraman, antza, amesgaiztoan korrika doana baino harantzago. Neke handiz gurutzatu zuten mendi saihets bat, eta ez al zen bada hura pilaketa nagusitik pixka bat irtenda zegoen konkorra! Belatz biribil bat ez zen gertatu, heldu zirenean, lautada zabala baino, bailaran urrun sartzen zena. Handik hiru egunetara, hegoalderako bidean zegoen lurraren tolesdura mehe bat besterik ez zen hura.

— Jainkoak biziko dira hemen noski! —esan zuen Kimek, isiltasunak eta euriaren ondorengo hodeien tamaina eta mugimenduak txundituta—. Hau ez da gizonentzako lekua!

— Aspaldi-aspaldian —esan zuen lamak, berekiko ari balitz bezala—, galdetu zioten Jau-nari ea betirako ote zen mundua. Aparta den Hark ez zuen erantzunik eman... Ceylanen izan nintzenean, Bila zebilen jakintsu batek ziurtatu egin zidan hori, palieraz idatzitako Ebanjelioan oinarrituta. Hori bai, Askatasunerako bidea ezagutzen dugunez gero, galdera alferrekoa zen, baina... begira, eta ikusi zer den ilusioa, *chela!* Hauexek dira benetako Mendiak! Such-zeneko

mendiak bezalakoak dira. Ez da inoiz antzeko mendirik izan!

Beren ganean, oso-oso ganean oraindik, elurraren mugaraino altxatzen zen lurra, han, ehunka kilometroetan zehar, erregela batekin bezala jarrita, azken urki ausartak gelditzen ziren lekuan. Haien gainetik, pilatutako amil eta harrizarretan, oihal zuriaren gainetik irteten saiatzen ziren arrokak. Eta haien gainetik berriz ere, munduaren hasieratik batere aldatu gabe, baina aldakor eguzkiaren eta hodeien umorearen arabera, betiko elurra ageri zen. Ekaitza eta zirimola galduak dantzatzera altxatu ziren lekuetan arrastoak eta hutsuneak ikus zitzaketen elurretan. Zeuden lekuaren azpian, kilometrotan eta kilometrotan jaisten zen basoa, oihal berdeurdina osatuz; basoaren azpian herrixka bat zegoen, zelai mailakatu eta belardi malkartsuez inguratuta. Herrixkaren azpitik bazekiten, nahiz eta une hartan trumoia orroka aritu han, laurehun edo bostehun metrotako aldapa batek Sutluj gaztearen ama diren urlasterrak biltzen diren bailara hezera zeramala.

Ohi bezala, ganaduaren kamino eta bidezido-
rretatik eraman zuen lamak Kim, Hurri babuk,
«gizon beldurti» hark, hiru egun lehenago egin
zuen bide nagusitik urruti, hamar ingelesetik
bederatzik gustuz pasatzen utziko zuten ekaitza
igaroz. Hurrik ez zuen ehiza maite —arma-katu
baten soinu hutsak kolorea aldarazten zion—,
baina, berak esango lukeen eran, «nahikoa ibil-
tari bizkorra» zen, eta, prismatiko merke batzuei
esker, bailara osoa arakatu zuen asmo zehatzez.
Gainera, haizeak gastaturiko denden zuria urru-
titik sumatzen da berdearen kontra. Ikusia zuen
Hurri babuak ikusi nahi zuen guztia Zigalurreko
larrainean eseri zenean, hogeita hamar kilome-
troetara arranoaren heganean, eta berrogeieta-
ra bidetik, hau da, bi arrasto txiki, egun batean
elurraren marraren azpian zeudenak eta hurren-
goan berriz hamabi zentimetro edo jaitsi zirenak
maldan behera. Garbituta eta lanera jarriz gero,
Hurriren zango biluztu lodiak lur puska harriga-
rria zeharkatzeko gauza ziren, eta horrexegatik,
Kim eta lama jarioak zituen txabola batean zeu-
den artean, ekaitza noiz bukatu zain, bengaliar
koipetsu, busti bat, baina hala ere irribarretsu

beti, hitz ingeles dotoreenak erabiliz esaldi guztiz okerrak osatzeko, bi atzerritar busti-busti eta erreumati samarrekin adiskidetzeko ahalegine-tan ari zen. Heldu zen, asmo zoroak buruan, atzerritarren akanpalekuaren gainean pinu bat bitan banatu zuen trumoi baten atzetik, eta konbentzitu zituen dozena bat edo bi ekipai eramaille, *coolli*-ak, aski beldurtuta ordurako, ez zela ona egun hura bidaian jarraitzeko; eta denek batera, zamak bota zituzten eta ez zuten aurrera egin nahi izan. Haien zerbitzuak alokatzen zituen mendiko raja baten menpeko ziren, ohi den bezala, bere probetxurako; eta, nahikoa arazo izango ez balute bezala, atzerriko sahibek errifleekin egin zieten mehatxu. Gehienek aspalditik ezagutzen zituzten errifleak eta sahibak; iparreko bailaratako hartzen usmari eta *shikarri* ziren, hartza eta ahuntz basatiak harrapatzen trebeak; baina inork ez zituen sekula horrela tratatu. Hala bada, basoak bere altzoan hartu zituen *coolli*-ak, eta oihu eta garrasiekin ere, ez zituen itzuli nahi izan. Ez zegoen ero itxurak egin beharrik edo... pentsatuta zeuzkan babuak ongi etorria segurtatzeko bestelako bitartekoak. Bihurritu zuen arro-

pa bustia, txarolezko zapatak jantzi, aterki zuri-urdina zabaldu, eta ibilera eztiz eta bihotza ezta- rrian zuela, hona nola agertu zen: «Bere maies- tate Rampurreko rajaren ordezkaria, jaunok. Zertan lagun diezazuket, mesedez?»

Pozez zorutzen zeuden bi gizonak. Bati garbi antzematen zitzaion frantsesa zela, eta errusia- rra zela besteari, baina babuarena baino askoz okerragoa ez zen ingelesez hitz egiten zuten biek. Laguntza eskatu zioten erreguka. Zerbitza- ri indiarrek gaixotu egin zitzaizkien Lehen. Gero presaka jarraitu omen zuten bidea Simla aldera, pipiak jo baino lehen ehizako trofeoak eramate- ra. Aurkezpen gutun orokor bat zeramaten (ekialdekoen agurra egin zuen gutunaren aurrean babuak) Gobernuko funtzionario guz- tientzat. Ez, ez zuten beste ehiza-talderekin topo egin *en route*. Bakarrik moldatzen ziren. Horni- dura ugari zuten. Lehenbailehen nahi zuten aurrera segi. Orduan babua zuhaitzen atzean ezkutatutako menditar batekin hasi zen hizke- tan, eta hiru minutuz hizketan jardun eta zilar pixka bat eman ondoren (ezin da ekonomiarik egin estaturako lanetan, xahuketa harekin Hurri-

ren bihotzari odola zerion arren), hamaika *coolli*-ak eta hiru lagunak agertu ziren berriz. Pairatu behar zuten zapalkuntzaren lekuko behintzat izango zen babua.

— Maiestate asko haserretuko da, baina jende hau arrunta eta guztiz ezjakina da. Gertae-ra triste hau ahazteko ohorea egiten badidate jaun horiek, asko poztuko naiz. Laster atertuko du eta orduan aurrera egin ahal izango dugu. Ehizan ibili zarete, ezta? Horiexek bai emaitza galantak!

Jauzika joan zen *kilta* batetik bestera, saski koniko haietako bakoitza txukun jartzeko itxurak eginez. Ingelesek gehienetan ez dituzte asiarrak ondo ezagutzen, baina ez lukete inoiz *kilta* bat bere ulezko estalki gorriarekin oharkabean irauli duen *babu* atsegin bat astinduko. Bestalde, eda-tera ere ez lukete bultzatuko, nahiz eta oso babua adiskidetsua izan, ezta haragia jatera gonbidatuko ere. Atzerritarrek guzti hori egin zuten, eta baita galdera ugari ere, emakumeei buruzkoak gehienak, eta Hurrik erantzun alaiak eta prestatu gabeak eman zizkien. Gero likido koloregabe batez beteriko basokada bat eman

zioten, ginebraren antzekoa, eta gero gehiago; eta berehala desagertu zitzaion Hurriri seriotasuna. Hitz totelka, bere nagusiez gaizki esaka hasi zen, eta gizon zuri baten heziketa hartzera behartu ondoren gizon zuriaren soldata eman nahi ez zion Gobernuaz irain beldurgarriz jardun zuen hizketan. Zapalkuntza eta gaiztakeria istorioak kontatu zituen mingain baldarrez, bere lurraren miseriengatik isuritako malkoek masailak zeharkatu zizkioten arte. Gero balantzaka atera zen, Bengalia Beheko maitasun kantak kantari, eta zerraldo erori zen zuhaitz enbor busti baten gainean. Ez da inoiz ikusi Indiako ingeles enbustearen emaitza bat atzerritarren besoetan hain bete-bete erortzen.

— Horrelakoxeak dira denak —esan zion frantsesez kirolari batek besteari—. Ondo asko ikusiko duzu India-Indian sartzen garenean. Horren raja bisitatu nahi nuke. Agian berri onak eman ahal izango dizkiogu. Baliteke gure berri entzuna izana, eta gurekiko borondate ona erakutsi nahi izatea.

— Ez dugu astirik. Simlara joan behar dugu ahal bezain pronto —erantzun zion lagunak—.

Niri berriz Hilás, edo Lehetik txostenak bidali izana gustatuko litzaidake.

— Ingeles posta hobea eta seguruagoa da. Gogoan izan erraztasun guztiak eman dizkigutela... eta, Jainkoaren izenean!... baita eman ere! Ez al da sinetsezineko zorakeria?

— Harrokeria da; zigorra merezi eta hartuko duen harrokeria.

— Bai! Kontinenteko batekin borrokan egitea bada zerbait gure jokoan. Horrek bere arriskua dauka, baina jende hau... ba! errazegia da.

— Harrokeria... harrokeria dena, adiskide.

«Zer demontretarako balio ote du Chandarnagore Calcuttatik horren gertu egoteak eta guzti horrek» pentsatu zuen Hurrik, goroldio bustitan aho zabalik zurrungaka, «ezin badut horien frantsesa ulertu! Horren bizkor mintzatzen dira! Lastima dauzkaten lepo zikin horiek ez moztu izana!»

Berriz agertu zenean buruko minak lehertzen zegoen, lotsatuta eta nabarmen beldurtuta, ez ote zuen mozkorrean gehiegi hitz egin. Oso maite zuen britainiar gobernua: aberastasun eta ohore ororen iturri omen zen, eta Rampurreko

nagusiak ere iritzi berbera zuen. Hura entzundakoan barrez hasi ziren gizonak eta bezperan babuak esandako hitzak errepikatzen, banakabanaka, erreguzko keinuz, irribarre koipetsu eta zeharkako begiratu maltzurrez, *babu* gizarajoa batere defentsarik gabe geratu eta hitz egitera behartu zuten arte... egia esatera alegia. Gero, kontatu zionean Lurgani istorioa, kexuka aritu zen ezin izan zuelako *coolli* egoskor, arduragabeen lekuan egon, buru gainean belarrezko alfonbratxoak zituztela eta euri-tantak putzu bihurtzen oin-urratsetan, noiz atertuko zain. Haiek ezagutzen zituzten sahib guztiak —zarpail jantzitako gizonak, urtero-urtero beren amildegi maiteenetara itzultzen zirenak—, zerbitzariak eta sukaldariak eta ordenantzak zeuzkaten, menditarrak sarritan. Honako sahib hauek laguntzarik gabe zebiltzan bidaian. Sahib pobreak ziren beraz, eta ezjakinak; sahib zentzudunek ez baitzioten bengaliar baten aholkuari jaramonik egingo. Baina bengaliarrak, hutsetik agertuta, dirua eman zuen, eta beren hizkera ulertzeko gauza zen gainera. Beren kolorekoen aldetik tratu txarretara ohituta beti, azpijokoren bat

espero zuten, eta korrika hasteko prest zeuden aukera izanez gero.

Gero, lur-usain gozoa zerion haize garbitu berrian, mendian behera gidatu zituen babuak, harro-harro *cool*-en aurretik, eta apaltasunez atzerritarren atzetik. Gauza asko eta desberdinak pentsatzen jardun zuen. Pentsamendu haie-tan txikiena ere ezin esateko moduan interesatuko zitzaien. Baina gidari atsegina zen ordea, bere nagusi handiaren ondasunen edertasunak erakusteko beti prest. Atzerritarrek hil nahi zezaketen animaliez bete zituen mendiak: ahuntzak —*thar*, *ibex*, *markhor*—, eta Eliseori berari inbidia emateko adina hartza. Botanikaz eta etnologiaz jardun zuen okerrik gabeko zehazgabetasunez, eta zekizkien legenda lokalen sorta —ez da ahaztu behar hamabost urtez estatuaren ordezkari izana zela— agorrezina zen.

— Morroi hau originala da, bai —esan zuen atzerritarretan handienak—. Vienako gortesau baten karikatura dirudi.

— Indiaren aldakuntzaren irudi txikia da... Ekialdea eta Mendebaldearen hibridismo ikara-

garria —erantzun zuen errusiarrak—. *Gu* gara ekialdekoekin molda gintezkeenak.

— Bere aberria galdu du, eta ezin du besterik eskuratu. Baina gorroto ikaragarria die bere herria konkistatu dutenei. Entzun. Bart aitortu zidan —esan zuen besteak.

Aterki arraiadunaren azpian Hurri babua belarriak eta garuna luzatuta zebilen frantses bizkor hari jarraitu nahian, mapa eta dokumentuz betetako *kilta* batean bi begiak finko zituen artean, bereziki handia zen *kilta*, ulezko estalki bikoitz batekin. Hindustaneko jainko guztiei eman zizkien eskerrak, eta Herbert Spencerri, oraindik ere bazelako lapurtzeko gauza baliotsurik.

Bigarren egunean errepidea asko igo zen, baso gaineko belardi batera heldu arte; eta hantxe, eguzkia jartzen ari zenean, egin zuten topo lama edadetsu batekin —atzerritarrek bontzo deitzen bazioten ere—, zangoak gurutzaturik harriz heldutako mapa misterioitsu baten aurrean eserita; mutil gazte bati ari zitzaion azaltzen mapa, neofitoa noski, edertasun berezikoa, nahiz eta oso zikina egon. Egun-bide erdira

begiztatu zuten aterki arraiaduna, eta Kimek geldialdi bat egitea proposatu zuen aterkia beraiegana heldu arte.

— Hara! —esan zuen Hurri babuak, Botadun Katua bezala baliabidez beteta—. Horra hemen gizon santu bikaina. Maiestate, nire nagusiaren menpeko segur aski.

— Zertan ari da? Oso gauza bitxia da hori.

— Marrazki sakratua esplikatzen ari da... eskuz egina da dena.

Bi gizonak gelditu egin ziren, buru-hutsik biak, urre koloreko belarra behetik jotzen zuen arratseko eguzkitan. *Cooli* kopetilunek, atsedena eskertuta, gelditu eta zamak erortzen utzi zituzten.

— Begira! —esan zuen frantsesak—. Erlijioaren sorkuntzaren irudia dirudi... lehenengo maisua eta lehenengo dizipulua. Budista al da?

— Oso nola-halakoa —erantzun zuen besteak—. Ez da benetako budistarik Mendian. Baina ikus itzazu tunikaren tolesdurak. Begietarra erreparatu... bai lotsagabea! Zergatik senti erazten ote digu horren herri gaztea garela? — hizketan ari zenak zotz luze bat astindu zuen

berotuta—. Oraindik ez dugu arrastorik inon utzi. Eta horrek kezkatu egiten nau, aditzen? —kopen-
ta zimurtuta, lamaren aurpegi baketsuari eta
jarreraren lasaitasun harrigarriari begiratu zion
mesprezuz.

— Egon. Elkarrekin utziko dugu arrastoa...
guk eta zuen herri gazteak. Bitartean, egin ezazu
horren kopia.

Babua arrandiaz aurreratu zen; bizkarraren
mugimenduak ez zuen zerikusirik bere errespet-
tuzko hizkerarekin, edo Kimi egin zion keinuare-
kin.

— Maisu, sahibak dira hauek. Nire senda-
gaiek odol-jario bat sendatu diote bati, eta Sim-
lara noa, behar bezala osatzen dela segurtatze-
ra. Zure irudiak ikusi nahi dituzte...

— Gaixoak sendatzea beti izaten da ona. Bizi-
tzaren Gurpila da hau —esan zuen lamak—,
Zigalurreko txabolan erakutsi nizun berbera,
euria ari zuenean.

— ... eta zuk nola azaltzen duzun aditu.

Begiak argitu zitzaizkion lamari entzule
berriak izango zituelakoan.

— Bide Aparta agertzea ona da. Hindierarik ba al dakite batere, Irudien Arduradunak zekien bezala?

— Pixka bat bai beharbada.

Hala bada, jolas berri bati ekiten dion umearen xalotasunaz, burua atzeratu eta Teologiako Doktoreen deia egin zuen garrasi bizian lamak doktrina osoa azaldu aurretik. Atzerritarrak, beren mendiko makilei eutsiz, adi-adi jarri ziren. Kim, apal-apal eserita, aurpegietan zuten eguzkiaren argi gorrixkari begiratzen zion, eta nola urtzen ziren lurrean gizonen itzal luzeak eta berriz banatu. Atzerritarrek ingelesak ez ziren polainak zeramatzaten, eta gerriko estu bitxiak, St Xavierreko liburutegiko liburu baten marrazkiak nolabait ere gogorarazi ziotenak: *Naturazale baten abenturak Mexikon* zuen izena. Bai, liburu hartako M. Sumichrast zoragarriaren antza handia zuten, eta ez ziruditen inola ere Hurri babuaren irudimeneko «jendilaje eskrupulurik gabea». *Cooli*-ak, lur koloreko eta mutututa, begirunez kuzkurtu ziren hogei edo hogeita hamar bat metrotara, eta babua, arropa arinaren parte askeak haize jelatutan bandera bat bezala

mugitzen zitzaizkiola, aldamenean zegoen zutik jabe baten itxura zorientsuaz.

— Hauexek dira —xuxurlatu zuen Hurrik, erri-tualak aurrera egin ahala bi zuriek belarraren mugimenduari jarraitzen zioten artean, Infernu-tik Zerura eta atzera berriz—. *Kilta* handian, estalki gorria duen horretan, dauzkate liburu guztiak, dokumentuak, txostenak eta mapak, eta errege baten gutuna ere ikusi dut, Hilás edo Burnák idatzia. Arreta handiz zaintzen dute. Ez dute ezer bidali Hilás edo Lehetik, seguru.

— Nor daramate?

— *Bigar-cooli*-ak bakarrik. Zerbitzaririk ez dute. Hain dira irudikorrak, non beren jatena ere beraiek prestatzen baituten.

— Baina nik zer egin behar dut?

— Itxoin eta ikusi. Baina ezer gertatzen bazait ere, jakin behar duzu paperak non bilatu.

— Hobeto legoke hau Mahbub Aliren eskue-tan bengaliar batenean baino —esan zuen Kimek erdeinuz.

— Horma ostikoka botatzea baino bide hobeak badira andregaiarengana heltzeko.

— Ikusi hemen lukurreria eta sabelkeriari dagokion Infernua. Alde batean Desioa dauka, eta bestean Ahuleria —lama gero eta gartsuago ari zen bere lanean, eta atzerritar batek apunte bat egin zion bizkor-bizkor desagertzen ari zen argitan.

— Aski da —esan zuen azkenean zakar gizonak—. Ezin diot ulertu esaten duena, baina marrazkia nahi dut. Ni baino artista hobea da. Galdeiozu ea saltzen duen.

— Esan du, «ez, sar» —erantzun zuen babuak. Lamak noski ez zion bere marrazkia edozein bidaiariri emango, artzapezpiku batek bere katedraleko ontzi sakratuak emango ez lituzkeen bezalaxe. Tibet osoa dago Gurpilaren erreprodukzio merkez josita; baina lama artista zen, eta abade aberatsa bere monasterioan gainera.

— Agian hiru, edo lau, edo hamar egun hartu, ikusten badut sahiba Bila dabilela eta ikastekoak ondo ulertzen dituela, egingo diot beste bat. Baina honako hau lekaide baten inimiziorako erabilia da. Esan hori, *hakim*.

— Oraintxe bertan nahi du... diru truke.

Lamak buruari eragin zion poliki eta Gulpila tolesten hasi zen. Errusiarrak, bere lekutik, agure zikin bat baino ez zuen ikusi, paper pusketatik zikin batengatik urrutaka. Rupia eskukada bat ateratu, eta mapa gainera botatu zuen erdia: lamak mapari heldu zion, eta urratu egin zen papera. Ikara marmar bat heldu zen *cool*-en aldetik. Batzuk Spitioko gizonak ziren, eta, beren mailan, budista zintzoak. Lama, irain haren aurrean, zutitu egin zen; eskua apaizaren arma den burdinazko arkatz-kaxa astunera eramanez, babua atsekabez batera eta bestera mugitzen zen artean.

— Ikusten duzu orain... ikusten duzu zergatik behar nituen lekukoak. Jende eskrupulurik gabea da. O, sar, sar! Ez duzu gizon santu bat jo behar!

— *Chela!* Hitz idatzia laidotu du!

Berandu zen ordea. Kimek babesterik izan baino lehen, bete-betean jo zuen errusiarrak agurea aurpegian. Hurrengo unean maldan beheara zihoan errusiarra zilipurdika, Kim ezta-rrian zuela. Zartako hark mutilaren odoleko irlandar deabru ezezagun guztiak esnarazi zituen, eta etsaiaren bat-bateko erorketak egin

zuen gainontzekoa. Lama belauniko jarri zen, txundituta; *cool*i-ak, zamapean, mendian gora joan ziren ziztu bizian, lur lauetako gizonek lautada kurritzen duten bezain bizkor. Esanezineko sakrilegioa ikusi berri zuten, eta derrigorrez behar zuten handik desagertu, mendietako jainko eta deabruek mendekua hartu baino lehen. Frantsesak lamarenganantz egin zuen korrika, errebolberra bilatzen zuen artean, bere lagunaren ordez lama bahituta gisa hartu asmoz edo. Harri zorrotz zaparrada batek —oso tiratzaile onak dira menditarrak— atzerarazi zuten, eta Ao-chungeko *cool*i batek harrapatu zuen lama, eta besteekin batera ihes egin erazi zion. Mendiko bat-bateko iluntzea bezain bizkor gertatu zen dena.

— Ekipaia eta pistola guztiak hartu dituzte — egin zuen garrasi frantsesak, ilunabarrean itsu-itsuan tiratuz.

— Ondo da, sar! Ondo da! Ez tiratu. Banoa zu erreskatatzera —eta Hurri, maldan beheara astun korrika, bete-betean erori zen pozez eta txundituta zegoen Kimen gainera: etsaiaren buru arnas

gabea harri baten kontra astintzen ari zen muti-
la.

— Zoaz berriz *coolli*-engana —xuxurlatu zion babuak belarrira—. Haiek daukate ekipaia. Estalki gorriekiko *kilta*-n daude paperak, baina begiratu ondo dena. Hartu paperak, eta batez ere *murasla* (erregearen gutuna). Zoaz! Badator beste gizona!

Zitzu bizian joan zen Kim maldan gora. Bala batek ondoko arroka jo zuen eta Kim lurrera bota zen, eperren modura.

— Tiratzen baduzu —egin zuen oihu Hurrik—, jaitsi eta txiki-txiki egingo gaituzte. Jauna erreskatatu dut, sar. Hau bereziki arriskutsua da.

Kim ingelesez ari zen pentsatu eta pentsatu. «Ene! Leku gogorra da hau, baina nik uste dut defentsa dela» —bularra ukitu zuen Mahuben opariaren bila, eta batere segurtasunik gabe, Bikanir basamortuan egindako saio gutxi batzuk izan ezik ez baitzuen inoiz pistola txikia erabili, katua estutu zuen.

— Zer esan dizut, sar! —babuak negarrez hasi beharrean zirudien—. Zatoz hona eta lagun-

du zure laguna bere onera ekartzen. Hirurak ere larrialdi ederrean gaude.

Isildu ziren tiroak. Segurtasunik gabeko urrats batzuk entzun ziren, eta Kim gorantz joan zen ilunpetan korrika, katu bat bezala biraoka... edo bertako bat bezala.

— Zauritu egin al zaituzte, *chela*? —galdetu zion goitik lamak.

— Ez. Eta zu? —izai nanoen artean murgildu zen Kim.

— Zauririk gabe. Zatoz. Shamlegh Elurpekora joango gara jende honekin.

— Baina ez ordea merezi duten zigorra eman gabe —esan zuen ahots batek oihuka—. Sahiben pistolak dauzkat hemen... lauak. Goazen behera.

— Gizon santua jo du... ikusi egin dugu! Gure abereek ez dute umerik egingo... gure emazteak ez dira haurdun geratuko! Etxerakoan gainera eroriko zaizkigu elurteak... Beste ezbehar guztien gainean!

Izai baso txikia *coolli* zalapartariz bete zen, beldurrak akabatzen denak, ikararekin ezertarako gauza ez zirela. Ao-chungeko gizonak fusila-

ren krisketa kolpatu zuen urduri, eta jaisteko kei-
nua egin zuen.

— Itxoin pixka bat, maisu; ezingo dute urruti-
ra joan. Itxoin ni itzuli arte —esan zuen.

— Hona hemen kaltetu dutena —esan zuen
lamak, eskua kopetan jarrita.

— Horrexegatik bada —izan zen erantzuna.

— Horrek barkatzen badu, garbiak edukiko
dituzue eskuak. Gainera, merituak eskuratuko
dituzue obeditzeagatik.

— Egon, eta elkarrekin joango gara Shamleg-
hera —insistitu zuen gizonak.

Une batez, fusil baten kargadorean kartutxo
bat sartzeko behar den denboran, duda egin
zuen lamak. Orduan altxa eta behatz bat jarri
zuen gizonaren sorbaldan.

— Ez al duzu entzun? Hilik ez dela izango
esan dut, nik, Suchzeneko abade izan naizen
honek. Hurrena sagu jaiotzeko gogoia al duzu,
edo erlatzpeko suge, edo piztia nazkagarri baten
sabeleko zizare? Nahi al duzu...?

Ao-chungeko gizona belauniko jarri zen,
lamaren ahotsak deabruak uxatzeko tibetar
gong baten durundia egiten baitzuen.

— *Ai! Ai!* —egin zuten oihu Spitiko gizonak—
. Ez gu madarikatu... ez hori madarikatu. Gehie-
gizko ardura besterik ez zen, maisu... Utzi fusila
lurrean, txoro alaena!

— Amorrua amorruren gainean! Gaitza gai-
tzaren gainean! Ez da hilik izango. Izango ahal
dira apaiza jo dutenak beren ekintzen gatibu.
Zuzena eta bidezkoa da Gurpila, batere desbide-
ratzen ez dena! Sarritan jaioko dira... oinazez —
burua erori egin zitzaion, eta Kimen sorbaldan
sostengatu zen indarrez.

— Gaitz handia egitetik hurbil egon naiz,
chela xuxurlatu zuen pinuen arteko erabateko
isiltasunean—. Bala ateratzen uzteko tentatuta
egon naiz; eta, benetan, bai, heriotza gogorra
eta mantsoa izango zuten horiek Tibeten... Aur-
pegian jo nau... haragian...

Lurrera irristatu zen, arnasestuka; agurearen
bihotz nekatua taupadak ematen eta gelditzen
entzun ahal izan zuen Kimek.

— Hiltzeko adinako zauria egin al diote? —
esan zuen Ao-chungeko gizonak, besteak isil-isi-
lik zeuden artean.

Ikarak akabatzen gorputzaren ondoan belau-
nikatu zen Kim.

— Ez —egin zuen oihu berotuta—, ahuleria
besterik ez da —orduan gogoratu zitzaion bera
zuria zela eta zuri baten akanpalekuko hornidu-
rak zituela eskura—. Zabaldu *kiltak!* Izango dute
agian sendagairik sahibek.

— Hara! Hori badakit nik —esan zuen barrez
Ao-chungeko gizonak—. Ez naiz alferrik izan Yan-
kling sahibaren *shikarri*-a sendagai hori ezagutu
gabe. Nik ere dastatu dut. Begira!

Botila bat, whisky merkea, atera zuen kolko-
tik, —Lehen esploratzaileei saltzen zaiena beza-
lakoa—, eta lamaren hortzen artean jarri zuen
pixka bat.

— Halaxe egin nuen Yankling sahibak Asto-
rren atzean txorkatila bihurritu zuenean. Hara!
Begiratu dut dagoeneko horien saskietan...
baina Shamleghen banaketa hobea egingo
dugu. Emaiozu pixka bat gehiago. Sendagai ona
da. Ukitu! Hobeto dihoakio bihotza. Burua behe-
rago jarri eta igurtzi pixka bat bularra. Geldik
egon balitz zain ni sahibez arduratzen nintzen
artean, ez zen halakorik gertatuko. Baina behar-

bada gure bila etorriko dira hona sahibak. Orduan ez litzateke gauza txarra izango beren pistolekin tiratzen hastea, ezta?

— Uste dut hartu duela batek bere ordaina — esan zuen Kimek hortz artetik—. Ostiko bat eman diot izterrondoan maldan behera gindoa-zenean. Hila gerta zitekeen!

— Ondo dago ausarta izatea bat Rampurren bizi ez denean —esan zuen bere txabola rajaren palazio zaharkitutik kilometro gutxitara zeukan batek—. Sahiben artean izen txarra hartzen badugu, ez gaitu inork *shikarri* gisa enplegatuko.

— A, baina horiek ez dira sahib *angrezi*-ak... ez dira jende alaia, Fostum sahiba edo Yankling sahiba bezalakoak. Atzerritarrak dira... ez dakite *angrezi*-z hizketan, sahibek bezala.

Une hartan lama, eztulka, eseri egin zen, arrosarioaren bila.

— Ez da hilik izango —murmurikatu zuen—. Zuzena da Gurpila! Gaitza gaitzaren gainean...

— Ez, maisu. Hemen gara denok —Ao-chun-geko gizonak lamaren oinak jo zituen poliki—. Zuk aginduta ez bada, ez da inor hilik gertatuko. Egon pixka batean. Akanpaleku txiki bat egingo

dugu hemen, eta gero, ilargia goian denean, Shamlegh Elurpekora joango gara.

— Astindu baten ondoren —esan zuen Spitiko gizon batek ahots betez—, lo egitea da onena.

— Ezinegona daukat lepoaren atzealdean, eta zerbaiten estutasuna edo. Utzidazu burua zure magalean jartzen, *chela*. Zaharra naiz, baina ez grinarik gabea... Gauzen Kausan pentsatu behar dugu.

— Emaiozu maindire bat. Ezin dugu surik piztu, bestela sahibek ikusi egingo gaituzte eta.

— Hobe dugu Shamleghera joan. Inork ez gaitu Shamlegheraino jarraituko.

Rampurreko gizon urduria ari zen hizketan.

— Fostum sahiben *shikarri*-a izana naiz, eta Yankling sahiben *shikarri*-a naiz orain. Yankling sahibarekin nengoke orain *bigar* (lan) madarika-tu honengatik izan ez balitz. Egon daitezela bi gizon behean zelatan pistolak hartuta, ez deza-ten sahibek erokeria gehiago egin. Nik ez dut utziko gizon santua.

Eseri egin ziren, lamarengandik ez oso ber-tan, eta, pixka batean entzuten egon ondoren, nargile bat pasa zuten: *Day and Martin* botila

zahar bat zen uraren ontzia. Ikatz gorriaren argiak, eskuz esku joan ahala, begi estu, erdi itxiak argitzen zituen, matrailezur altuak, eta sorbalden inguruko artilezko tolesduretan desagertzen zen lepo sendoa. Meatzeko magiko bateko iratxoak ziruditen, mendietako gnomoak bilkuran. Eta hizketan jarduten zuten artean, inguruko ur-lasterren soinuak banaka-banaka desagertu ziren, gaueko izotzak erreka ito eta itsutzen zituenarekin batera.

— Nola altxatu den gure aurka! —esan zuen Spitiko gizon batek miresmenez—. Gogoan dut ibex zahar bat, Ladakheko inguruan, duela zazpi elurte Dupont sahibak tiratu eta huts egin zuena, eta atzerritarrak bezalaxe tente-tente jarraitu zuen hark ere. *Shikarri* ona zen Dupont sahibak.

— Ez Yankling sahib bezain ona ordea —Aochungeko gizonak zurrutada bat egin zion whisky botilari eta besteei pasa zien—. Entzun orain niri... besteren batek gehiago dakiela uste ez badu.

Ez zion inork erronkari erantzun.

— Shamleghera joango gara ilargia goian izatean. Han denon artean banatuko dugu ekipaia.

Nik aski dut fusil berri hau bere kartutxo guztiekin.

— Zure ondasunak bakarrik hondatzen dituzte hartzek ala? —esan zuen lagunetako batek, pipari tiraka.

— Ez; baina musketa poltsak sei rupiana ordaintzen dituzte orain, eta zure andreak den-den oihala eta sukaldeko ontzi batzuk har ditzake. Hori dena Shamleghen egingo dugu, egunsentia baino lehen. Orduan bakoitza bere bidetik joango da, ahaztu gabe sahib horiek ez dituela inoiz ikusi ez zerbitzatu, beraiek esan dezakete eta ekipaia lapurtu diegula.

— Hori ondo dago zuretzat, baina zer esango du gure rajak?

— Nork esango dio ezer rajari? Sahib horiek, gure hizkuntza jakin gabe, edo babuak, bere asmoetarako guri dirua emanda gero? Armadaren bat bidaliko al du horrek gure aurka? Zer froga geratuko da? Behar ez duguna Shamleeheko simaurtegira bota dezakegu, gizonak zapaldu ez duten lekura.

— Nor da Shamlegheñ uña honetan? —larretarako leku bat besterik ez zen Shamlegheñ, hiruzpalau txabolekin.

— Shamlegheko Emakumea. Hark ez ditu sahibak maite, ondo asko dakigunez. Besteak lasaituko ditugu opari txiki batzuekin. Eta hemen badugu denontzako aski —hurbilen zuen saskiaren alderdi beteena ukitu zuen.

— Baina... baina...

— Esan dut ez direla benetako sahibak. Leheko bazarrean erosiak ziren zeramatzaten larru eta buru guztiak. Ezagutzen ditut arrastoak. Azkweneko ibalaldian erakutsi nizekizuen.

— Egia da. Erositakoak ziren larru eta buru guztiak. Pipiak jotakoak ere baziren.

Arrazonamendu zorrotza zen hura, eta Aochungeko gizonak ezagutzen zituen bere lankideak.

— Okerrena gertatuko balitz, Yankling sahibi kontatuko diot, oso gizon alaia da eta barre egingo du. Ez diegu ezagutzen ditugun sahibei kalterik egiten. Eta horiek berriz apaizak jotzen dituzte. Ikaratu egin gintuzten. Aldean alde egin genuen! Nork daki non erori zitzaigun ekipaia?

Zer uste duzu bada, utziko diola Yankling sahibak lur barneko poliziarri mendietan gora eta behera ibiltzen, berari jokoa hondatzeko gero? Simla eta Chini ez daude batere gertu, eta are urrutiago daude Shamlegh eta Shamlegheko simaurtegia.

— Ondo da, baina nik eramango dut *kilta* handia, sahibek goizero biltzen zutena, estalki gorria duen hori.

— Horrexek frogatzen du —esan zuen zorrotz Shamlegheko gizonak—, ez direla benetako sahibak. Nork entzun du inoiz Fostum sahibak, edo Yanklig sahibak, edo baita Peel sahib txikiak ere, ahuntzak harrapatzeko gauak esna ematen dituen horrek, bai, nork entzun du sahib horiek sukaldaririk gabe etorri direnik mendira, eta fusila daramanik gabe, eta... era guztietako jende ondo ordaindua, agintariak eta zapaltzaileak eraman gabe taldean? Nola sortuko dute *horiek* arazorik? Eta *kilta* hori, zer?

— Ezer ez, Idatziriko Hitzaz beteta dagoela besterik ez... liburuak eta idazteko koadernoak, eta tresneria bitxia, elizakoa edo.

— Shamlegheko simaurtegiak hartuko du dena.

— Horixe! Baina hori eginez sahiben jainkoak iraintzen baldin baditugu, zer? Ez zait gustatzen era horretan erabiltzea Idatziriko Hitza. Eta brontzeko idolo horiek ere ez ditut ulertzen. Hori ez da menditar soilentzako harrapakina.

— Lotan da oraindik agurea. Sh! *Chela*-ri galdetuko diogu —Aochungeko gizonak, gidariaren harrotasunaz, berriz edan zuen.

— Badaukagu hemen —xuxurlatu zuen—, zer den ez dakigun *kilta* bat.

— Nik badakit ordea —esan zuen zuhurtziaz Kimek. Lasai eta erraz hartzen zuen lamak arnasa, loaldi gozoan; Hurriren azken hitzetan pentsatzen aritua zen Kim. Joko Handiaren partaide bezala, babuaren aurrean makurtzeko prest zegoen une hartan—. Gauza zoragarriz betetako *kilta* da, zoroek ez erabiltzeko modukoa.

— Esan dut bada nik; esan dut —egin zuen oihu zama hura gainean zeramanak—. Traizionatuko gaituela uste al duzu?

— Niri ematen badidazu ez. Nik atera diezaio-
ket duen magia. Bestela kalte handiak egingo
ditu.

— Apaizek beti hartzen dute beren zatia —
whiskya kikiltzen ari zen Ao-chungeko gizona.

— Niri ez zait axola —erantzun zuen Kimek
bere sorlekuaren indarrak—. Bana ezazue zuen
artean, eta azkar asko ikusiko duzue zer gerta-
tzen den!

— Nik ez behintzat. Txantxetan ari nintzen.
Eman agindua. Behar duguna baino gehiago
daukagu denok. Bakoitza bere bidetik abiatuko
da Shamleghetik egunsentiarekin batera.

Beren plan sinpleak egiten eta berregiten
aritu ziren beste ordu batez, bitartean Kin hotzez
eta harrotasunez dardarka zegoela. Egoeraren
umoreak bere baitan zeuden irlandarra eta ekial-
detarra kilikatzen zituen. Horra hor Iparreko
Botere beldurgarriaren ordezkariak, Mahbub edo
Creighton koronela bezain handiak beren herrie-
tan, bat-batean erabat ezinduta. Bat, Kimek
ondo asko zekienez, elbarrituta egongo zen den-
bora luzean. Erregeei aginduak eginda zeuden.
Gau hartan ordea han behean nonbait zeutzan,

maparik gabe, jatekorik gabe, armarik gabe, eta Hurri babua izan ezik, gidaririk gabe. Eta haien Joko Handia desegitea (nori emango ote zioten informazioa pentsatzen zuen Kimek), ikarak eragindako gaueko ihesa, ez zen gertatu Hurriren trebeziari esker edo Kimen trikimailuengatik, aldiz, Umballako polizia gazte arduratsuak Mahuben fakir lagunak atxilotu zituen bezain era erraz, eder, eta ezinbestekoan.

«Horra hor non dauden... ezertxo ere gabe; eta... ene, hau hotza!... Hementxe nago ni beren gauza gutiekin. A, haserre egongo dira, bai! Pena ematen dit Hurri babuak.»

Bazter zezakeen errukia Kimek; izan ere, nahiz eta haragian sufrimendu ugari pairatu, arima harrotasunez lehertu beharrean zeukan bengaliarrak. Mendian behera kilo metro t'erdira, pinudiaren ertzean, erdi izoztuta zeuden bi gizonak —bat oso gaizki tarteka-tarteka—, elkarrenganako errietak babuari egindako irainik gogorrenekin tartekatzen zituzten; babua berriz ikarak erotu egin zuela zirudien. Ekintzarako plana eskatzen zuten. Babuak esaten zien zorientsu zirela oraindik bizirik egoteagatik;

coolli-k, zelatan ez bazeuden, arrastorik utzi gabe desagertuak izango zirela; raja, bere nagusia, ehun eta berrogei kilometroetara zegoela, eta, Simlarako bidaiarako dirua eta talde bat utzi beharrean, preso hartuko zituela segur aski apaiz bat jo zutela jakitean. Bekatu hartaz eta bekatuaren ondorioez aritu zen luze eta zabal hizketan, gaiz aldatzeko agindu zioten arte. Itxaropen bakarra, esan zuen, batere nabarmendu gabe herriz herri joatea zuten, zibilizaziora heldu arte; eta hamaikagarren aldiz malkoetan blai eginda, galdetu zien goiko izarrei zergatik sahibek «jo ote zuten gizon santua».

Hamar urratsek eramango zuten Hurri besteek inola ere harrapatu ezingo zuketan iluntasun zalapartarira, hurrengo herriko aterpe eta jatekora, sendagile berritsuak eskasak baitziren han. Baina nahiago zuen hotza, gosea, hitz txarrak eta noizbehinkako zartadak pairatu bere enplegatzaile adeitsuen ondoan. Zuhaitz enbor baten kontra kuzkurtuta, sudurrari tiraka zegoen triste-triste.

— Eta ez al zaizu burutik pasa —esan zuen bero-bero zauririk gabeko gizonak—, zer nolako

ikusbizuna eskainiko dugun mendi hauetan batera eta bestera hemengo jendearen artean?

Hurri babuak zenbait orduz ez zuen ia beste ezertan pentsatu, baina galdera ez zen berarentzat.

— Ezin dugu batera eta bestera ibili! Ia-ia ezin dut pausorik eman eta! —esan zuen purrustaka Kimen biktimak.

— Agian gizon santua errukiorra izango da bere maitasunean, sar, bestela...

— Agintzen dut atsegin berezia izango dudala nire errebolberrak bontzo gazte horren gainean hustean urrena topatzen dudanean —izan zen kristautasunik gabeko erantzuna.

— Errebolberrak! Mendekua! Bontzoak! — Hurri gehiago kuzkurtu zen. Bazetorren berriz ere borroka—. Ez al zaitu kezkatzen izan dugun galerak? Ekipaia! Ekipaia! —hizlaria belarretan literalki dantzan entzun zezakeen babuak—. Generaman guztia! Segurtatu dugun guztia! Gure irabaziak! Zortzi hilabetetako lana! Ba al dakizu zer esan nahi duen horrek? «Gu gara, bai, ekialdekoekin tratatzeko gauza garenak!» Ondo asko egin duzu, bai, zorionak.

Hizkuntza desberdinetan jarraitu zuten borrokan, eta Hurrik irribarre egin zuen. Kim zegoen *kilta*-ekin, eta *kilta*-etan zegoen zortzi hilabete-tako diplomazia. Ez zeukan mutilarekin harremanetan jartzeko erarik, baina konfiantzazkoa zen Kim. Gainontzekoan, moldatuko zen Hurri mendietan barrena egin beharreko bidaia hura Hilásek, Bunárrek eta zazpiehun kilometro bidezidorek belaunaldi batez kontatzeko moduko istorioa izan zezan. Beren *cool*i-ak kontrolatu ezin dituzten gizonak ez dituzte asko errespetatzen Mendietan, eta umore zorrotza du menditarrak.

«Neronek egin izan banu» pentsatu zuen Hurrik, «ez nukeen hobeto egingo; eta, ene Jainkoa, pentsatzera jarrita, neronek moldatu dut noski dena. Zeinen azkarra izan naizen! Mendian behera korrika nindoala bururatu zait! Iraina ustekabean gertatu da, baina nik bakarrik atera niezaiokeen... a, zuku guztia. Nolako ondorio moralak jende ezjakin honen aurrean! Traturik gabe... paperik gabe... idatzizko batere dokumenturik ez... eta ni interpretaritza egiteko. A zer barreak egingo ditudan koronelarekin! Haren paperak edukitzea ere gustatuko litzaidake,

baina ez dago bi lekuetan batera egoterik. Axioma da hori.»

14. ATALA

*Anaia belaunikatu egiten da (hala dio Kabirrek)
Harria eta brontzearen aurrean jentilen erara.
Baina anaiaren ahotsean ditut entzuten
Nire erantzunik gabeko sufrimenduak.
Patuak ezarria du hark Jainkoa
Haren otoitza mundu osoarena da... eta nirea.
Otoitza.*

Ilargia ateratakoan abiatu ziren *cool*i zogiak. Lamak, loaldiak eta whiskyak adoretuta, aski zuen Kimen sorbaldaren sostengua isilik, pauso luzeekin ibiltzeko. Arbel-harriz zipriztinduriko belarretik joan ziren ordubetez, amil zahar bat inguratu zuten eta Chiniko bailaratik batere ikusten ez zen lurralde berri batera igo ziren. Belardi ikaragarri bat betiko elurretaraino igotzen zen abaniko forman. Haren oinean hogeit hamar areatako zelai bat zegoen, eta bertan buztin eta egurrezko txabolak ageri ziren. Haien atzean —izan ere, mendietan gertatu ohi den bezala, gauza guztien gainetik eskegita zeuden txabolak— seiehun metrotako zuloa egiten zuen lurrak

Shamlegheko simaurtegiraino, gizonak oinik jarri ez duen lekuan.

Lama herrixkako leku hoberenean jarri zuten arte, ez ziren gizonak harrapakina banatzen hasi. Kimek oinak garbitu zizkion, mahomatarren erara.

— Jatekoa bidaliko dugu —esan zuen Aochungeko gizonak—, eta estalki gorriarekiko *kilta*. Egunsentian ez da lekukotzarik emango duen inor izango, ez alde batera ez bestera. *Kilta*-n behar ez denik zerbait baldin bada... begira horri!

Keinu bat egin zuen leiho aldera —elurrak islatzen zuen ilargiaren argitasunez betetako espaziora zabaltzen zen leihoa—, eta whisky botila huts bat bota zuen harrika.

— Ez dago erorketaren soinuaren zain egon beharrik. Munduaren amaiera da hau —esan zuen kanpora atereaz. Lamak aurrera begiratu zuen, bi eskuak leihoaren barrenean jarrita, opalo horiak bezala distiratzen zuten begiez. Aurrean zuen amildegi izugarritik mendien gailur zuriak gorantz egiten zuten ilargiaren irrikaz.

Gainontzeko guztia izar arteko espazioa bezain iluna zen.

— Hauexek dira nire mendiak, bai —esan zuen poliki—. Horrelaxe bizi beharko luke gizonak, munduaren gainean jarrita, gozamenetatik at, garrantziko gauzetan pentsatzen.

— Bai; tea prestatu, bururako maindirea tolestu, eta behi ernariak uxatuko dizkion *chela* bat baldin badu.

Kriseilu ketsu bat zegoen apal baten gainean piztuta, baina ilargiaren argia gaineratu egin zitzaion; eta argi nahasi hartan, jatekoaren poltsa eta ontzien gainera makurtuta, fantasma luze bat bezala mugitzen zen Kim.

— Ai! Baina orain, odola hozten utzita ere, tarrapataka ari zait oraindik burua, eta soka bat edo sumatzen dut lepoaren bueltan.

— Ez da harritzekoa. Zartada ederra zen. Egin duena...

— Neure grinengatik izan ez balitz, ez zen kalterik gertatuko.

— Zer kalte? Hamaika bider merezita zuten heriotzatik libratu dituzu sahibak.

— Ez duzu lezioa ondo ikasi, *chela* —maindi-
re tolestu batean atsedean hartzera etorri zen
lama, Kimek arratseko eginbeharrekin jarraitzen
zuen artean—. Itzala itzalaren gainean baino ez
da izan zartada. Gaitzak berak... zeinen ahulak
ditudan hankak egun hauetan!... nire gaitzarekin
egin du topo, nire amorru, errabia eta gaitza
bihurtzeko desioarekin. Grina horiek esnatu egin
didate odola, urdaila nahasi, eta belarriak orroka
jarri —tea irakiten edan zuen lamak zeremoniaz,
katilu beroa Kimen eskuetatik hartuta—. Grinarik
gabea banintz, gaitzaren zartadak gorputzean
baino ez zukeen kaltea egingo, orbaina, ubeldu-
ra, eta hori lilura da. Baina izpiritua ez neukan
garbi, zuzenean sortu baitzitzaidan Spitiko gizo-
nari kanpotarrak hiltzen uzteko gogoia. Desio
horrekin borroka egiterakoan, arima desegin
egin zait eta ehun zartadek eragindakoa baino
min handiagoa hartu du. Bedeinkazioak errepika-
tu arte (Zorionbide budistez ari zen), ez dut
sosegurik izan. Baina arduragabezia labur hark
ereindako gaitzak bukaera arte jarraitzen du.
Zuzena da Gulpila, ez baita batere desbidera-
tzen! Ikasi lezioa, *chela*.

— Altuegia da hori niretzat —murmurikatu zuen Kimek—. Oraindik ez naiz sosegatu. Pozik nago gizon hura zauritu izanaz.

— Horixe sentitu dut, bai, zure belaunen gainean lotara jarrita, beheko basoan. Larritu egiten ninduen nire ametsetan... zure arimako deabru horrek, niregana baitzeturren. Hala ere beste aldetik —arrosarioa askatu zuen—, meritua eskuratu dituzu bi bizitza salbatuz, kalte egin didatenean bizitza. Orain gauzen kausa aztertu behar dut. Nire arimaren txalupa urperatzeotan ibili da.

— Egin lo, eta indarrak berritu. Hori da zuhurrena.

— Meditatzen ari naiz. Zuk uste baino handiagoa da beharra.

Egunsentira arte, mendi gailur altuetan ilargiaren argitasuna ahuldu ahala, eta urruneko mendien aldapetan erabateko beltza izan zena baso berde samurra bihurtzen zen artean, horman finkatuta eduki zituen begiak gau osoz lamak. Noizean behin marmarren bat egiten zuen. Burdinez itxitako atearen bestaldean —bertara agertu ziren behi irudikorrek beren ukui-

lua izandakoaz galdetzera— Shamlegh eta cooliak harrapakera eta festan ari ziren. Ao-chungeko gizona zuten buru, eta behin sahiben jatekoen latak irekiz gero, eta onak zirela ikusi, ez ziren atzera egitera ausartu. Shamlegheko simaurtegiak hartu zituen kondarrak.

Amesgaiztoz beteriko gaua eman ondoren, kanpora atera zenean Kim goizeko freskuran hortzak garbitzera, kolore argiko emakume batek, turkesez betetako buruki batekin, bazter batera eraman zuen.

— Joan egin dira besteak. *Kilta* hau utzi dizute zuri, agindu bezala. Ez ditut sahibak maite, baina aztikeria bat egin behar dizugu ordainetan. Ez dugu Shamlegh txikiak izen txarra hartzerik nahi, zera,... istripua dela eta. Shamlegheko Emakumea naiz —begi harro, distiratsuz begiratu zion; emakume menditarren zeharkako begiratua ez bezalako zen hura.

— Bai noski. Baina ezkutuan egin beharra dago.

Kilta astuna jostailu bat balitz bezala jaso eta bere txabolan sartu zuen.

— Kanpora eta itxi atea burdinekin! Ez dadila inor inguratu nik hau bukatu arte —esan zuen Kimek.

— Baina gero... hitz egingo al dugu?

Kimek lurrean hustu zuen *kilta*: topografiara-ko tresnak, liburuak, egutegiak, gutunak, mapak, eta usain bitxia zerion posta indiarra. Behe-behean poltsa brodatu bat zegoen, dokumentu zigilatu, doratu, eta koloreztatu batekin, errege batek besteari bidaltzen diona bezalakoa. Kimek arnasari eutsi zion pozaren pozez, eta sahiben ikuspuntutik aztertu zuen egoera.

«Liburuak ez ditut behar. Gainera, logaritmoak dira... topografia noski —alde batera utzi zituen—. Gutunak ez ditut ulertzen, baina ulertuko ditu Creighton koronelak. Denak gorde behar dira. Mapak... nik baino mapa hobeak egiten dituzte... horiek bai noski. Indiarren gutun guztiak... Hara! eta batez ere *murasla* —poltsa brodatua usaindu zuen—. Hau Hilás edo Bunárrena izango da noski... Hurri babuak egia zion. Ene Jainkoa! Harrapakin galanta da. Hurrik ikusi ahal balu... Gainontzekoak leihotik behera joan behar du». Primerakoa zen itsasorratz bat aztertu

zuen, eta teodolito baten estalki distiratsua. Baina azken finean, ez dago ondo sahib batek lapurretan egitea, eta gauza haiek froga desegokiak izan zitezkeen noizbait. Eskuizkribu zati txikiena ere sailkatu zuen, mapa guztiak, eta gutun indiarak. Multzo malgua osatzen zuten. Burdinez itxitako liburuak eta beste bost sakelako ere alde batera utzi zituen.

«Gutunak eta *murasla* arropa barruan eta gerrikoaren azpian eraman behar ditut, eta eskuz idatzitako liburuak jatekoen poltsan jarri. Zama handia izango da. Ez. Ez dut uste besterik hartuko dudarik. Baldin bazen, *coolli*-ek bota dute *khud*-ean behera, beraz ondo dago dena. Orain zure txanda da.» Sartu zuen berriz *kilta*-n harrika botatzeko asmoa zuen guztia, eta leihorearen zureriaraino altxatu zuen. Hirurehun metro beherago hodei-laino luze bat zegoen, geldia eta ertzetan biribildua, goizeko eguzkiak oraindik ukitu ez balu bezala. Hirurehun metro beherago ehun urtetako pinudi bat ageri zen. Haize bolada batek hodeia mehetu zuenean gailur berdeak ikusi ahal izan zituen, goroldiozko ohe bat ziruditelatela.

«Ez! Ez dut uste atzetik inor joango zaizunik!»

Biraka-biraka zihoala, erori ahala barruko guztiak atera zitzaizkion saskiari. Teodolitoak arroka baten izkina jo zuen eta granada bat bezala lehertu zen; liburuak, tintontziak, margo-kaxak, itsasorratzak eta erregelak segundu batzuetan agertu ziren erleak balira bezala. Gero desagertu egin ziren; eta, leihotik erdi zintzilik, Kimek bere belarri gazteak luzatu arren, ez zen soinu bat bera ere amiletik heldu.

«Bostehun... mila rupia ere ez dira aski horiek erosteko», pentsatu zuen penatuta. «Xahuketa ederra izan da, baina gainontzekoa guztia badaukat, egin duten guztia, hala espero dut. Orain nola demontre kontatu behar diot hau Hurri babuari eta zer demontre egin behar dut nik? Eta nire agurea gaixorik dago. Ulez bildu behar ditut gutunak. Hori egin behar da aurrena... bestela ezkotu egingo dira... Eta bakar-bakarrik nago!» Fardel txukun bat egin zuen gutunekin, ule zurrun itsaskorra ertzetan tolestuz, bizimodu ibiltariak ehiztari zahar bat bezain ordenatua egin baitzuen Kim bidaia kontuetan.

Gero ardura handiagoz jarri zituen liburuak jatekoen poltsan, behe-behean.

Emakumeak atea jo zuen.

— Ez duzu aztikeriarik prestatu ordea —esan zuen, ingurura begiratzuz.

— Ez da beharrik —Kimek erabat ahaztuta zeukan hitz magikoen beharra. Emakumeak, batere begirunerik gabe, barre egin zion Kimen larritasunari.

— Batere ez... zuretzat. Begi keinu hutsez egin ditzakezu zuk aztikeriak. Baina pentsa ezazu gugan, gaixook, joaten zarenean. Mozko-rrégi zeuden bart denak emakume gaixo bati entzuteko. Zu ez al zaude mozkorra?

— Apaiza naiz —Kim bere onera etorria zen, eta, emakumea batere desatsegina ez zenez gero, bere posizioari lotzea iruditu zitzaion onena.

— Abisatu nien sahibak haserretu egingo direla, galdekizuna egingo dutela eta txostena rajarentzat. Babua ere beraiekin da. Funtzionarioak mingainluzeak izaten dira.

— Horrek kezkatzen al zaitu? —ordurako erabat osatuta zeukan plana Kimek, eta irribarre zoragarria egin zion emakumeari.

— Ez osorik —esan zuen emakumeak, esku indartsu ilun bat atereaz, turkesa eta zilarrez estalia.

— Istant batean buka dezaket hori —jarraitu zuen bizkor—. Babua Ziglaur ondoko mendietan bueltaka zebilen *hakim* bera da (ba al zenuen haren berri?). Nik ezagutzen dut.

— Dena kontatuko du sariaren truke. Sahibak ez dira menditarrak bereizteko gauza, baina babuek badituzte begiak, gizonezkoentzat... eta emakumezkoentzat.

— Bidaliozu hitz bat nire partetik.

— Ez da zuregatik egingo ez nukeen gauzarik.

Kimek lasai-lasai hartu zuen konplutua, maitasunean emakumezkoek agintzen duten lurraldeetan gizonek behar duten bezala. Gero koarderno batetik orri bat hartu, eta arkatz ezabaezinez idatzi zuen *shikast* hizki zarpailetan (ume gaiztoak hormatan zikinkeriak idazteko erabiltzen duten idazkera): «*Idatzi duten guztia dau-*

kat: lurraldearen marrazkiak, eta gutun asko. Batez ere murasla. Esadazu zer egin behar dudan. Shamlegh Elurpekoan nago. Agurea ondoezik dago.»

— Emaiozu hau. Ahoa itxiko dio. Ez da oso urruti ibiliko noski.

— Ez. Basoan daude oraindik arrokaren bestaldean. Eguna argitu duenean zelatan egon dira umeak, eta oihuka esan digute nondik nora mugitu diren.

Harridura nabaritu zitzaion Kimi; baina zelaien ertzetik kanta zorrotz bat zetorren, miruarenaren antzekoa. Abereak zaintzen ari zen haur batek jaso zuen berria, Chiniko bailara menderatzen duen maldaren bestaldean zegoen anaia edo arreba bati.

— Senarrak ere kanpoan dauzkat, egurra biltzen —intxaur eskukada bat atera zuen kolkotik; garbi-garbi zabaldu eta jaten hasi zen. Kimek ez ikusia egin zion.

— Ezagutzen al duzu intxaurraren esanahia... apaiza? —esan zuen sotiltasunez, eta oskolaren bi zatiak eman zizkion.

— Oso ideia ona —bi oskol zatien artean sartu zuen paper pusketa—. Ba al duzu argizari pixka bat hau ondo ixteko?

Emakumeak hasperen luze bat egin zuen, eta Kim bigundu egin zen.

— Ez dago ordainik zerbitzua betetzen den arte. Eman hau babuari, eta esaiozu Kutunaren Semeak bidali diola.

— *Ai!* Egia, bai, egia! Azti batek... sahibak bezalako den batek.

— Ez, Kutunaren Semeak; eta galdeiozu ea erantzunik izango ote den.

— Baina... zakarkeriaren bat esaten badit, zer? Ni... beldur naiz.

Kimek barre egin zuen.

— Dударик ez dut oso nekatuta eta goseak izango dela. Mendiak ez dira oherako lagun onak. *Hai*, nire... —mingain puntan izan zuen «ama» hitza, baina «arriba» bihurtu zuen—, oso emakume zuhurra eta bizkorra zara. Dagoeneko herri guztiek jakingo dute zer gertatu zaien sahibei, ezta?

— Hala da. Albisteak Ziglaurren zeuden eguerdirako, eta biharko Kotgarhen izango dira. Herriak beldurrak eta haserre daude batera.

— Ez dute zertan haserretu bada. Abisua eman herriei jaten emateko sahibei eta bakean pasatzen uzteko. Isilka atera behar ditugu gure bailaretatik. Gauza bat da lapurreta, eta beste bat hiltzea. Babuak ondo ulertuko du, eta ez da gero kexurik izango. Bizkor ibili. Nagusiaz arduratu beharra daukat esnatzen denean. Hala izan bedi. Zerbitzua egin ondoren esan duzu datorrela sana ezta? Ni Shamlegheko emakumea naiz, eta Rajaren agindupean nago. Ez naiz ume egile arrunta. Zurea duzu Samlegh: apoa, adarra eta azala, esnea eta gurina. Hartu ala utzi.

Erabakior joan zen mendian gora, zilarrezko koilareak bular zabalean tintika, bostehun metro gorago goizeko eguzkiarekin topo egitera handik. Une hartan indiarrez pentsatu zuen Kimek, fardelen ertzetan argizaria jartzen zuen artean.

«Nola segi lezake gizon batek Bidean edo Joko Handian emakumeek horrela asperrarazten dutenean? Fordeko Akrolako neska hura izan zen lehenbizi; gero usategi atzeko morroiaren emaz-

tea, besteak kontatu gabe, eta orain hau dator!
Umea nintzenean ondo zegoen, baina orain gizona naiz eta ez naute gizon bezala ikusten. Intxaurrak! Ja, ja! Almendrak izaten dira lautadetan!

Herrira irten zuen ohiko zerga eskatzera; ez eske ontziarekin, lautadetarako baitzen hori, printze baten erara baizik. Shamlegheko udako populazioa hiru familiek baino ez dute osatzen: lau emakume eta zortzi edo bederatzi gizon. Jateko enlatatuak ugari zeuzkaten denek, kinina amoniakatutik hasi eta vodkaraino, bezperako harrapakinean bere zati osoa hartu baitzuen bakoitzak. Dendak, primerakoak, aspaldi moztu eta banatu zituzten; aluminiozko eltzeak ere, beren markarekin, hantxe ageri ziren.

Baina ondorio gaizto ororen aurkako babes hoberena lama bertan egotea zela uste zuten, eta batere lotsarik gabe zeuzkaten gauzarik onenak eman zizkioten Kimi, baita edateko *chang*-a ere, Ladakheko bidetik datorren garagardoa. Gero eguzkitan jarri ziren berotzeko, eta hantxe eseri ziren amaierarik gabeko amilen gainetik zituztela hankak zintzilik, berriketan, barrez eta

erretzen. India eta Gobernuak ezagutu izan zituzten sahib ibiltarien bidez epaitzen zituzten, beraiek edo beren lagunak *shikarri* bezala enplegatu zituzten sahiben bidez. *Ibex*-a, Tibeteko ahuntza edo markorrekin huts egindako tiroez hogeitau urte lurperatuta zeramatzen sahiben istorioak entzun zituen Kimek, xehetasun bakoitzat atzetik argituz, tximistaren kontra zuhaitzen adarrak ikusten diren bezalaxe. Beren ondorengo berri eman zioten, eta, garrantzitsuago zena, zango indartsuekiko abere txikien gaixotasuna; Korgharh bezain urrutira egindako bidaiak ere kontatu zizkioten, hantxe bizi baitira atzerriko misiolariak, eta are urrunago Simla zoragarri-egindakoak, kaleak zilarrez harriztatuta dituen, edozeinek, bai, edozeinek egin bailezake han sahibentzat lan: bi gurpiletako gurdietan ibiltzen dira eta dirua nolana ere xahutzen dute. Geroxeago, serio eta isilkoi, oso mantso ibiliz, erlatz azpiko elkarrizketara etorri zen lama ere, eta leku zabala utzi zioten. Haize finak suspertu egin zuen, eta amildegiaren ertzean eseri zen onenekin, eta, elkarrizketa bizitasuna galtzen hasi zenean, hartxintxarrak botatzen aritu zen azpiko

hutsunera. Handik berrogei kilometroetara ageri zen, arranoaren heganean, hurrengo mendikatea, landare arrastoz zulatu, marratu eta pitzatu: basoak, batetik bestera eguzkia ikusi gabe ko egun osoko ibilaldia. Enara baten habian eserita egotea bezalakoxea zen hura, munduaren teilatuko erlatzen azpian.

Noizean behin eskua luzatzen zuen lamak, eta norbaitek ahots mehez esandakoaren laguntzaz, Spতিরাকো bidea seinalatzen zuen eta Parungla zeharkatuz, iparreranzkoa.

— Atzean, Mendiak ugaritzen diren lekuan dago De-ch'en' (Hanléz ari zen), Monasterio Handia. s'Tag-stan-ras-ch'en-ek eraiki zuen, eta istorio hau kontatzen dute berataz.

Eta kontatu egin zuen: sorginkeria eta mirarizko istorio harrigarria, Shamlegh osoa arnasarik gabe utzi zuena. Apur bat mendebaldera jirata, Kuluko mendi berdeez galdegin zuen, eta Kailungen bila hasi zen glaziarren azpian.

— Handixe etorri bainintzen ni aspaldi, oso aspaldi. Lehetik etorri nintzen, Baralachiren gainetik.

— Bai, bai; badakigu —esan zuen Shamlegheko jendeak, urrutira joanak baitziren denak.

— Eta bi gauzez egin nuen lo Kailungeko apai-zekin. Hauexek dira nire mendi maiteak! Itzal guztien gainerik itzal bedeinkatuak! Hantxe zabaldu zitzaizkidan begiak; hantxe bilatu nuen Argia; eta hantxe prestatu nintzen Bilakuntzarako. Mendietatik etorri naiz... Mendi handi eta haize indartsuetatik. A, zuzena da bai Gurpila!

Banaka-banaka bedeinkatu zituen denak: glaziar handiak, arroka biluziak, morrenak eta arbel mordoak; lautada lehorra, laku gazi ezkutu, zuhaitz urtetsua eta ur ugaritako aran joria, bata bestearen atzetik, hilzorian dagoen gizonak bere jendea bedeinkatzen duen bezala; eta Kim txundituta geratu zen lamaren irrikarekin.

— Bai... bai. Ez da gure Mendiak bezalako lekurik —esaten zuen Shamlegheko jendeak. Eta berekiko hasi ziren galdezka nola bizi litekeen gizona lur lau bero izugarrietan, non ganadua elefantea bezain handia egiten baiten, eta ezin duten mendi maldan goldatu; non herriak beste herrien ondo-ondoan baitauden, entzunda zute-nez, ehunka kilometroetan zehar; non jendeak

taldetan irteten baitzuen lapurtzera, eta lapurrek uzten dutena poliziak eramaten zuen.

Halaxe bada igaro zen goiz lasai hura, eta azkenean Kimen mezularia larre makurretik jaitsi zen igotzerakoan zeraman bezain arnas lasaiaz.

— Mandatu bat bidali diot *hakim*-ari —esplikatzen zuen Kimek, emakumeak agarra egin zue-nean.

— Idolatrekin elkartu al da? Ez, gogoan dut haietako bat sendatu zuela. Merituak eskuratu ditu, sendatu zuen hark bere indarra gaitzerako erabili bazuen ere. Zuzena da Gurpila! Zer gertatu zaio *hakim*-ari?

— Beldur nintzen ez ote zeunden ubelduta eta... eta banekien *hakim*-a zuhurra dela — Kimek argizariz itxitako intxaur oskola hartu eta bere oharraren atzealdean irakurri zuen ingelesez: *Hartu dut zure gutun konplituia. Ezin ditut orain lagunak utzi, baina Simlara eramango ditut. Gero zurekin elkartzea espero dut. Dese-gokia jaun haserreei jarraitzea. Bueltatu etorri zareten bidetik, eta harrapatuko zaituztet. Oso pozik postagatik nire arretari esker.* Esaten du,

maisú, idolatrei ihes egingo diela, eta gugana itzuliko dela. Itxoingo al dugu bitartean Shamleghen?

Lama luze eta maitasunez egon zen mendiei begira, eta buruari eragin zion.

— Ezin da, *chela*. Barru-barrutik desiratzen dut, baina debekatuta dago ordea. Gauzen kausa ikusi dut.

— Zergatik ez? Orain, mendiek egunez egun indarberritzen zaituztenean? Gogoan izan nola geunden makalduta eta erori beharrean han, Dunen.

— Gaiztakeriak egin eta ahazteko indartu nintzen. Liskartia eta zalapartaria besterik ez naiz izan mendietan —Kim irribarrea ezkutatzen saiatu zen—. Zuzena eta ezin hobea da Gulpila, batere desbideratzen ez dena. Gaztea nintzenean, aspaldi, erromes joan nintzen Guru Ch'wana, ezkien artera (Bhotanwards seinalatu zuen), Zaldi Sakratua daukaten lekura.

— Isilik, isilik! —esan zuen Shamlegh osoak batera—. Jam-lin-nink'orrez ari da, Mundua Egun batean Ingura Lezakeen zaldia.

— Nire *chela*-rekin bakarrik ari naiz hizketan —esan zuen lamak, errieta biguna eginez, eta goizeko izotza hegoaldera dauden erlatzetan urtzen den bezala sakabanatu ziren besteak—. Ez nenbilen egiaren bila egun haietan, dotrinaz hitz egin nahi nuen. Lilura dena! Guru Ch'wan-eko garagardoa edan eta ogia jan nuen. Biharamunean esan zuen batek: «Sangor Gutokekin borroka egitera goaz» (kontura zaitetz nola lotzen zaion Haragikeria Amorruari), «jakiteko zein abadek agintzen duen bailaran eta zeinek hartuko dituen Sangor Gutoken inprimatzen dituzten oroitzen irabazia.» Joan nintzen bada, eta borroka egin genuen egun batez.

— Baina nola, maisu?

— Gure luma-kaxa luzeekin, eta erakutsi ahal izan dut gainera... hala bada, ezkien azpian borrokatu genuen, bi abade eta fraide guztiek, eta batek hezurreraino zulatu zidan kopeta. Ikusi —atzera bota zuen kapusaia eta zilar koloreko orbaina erakutsi zuen, denborak arindua—. Zuzena eta ezin hobea da Gurpila! Atzo min eman zidan orbainak, eta berrogeita hamar urte ondoren gogoratu zitzaidan nola egin zidaten,

eta egin zidanaren aurpegia; eta liluraren baitan jardun nuen apur bat. Gero berriz zuk ikusi zenuena etorri zen... istiluak eta zorakeria. Zuzena da Gulpila! Idolatraren zartadak orbaina jo zuen. Orduan izpirituak dardara egin zidan: arima ilundu egin zitzaidan, eta liluraren urak astindu zidan arimaren txalupa. Shamleghera etorri arte ezin izan dut Gauzen Kausaz meditatatu, edo Gaitzaren erroak topatu. Gau osoa eman dut ahaleginetan.

— Baina, maisu, zu guztiz errugabea zara. Neure burua zuretzat opari.

Kim ezinegonez zegoen agurearen tristurarekin, eta oharkabean atera zitzaion Mahbub Aliren esaldi hura.

— Egunsentian —jarraitu zuen serioago lamak, arrosarioaren aleak esaldi mantsoen artean pasatuz—, argitasuna etorri zitzaidan. Hauxe da... Zaharra naiz, mendian hazia, mendian elikatua, eta ez dut sekula mendian atsedeen hartuko. Hiru urtez ibili naiz Indian zehar bidaian, baina... izan al liteke bada lurra Ama Lurra bera baino indartsuagoa? Nire gorputz zoroak Mendia desiratzen zuen, eta Mendiko elu-

rra, han behetik. Esaten nuen, eta egia da, Bilakuntzak ez duela huts egingo. Hala, Kuluko emakumearen etxean mendirantz jiratu nintzen, neure burua konbentzitura. *Hakim*-ak ez du errurik. Hark, Desioaren atzetik, alde zurretik esan zidan Mendiek indartu egingo nindutela. Kalte egiteko indartu ninduten, nire Bilakuntza ahazteko. Bizitzan eta Bizitzaren grinetan gozatu nuen. Malda gogorak desiratzen nituen igotzeko. Bilatzen saiatu naiz. Gorputzaren indarra neurtu dut, eta okerra da hori, Mendi handian, iseka egin nitzun Jamnotriren azpian arnasestuka hasi zirenean. Txantxetan hasi nintzen pasabideko elurrari aurre egin nahi izan ez zirenean.

— Baina zer kalte egiten du horrek? Ni beldurrak nengoen. Zuzena zen. Ni ez naiz menditarra; eta zure indar berriengatik maite zintudan.

— Behin baino gehiagotan gogoratu zait hori —masaila eskuan jarri zuen tristuraz—, zure laudorioak eta *hakim*-arenak bilatzen nituen nire zangoen indar hutsarengatik. Hala bada, gaitza gaitzaren atzetik zetorren ontzia bete zen arte. Zuzena da Gorpila! Hiru urtez ohore egin dit India osoak. Etxe Miragarriko Jakituriaren Iturritik

hasita —irribarre egin zuen—, kanoi handi batekin jolasean ari zen ume txiki bat arte, bidea prestatzen zidan munduak. Eta zergatik?

— Maite zintugulako. Zartadaren sukarra besterik ez da hori. Neroni ere oraindik ondoezik eta dardarka nago.

— Ez! Bidean nengoelako zen, *si-nen*-ak (zimbaloak) bezain afinatua, Legea bete asmoz. Arau horretatik aldendu egin nintzen. Melodia hautsi egin zen: eta horri zigorrak jarraitu nion. Nire Mendietan, nire herriaren ertzean, nire grina gaiztoaren lekuan bertan, etorri zait zartada... hemen! —kopeta ukitu zuen—. Ontziak lekuz aldatzen dituelako lekaide bat jotzen duten bezala, halaxe jo naute ni, Such-zeneko abade izan naizen hau. Hitzik ez, ez, zartada bat baizik, *chela*.

— Baina sahibek ez zintuzten ezagutzen, maisu!

— Elkarren antzekoak ginen. Ezjakintasunak eta Grinak Ezjakintasuna eta Grinarekin egin zuten topo bidean, eta Sumindura sortu zuten. Kolpe hura zeinu bihurtu zitzaidan, niri, galdutako *yak*-a baino hobea ez naizen honi, hau ez dela

nire lekua alegia. Ekintza baten kausa uler deza-
keenak Askatasunaren bide erdia egina dauka!
«Atzera berriz, Bidera», dio Kolpeak. «Mendiak
ez dira zuretzat. Ezin duzu Askatasuna aukeratu
eta horrekin batera bizitzarekin gozatu».

— Nahiago nuke errusiar horiek topatu ez
izana!

— Gure Jaunak Berak ere ezin du Gurpila
atzerantz jiratu; eta eskuratu dudan merituenga-
tik beste zeinu bat ere irabazi dut —eskua kolko-
an sartu eta Bizitzaren Gurpila atera zuen—.
Ikusi! mediatu ondoren pentsatu dut hau. Hona
hemen idolatrak urratu ez mena; ez da nire
azkazala baino zabalagoa.

— Ikusten dut, bai.

— Halakoxea da bada gorputz honetan gera-
tzen zaidan bizitza. Gurpilaren zerbitzari izan
naiz nire egun guztietan. Orain Gurpila nire zer-
bitzari da. Baina zu Bidean gidatuz eskuratu
ditudan merituengatik ez balitz, beste bizitza bat
beharko nuke nire Ibaia aurkitzeko. Ulertzen al
duzu, *chela*?

Hain zakar desitxuratutako mapari begiratu
zion Kimek. Ezkerretatik eskuinetara zihoan

zeharka urradura, Hamaikagarren etxetik, Uma desiotik jaiotzen den lekutik (tibetarrek marrazten duten bezala), abere eta gizakien mundutik, Bosgarren Etxea deneraino, Zentzuen Etxe hutsa. Haren logika eztabaidaezina zen.

— Argitasuna irabazi aurretik —lamak begirune handiz tolestu eta jaso zuen dena—, tentatu egin zuten gure Jauna. Ni ere tentatu naute, baina bukatu da hori ordea. Gezia lautadetan erori zen, ez Mendingian. Horretaz, zertan ari gara hemen?

— Ez al diogu behintzat *hakim*-ari itxoingo?

— Nik badakit noiz arte biziko naizen gorputz honetan. Zer egin dezake bada *hakim* batek?

— Baina gaixo eta urduri zaude. Ezin duzu ibili...

— Nola egon naiteke gaixo Askatasunaren bila banabil? —zutitu egin zen segurtasunik gabe.

— Orduan jatekoa ekarri behar dut herritik. A, Bidea!

Kimek berak ere atsedean hartu beharra zeukala sentitu zuen.

— Zuzena da hori. Jan dezagun zerbait eta goazen. Lautadetan erori zen Gezia... baina ni Desioaren atzetik nenbilen. Prestatu dena, *chela*.

Kim turkesez brodaturiko burukiarekiko emakumearengana jiratu zen; amilean behera harrixkak nagikeriaz botatzen aritua zen artean. Irribarre atsegina egin zion Kimi.

— Artasoroan galdutako bufaloa bezala topatu dut babua; purrustaka eta hotzarekin doministikuka. Hain gose zen, non bere duintasunaz ahaztu eta hitz gozoak ere esan baitizkidan. Sahibek ez daukate ezer —esku-ahur huts bat luzatu zuen—. Urdaila oso gaizki dauka batek. Zure egitea izan al da?

Kimek baietz egin zuen buruaz, begi distiratsuz.

— Bengaliarrarekin hitz egin dut aurrena, eta inguruko herri bateko jendearekin gero. Emango zaie sahibei jatena behar dutenean, eta ez diete dirurik eskatuko. Harrapakina banatuta dago. Babuak sekulako gezurrak esaten dizkie sahibei. Zergatik ez ditu bertan behera uzten?

— Bere bihotz zabaltasunagatik.

— Ez da inoiz bihotza intxaur lehor bat baino handiagoa zuen bengaliarrik izan. Baina ez dio axola... Intxaurrek direla, eta... Zerbitzuaren ondoren saria dator. Esan dizut zurea duzula herria.

— Ni naiz galtzaile —hasi zen Kim—. Pentsatu berriak nituen nire bihotzak desiratzen dituen gauzak eta... —ez dago zertan halakoetan esaten diren konplituak errepikatu beharrik. Hasperen luzea egin zuen... baina nire maisuak, ikuspen bat dela eta...

— Hara! Zer ikusi dezakete bada begi zaharrek, eske-ontzi ondo bete bat baino?

— ... herri honetatik Zelaietara doa berriz.

— Egoteko eskatu.

Kimek buruari eragin zion.

— Ezagutzen dut nire Gizon Santua, eta badakit nola amorrarazten den kontra egiten diotenean —erantzun zuen bene-benetan hizketan—. Egiten dituen madarikazioek dardara batean jartzen dituzte Mendiak.

— Lastima ez zutela burua hautsia izatetik salbatu! Zu izan zinela sahiba zigortu zuen gizon

adoretsua entzun dut. Utziozu ametsetan segitzen. Egon!

— Mendiko emakume —esan zuen Kimek, aurpegiera gazte biribildua bigundu ezin zion seriotasunaz—, gauza hauek jasoegiak dira zuretzat.

— Izan bitez Jainkoak zintzoak gurekin! Noiztik izan dira gizonak eta emakumeak gizon eta emakumez beste?

— Apaiza apaiza da. Oraintxe doala dio. Ni bere *chela* naiz, eta berarekin joango naiz. Jatekoa behar dugu Biderako. Herri guztietan ohorez hartzen dute, baina.. —mutikoen irribarre hutsa zena egin zuen bat-batean—, jatekoa ona da hemen. Emadazu pixka bat.

— Eta ematen ez badizut, zer? Ni naiz herri honetako emakumea.

— Orduan madarikatu egingo zaitut... pixka bat, ez asko, baina bai gogoan izateko aski —ezin zion irribarre egiteari utzi.

— Madarikatu nauzu dagoeneko, betileak erortzen utziz eta kokotsa altxatuz. Madarikatu? Zer axola zaizkit niri hitz hutsak? —eskuak bularraren gainean gurutzatu zituen—... ez dut nahi

zu haserre joatea ordea, nitaz uste txarra erama-
tea... Shamlegheko belar eta simaur biltzailea
naiz, baina emakume aberatsa hala ere.

— Ez dut ezer pentsatzen —esan zuen
Kimek—, baina penatuta nago bagoazelako,
makalduta bainago oraindik; eta jatekoa behar
dut. Hona hemen poltsa.

15. ATALA

Ez nioke Enperadoreari lekua utziko

Ez pasatzen erregeari

Korooa Hirukoitzaren aurrean

ez nintzateke makurtuko

Baina hau desberdina da!

Haizeetako Botereekin borrokan ez dut egingo...

Begirale, sar dadila barrura!

Jaitsi zubia... gu guztion Jauna baita

Ametsa egia bihurtu zitzaion Ameslaria!

Maitagarrien setioa

Chiniko iparretik hirurehun kilometrotara, Ladakheko arbel urdinetan, Yankling sahiba dago, gizon alaia; mendi-gailurrak ari da katalejoz aztertzen, bere usmari kuttunaren bila, Aochungeko gizon bat. Traidore hori ordea, Männlicher errifle berri bat eta berrehun kartutxoekin, beste nonbait dago, azokarako muxeka-hartzak harrapatzen; hurrengo boladan jakingo du Yankling sahibak zeinen gaixo egon den bere usmaria.

Bushahrreko bailaretan gora —Himalayetako arrano begi zorrotzak aldendu egiten dira haren aterki zuri-urdina begiztatzean—, bengaliar bat doa presaka, garai batean lodia eta itxura onekoa izandakoa, eta orain berriz mehea eta zaildua. Bi atzerritar argitsuen eskerrak jaso ditu, berak gidatu baititu, eta ez trebeziarik gabe, Indiako hiriburu alai eta handira daraman Mashobrako tuneleraino. Ez zen bengaliarraren errua izan, terrala zela eta, atzerritarrak telegrafo-estazioa eta Kotgartheko europar kolonia baino harantzago eraman izana. Ez zen haren errua izan, sarritan aipatzen zituen jainkoena baizik, atzerritarrak Nahaneko mugetara eraman izana, non estatuko rajak britainiar soldadu desertatuekin nahasi baitzituen. Hurri babua azaltzen aritu zen lagun haiek beren herrian zuten handitasuna eta loria, erregetxo lotiak irribarre egin zuen arte. Galdetu zion edonori azaldu zion, maiz, ozen, era askotan. Jatekoaren eske ibili zen, non egona topatu zuen, izterrondoko zauri bat sendatuz —arrokaz estalitako malda batean behera ilunpetan bueltaka erorita bar litekeena bezalakoa—, sendagile gisa zuen

trebezia zuela frogatu zuen, eta derrigorrezkoa zela gauza guztietan. Adiskidetasun haren zergatiak asko esaten zuen bere alde. Beste esklabutza kide askok eta askok bezala, Iparreko askatzaile handia bezala ikusten ikasi zuen Errusia. Gizon beldurtia zen. Ikaratuta ibili zen, bere enplegatzaille adeitsuak ezingo ote zituen asal-daturiko nekazari haien haserretik libratu. Berrari, izan ere, berdin zitzaion gizon santu bat jo ala ez jo, baina... Oso eskertuta zegoen, eta bihotz-bihotzez pozten zen «berak ahal zuen gutxia» egin izanaz haien abentura eramateko —galdu-tako ekipaia kenduta noski— zorieneko bukaerara; ahaztuta zeuzkan zartakoak; ukatu egiten zuen zartakorik eman zenik ere pinuen azpiko aurreneko gau itsu hartan. Ez zuen saririk nahi, ez ordainik egindako zerbitzuengatik, baina, merezi zuela uste bazuten, idatziko ote zioten gomendiozko gutun bat? Baliagarria izan zitekeen besteren batzuek, atzerritarren adiskideak, Pasabideak gurutzatzen bazituzten edo. Etorkizunean izango zuten handitasunean bera gogotan izan zezaten erregutu zien; izan ere «zorrotasunez irizten zuen» berak, bai, berak, Mohne-

dro Lai Dutt, Calcuttako Unibertsitatean lizenziatua zen hark, egin ziola «estatuari zerbitzuren bat».

Atzerritarrek agiri bat eman zioten bere kortesia, laguntza, eta gidari bezala zuen trebezia gorai patuz. Babuak gerrikoan sartu zuen eta negar-zotinka hasi zen; izan ere, arriskutan ugarietan ibili ziren elkarrekin. Eguerdian, Simlako Mall jendez betea gurutzatuz, Simlako Alliance Bankura eraman zituen, nor ziren eman nahi baitzuten han aditzera. Handik Jakkuaren gaineko goizeko hodeia bezala desagertu zen.

Ikustazue, meheegia izerditan hasteko, presatuegia burdinazko kutzako sendagaiak laudatzeko, Shamlegheko aldapa igotzen, gizon zuzen ezin hobea. Begiraiozue, babuen ezaugarri guztiak alde batera utzita, eguerdi aldean hamaka batean etzanda zigarroak erretzen, turkesez brodatu-rik burukia daraman emakume bat hegoekialderantz keinuka ari den artean, belardien bestaldean. Ohatilak, dio emakumeak, ez dira gizonak bezain azkar mugitzen, baina bila dabilen txoriak Lautadetan beharko zuten egon dagoeneko. Gizon santuak ez zuen han egon

nahi, Lispeth saiatu zen arren. Marmar egiten du babuak, gerriko handia estutu ondo eta badoa berriz ere. Ez zaio axola ilundu ondoren bidaia-tzea; baina egunean egiten duen bide puskak — ez da zenbatuko duen inor— bere endari irri egiten dion jendea txundituta utziko luke. Herritar atseginek, duela bi hilabeteetako Daccako sendagai-saltzailea gogoratuz, basoko izpiritu gaiztoen aurkako aterpea ematen diote. Bengaliar jainkoekin, Unibertsitateko heziketa eskuliburuekin, eta *Royal Society*-arekin, London, Ingalaterra, egiten du amets. Hurrengo egunsentiarekin batera, balantzaka beti, aurrera doa aterki zuri-urdina.

Dunaren mugan, Mussurie atze-atzean eta lautadak urrezko hautsetan beren aurrean zabal-duta dituztela, ohatila zartatu bat dago, eta han, Mendi guztiek ondo asko dakiten bezala, garbituko duen Ibai baten bila dabilen lama dago etzanda, gaixorik. Herriak borrokan hasi beharrean ibili dira lama edukitzeko ohorea dela eta; izan ere lamak bedeinkazioak eman dizkie, eta ez hori bakarrik, dirutza ederra ere eman die haren dizipuluak: sahiben prezioen hiruna. *Duli*-ak egu-

neko hogei kilometro egin ditu ia, euskarrien mutur koipetsu, zaharkituek erakusten duten bezala, eta sahib gutxik erabiltzen dituzten bideetatik gainera. Nilang pasabidearen gaine-
tik, ekaitzarekin, haizeak bultzaturiko elur-hau-
tsak lama izukaitzaren arropako tolesdura guz-
tiak bete zituenean; Raiengekq adar beltzen
artetik, non basahuntzen txilioak entzun baitzi-
tuzten hodeietan zehar; beheko arbeletatik,
kulunka eta bihotzak estututa; lama juxtu-juxtu
sostengatzen zutela sorbalda eta matrail estuen
arteon Bhagiratiren azpiko Cut Roaden bihurgu-
ne beldurgarriak igaro zituztenean; trosta motza
sostengatuarengatik balantzaka eta kirrinka
Uren Bailarara jaistean; presaka bailara itxi
horretako lur lau hezeetan barrena; gora eta
gora, Kedarnatheko haize-bolada orrotsuekin
topo egiteko; gelditurik eguerdietan hariztietako
itzal atseginpean; herriz herri eramanez goizal-
deko freskuran, elizkoiei ere barkatu behar zaie-
nean gizon santu pazientzia gabeei hitz itsusiak
esatea; edo zuzien argitan, gutxien ikaratzen
denak ere mamuetan pentsatzen duenean...
heldu da *duli*-a azken etapara. Menditar mozko-

teak izerditan daude beheko Siwaliketako bero desberdinean, eta apaizak inguratzen dituzte bedeinkapena eta ordaina jasotzeko.

— Merituak eskuratu dituzue —dio lamak—. Zuek uste baino meritu handiagoak. Eta mendira itzuliko zarete —suspiriatzen du.

— Jakina. Mendi handietara, ahal bezain azkar —eramaileak sorbaldak igurzten ditu, ura edaten du, berriz bota, eta belarrezko sandalia ondo jartzen du. Kimek, estutua eta nekatua aurpegia, gerritik ateratzen dituen zilarrezko txanpon txikiak ordaintzen dizkie, jatekoen zakuaz arduratzen da, sartzen du ulezko fardel bat — idatzi sakratuak dira— bularrean, eta zutitzen laguntzen dio lamari. Agureari bakea nabari zaio berriz ere begietan, eta ez du uste mendiak erori eta zanpatuko dutenik uholdeak zirela eta geldik zain egon behar izan zuten gau beldurgarri hartan uste izan zuen bezala.

Gizonak *duli*-a hartuta zuhaitz ttattarren artean desagertzen dira.

Lamak esku bat jasotzen du Himalayen murailaren aldera.

— Zuengana, mendi guztien artean bedein-
katuak zareten horiek, ez zen erori gure Jauna-
ren Gezia! Eta zuen haizea ez dut berriz arnastu-
ko!

— Baina hamar aldiz indartsuagoa zara zu
haize on honetan —dio Kimek, Lautada atsegin
joriak desiratzen baititu Kimen arima ahulduak—
. Hemen, edo inguru hauetan, erori zen Gezia,
bai. Oso poliki joango gara, *koss* bat eguneko
beharbada, Bilakuntzak ez du huts egingo eta.
Baina zakua oso astuna da.

— A, Bilakuntzak ez du huts egingo. Tentaldi
handia gainditu dut.

Ez zuten orain eguneko hiru kilometro baino
gehiago inoiz egiten, eta Kimen bizkarrak era-
maten zuen zama guztia: agure baten zama,
jatekoen zaku astuna liburu itxiekin, idazkien
pisua bihotzean, eta eguneko errutinaren xehe-
tasunak. Eskean ibiltzen zen egunsentian, main-
direak jartzen zituen lamaren meditazioarentzat
eskumuturrak min ematen zion arte euliak uxa-
tuz, magalean hartzen zion buru ahula eguerdi-

ko berotan, berriz ere eskean ibiltzen zen iluntzean, eta oinak igurzten zizkion lamari, eta lamak Askatasunaren aginduarekin saritzen zuen, gaur, bihar, edo, gehienera ere, etzi hartuko zuena.

— Ez da inoiz halako *chela*-rik izan. Duda egiten dut batzuetan, hobeto zaindu ote zuen Anandak gure jauna. Eta sahiba zara zu? Ni gaztea nintzenean... aspaldi... ahaztu egiten zitzaidan. Orain sarritan begiratzen dizut, eta beti gogoratzen naiz sahiba zarela. Harritzekoa da.

— Zuk esana da ez dela ez beltzik ez zuririk. Zergatik mintzen nauzu hitz horiekin, maisu? Utzidazu beste oina igurzten. Ez dut hori gogoko. Ni ez naiz sabla. Zure *chela* naiz, eta burua astuna sentitzen dut sorbalda gainean.

— Pazientzia pixka bat! Elkarrekin lortuko dugu Askatasuna. Orduan gu biok, Ibaiaren bestaldetik, gure bizitzari begiratuko diogu, Mendiko bideak atzean ikusten genituenean bezala. Beharbada ni ere izan naiz inoiz sabla.

— Ez da inoiz zu bezalako sahibarik izan, zin egiten dut.

— Ziur naiz Etxe Miragarriko Irudien Gorde-tzailea iraganeko bizitzan oso Abade zuhurra izan zela. Baina haren betaurrekoek ere ez didate ikustarazten. Itzalak sortzen dira zuzen-zuzen begiratu nahi dudanean. Ez dio axola, ezagutzen ditugu azal gaixo txoroaren trikimailuak; beste itzala bihurtzen den itzala. Denbora eta espazioaren lilurek lotzen naute. Noraino heldu gara gaur haragitan?

— *Koss* erdia edo egin dugu. (Kilometro erdia baino gehixeagoa, eta egun nekagarria izan zen hura).

— *Koss* erdia. Ja! Hamar mila milako egin ditut izpirituarekin. Nola gauzkaten denok gauza zentzugabe horiek inguratuta, lotuta, eta zapalduta! —arrosarioaren aleak horren astunak gertatzen zitzaizkion zain urdineko esku meheari begiratu zion—. *Chela*, izan al duzu inoiz ni uzteko desiorik?

Kimek ulezko fardelean pentsatu zuen, eta jatekoen zakuko liburuetan. Hartarako baimenik zeukakeen batek leku egokira eramango balitu, bost axola berari Joko Handiak bere kabuz jarraitzea. Nekatuta zegoen eta burua beroa zeukan,

eta urdailetik zetorkion ez tul batek kezkatu egiten zuen.

— Ez —esan zuen oso serio— ni ez naiz maitatzen ikasi duenari koska egiten dion zakurra edo sugea.

— Samurregia zara nirekin.

— Ezta ere. Erabaki bat hartu dut zuri galde-tu gabe. Mezu bat bidali diot Kuluko emakumea-ri goizean ahuntzaren esnea eman digun andrearen bitartez, esanez makaldu samartuta zeundela eta ohatila baten beharrean. Haserretu egiten naiz nire buruarekin pentsatzen dudanean ez nuela Dunean sartu ginenean eskatu. Hementxe egongo gara ohatila etortzen den arte.

— Pozik nago. Urrezko bihotza duen emakumea da, zuk diozun bezala, baina berritsua... berritsu samarra.

— Ez zaitu nekatuko. Horretaz ere arduratu naiz. Maisu, bihotza minduta daukat zurekin oso ardura eskasez ibili naizelako —trabatu egin zitzaion ahotsa eztarrian—. Urrunegi eraman zaitut; ez dizut jateko ona hartu beti; ez dut beroa kontutan hartu; jendearekin berriketan aritu naiz

bidean, zu bakarrik utzita.. eta... eta... *Hai mai!*
Baina maite zaitut... eta orain beranduegi da...
Umea nintzen... O, zergatik ez ote nintzen gizona?
—larridura, nekea eta bere urteen gainean zeukan zamarekin,
lehertu eta negarrez hasi zen lamaren oinetan.

— Zer da hori! —esan zuen agureak atsegin—. Pittin bat ere ez zara inoiz desbideratu Zintzotasunaren Bidetik. Ni baztertu? Zure indarrean bizitu naiz, ume, zuhaitz zaharra horma berriaren karean bizi den bezala. Egunez egun, Shamleghekoa gertatu zenetik, indarra lapurtu dizut. Horrexegatik, ez zuk bekaturik egin duzulako, zaude makalduta. Gorputza da, Gorputz inozo, zoroa, orain hizketan ari dena. Ez ziurtasunez beteta dagoen arima. Kontsola zaitez! Jakin ezazu behintzat zein deabrurekin ari zaren borrokan. Lurretik jaioak dira... liluraren kumeak. Kuluko emakumearengana joango gara. Merituak eskuratuko ditu guri ostatu emanaz, eta batez ere niri lagunduz. Zu libre ibiliko zara berriz indartzen zaren arte. Ahaztuta neukan Gorputz zoroa. Errurik baldin bada, niri dagokit. Baina hurbilegi ditugu Askatasunaren Ateak

erruaren zamarik eramateko. Egin diezazuket laudoriorik, baina ba al da bada horren beharrik? Azkar... oso azkar... behar guztien gainera egongo gara.

Eta halaxe lagundu eta kontsolatu zuen lamak Kim, horren gaizki ulertzen den animalia horri buruzko esaera jakintsu eta testu serioekin, gure Gorputzari buruzkoak alegia; izan ere Gorputza, engainua besterik ez delarik, Arimaren lekua hartzen saiatzen baita, Bidea iluntzeko, eta alferrikako deabruak etengabe ugaritzeko.

— *Hai! Hai!* Mintza gaitezen Kuluko emakumeaz. Zer uste duzu, beste aztikeriaren bat eskatuko didala bere ilobentzat? Gaztea nintze-nean, aspaldi-aspaldi, horrelako lanbroek, eta baita beste batzuek ere, traba egiten zidaten, eta abade batengana joan nintzen; oso gizon santua zen, egiaren bila zebilena, nik orduan ez jakin arren. Eseri eta entzun, nire bihotzeko ume horrek! Kontatu nion nire istorioa. Eta esan zidan, «*Chela*, hau jakin behar duzu. Gezur asko da munduan, eta ez gezurti gutxi, baina ez da gure gorputzak bezalako gezurtirik, gure gorputzen sentrazioak izan ezik. Hura pentsatzen kon-

tsolatu egin nintzen, eta abadeak eskuzabalta-sunez tea edaten utzi zidan bere aurrean. Utzidazu orain tea edaten, egarri naiz eta.

Malkoen artean barrez, Kimek Jamaren oinak musukatu zituen, eta tea prestatzen hasi zen.

— Zu nire gorputzean sostengatu zara, maisu, baina ni zugan sostengatzen naiz beste gauzetarako. Ba al dakizu?

— Asmatu egin dut beharbada —eta Jamaren begiek keinu bat egin zuten—. Hori aldatu beharra daukagu.

Hala, kirrinka artean, arrastaka eta arrandiatso sahib andrearen palankin kuttuna agertu zenean, hogei kilometro baino urrutiagotik bidalita, ile urdindutako zerbitzari *ury*-a arduradun, eta baita geroago ere, Saharunpore atzeko etxe nahasi zuriaren ordena desordenatura heldu zirenen, bere neurriak hartu zituen lamak.

Konplituak egin ondoren esan zuen sahib andreak alai goiko leiho batetik:

— Zertarako balio du atso batek agure bati emandako aholkua? Esan nizun nik... esan nizun nik, maisu, begiak ez kentzeko *chela*-ren gaintetik. Nola egin duzu? Ez ezer esan! Badakit. Ema-

kume artean ibili da. Erreparatu begietara, a zer begi zuloak, eta sudurretik beherako marra argi-garrira! Txiki-txiki egin dute! Hau lotsa! Eta apaiza gainera!

Kimek gora begiratu zuen, erantzuteko makalegi, eta buruari eraginez ukatu nahian.

— Ez txantxetan ibili. Garai hori bukatu da. Arazo handiak dauzkagu esku artean. Arima gaitxotu egin zitzaidan niri Mendietan, eta berari gorputza. Orduz geroztik bere indarrean bizitu naiz... bera janez.

— Umeak denak... zaharra eta gaztea —esan zuen purrustaka atsoak, baina ez zuen beste txisterik egin—. Sendatuko ahal zaitu nire abegi onak! Egon pixka bat eta jardungo dugu Mendi handi ederrez berriketan.

Iluntzean —suhia itzuli zen, eta andreak ez zuen basetxean errondan ibili beharrik izan—, arazoaren muinera joan zen, lamak dena azaldu baitzion ahots apalez. Bi buru zaharrak batera makurtzen ziren, zuhurtziaz. Kim ohatila bat zuen gela batera joana zen balantzaka, eta lotan zegoen izerditan. Lamak debekatu egin zion maindireak jartzea eta jatenaz kezkatzea.

— Badakit.. badakit. Nork jakingo du nik baino hobeto? —esan zuen karkaraz andreak—. Bizitzaren Ibaitek urez betetako txarroekin, txarro bete-beteekin datozenen eskuei heltzen diegu heriotza-sutzarrera goazenok. Oker jokatu dut mutilarekin. Bere indarra utzi al dizu? Egia da zaharrek gazteak jaten dituztela egunero. Orain mutila sendatzea dagokigu guri.

— Askotan eskuratu dituzu merituak...

— Nire merituak. Eta zer da hori?... Kurrya egosten duen hezur zakukada zaharra, «Nork prestatu du hau?» galdetu ere egiten ez duten gizonentzat. Baina nire ilobarentzat balira...

— Sabelekoa izan zuena?

— Pentsatzea ere Gizon Santuak hori gogoratzten duela! Amari esan behar diot. Oso ohore handia da! «Sabelekoa izan zuena»... segituan gogoratu zaio gizon santuari. Harro jarriko da.

— Niretzat nire *chela*, argirik ez dutenentzat semea dena da.

— Iloba esatea hobe. Amek ez dute gure urteen jakituria. Ume batek negar egiten badu zeruak goitik behera datozela esango dizu amak. Amonak berriz nahikoa urrun dauzka erditzearen

oinazeak eta bularra ematearen plazerak, ez ote den negar hori gaiztakeria hutsa, edo haizeak, pentsatu ahal izateko. Eta berriz ere haizeez mintzatu zarenez gero, Gizon Santua azkenekoz hemen izan zenean, iraindu egin nuen agian aztikeriak etengabe eskatuz.

— Arreba —esan zuen lamak, fraide budistek batzuetan mojari zuzentzeko erabiltzen duen forma erabiliz—, aztikeriek kontsolatzen bazaituzte...

— Hamar mila sendagile baino hobeak dira.

— Benetan diotsut, kontsolatzen bazaituzte, nik, Such-zeneko abade izan naizen honek, zuk nahi bezainbeste egingo ditut. Ez dizut inoiz aurpegia ikusi...

— Mizpirak lapurtzen dizkiguten tximuek ere irabazitzat daukate *hori*. Je, je!

— Baina lotan dagoen horrek esan bezala —keinu bat egin zuen gonbidatuen gelako atearantz, patioaren bestaldera—, urrezko bihotza daukazu... Eta, izpirituan, benetako «iloba» da niretzako.

— Ondo! Gizon Santuaren behia naiz ni —hinduismo hutsa zen hura, baina lamak ez zuen

kontutan hartu—. Ni zaharra naiz. Semeak eramantxan ditut sabelean. A, gizonen gogokoa nintzen garai batean, bai! Eta orain sendatu egiten ditut—lamak eskumuturrekoen soinua aditu zuen, ekintzarako prestatzen ari balira bezala—. Mutiaz arduratuko naiz, errezetak prestatuko dizkiot eta bete-bete egingo dut ondo osatu arte. *Hai! hai!* Oraindik ere badakigu zerbait zaharrok.

Hala bada, hezur guztiak minduta, begiak zabaldu zituenean Kimek, eta sukalde aldera joan zenean maisuaren jatekoaren bila, debeku larriekin egin zuen topo, eta beloarekiko irudi zahar batekin atean, ile urdindutako zerbitzaria zuela aldamenean; oso zehatz azaldu zizkion hark inola ere egin ezin zituen gauzak.

— Egin behar duzula? Ez duzu ezer egin behar. Zer? Kutxa itxi bat, liburu santuak edukitzeko? A, hori desberdina da. Jainkoek ez diezadatela utzi apaiza eta bere otoitzen artean jartzten! Ekarriko dute kutxa, eta zerorrek gordeko duzu giltza.

Ohe azpian utzi zioten kaiza, eta Mahbuben pistola, gutunen ulezko baketea, eta giltzapeturiko liburuak eta egunkariak atera zituen berta-

tik Kimek, lasaitasunezko suspirio batez. Arrazoi zororen batengatik sorbaldetan zuen zama ez zen ezer buruko zamaren ondoan. Hura zela eta, min ematen zion lepoak gauetan.

— Gazteek egun hauetan izaten ez duten ondoeza duzu zuk, aurrekoak zaintzeari utzi ziotenez geroztik. Lo egitea duzu erremedioa, eta sendagai batzuk —esan zion sahiba andreak; eta poztu egin zen Kim erdi mehatxatu erdi lasaitu egiten zuen iluntasunean murgiltzean.

Edariak prestatu zizkion, lurrindegri baten Asiako ordeko misterioetsuren batean, usain txarra eta okerragoko gustua zutenak. Kimen ondoan egon zen atsoa hartu zituen arte, eta etengabe egin zizkion galderak atzera bota zituenean. Debekua jarri zuen patioan, eta gizon armatu bat bertan ezarriz areagotu zuen. Egia da gizonak hirurogeita hamar urte zituela, eta zorroan sarturiko ezpatak kirtena besterik ez zuela; baina sahib andrearen agintearen sinboloa zen, eta gurdi zamatuak, zerbitzari berritsuak, txekorrak, zakurrak, oiloak eta antzekoak, bihurtune handi bat egiten zuten leku hartan. Kimi gorputza garbitu zionean, eraikuntzen atzealdea bete-bete

eginda zeukaten senide pobreen artetik —etxe-ko zakurrak, deitzen ditugu guk—, denetan onena, lehengusu baten alarguna aukeratu zuen, oso trebea europarrek, ezertxo ere ez baitakite horretaz, masaia deritzaten horretan. Eta biak elkarrekin, Kim ekialdetik mendebalderantz etzanarazita, traba egin ordez laguntza eman zezaten gure gorputzaren lokatza gurutzatzen duten lur-korronte misterioetsuek, txiki-txiki egin zuten arratsalde luze batean zehar, hezurrez hezur, giharrez gihar, zainez zain, eta azkenik, kirioz kirio. Erantzunik gabeko mami bihurtu arte oratuta, erdi hipnotizaturik emakumeei begiak estaltzen zizkien *chador* nahasiaren etengabe jarri eta kentzearekin, hogeita hamasei orduz murgildu zen Kim loan: lehortearen ondoren euriak lurra bustitzen duenean bezalako loan.

Gero jaten eman zion, etxe osoa mugimenduan jarriz. Hegaztiak hil erazi zituen; barazkiak ekartzea agindu zuen, eta lore zaindari zuhurra, pentsaera mantsokoa, andrea bezain zaharra, izerdi batean egon zen; ongailuak, eta tipula, eta erreka arrain txikiak hartu zituen... eta limak sorbeteak egiteko, xederan harrapatutako gale-

per lodiak, eta oilasko gibel erreak, jengibre xerrak tartean sartuta.

— Zerbait badakit mundu honetaz —esan zuen atsoak bete-bete egindako erretiluaren gainetik—, eta bi eratako emakumeak baino ez dira bertan: gizonari indarra kentzen diotenak, eta indarra itzuli egiten diotenak. Garai batean aurrenetakoa nintzen ni, eta orain berriz bestetakoa naiz. Ez, ez dezazula nirekin apaizarena egin. Txantxetan ari nintzen. Eta orain ez bada, halaxe izango da bideetara itzultzen zarenean. Lehengusu —hori senide pobreaki, bere ongilearen borondatea laudatzen inoiz nekatzen ez zena—, zaldi orraztu berriaren distira ari zaio jartzten larru azalean. Ez al du ematen gure lan honek dantzari bati botatzeko bitxien garbiketa?

Eseri eta irribarre egin zuen Kimek. Ahuleria izugarri hura zapata zahar bat kentzen den bezala desagertu zitzaion. Mingaina berriz ere hizketan lasai hasteko irrikitzen zeukan; astebete lehenago hitzik txikienak ere ahoa errautsez betetzen ziola iruditzen zitzaion. Lepoko mina (lamak kutsatua nonbait) joanda zuen, sukarraren oinaze eta ahoko zapore nazkagarriarekin

batera. Bi atsoak, arduratuxeago orain beloekin, ez asko ordea, ate zabaldutik mokoka sartzen ziren oiloak bezain alai zebiltzan.

— Non da nire maisua? —galdetu zuen Kimek.

— Hara bestea berriz! Ondo daukazu maisua —esan zion sahiba andreak ahots zorrotzez—. Baina ez bere merituengatik. Jakingo banu zuhurtuko duen aztikeriaren bat badela, nire bitxi guztiak salduko nituzke huraxe erosteagatik. Neronek egositako jateko gozoei ezetza eman, bi gauetan sabel hutsarekin zelaietan barrena ibili, eta azkenean erreka batera erori, horri deitzen al diozu maisutza? Eta gero, zuk utzi didazun bihotz pusketan berak bere artegata-sunarekin hautsi didanean, ez al dit bada esaten merituak eskuratu dituela? A, gizon guztiak berdinak dira! Ez, ez da hori... bekatu orotatik libre dagoela esan dit. Esango niokeen nik ere hori bera goitik behera busti beharrik gabe. Ondo dago orain. Duela astebete gertatu zen guzti hori... baina, a zer nolako santutasuna! Hiru urtetako ume batek hobeto egingo lituzke gauzak. Ez kezkatu zure maisuarengatik. Ez dizkizu

begiak gainetik kentzen gure erreketan atzera eta aurrera ez dabilenean.

— Ez dut gogoan maisua ikusi izana. Egunak eta gauak burdin zuriak eta burdin beltzak bezala igarotzen zirela gogoratzen naiz, zabaltzen eta ixten. Ez nengoen gaixo: nekaturik besterik ez.

— Urte batzuen ondoren berez datorren lozorroa da. Baina bukatu da oraingoa.

— *Maharani* —hasi zen Kim, baina atsoaren begiak ikusita, maitasunezko titulura itzuli zen—. Ama, bizitza zor dizut. Nola eman behar dizkizut eskerrak? Hamar mila bedeinkazio zure etxearentzat eta...

— Kaka zaharra, etxea! —(ezin da andreak esandakoa hitzez hitz aldatu)—. Apaiz bezala, eman eskerrak Jainkoei nahi baduzu, baina niri, axola ez bazaizu, seme bezala eman eskerrak. A zer santu klasea! Ez al dizkizut bada oinetako hamar behatzak astindu eta altxatu eta zartatu eta bihurritu, gero zuk nire burura testuak botatzeko? Izango zen nonbait bihotza apur zenietzaion erditu zintuen amaren bat. Zer egiten zenuen harekin, seme?

— Ez dut amarik izan —esan zuen Kimek—; hil egin zitzaidan, esan zidaten, oso txikia nintzenean.

— *Hai mai!* Orduan ezingo du inork esan eskubideak ostu dizkiodanik... bidera itzultzen zarenean eta etxe hau beste mila etxeen artean beste bat izatean, gero ahazteko aterperako erabilia, ezertara behartzen ez duen bedeinkazioa eman ondoren. Ez dio axola. Ez dut bedeinkaziorik behar, baina... baina... —lurra oinaz jo zuen senide pobreaki begira—. Eraman erretiluak etxera. Zertarako balio du jatenen kondarrak gelan edukitzea, zorigaiztoko emakume?

— Nik... nik ere izan nuen seme bat nire garaian, baina hil egin zen —esan zuen intzirika sahib andrea bezalakoxea zen irudi makurtuak *chador*-aren azpitik—. Badakizu hil egin zela! Erretilua eramateko aginduaren zain nengoen.

— Ni naiz, ni, zorigaiztokoia —egin zuen oihu sahiba andreak damututa—. *Chattris*-etara joaten garenok (apaizek azkeneko diruak hartzen dituzten aterki handiak, heriotza-sutzarren ondolan) *chatti*-ak daramatenei heltzen diegu indarrez (ur-txarroak: bizitasunez beteriko gazteez ari

zen; baina hitz joko txarra da). Jaiari dantzan egin ezin denean, leihotik begiratu beharra dago, baina amona izatearen lanak oso osorik hartzen dio denbora emakumeari. Alabaren seme zaharrenarentzat behar ditudan aztikeria guztiak ematen dizkit orain zure maisuak, zera... hori izango da ezta?, bekatutik guztiz libre dagoelako. *Hakim*-a oso maila apalean geratu da egun hauetan. Nire zerbitzariak pozoitzen jarduten du nagusiak aurrean ez daudenean.

— Zer *hakim*, ama?

— Daccako gizona, hirutan zatitu ninduen pastilla eman zidana. Galdutako gamelua bezala agertu zen duela astebete, Kulurako bidean anaia bihurtu zinetela esaka, eta zure osasunaz oso larrituta zegoela itxurak eginez. Oso mehea eta gosetuta zegoen, eta hura ere asetzeko agindua eman nuen... bera eta bere larritasuna!

— Ikusiko nuke hemen baldin bada.

— Egunean bost aldiz jaten du, eta bixikak kentzen dizkie nire morroiei bere buruari perlesia galarazteko. Hain kezkatuta dauka zure osasunak, ezen sukaldeko atean jarri eta hantxe

egoten baita, kondarrak jaten. Hantxe egongo da orain noski. Ez gara sekula berataz libratuko.

— Bidal ezazu hona, ama —une batez distira itzuli zitzaion Kimi begietara—, eta saiatuko naiz ni.

— Bidaliko dut, baina ez dago ondo harrika bidaltzea. Gutxienez, izan zuen Gizon Santua errekatik ateratzeko adina zentzu; Gizon Santuak esan ez zuen bezala, merituak eskuratuz.

— Oso *hakim* zuhurra da. Ekarrarazi ezazu hona, ama.

— Apaiza apaiza laudatzen! Horixe da miraria! Adiskidea baduzu (borrokan aritu zineten azkenekoz elkartu zinetenean), loturik ekarriko dut eta... eta gero primerako afaria emango diot, seme... Altxa eta ikusi mundua! Ohean egote hori hirurogeita hamar deabruen semea da... seme! Seme!

Bizkor ibiliz joan egin zen sukaldean haize zirimola sortarazteko, eta andrearen itzala zapaldu beharrean agertu zen babua, sorbaldei zegokienean behintzat erromatar enperadore baten erara jantzita, Titus bezalako kokotondoa-ekin, buru-hutsik, txarolezko zapata berriekin,

gantzak inoiz baino joriago, agurka eta pozez zorutzen.

— Ene Jainkoa, Mister O'Hara, hau poza zu ikusteaz! Atea ixteko mesedea egingo dut. Lastima gaixorik zaudela. Oso gaixo al zaude?

— Paperak... *Kilta*-ko paperak. Mapak eta *murasla*! —giltza luzatu zion artega; izan ere, Kimen arimak orduan behar zuena guzti hartaz libratzea baitzen.

— Arrazoi duzu. Horixe da Zerbitzuaren ikuspuntutik egin beharreko gauza egokia. Dena al daukazu?

— *Kilta*-n eskuz idatzita zegoen guztia hartu dut. Gainontzekoa menditik behera bota nuen —giltzak sarrailan egiten zuen soinua entzun zuen, ulearen tirazo gogorra itsasgarria poliki urratzen zen artean, eta paperen zarata babuak denak bizkor aztertu ahala. Arrazoirik batere gabe bere azpian zeuden paperak, komunikatu ezinezko zamak, kezkatuta eduki zuten gaixo egon zeneko egun hutsaletan. Harexengatik ere sentitu zuen gorputz osoan odola taupadaka, Hurrik, elefante batek bezala salto eginez, eskua berriz estutu zionean.

— Primeran! Ezin hobeto, Mister O'Hara! Denak harrapatu dituzu, denak banaka-banaka... Esan zidaten zortzi hilabeteetako lana oso-osorik galdu zutela! Ene Jainkoa, nolako astindua eman zidaten! Begira, hementxe dago Hilásen gutuna! —babuak bizpahiru lerro irakurri zituen gorteko pertsieraz, horixe baita diplomaziaren mintzaira, baimendua eta baimendu gabearena—. Rajah sahib jaunak azkeneraino sartu du hanka. Ofizialki esplikatu beharko du nola demontre idazten dizkion amodiozko gutunak Zarrari. Eta mapak primeran eginda daude... eta inguru horietako hiruzpalau lehen ministro ere badira gutun haietan nahastuta. Jainkoaren izenean, sar! Britainiar Gobernuak Hills eta Burnárren ondorengoa aldatu, eta oinordeko berriak izendatuko ditu tronurako. «Traizio maltzurrena»... baina ez duzu ulertzen, ezta?

— Zure esku al daude orain? —esan zuen Kimek. Hori besterik ez zitzaion axola.

— Dudarik ez izan horretaz —gorputzeko leku ezberdinetan gorde zuen altxorra, ekialdekoek bakarrik ahal duten eran—. Eta berehala helduko da bulegora. Betirako apaindura naizela

hemen uste du atsoak, baina hauek hartu eta segituan joango naiz, oraintxe bertan. Harrotuko da Mr Lurgan. Ofizialki nire menpeko zara, baina ahozko txostenean zure izena aipatuko dut. Lastima ez daudela onartuta txosten idatziak. Bengaliarrok nabarmenak gara zientzia zehatz horretan —giltza Kimi bota eta kutxa hutsa erakutsi zion.

— Ondo. Ondo dago hori. Oso nekatuta nengoen. Nire Maisua ere gaixo zegoen. Eta erori egin al zen...?

— A, bai. Ni bere adiskide egin naiz, eta oso ona gainera. Oso jokaera bitxia zeukan zugana etorri nintzenean, eta pentsatu nuen berak izango zituela agian paperak. Meditazioetan zebile-nean atzetik ibili nintzaion, eta etnologia armez eztabaidan ere jardun nuen berarekin. Begira, hemen orain oso gauza gutxi naiz, bere aztikeria guztien ondoan. Ene, O'Hara, ba al dakizu, atakeak izaten ditu. Halaxe da, bai. Kataleptikoak gainera, ez badira epileptikoak. Halaxe topatu nuen zuhaitz baten azpian, *in articulo mortem*; jauzi egin zuen, erreka batean sartu eta itoko zen, nigatik izan ez balitz. Nik atera nuen.

— Ni ez nengoelako han! —esan zuen Kimek—. Hila gertatu zitekeen.

— Bai, hila gertatu zitekeen, baina orain lehortuta dago, eta eraldatzea gertatu zaiola dio —babuak bekokia jo zuen jakituriaz—. *Royal Society*-rako oharrak hartu ditut *in posse*. Bizkor ibili beharra daukazu, erabat sendatu eta Simlaira itzuli, eta Lurganen etxean kontatuko dizut nire istorio osoa. Primerakoa izan zen. Praken behealdea nahikoa urratuta zeukaten, eta Nahan raja zaharrak europar soldadu deserto-reak zirela pentsatu zuen.

— A, errusiarrak! Zenbat denbora eman zuten zurekin?

— Frantziarra zen bat. A, egunak eta egunak! Orain menditar guztiek errusiar guztiak eskaleak direla uste dute. Ene! Nik lortu ez nien gauzarik ez zeukaten batere. Eta jende arruntari kontatua nona... a, zer nolako istorio eta pasadizoak! Lurgan zaharrenean kontatu dizkizut hara joatean. Atera egingo gara gau batean ospatzera! A zer tantoa biontzako! Bai, eta ziurtagiri bat eman zidaten. Horixe izan zen onena. Ikusi behar izan zenituen, Alliance Bankuan nor ziren aditzea

ematen! Eta eskerrak Jainkoari paperak hartu zenizkiela! Ez duzu barre askorik egiten, baina egingo duzu sendatzen zarenean. Orain burdinbidera joango naiz zuzenean eta ospa. Konfiantza osoa izango duzu hemendik aurrera lanerako. Noiz etorriko zara? Oso harro gaude zutaz, ikara handia pasarazi badiguzu ere. Eta batez ere Mahbub.

— Bai, Mahbub. Non dabil?

— Hemen inguruan zaldiak saltzen, jakina.

— Hemen? Zer bada? Mantso hitz egin. Burua astuna daukat oraindik.

Babuak behera begiratu zuen lotsatuta.

— Begira, ni oso beldurtia naiz, eta ez dut erantzukizuna atsegin. Zu gaixo zeunden, ezta, eta nik ez nekien non demontre zeuden paperak, eta ezta zenbat ziren ere. Beraz, hona etorri nintzenean telegrama bat bidali nion pribatuan Mahbuberi, Miruten baitzen zaldi lehiaketan, eta zertan zen gauza kontatu nion. Bere gizonekin agertu eta lamaren adiskide egin da, eta txoroa deitzen dit eta oso zakarra dabil...

— Baina, zergatik, zergatik?

— Horixe da nik galdetzen dudana. Bakar-bakarrik proposatu dut dokumentuak inork lapurtuko balitu edo, gizon indartsu, adoretsuren bat nahi nukeela atzera berriz lapurtzeko. Bada-kizu, hil ala bizikoak dira, eta Mahbubek ez zekien non zinen zu.

— Mahbub Ali sahib andrearen etxera lapurtzera etorri? Erotuta zaude, *babu* —esan zuen Kimek bere onetik aterata.

— Paperak nahi nituen. Eman dezagun atsoak lapurtu zituela, orduan zer? Proposamen praktikoa besterik ez zen, nik uste. Ez zaizu asko gustatzen, ezta?

Bertako esaera batek, aldatu ezina, erakutsi zuen zenbateraino ez zen hura Kimen gustukoa.

— Tira bada —esan zuen Hurrik sorbaldei eraginez—, gustu kontutan ez dago asmatzerik. Mahbub ere haserretu egin zen. Hemengo inguru guztietan saldu ditu zaldiak, eta esaten du andrea *pukka* (benetakoa) dama dela, eta ez dagoela horrelako zakarkeriarik egiteko prest. Niri ez zait axola. Paperak badauzkat, eta oso pozik nengoen Mahbuben laguntza morala iza-teagatik. Egiatan, gizon ikaratia naiz, baina, nola

edo hala, zenbat eta ikaratiago, orduan eta gauza zailagoetan sartzen naiz. Hala bada, pozik nengoen nirekin etorriko zinelako Chinira, eta pozik nago Mahbub inguruan zegoelako. Andrea batzuetan oso zakarra izaten da nirekin eta nire pastilla ederrekin.

— Izan bedi Ala errukiorra! —esan zuen Kimek alai ukondoan sostengatuz—. Sinestezina da bai *babu* hau! Eta gizon hau bakarrik ibili zen, ibili baldin bazen, berak lapurretan egin zieten atzerritar amorratuekin!

— A, hura ez zen ezer izan, eman zidaten astinduaren ondoren; baina paperak galtzea, hori bai, serioa izango zen. Mahbubek ere astindu ninduen ia, eta hona etorri eta lamarekin aritu zen hitz egin eta hitz egin. Hemendik aurrera etnologi ikerketetan murgilduko naiz. Hala bada, agur Mister O'Hara. Lauak eta hogeita bostetako trena harrapatuko dut bizkor ibiltzen banaiz. Primeran pasako dugu Mr Lurganenean zure istorioa kontatzen. Txosten bat egingo dut hobeto zaudela esanez. Agur, lagun maitea, eta hurrengoan emozioen menpe zaudenean ez era-

bili hitz mahomatarrik tibetarrez jantzita zaude-
la.

Bi bider estutu zizkion eskuak Kimi, babua baitzen burutik oinetaraino, eta atea zabaldu zuen. Eguzkiaren argiak aurpegi oraindik arrakastatsua jo zionean, Daccako medizina saltzaile apala bihurtu zen berriz.

— «Lapurtu egin die», pentsatu zuen Kimek, berak jokaturiko parteaz ahaztuta. «Ziria sartu die. Bengaliarren eran esan dizkie gezurrak. *Chit* bat eman diote (gomendiozko gutuna). Bere bizitza arriskatuz barregarri utzi ditu... ni ez nintzateke tiroen ondoren sekula itzuliko... eta gero ikaratia dela esaten du... Eta ikaratia da. Mundura itzuli behar dut berriz ere.

Hasieran zangoak makurtu egiten zitzaizkion pipa kanoi txarrak balira bezala, eta eguzkiak argitutako lehen haize boladak itsutu egin zuen. Horma zuriaren ondoen eseri zen, *duli*-arekin egindako bidaiaren gertaerak buruan bueltaka zituela, Jamaren ahuleria, eta orain, hitz egiteko eragingarria desagertuta, baita berekiko errukia ere, ondoezik daudenek ohi duten bezala, erruz baitzeukan hartatik. Buruak, desanimaturik, kan-

poko guztitik alde egiten zion, lehiaketarako zaldi hezigabeak eskalaproiari ihes egiten dion bezala lehenengo aldiz sentitzen duenean. Nahikoa zen, guztiz nahikoa, *kilta*-ren kondarrak joanak izatea, bere eskuetan ez egotea. Lamarengan pentsatzen saiatu zen, zergatik erori ote zen errekan, baina munduaren handitasunak, barneko patioaren atetik ikusita, pentsamenduak kateatzeko ahalmena eragozten zion. Orduan zuhaitzetara eta zelai zabaletara begiratu zuen, aleen artean ezkutaturiko lastozko teilatuko txabolez zipriztinduta, begi arrotzez begiratu zuen gauzen tamaina, proportzioa eta zertarakoa neurtu ezin zuten begiez, eta halaxe eman zuen ordu erdi bat. Denbora guzti hartan sentitzen zuen, hitzetan adierazi ezin zuen arren, inguruko gauza guztietatik at zeukala arima, makinari lotu gabeko gurpil koskadun bat bezalakoa zela, bazterrean geldirik zegoen azukre kanaberaren xehazkailu merkearen gurpila bezalakoa. Hai-zeak abanikatu egiten zuen, loroek garrasi egiten zioten, atzeko etxe populutsuen zaratak — eztabaidak, aginduak eta errietak— hildako belarrietara heltzen zitzaizkion.

«Ni Kim naiz. Ni Kim naiz. Eta nor da Kim?». Behin eta berriz errepikatzen zuen hura Kimen arimak.

Ez zuen negarrik egin nahi —ez zuen bere bizitzan inoiz negar egiteko horren gogo gutxirik izan— baina bat-batean malko zoro batzuk jaitsi zitzaizkion sudurretik behera, eta ia entzun zitekeen klik batez bere izakiaren gurpila kanpoko munduari lotzen zitzaiola berriz sentitu zuen. Lehen pare-paretik zentzurik izan gabe pasatzen zitzaizkion gauzak beren tamainara bihurtu ziren. Kaleak ibitzeko ziren, bizitzeko etxeak, animaliak larrerako, zelaiak landatzeko eta gizonak eta emakumeak beraiekin hitz egiteko. Errealitate eta benetako ziren denak, gotorki ezarrita oinen gainean, guztiz ulerkorak, bere lokatzaren lokatza, ez gehiago ez gutxiago. Belarrian arkakusoa duen zakurrak bezala eragin zion buruari eta ataritik irten zuen. Andre sahibak, begi zelatariek mugimendu haren berri eman ziotenean, esan zuen: «Joan dadila. Nik egin dut neurea. Ama Lurrak egin behar du gainontzekoa. Gizon santua bere meditazioetatik

itzultzean, esaiozue hari ere mutikoa joan egin dela».

Gurdi huts bat zegoen muino batean handik kilometro erdira, atzean Bengalako pikondo bat zuela, gaztea oraindik; talaia, nolabait esateko, zelai goldatu berrien gainean; eta Kimi, haize gozoarekin, astuntzen hasi zitzaizkion betazalak hara hurbildu ahala. Lurra ona eta garbia zen; ez belar berria, hori, bizia bada ere, dagoeneko heriotzaren bidean baitago, aldiz, bizitza ororen haziak dauzkan lur itxaropentsua. Behatzen artean sentitu zuen, eskuekin zanpatu, eta pixkanaka-pixkanaka, gozamenez hasperen eginez, etzan egin zen luze-luze egurrez eutsitako gurdiaren itzaletan. Eta sahib andreak bezain leial jokatu zuen Ama Lurrak. Bere arnasa eman zion, horren luze bere korronte onetatik etendako ohatila batean etzanda egonik galdu zuen oreka berreskura zezan. Kimen burua indarge egon zen Ama Lurraren bularrean, eta esku zabalduak errenditu egin zitzaizkion haren indarrerara. Babesten zuen zain ugariko zuhaitzak, eta baita egur hil moztuak ere bazekiten zeren bila zebi-

len, Kimek berak ez jakin arren. Hantxe egon zen ordutan, loaren sakonean baino sakonago.

Iluntze aldera, bueltan zetozen abereen hautsak ortzi-muga osoa kez bete zuenean, lama eta Mahbub Ali etorri ziren, oinez biak, kontuz-kontuz, etxekoek esan baitzien nora joan zen Kim.

— Ala! Horixe da zorakeria horrela egotea haizetan! —murmurikatu zuen zaldi-tratulariak—. Ehun bider tirokatu ahal izan dute... baina hau ez da muga ordea.

— Eta —esan zuen lamak, askotan kontaturiko istorioa errepikatuz—, ez da inoiz horrelako *chela*-rik izan. Neurritzkoa, atsegina, zuhurra, izaera onekoa, alai beti bideetan, arduratsua beti, ikasia, ongi hezia, konplitu. Handia da saria!

— Ezagutzen dut mutila, esan dudan bezala.

— Eta ez al da bada horrelakoa?

— Gauza batzuetan bai... baina oraindik ez dut topatu inoiz gezurtia izan ez dadin Txano Gorrien aztikeriarik. Ondo zaindu dute noski.

— Sahib andreak urrezko bihotza dauka — esan zuen lamak serio—. Semea balu bezala zaindu du.

— Ummm! India erdia mutila zaintzeko prest dago nonbait. Ondo dagoela ziurtatu besterik ez nuen nahi, eta bere borondatez dagoela hemen. Dakizun bezala, adiskide zaharrak ginen biok elkarrekin egin zenuten erromesaldiaren lehen egunetan.

— Bion arteko lokarria dugu hori —lama eseri egin zen—. Erromesaldiaren bukaeran gaude.

— Zurea orde duela astebete erabat bukatzekotan egon omen zen. Entzun nuen andre sahibak esan zizuna ohatilara igo zintugunean — Mahbubek barre egin zuen, eta bizar tindatu berriari tiratu zion.

— Beste gauzez ari nintzen meditatzen orduko hartan. Daccako *hakim*-ak eten zizkidan meditazioak.

— Bestela —*pashto*-eraz esan zuen, ohitura onen izenean—, Infernuko lekurik itogarrienean bukatuko zenituen meditazioak... sinesgabea eta idolatra izateagatik, zure xalotasun eta guzti. Baina orain, Txano Gorri, zer egin behar dugu?

— Gaur gauean —hitzak mantso etorri ziren, arrakastaren dardararekin—, gaur gauean bertan ni bezain garbi geratuko da mutila bekatu arrasto oroz, ni bezain ziurtaturik, oraingo gorputza uzten duenean, Gauzen Gurpletik libratuko denaz. Zeinu bat daukat —bularreko mapa urratuan jarri zuen eskua—, laburra izango dela nire denbora alegia; baina babestu egingo dut urteetan barrena. Gogoan izan, Jakituria lortu dut, duela hiru gau bakarrik esan nizun bezala.

— Egia behar du izan, Tiraheko apaizak bere lehengusuaren emaztea lapurtu nuenean esan zuen bezala, *sufi*-a naizela; izan ere, hementxe bainago —esan zuen Mahbubek, berekiko—, esanezineko bekatu handienak entzuten eta erantzun gabe... Gogoan dut istorioa. Hala bada, mutila *Jannatu l'Adn*-era doa (Edeneko lorategia). Baina nola ordea? Hil egingo al duzu, edo ito, babuak atera zintudan ibai zoragarri horretan?

— Ni ez ninduten inongo ibaietatik atera —esan zuen lamak xalo-xalo—. Ahaztu egin zaizu gertatutakoa. Jakituriatz topatu nuen.

— A, bai. Egia —esan zuen totelka Mahbubek, alde batetik haserre eta bestetik miretsita—. Ahaztuta neukan gertatutakoaren haria. Jakinda topatu zenuen.

— Eta nik inori bizitza kenduko nionik esatea, hori ez da bekatua, erokeria hutsa da. Nire *chela*-k lagundu zidan Ibaira. Bekatuaz libre geratzeko eskubidea dauka... nirekin.

— Bai, garbitu beharra dauka. Baina gero, adiskide... gero zer?

— Zer axola dio horrek, Jainkoaren izenean? Nibbanez ziur dago... argia badu... nik bezala.

— Ondo esana. Beldur nintzen ez ote zen Mahomaren zaldira igoko eta ihes egin.

— Ez; aurrera egin behar du, irakasle bezala.

— Hara! Orain konturatzen naiz! Horixe da moxalarentzat bide zuzenena. Irakasle joan beharra dauka, noski. Bere premia dute nonbait, estatuko funtzionario bezala, esate baterako.

— Horretarakoxe prestatu zuten. Nik merituak eskuratu nituen, dirua eman nuelako berarentzat. Egitate onak ez dira hiltzen. Mutilak lagundu dit Bilakuntzan. Nik berriz berean lagundu diot. Zuzena da Gorpila, Iparreko zaldi-tratu-

lari hori. Izan dadila irakasle; izan dadila funtzionario... zer axola dio? Azkenean lortua izango du Askatasuna. Gainontzeko guztia lilura da.

— Zer axola dio horrek? Nirekin eduki behar dut eta Balkh baino harantzago sei hilabete barru! Hamar zaldi herren eta hiru gizon sendoekin etorri nintzen hona, *babu* oilo horri eskerak, atso baten etxetik mutila indarrean ateratzeko. Eta orain ezer egin gabe egon beharra daukat nonbait sahib gazte bat idolatren nor daki zer zeruetara eramaten duten artean, Txano Gorri bat dela medio. Eta Jokoaren jokalaria on samartzat naukate! Baina agure ero honek mutila maite du; eta nik ere ero zuhur baten gisa jardun beharko dut.

— Zer da otoitz hori? —esan zuen lamak, *pashto*-erazko esaldiak bizar zurian sakabana-tzen ziren artean.

— Ez dio ardurarik; baina ulertzen dut orain, Paradisua ziurtatuta, Gobernuaren zerbitzura sar litekeela mutila, eta lasaiago nago. Zaldietara joan beharra daukat. Iluntzen ari du. Ez esnatu. Ez dut entzun nahi nola dabilen mutila zuri maisu esaka.

— Dizipulua dut ordea. Zer esan lezake bestela?

— Esan dit hori. Horretaz ez zara haserretuko, zu, bekaturik gabe, garbitu berria eta ia itota gainera, gizon ona zarela esaten dizudalako... oso gizon ona. Hitz eginda gaude elkarrekin hiru edo lau bider, eta zaldi-tratularia besterik ez banaiz ere, gauza naiz hala ere, esan ohi den bezala, santutasuna zaldi baten hanken artean ikusteko. Bai, eta ikusten dut halaber nola hartu zizun hasieran eskua gure Mundu osoaren Adiskideak. Ondo tratatu, eta utziozu mundura irakasle bezala itzultzen, zera..., hankak garbitzen dizkiozunean, hori baldin bada moxalarentzako sendabide egokia.

— Zergatik ez duzu zuk zerorren Bidea egiten, eta hala, mutilari lagundu?

Seko harrituta utzi zuen Mahbub eskakizunaren lotsagabekeriak; mugaren bestaldean zartako bat baino gehiagoz erantzungo zion halako bati. Baina bere arima lurtarrak egoeraren alderdi xelebrea sumatu zuen.

— Mantso... mantso, pausoka-pausoka, Umballako errepidean zaldi herren zikiratuak

oztopoak gainditu zituen bezala. Joan naiteke geroago Paradisura... badut horrelako asmorik... aspirazio handiak.. eta zure sotiltasunari zor dizkiot gainera. Ez al duzu inoiz gezurrik esan?

— Zertarako?

— Alaren izenean, hara bestea! «Zertarako» zure mundu horretan! Ez al diozu inoiz gizon bati kalterik egin?

— Behin... arkatx-kutxa batekin... zuhurra izan baino lehen.

— Bai? Iritzi hobea dut orain zutaz. Zure erakutsiak onak dira. Nik ezagutzen dudan gizon bat aldendu egin duzu bortxakeriaren bidetik — barre algaraka hasi zen—. *Dacoity* (lapurreta, armekin) egiteko asmoz hona etorri zen gizon bat. Bai, jo, ostu, hil, eta nahi mena eramateko asmoz etorritakoa.

— A, zer nolako zorakeria!

— A! Eta baita lotsa handia ere. Horixe pentsatu zuen hark ere zu ikusitakoan... zu eta beste batzuk, gizon eta emakumezko. Hala, bertan behera utzi zuen dena; eta orain gizon *babu* lodi handi bat astintzera doa.

— Ez dut ulertzen.

— Alak ez dezala horrelakorik nahi! Gizon batzuk duten jakituriagatik dira indartsu, Txano Gorri. Zure indarra are indartsuagoa da. Gorde ezazu... gordeko duzu noski. Mutilak ez bazaitu ondo zerbitzatzan, tiraiozu belarrietatik.

Astrakanezko gerriko zabala estutuz, harrokeriaz balantzaka galdu zen ilunabarrean afganiarra, eta sorbalda zabal haiei begira geratzeko adina jaitsi zen lama bere hodeietatik.

— Gizon horri kortesia falta zaio, eta itxuren itzalek engainatuta daukate. Baina ondo mintzatu da nire *chela*-z, eta orain mutilak bere saria hartuko du. Egin dezadan otoi! Esnatu, emakumegatik jaiotako zoriontsuena zaren hori. Esnatu! Azaldu da!

Itzuli zen putzu sakonetatik Kim, eta lamak ahoa nahi adina zabal zezan utzi zion, izpiritu gaiztoak aldentzeko behatzak behar bezala kliskatuz.

— Ehun urtetako loa egin dut. Non...? Maisu, luze egon al zara hemen? Zure bila atera naiz, baina —barre egin zuen erdi lotan—, loak hartu nau. Ondo nago orain. Jan al duzu? Goazen etxera. Ez zaitut aspalditik zerbitzatu. Eta sahib

andreak ondo eman al dizu jaten? Nork garbitu dizkizu hankak? Eta ahuleria... sabela eta lepoa, eta belarrietako taupadak?

— Joana... dena joana. Ez al zenekien?

— Ez dakit ezer, urtetan ez zaitudala ikusi besterik ez. Zer jakin behar nuen?

— Bai harrigarria, berria zugana ez iritsi izana, nire pentsamendu guztiak zugana zuzenduak zeudenean.

— Aurpegia ezin dizut ikusi, baina ahotsa gong bat bezalakoa duzu. Gaztetu egin al zaitu bada sahib andreak bere sukaldearekin?

Hankak gurutzatuta zituen irudiari begiratu zion, limoi kolorea beltzaren kontra. Halaxe dago eserita Bodishat Lahoreko Museoko ardatzei goitik behera begira.

Isilik geratu zen lama. Arrosarioaren tintina, eta aldentzen ari ziren Mahbuben oinen urratsen *klop-klop* biguna izan ezik, Indiako arratseko isiltasun bigun, ketsuak bilduta zeuzkan biak.

— Entzun! Berriak dauzkat.

— Baina lehenbizi...

Esku horia luzatu egin zen isiltasuna aginduz. Kimek tunikaren ertz azpian sartu zituen zintzo-zintzo oinak.

— Entzun! Berriak dauzkat! Bukatu da Bilakuntza. Orain Saria dator... Horra nola. Mendien artean geundenean, zure indarraren kontura bizitu nintzen, adar gaztea makurtu eta ia-ia puskatu zen arte. Mendietatik etorri ginenean, kezkatuta nengoen zugatik eta bihotzean nituen beste arazo batzuegatik. Nire arimaren txalupari norabidea hautsi zitzaion; ezin nuen Gauzen Kausa ikusi. Hala, emakume bertutetsuaren eskuetan utzi zintudan oso-osorik. Ez nuen jatekorik hartzen. Ez nuen urik edaten. Hala ere ezin nuen Bidea ikusi. Jatekoa indarrean eman nahi zidaten, eta oihu egiten zuten nire ate itxiaren aurrean. Hala, zuhaitz baten azpiko zulora joan nintzen. Ez nuen jatekorik hartu. Ez nuen urik edan. Meditaziotan eserita eman nituen bi egun eta bi gau, nire gogoia isolatuz; arnasa hartu eta bota, behar den bezala... Bigarren gauean —hain izan da handia sacia-Arima zuhurra askatu egin zen Gorputz zorotik eta libre geratu. Hori ez

nuen sekula lortu, nahiz eta ateetan egon. Pent-
sa ezazu, zoragarria da eta!

— Zoragarria, bai. Bi egun eta bi gau jateko-
rik gabe! Baina non zen sahib andrea? —esan
zuen Kimek ahots apalez.

— Bai, arima libre joan zitzaidan, eta, arranoa
bezala igoaz, ikusi zuen ez dagoela ez Teshu
lamarik ez beste arimarik. Tanta uretara joaten
den bezala, halaxe joan zen nire Arima ere
gauza guztien atzean dagoen Arima Handira.
Une horretan, kontenplazioari esker goratuta,
India osoa ikusi nuen, itsas ondoko Ceylanetik
Mendietaraino, eta baita Such-zeneko nire Arro-
ka Margotuak ere; herri eta herrixka guztiak
ikusi nituen, txikienak ere bai, inoiz atsedean
hartu dugun lekuak; une berean eta leku berean
ikusi ditut denak, Arimaren baitan baitaude.
Hala, ikusi nuen Denbora eta Espazioaren lilura
gainditu zituela Arimak. Hala jakin nuen libre
nintzela. Ohatilan etzanda ikusi zintudan, eta
idolatrarekin mendian behera erortzen; une
berean, leku berean, nire Ariman, Arimak, esan
dizudan bezala, Arima Handia ukitu baitzuen.
Teshu lamaren gorputz zoroa ere ikusi nuen

etzanda, eta Daccako *hakim*-a aldamenean belaunikatuta, belarritik garrasika. Orduan nire Arima bakarrik geratu zen, eta ez nuen ezer ikusten, gauza guztiak bainintzen, Arima Handia iritsita. Eta meditatzen aritu nintzen milaka eta milaka urtez, batere grinarik gabe, Gauza guztien Kausak ondo ezagututa. Orduan ahots batek oihu egin zuen: «Zu hiltzen bazara zer gertatuko zaio mutilari?» eta zukanako errukiz bete nintzen; eta esan nuen: «Nire *chela*-rengana itzuliko naiz, bestela Bidea galduko du eta.» Orduan nire Arima, Teshu lamaren Arima dena, Arima Handiarengatik aldendu zen, kontatu ezineko neke, gonbitalarri eta sufrimenduz. Arrautza arrainetik bezala, arraina uretatik bezala, ura hodeietatik bezala, hodeia haizetatik bezala, halaxe atera zen, halaxe egin zuen jauzi, halaxe aldendu, halaxe banandu zen Teshu lamaren Arima Arima Handitik. Orduan ahots batek oihu egin zuen: «Ibaia! Ibaia gogoratu!» eta mundu osoari begiratu nion, lehenago ikusi bezala baitzegoen, bakarra denboran, bakarra espazioan, eta Geziaren Ibaia ikusi nuen oinetan. Ordu hartan nire Arima gaiztakeriaren batek edo bestek

oztopatzen zuen, eta hala ez nengoen erabat garbituta, eta besoetan neukan bekatu hura, eta gerri inguruan bihurrituta; baina alde batera jarri nuen, eta aurrera egin nuen arranoak bezala lbairantz hegan. Mundu bat bestearen atzetik apartatu nituen zuregatik. Ibaia ikusi nuen nire azpian, Geziaren Ibaia, eta, behera jaitsiz, urak inguratu egin ninduen; eta berriz ere Teshu lamaren gorputzean nengoen, baina bekatutik libre, eta Deccako *hakim*-ak burutik helduta neukan Ibaiko uren gainetik. Hemen dago! Mango zuhaiztiaren atzean dago, hemen, hementxe bertan!

— *Alla kerim!* Eskerrak babua gertu zegoen! Asko busti al zinen?

— Zer axola zitzaidan hori? Gogoan dut *hakim*-a Teshu lamaren gorputzarekin kezkatuta zegoela. Ur santuetatik atera zuen eskuetan hartuta, eta gero zure zaldi-saltzailea etorri zen Iparretik ohatila eta gizon batzuekin, gorputza ohatilan jarri eta sahib andrearen etxera eraman zuten.

— Zer esan zuen sahib andreak?

— Nire gorputz honetan ari nintzen medita-
zioan, eta ez nuen entzun. Hala bada, bukatu da
Bilakuntza. Eskuratu ditudan merituengatik,
hemen da Geziaren Ibaia. Nire Arimaren seme
zaren hori, zu bekatu orotatik libratzeko, itzula-
razi egin dut Arima Askatasunaren Ataritik...
libre bainago, eta bekatu gabe! Zuzena da
Gurpila! Ziurtatua dugu askatasuna! Zatoz!

Eskuak magalean gurutzatu eta irribarre egin
zuen, beretzat eta bere maitearentzat salbazioa
lortu duen gizonari dagokion bezala.